Loriaturik da egun Euskaltzaindia, Euskaldun iskribatzaile zaharrenetako baten goratarrezko jaialdi hau ikustean. Loriaturik, bereziki, goratarrean parte hartzera deitua izan delako. Bai. Eskerrak errendatu behar dizkitzugu zuri, alkate jaun horri, Leizarraga beskoiztarraren ohoretan festa eder hau muntatu eta beronetara deitu

gaituzulako. Larehun urte betetzen dira aurten Leizarragak euskerara itzulitako Testamentu Berria argitara eman zela. Urte muga hau ezin utz ziteken zerbait gogoangarri egin gabe.

Izan ere, euskal literaturaren kondairan Leizarraga erraldoi baktari baten antzera nabarmentzen zaigu. Gailen eta bakan. Asko aldetatik zordun gara euskaldunok Leizarragarekin, eta ez da hau une txarra zor hoiek aitortzeko, eta geure aldetik ere ordainez hari zerbait ohore bihurtzeko.

Bai. Leizarraga izandu zen euskal prosari hasiera eman ziona. Bide urratzaile dugu, beraz. Hastapen guztiak gaitzak izaten dira. Euskera, artean, prosa eta itzulpenetan sekula erabili edo usatu gabeko tresna zen, «sterila» berak dionez. Gidari bat, bide erakusle edo aitzindari bat ez duzunean, zerorrek egin behar duzu dena; behaztopak alde orotarik; bidea plaundu behar. Gainera, euskera den bezalako hizkuntza izanik, hain bakarra eta hain tipia, inguruneko hizkuntzekin ahaidetasunik gabekoa, korapiloak eta istiluak gainezka datozkitzu. Izigarriak izan ziren Leizarragak eta honen laguntzaileek burutu behar izan zituzten lanak, gaindu behar izan zituzten traba, neke eta behaztopak.

Eta hauxe da ni gehien harritzen nauena. Gaur haren obrak eskutan hartzen ditugunean, miretsirik gelditzen gara. Perfetasun maila handi batetara heldu bait zen. Ez. Leizarragaren obrak ez dira nolabaitekoak. Ez dira arinki eta gaingiroki eginak. Han ez da xehe-tasunik falta. Aitzin solasak, oharrak, aurkibideak, eskeintzak, Zuberoko herrian usantzatan ez diren hitzen taula, ta abar. Dena duzu txukun, dena ongi landua eta burutua. Erreginarenekin aginduz egindako lana zen, eta ez zen nolanahi egin behar. Jainkoaren hitzari, erreginari eta euskal herriari zerbitzu egin nahiz zebilen Leizarraga, eta obrak ere halakoxeak atera zitzaizkion: alde guztiz onduak, osoak, perfetasun harrigarri batez burutuak, umoak.

Ez naiz hemen hasiko Leizarragaren hizkera eta eskribatze moldeak ikertzen. Badira gaur hizlari jakintsuak, hortan harituko direnak. Gure artean dugu batez ere Lafon jauna, gure literatura zaharra zilatzen hain lan merezigarria egin duena. Jaun honen liburu gotorra «Le système du verbe basque au XVI^e siècle» Leizarraga ikertuz egin den lanik sakonena dugu, noski. Jaun hoien aitzinean isilik ego-tea, entzutea eta ikastea dagokigu guri.

Hala ere, hitzño bat bederen esango dut Leizarragak gaur guretzat duen balioaz.

Egun euskaldunak euskeraz eskribatzeko batasun baten bila gabiltza. Eskribatzeko molde berdina behar dugu, hizkuntza guztiek duten bezalaxe. Nola heldu, ordea, batasun hortara? Hortan dira kontuak. Euskera mintzatua tokitik tokira desberdin da, eta gizalditik gizaldira ere bai, guti asko behintzat. Eta eskribatzaile bakoitza, bere zuloan sarturik, bere xokoko erara eskribatzera jartzen bada, orduan, bistan da, batasun hori ez dugu sekula erdietsiko. Gero eta zatikatuago, elkarrengandik aldenduago eta urrunduago egonen gara. Hori gerta ez dedin, zer egin behar dugu? Euskalerrria batasun bat bezala hartu. Euskaldun guztiek, hangoek eta hemengoek, lokarri bat behar dugu: hizkuntza literario batua (edo batu antzekoa, behintzat). Bestela, zatikatuak, barreiatuak, bat bedera bere zuloan sartuak bagabiltza, euskera ez da izanen deusetako gai. Birrinduak, parzelatuak eta atomizatuak hilen gara. Gaitz hori ekarri dugu euskaldunek mendez mende, eta goizetik gauera erremediatzea ez da erraza izango.

Baina gogoa izatea zerbait da. Batasunaren gogoa, desira, nahi bizia indar handiz sortu da gaur euskaldunen bihotzetan.

Gogoa zerbait delarik, ez da aski, ordea. Xedea ere, helburua edo jo muga ere behar dugu, aztamuka eta itsu itsuan ibili nahi ez badugu. Eta hortarako euskerak izan dituen autorerik zaharrenak, euskal prosa trenpatu eta trebatu zutenak, balio apartekoa dute.

«Arkeologista» esanen du zenbaitek irriz eta trufaz. Baina nik halakoari bista laburretakoa dela esango nioke. Ez gara arkeologistak, ez. Baina antzinatasuna titulu bat da batasunaren etxea muntatzeko. Eta hori, besteak beste, arrazoi honegatik: iraganean hurbilago geunden euskaldunak elkarrengandik, orai gauden baino. Orainagoko denboretan, berriz, geroago eta elkarrengandik urruntzenago joan gara. Beraz, antzinatasuna elkarganatzeko bide bat da. Eta euskal eskribatzaile zahar hoien artean, Detxepare eta Leizarraga ditugu lehenbizikoak.

Gure aldeko Euskalerrrian gaur, batasun hori egin nahiz, euskeraren eskribatzaile zaharrei kasu egiten enseiatzen eta permatzen gara. Zuek ere beste hainbeste egiten baldin baduzue, urrats handi

bat egniik genuke, eta hori ez egiteko ez duzue arrazoirik, euskera-ren idazlerik zaharrenak zeuenak bait dituzute, zeuen etxeakoak.

Antzinatasuna, ordea, bera bakarrik, gaurkotasunetik apartatua, hori ere ez dugu behar. Gaurko arazoetarako behar dugun tresnak gaurko euskera bizian behar ditu sustraiak. Horregatik, Euskaltzaindiak batasunerako hautatu duen bideak bi harroin edo pilare hauek ditu: alde batetik antzinatasuna eta bestetik gaurko, egungo euskeran ere sustraiak izatea. Lur fermo hontan nahi dugu oina finka. Eta lan hontan Leizarraga bezalako idazleek berebiziko zerbitzua egiten digute.

Leizarragak badu oraindik, guri irakasteko, beste leziorik. Hark ez zuen euskera bere buruaren kontenplatzen euki nahi, bere xokoan sartua eta gordea. Europako kulturari ateak idiki zizkion. Zubi bat ezarri nahi zuen Okzidenteko kultura eta euskeraren artean. Zoritarrez jarraitzaile guti izan du. Euskera landu dugunok, gehienetan, euskera hertsia erabili nahi izan dugu, huts garbia, aratza, kanpotiar usainik gabea eta erdera kutsuren fitsik ez duena, baina purismu amorratu horrekin ez ote diogu euskerari mintzabide egoki bilakatzeko bideak hertsia? Ez dut nik esaten Leizarragak erabiltzen dituen erdal hitz guztiak onestekoak direnik. Baina puntu hontan naturaltasun osoz, bat ere konplejurik gabe jokatu zen. Europarrak gara euskaldunak ere, Okzidenteko kulturaren seme, eta inguruneko hizkuntzetan onarturik ikusten zituen kultur hitzak beldur gabe onartzen zituen, etxeko bihurtzeko asmoz. Eta hori egitean, behar genuen bidea ez ote zigin agertu?

Horra, bada, zer eta zenbat dugun Leizarragagandik ikasteko. Jarraibide bat agertu digu. Eta orain ere haren obrek sostengu, babes eta oinarri baliotsua eman dezaigukete.

Hitzerdi bat oraindik, bukatzeko, nahiz eta hizkuntzaz zer ikusirik ez duena den. Leizarraga kalbinista zen, hugonota. Baina giritino suharra, hala ere. Guztiok dakigu erlijio gerrek zer eta zenbat sarraski, hilkintza, ondamendi, negar, gorroto eta sumindura piztu zuten. Eta hori bat bedera bere konzientziari jarraikiz, eta Kristori leial egon nahiz zebilela. Zorionez, gerla eta etsaigoa hoién garaia ere sekulakotz gainditua dela uste dugu. Elkar errespetatzen eta bat bederak bere lagun hurkoaren konzientziari zor dion begiramendua izaten ikasi dugu. Eta nahiz katoliko nahiz protestante nahiz beste,

loriaturik gara gaur denok, anaitasunik ederrenean, Leizarragari goratzarre hau eskaintzen. Halaxe izan dedila gaurgero eta betikotz.

Eta berriz ere eskerrak bihurtzen dizkitzugu zuri, alkate jaun horri, jaialdi eder honen parada eman diguzulako.

Beskoitze, 4-7-1971

JOANES LEIZARRAGAREN GARAIA

Nere gaia

Nere gaiari eldu baino leen, argitasun bat edo beste eman bea-rean nago. Leizarragaren garaia aipatzean, ez dut aren mendea alde guztietarik artzeko asmorik. Ez dut aipatu nai ez orduko gerraterik ez beste olako borrokarik. Leizarragak egin zuen lanak berak era-kusten du argi aski nolako egoeran bizi izan zen, zer auzi ta gudukak zeuden egun aietan Euskalerrian bertan, bai erlisionearen aldetik, eta bai politikaren, erri-agintzaren aldetik. Ez dut eremu ortako tirabi-rarik ukituko. Laburragoak dira ene xedeak. Leizarragaren inguruko euskal-giroa edo euskal-literatura besterik ez dut argitu eta ikertu nai. Orra, leenbiziko argitasuna.

Eta ona bigarrena: Noiz asi ta noiz arteraiñokoa da Leizarra-garen garaia? Ezpaitugu xeetasunik geiegi aren bizitzeko mugez. Mila ta seireungarren urte inguruan il zela dirudi. Baina noiz dugu sor-rua? Aren sortzea noiz jar? Adin andira eldu omen zen. Beraz, ez ditugu konduak txit makur aterako 1530 garren urtean bizien ar-tean genuela esanez (Lafitte jaunak esango zigun bere i tzaldian 1506n sortua zela).

Ortxe jarriko ditugu, bada, lan onen mugak ere. Ortxe, 1530 garren urtean asi eta 1600 garrena arteko urteetan murgilduko gara, ea euskal-literaturaren zeruan izarrik sortzen den, ea euskal-alorrak zer fruitu ematen duen, ea Leizarragaren aitzinetik eta ondoren nor ta nolako idazleak agertzen zaizkigun; labur esateko, nolako euskal-giroz eta idazle lagunez inguraturik ikusten dugun Berazkoizko seme argia.

Leizarraga ez dago bakarrik

Nere lanaren mugak onela jarririk, lot nakion gaiari. Eta, leenik, esan dezadan Leizarraga ez dagoela bere garaiko euskal-literaturan lagunik gabe. Ez da bere aldiko euskal-idazle bakarra. Ez leena ere.

Munduan barna dabilta Unamuno euskaldun erdal-idazlearen liburuak, eta oietan irakur dezakegu, ez bein bai berritan, orain laurreun urteko *Testamentu Berria* dela euskal-liburuetan leen argitaratua. Egiaz, bere buru ain jakintsu egiten zuen gizonarentzat makur andiegia da ori.

Leizarragak berak ere bazekien, eta nolabait aitortu zuen, ez zela bera euskaraz idazten leena. Gure mintzaera ainbat puskatan zatitua aurkitu zuela dio; baita ere gutxi landua, baina ez batere landugabea. Ori esan nai zuen, noski, gure izkuntza «sterilenetarik eta diversenetarik» dela esan zunean. Baina irakur dezagun urrenko lerroetan dioena: «eta oraino, translationetan behintzat, usatugabea». Beraz itzul-lanetaz kanpo, ez zen euskara usatugabea; nolabait usatua zen. Leizarragak *Testamentu Berria* itzuli baiño leenagotik bazen euskarazko libururik eta euskal-idazlerik.

Berak ez digu inoren izenik eman, baina oker andirik gabe esan dezakegu Etxepareren liburua ezagutzen zuela. Ez du izenez aipatu. Bear bada, bein erlisione berrira iragan zenez geroztik, Eiharalarreko erretoraren liburua ez zuen bere gogarakoa. Ez da arritzekoa. Ebangelio utsetik bizi nai zuenak ez zezakean onartu Etxeparek egin zuen liburuaren mamirik ez muinik. Baina liburu ori dena euskaraz sortua ta egina zen; ez zen «translationea», ez zen beste inongo izkuntzetarik itzulia. Agian, bada, liburu ori zuen gogoan Leizarragak arestian aipatu itzak idatzi zituenean. Eta ez ote zuen Etxeparek Beraskoizko semea euskalzaletu? Ez ote zuen Eiharalarrekoak Leizarraga bere irrintzinaren jarraitzaile egin?

Nola nai den, Leizarragaren garaia ikertzean, Etxepareren izena ez dezakegu atera gabe utzi.

Etxepareren lana eta irrintzina

Etxepare du gure literatura urriak bere argi-astearen xori kantari, bere udaberriaren berri-emaille. Eta ezin egokiago datorkigu gizon au bere lanarekin Leizarragaren garaiko berri emateko.

Nik ez dakit apez euskaldun onen irrintzina Euskalerriko bazter guzietaraino eldu zen ala ez; baina bai orduan asi zela Euskalerrri osoan kezka berri ta berdintsua zabaltzen. Etxepareren oiuari Euskalerrri osoak erantzun, iardetsi ziola dirudi. Eta ez balinbada ere izan kezka berri eta oldar berri orren sortzailea, esan genezake beintzat bera izan zela suztatzaille, bera izan zela guzien kezkak bildu eta mamitu zituen, bere oiur jakina aurtiki zuenean: «Heuskara, ialgi adi plazara; Heuskara, ialgi adi kanpora; Heuskara, habil mundu guzira».

Au dugu Etxepareren irrintzina, oiur ezaguna. Eta geroztik, gure erria oiur orri erantzun bearrean dabilala dirudi. Geroztik, beti ditugu euskaldunen batzu Etxepareren dantza ortan sartu nairik. Euskaldunak bakarrik ez; arrotzak ere bai. Dantza onen gidari, dantza orren profeta edo ots-emaile, Etxepare zaarra dugu.

Batzuk auresku, beste batzuk atzesku, batzuk euskaraz, besteak erdaraz, laster atera ziren gutxi batzu bederen euskararen dantza ortara, eta geroztik dantzak ez du etenik izan gure egunetara arte. Badabiltza or ainbat euskaldun kezka jatorrez, kezka garbi eta lege oneko, beren euskalduntasuna ukatu nai ez dutelarik, euskara landu eta kultur-izkuntza egin arte ezinegonez.

Or dabiltza beste zenbait euskaldun, erdara josten dutela, baina euskara goretsi eta ezagutarazi bearrez, beintzat. Ola, gure berbizkundera delakoaren alderdi biak, argia eta illuna, or daude. Batzuen eta besteen profeta azaltzen zaigu Etxepare:

«Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia,
ezi huien lengoajia izanen da floria.

Printze eta jaun handiek orok haren galdia:

Eskribatuz hal balute ikhasteko desira.

Oraidano egon bahiz inprimatu gaberik,
hi engoitik ebiliren mundu guzietarik.»

Emen dira, bai, arrotzak berak, gure dantzan sarturik, euskararen inguru minguru, jakin-naiak ekarririk, gure izkuntzaren ezurmamiak azter bearrez.

Guzietarik bada gure egunetan, eta guzietarik bazen Leizarra-garen garaian. Guk aski dugu emen garai artakoen berri ematea.

Euskararen asikinak, leen frutuak

As gaitezen Etxepareren berriekin, gutxi bat bederen. Ez du geiagoren bearrik, ain baita ezaguna. Gure leen idazlea dugu, edo, beintzat, euskara inprentara eraman zuen leena. Berak ere bazekien. Liburuari ezarri zion liburuan ongi erakutsi zuen: «Euskararen asikinak, leen frutuak» ematen zizkigun (*Linguae Vasconum Primitiae*). Arrotasuntxo ori barkagarri du. Esan dezagun, gainera, kritikorik zuzenen iritziz, ahalkeizunik gabe, lotsaririk gabe, ager dezakeala gureak burua beste edozein izkuntzetan dituzten leen-liburuen aintzinean.

Baina, egungo au Leizarragaren omenaldia dugunez geroz, aipa dezadan ere, Beraskoizko semeak eta Eiharalarreko erretoarak, biek zer baitetan elkarrekin duten antza eta bien jokabide berdintsua. Euskal-alfabetatzearen aintzindari izan dira. Etxeparek onelaxe adiarazten du bere jokabidea: «Zeren orai zuk (onela esaten dio Lehete jaunari), Iaun noble eta naturazkoa bezala baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuskara; zuri, neure iaun eta iabia bezala, igortzen derauritzut heuskarazko kopla batzu, ene inorantziaren araura eginak, inprimierazi ditzatzun, eta zure eskutik orok dugun ioia ederra, inprimaturik heuskara, oraino izan eztena; eta zure hatse honetik dadin augmenta, kontinua eta publika mundu guzietara, eta baskoek bertzek bezala duten bere lengoajian skribuz doktrina, eta plazer egiteko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraiteko materia, eta jinen direnek gero duten kausa oboro haren abantzatzeko».

Etxepareren xedeak argi daude or. Leenbiziko irakurgaia eskaintzen die euskaldunei gogoak argitu ta eskolatu ditzaten, zer ikasi, zertaz mintzatu, zer kantatu ta nola astia eman izan dezaten.

Leizarraga, ordea, ez da bertsolari, eta ez du kantarik egin ez bertsorik ondu. Ontan kalvinistek beste lekutan erabili zuten baino bide ertsiagoa artu du, Luterok baino are askoz ertsiagoa. Baina, crtaz bestalde, Etxepareren bidetik ez dabila urrun: aren kezka berdintsua du. Bere ABC deritzan liburuan onelaxe dio: «Berze nazione guziek, zeinek bere lengoajea bezala, heuskaldunak ere berean duentzat zertan irakurtzen ikas ahal dezan, eta nola Jainkoa ezagutu eta zerbitzatu bear duen, nezesario estimatu dut ABC haur bere ins-

trunkzionerekin Heuskaraz iar ledin. Eta, hunelakotzat, Jainkoak egin drautan graziaren araura, haren laudoriotan enplegatu izan naiz».

Orra idazle bi oien kezka berdintsua: euskaldunak zer irakurri izan bearra du, eta ortako biek lagundu nai dute.

Erdaldunak euskal-dantzan

Besterik gabe, goazen Etxeparek sortu duen edo ikusi duen euskararen inguruko dantza ikustera:

«Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara».

Eta, leenbizi, or ditugu atzerrietako dantzariak:

Lengoajetan ohi intzan

estimatze gutitan;

orai aldiz hik behar duk

ohoria orotan.

Baskoak orok preziatzen

heuskara ez iakin arren;

orok ikusiren dute

orai heuskara zer den.

Dantza au Leizarragaren egunetan asia dugu. Bai latinez, bai beste erdaratan atzerrietako idazletan euskararen berri on emailerik bada.

Or dugu Marineo Ziziliarra. Latinez, eta Gaztelako erdaraz ere bai, liburu askoren egilea da, Etxepareren eta Leizarragaren egunetan. An or ibili denean, euskaldunik kausitu du nonbait, eta eiei galdatuz egin eta bildurik, or utzi zituen, bere liburuetan sarturik, euskal-iztegi labur bat eta zenbait aditz-forma. Bizkai-aldeko euskararenak dira.

Bizpairur urte geroxeago, or non datorren Gaspar Gómez, Gaztelako idazlea, euskal-kanta batekin, Perutxorena deritzan kantarekin. Orduko euskaldunek non-nai erakusten zuten beren jatorria. Aien erdal gaiztoa erdalerrri askok ezagutzen zuen eta ez ditugu gutxitan erdal-liburuetan aldaturik ikusten. Eta noiz edo bein ematen digute euskal-esaera eta kanta ederrik ere. Zordun gaude erdal-idazle orrekin Perutxoren au bildu eta gorde zigulako. Or ikusten dugu, leenbiziko aldiz, gure kanta zaarren asteko leloa;

Lelo lirelo zarai leroba!
Iaz zoegia nintzan,
aurten eroa.
Esso amorari
gaxo naizala,
nepaz natzala,
datorkedala.
Lelo lirelo zarai leroba!

Beste bat zorko diogu Lope de Vega idazle ain ugariari. Au ere Leizarragaren egunetako dogu, berrogei bat urtez. Berak idatzi zuen komedia batean bertso auk aurkitzen ditugu:

Zure begi ederrok,
ene laztana,
katibaturik naue
librea nintzana.

Erri-kanta baten puska, noski, au ere, egungo egunetan nonbaiten entzun dena. Arabako erri batean bildu zuen Azkuek, Aramaionako Olaetan, Lope de Vegak eman zuenetik oso gutxi aldaturik, *Baltzerana nazan arren* izeneko kantuan. Lope de Vegak, noski, Araba-aldeko euskaldunen bati entzun eta artu zion, Gaspar Gomezek Perutxorena bezala.

Garai bereko Prantziako literaturan ere bada olako euskal-pusketarik. Ezagunena Rabelais idazlearen liburu ospe andikoan dugu: Pantagrueli Panurgok esan itzak dira, beste izkuntza askotan esaten dizkion bezala. Izkuntzalariei buruausterik aski emanak dira. Rabelaisek ez du esan nongo izkuntzatan esanak diren; izkuntzalari erreago batzu oartu ziren euskaraz zeudela.

Printze eta izkuntzalarien dantza

Aitzina doa euskararen ingurko dantza. «Printze eta iaun andiek orok haren galdia». Etxepareren esan au ere ez zen gezur gertatu aipatzen dugun garai artan.

Karlos, Alemaniako eta Espainiako errege andia, lekuko. Euskaldunetz inguraturik bizi zen, bai lege-gizonez eta bai beste moroez, eta ez da mirestekoa euskara poxi bat ikasi bazuen. Bi aldiz,

gutxienez, ikusten dugu euskaraz mintzatzen, bein Nafarroako mandazai batekin, beste bein Sorabillako erri-jaunekin.

Arrotzak euskal-dantzara etorte ontan, or daude izkuntzalariak. Iru izendatuko ditugu, Leizarragaren egunetakoak irurak: Nikolas Landuchio, Smet edo Vulcanius delakoa, eta Escaligero; italiarra, Belgikakoa, eta frantsesa.

Landuchio dugu leenbiziko euskal-iztegiaren egillea. Euskaraz titulu auxhe du: «*Bocabularioa, ezquereaz jaquiteco, eta ezquereaz verba eguiteco. Mila ta bosteun da irurogueta vi urtean*. Oraintsu Agud eta Mitxelena jaunek argitara emana da.

Landuchio orren iztegian erdarazko itzak daude alde batean, eta bestean euskarazko ordainak. Geien batean, Bizkai-arabako kut-sua dute nabarien. Landuchiok, bidez aurkitzen zituen euskaldunei galde eginez apurka apurka egin zuela dirudi. Baita ere badirudi askok errezegi ematen ziotela erantzune galde-egileari, eta bat batean erdal-itza ematen. Orregatik erderakadez beterik dago, baina ez itz jator eta jakingarririk gabe. Euskaraz duen tituluaren azpian, Leizarragaren gogarako itzak dakazki: latinezko *Soli Deo honor et gloria* euskarara onela itzulirik: *Jaungoikoai honra eta gozoa, ez besteri*.

Josef Scaliger delakoak izan zuen ar-emanik euskaldunekin eta eder iritzi zion gure izkuntzari. Garai bereko Aita Marianaren itz batzu ez baziren ere izan euskaldunen bearrientzat atsegingarri, Scaliger onenak oso bestelakoak ditugu. Ona emen, Etxeberrri Sarakoak euskarara itzuli zituen bezala: Euskarak «eztu barbarotasunik, ez ortz-karraskarik, ez eta ere ahogangazkorik; da hagitz emea, leguna eta ezia; eta dudarik gabe hagitz zaharra, eta Erromarrak baino lehen parte hetan zebilana».

Smet edo *Vulcanius* delakoaren izena euskaraz *arotza* esan genezake. Bere *Parergon* delakoan, Jornandes-en liburuari ezarri zion eraskinean, euskararen berri eman nai izan zuen. Eta, ain zuzen, Leizarragaren aipamen beroa irakurtzen dugu bertan. Bere gaztetan, Españiatik ibilia zen, bi Mendozatarren morroi eta zerbitzari. Gero, bere errialdara itzuli zenean, kalvinista egin zen. Argi ta garbi dio euskara literaturarako gai dela, eta kultur-izkuntza bilaka daitekeala, Belgikako izkuntzaren einean. Eta gure izkuntza onen eredu zenbait eman nairik, iztegi laburtxo bat sartzen du bere liburuan, baita ere, Leizarragaren Testamentu Berritik arturik, *Gure Aita*, Jaunaren otoitza.

Leizarragaren azken-urteetan, (1597 gn) argitara zuen bere liburua. Eta Joana Albret, Nafarroako Erregina goraki aipatzen du eta kristau-agintarien eredu jarten, batez ere, Beraskoizko seme oni eragin zion Testamentu Berriaren itzulpenarengatik. Beraz, *Smet* onen izena eta Leizarragarena ezin egokiago daude gaurko omenaldi ontan batera.

Euskaldunen dantza

Betor orain euskaldunen dantzari-taldea Etxepareren dantzara. Bi taldetan banatu bearko ditugu: euskaraz idatzi zutenen taldea eta erderaz idatzi zutenena: «Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara».

Dantzarako deia euskaldunentzat zen, leenik. Baina batzuk erdarara jo zuten euskeraren alde egiteko, edo ta euskararen ontasun batzu argitan jarrazteko. Jokabide au artzen dute Bizkaian eta Gipuzkoaldean Garibaik, Pozak, Madariagak eta Ibarguenek, Leizagaren aldikoak baizik ez aipatzearren.

Garibai istoriari emana zen, eta artxibo zaarretan eta artxibo bizietan, erriaren esaera eta kantaetan istorigintzarako gaiak bilatzen oitua. Sekulako ona egin zion euskal-literaturari mende zaarretako kantak bilduz eta argitaratzeko gai utziz. Orrez gainera, esaera zaararak, atsoitzak ere bildu zituen. Orrelako bi bilduma dauzkagu. Arrasateko seme argi onek beste Mondragoeko eskribau batek bildu bertsoak esan bearra daduka: *Gutxiagati parkatu*. Geiago ez emana du bere pekatua. Ala ere esker onez artu bear diogu eman duen puskatxo.

Gutxiago balio du *Ibarguen-Cachopin* delakoaren emaitzak. Batez ere, barkatu bearko diogu zaararak zirelako kanta batzu berak ondu ta asmatu zituelakotz. Esaterako, *Lelorena* zelako kantua. Ala ere, aldi artako euskararen lekuko bezala, ez dira auek ere osotara gutxi-estekoak.

Poza Orduñako semetzat dago. Orduñarra zen, beintzat, legez, sortu, bear bada, Flandes-aldetan sortua izan arren. Lege-gizona zen, eta Unibersitateetan ikasten emeretzi urte egiña. Gero, Donostian urte batzuez irakasle izana, eta Bizkaitarren lege-gizon bezala, Bilbon lan egiña. Euskalduna zuen andrea, Laudioko alaba, eta berak ere euskararen jabe zela erakusten du. Erdarazko liburua utzi zigun eus-

karari buruz: «De la Antigua Lengua, Poblaciones y comarcas de las Españas». Utzi dezagun alde batera Pozaren tesis delakoa; ar dezagun, ordea, ematen dizkigun argitasunetan erakusten duen euskara. Euskal-iztegi txikitxo bat osatzeko aina badu. Orregatik, ez diogu ukatu bearko lekutxo bat mende artako euskal-itzen biltzailean artean.

Eta, azkenez, Pedro *Madariaga*, Bizkaiko semea, gaztetarik Italian barna asko ikusi eta ikasia, eta gero Valenciaco Universitatean Kaligrafi-irakasle. Antxe a tera zuen, ain zuzen, bere *Honra de Escribanos*, ortografi-liburua, Leizarragak Testamentu Berria itzultzea bukatu zuen urte berean. Madariaga Etxeparerekin bat dator: «Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia». Euskalduntasuna ez du, ez, ukatu ez estali nai. Eta erdaldunek ere jakin zezaten euskararen berri, kapitulu bat sartzen du liburu ortan euskal-ortografiaz, «de la ortografía vizcaina», eta, bidenabar, euskarari buruz zenbait xee-tasun ematen. An ateraten dituen itz eta esaeretan argi ageri du Bizkaikoa, Arratiakoa dela bere euskara. Eta bertan egiten digun aitorpen batek arriturik uzten gaitu. Ezin du ikusi euskaldun erdalzalerik, edo euskaraz mintzatu nai ez denik, eta auxe dio: «Ni ez nauke nere euskaldunekin asarretu gabe, beren gutun eta ar-emanetan beren izkuntzaz baliatzen ez direnean; orrela askori sartzen die buruan ez ditekeala euskaraz ezer idatzi, izkuntza orretan liburuak ere idatziak direlarik».

Zer esan nai zuen azkenengo itz oiekin? Zeintzu ote dira Madariagaren aldiko euskal-liburu oiek?

Galdera onekin sartzen gara orain mintzaldi onen azkenean. Non dira Madariagaren eta Leizarragaren garaiko euskal-idazle eta euskal-liburuak? Galdera oni erantzuten, iardesten, saia gaitzen.

Aipatu dugu euskarazko leen-liburua, Etxeparerena. Berak eman digu aria mintzaldi ontako gaia nolabait orratu eta antolatzeko. Baiña Etxepareren lanaz gainera, zer besterik egin eta agertu zen garai artan?

Oraintzurarte iru libururen berri besterik ez genuen. Leizarragaren Testamentu Berria baino leenagotik, 1561n atera zen Iruñen Santxo de Elzo zenaren *Doctrina Christiana*, erdaraz eta euskaraz. Erdarazko titulua ezagutzen dugu eta ez zen nolanaiko liburua, andik ateratzen denez. Askok eskaintzen zuen: kristau-dotrina bakarrik

ez, janari egokia ematen zuen arimazaiantzat eta beste bizibide guztietakoentzat. Isastik eta Nikolas Antonio, bibliografo ospetsuak eman dizkigute aren xeetasunak. Orain ez dugu alerik ezagutzen.

Berdintsu gertatzen zaigu beste dotrina batekin: Betolaza-renarekin. Bilbon, Leizarragaren azken-urteetan argitaratua dugu, 1596gn urtean. Erdaraz eta Bizkai-aldeko euskaraz idatzia da, Kalahorrako apezpikuaren aginduz argitara emana. Apezpiku onek, Pedro Manso izenez, urrengo urte batean legea jarri zuen urtero atera bearko zirela olako dotrina-liburuak bere mende zeduzkan errietako euskaraz egiñak. Aipatu duguna besterik ez da eldu gure ezagutzara. Oraintsu artean ale bat bazen, eta onen kopiatarik ezagutzen dugu orain.

Urte berean, 1596n alegia, agertu zen Iruñean beste liburu bat, euskararentzat balio andiena duena. Erdaraz darama titulua: *Refranes y sentencias*. Baina euskarazko erran zuhurrez, esaera zaarrez osatua dago, euskarak erdarazko itzulpena duela aldamenean. Nor ote zen aren biltzailea? Garibai ez ote zen diote barzok. Gauza ziurrik ez dakigu. Baina liburu onenik ere ez zaigu alerik gelditzen. Alemaniako iri batean, Darmstadt-irian, zegoen ale bakarra azkenengo gerratean erre omen zen. Zorionez eta alabearrik, andik atera ziren kopiei esker ez dugu osoki galdu. Orraitio, Alemanian erre zen ori ere ez omen zegoen osorik. Oihenarte andiaren paperetan agertu dira oraintsu erran zuhur batzu, eta, Mitxelenaren iritziz, amaseigarren mendeko bilduma artan falta zirenak izatea baleiteke.

Eta au de emen sortzen den galdera: Ez ote dira orrelaxe beste libururen batzu ere galdu? Ez ote da egia Madariagak esana, alegia, aren denboran, Leizarragak Testamentu Berria atera baino leen beraz, ba zela euskal-libururik? Eta, ain zuzen, badirudi Madariagak ez zuela, esaterako, Etxepareren liburua ezagutu, aren egunetakoa izan arren. Besteren batzu dira, dirudienez, ark aipatu nai dituenak.

Goiko galdera orri baiezkkoa eman bearrean gaude!a uste dut. Beste libururik eta beste idazlerik ere izan genuela esan bearra dugu, noski baino noskiago.

Azken urte auetan agertu zaizkigu mende artako idazle geiago ere. Orrela dakigu beste lau idazleen zenbait berri, bi mugaz alde batetik, eta beste aldetik beste bi. Lau izen berri daduzkagu Leizarragaren lagunartean sartzeko. Laurak bertsogintzan aritu ziren.

Oihenartek emandakoen izenak aukeratu dira: Joanez Etxegarai eta Arnaut Logras. Etxegarai Donibane Garaziko semea omen zen, eta

Leizarraga Testamentu Berria euskararatzen ari zen aldi berean omen zebilan idazten. *Artzain Gorria* izeneko pastoralaren egilea omen da, eta beste liburu bat ere, bertso-bilduma bat ere utzi omen zuen, Etxepareren tankeran egin bertsoekin.

Logras ere apezgoan kargu andiak izana dugu eta Oihenartek ikusi omen zuen onen bertso-bilduma bat ere.

Oraintsu jakin dugu Nafarroako idazle baten izena ere: Amendux, euskal poematxo baten egilea beinik bein.

Eta berrikiago izan dugu Nafarroako ermitau baten euskal-poemen berri. Joanez Undiano du izena. Leizarragaren mendekoa da au ere, eta eus euskaraz eta erdara zidazle. Amaseigarren mendea bukatzerakoan, ba omen zedukan euskarazko olerki-mordo bat egiña. Eta bere testamentuen auxa aitortzen zuen: «Alaber, bertsorik anitz ondu du euskaraz, eta erdaraz ere bai zenbait, arimaren onerako gaietaz». Eta berriz gaude auen arrastorik bat ere gabe.

Zalgitzeko jaunaren poemen aztarnarik gabe gauden bezala. Eta onek ez ote du Leizarragaren garaiko idazleen artean aipatua merezi? Aren izena daraman atsotitz-bilduma eldu zaigu eta, Oihenarten iritzian, poetarik andiena genuen euskal-poeten artean:

*Halakotz, hik, Zalgiz, eskaldun Poeta,
burura behar duk erramu-boneta,
zeren, nola baihaiz Parnaso gainean
bederatzi abizpez maiteki bazia,
beiek erakatsiz hik, gur'adinean,
burutar'eman duk bertzek doi-basia.*

Ez dakigu noiz eman zen bertso-lanetan; nola nai ere, Leizarragaren garaian sortu eta azia da.

* * *

Eldu naiz azkenera. Etxepareren euskal-dantzara aterarik, emen ikusi ditugu erdal-idazleak euskarari beren agurrak egiten. Emen ikusi ditugu atzerrietako izkuntzalarien piko ta jauziak gure euskararen inguruan. Emen, gure erdal-idazleen atzeskua; emen gure idazle jatorragoen, euskal-idazleen aureskua.

Gogoan ar ditzagun guzien izenak: Etxepare, Elso, Etxegarai, Amendux, Logras, Garibai, Betolaza, Undiano, Zalgitzeko jauna. Ez

dezagun ahantzi guzoi sortzea eman zien gure Euskalerria, Euskal-erri osoa, orduan askoz zabalagoa eta euskarari atxikiagoa, eta bere esaera zuur eta kantekin euskal-dantza ortako dantzari gailen eta jatorrena. Guziak ekarri ditugu ona, emen, Leizarragaren omenez, bakoitzak bere ingurutxo dantza dezan. Guziek asi zuten euskal-literaturaren udaberria.

Eta orduan asi dantzak gaur arte iraun du, eta gaur ere aitzina doa. Orduan sortu giroak ez ote dirau, orain ere, gutxi gora beera? Orain ere bada atzerriko izkuntzalari euskarari tinki atxikia denik, gure izkuntza ikertu eta ikasi bearrez. Euskalerriak badu oraino erdal-idazlerik, euskararen alde bere luma zorrozten duenik; badu, eta au are pozgarriago da, euskal-idazle zintzo eta pizkorrik ere. Leizarragaren aldiko alderdi onak eta txarrak batera daduzkagu. Ez ote dugu urrats oberik eta aitzineragokorik emango?

Etxeparek bere amesetan euskarari opa zion udaberria ez zen egiaz izan berak nai zuen bezain loretsua. Baina oinarriak jarri zituen beintzat. Asiera, astapena eman zion udaberriari, berak aitortu zuenez, astapena aula izan bazan ere: *debile principium*.

Etxeparek eta beste lagunek, nola nai ere, egin zuten orduan al zutena. Guri, XX garren mendekoei, geiago eskatzen zaigu, eta geiago egin dezakegu. Ez gaitezke beti astapen auletan gelditi.

Egia billakatuko al da Etxepareren esana: *Astapen aul onek izan bera, ondorio ohea*. Ortara jo dezagun, ortara saia gaitezen guziok *asmoz eta jakitez*.

Lino AKESOLO

ZER DAKIGU LEIZARRAGAZ?

Lapurdiko Beskoitze herrian bazen Mendizelaia deitu larregain aberatsean etxe eder bat, Leizarraga erraiten zitzaiona. 1944-ean lehertu zen, orai haren lekuan ez baitira gelditzen harri-lauza nakar batzu baizik: bertzeak bide harristatzen baliatu dira.

Egoitza hortan, menderen mende, Liçarrague edo Lissarrague izeneko familia hainitz sortu dira, Eskual-herrian eta Eskual-herritik kanpo ere norbait izan diren gizon zonbait eman dituztenak.

Ezagunena naski Leizarragako Joanes, egun, 1971-ko uztailaren 4-ean goresten dugun eskualzale zaharra.

Barzelona-ko Protestanten Carta Circular delakoan Juan Mirena Olaizola jaunak dionaz, Joanes hori sortu zen 1506-an edo nunbait han. Eta zendu, hamazazpigarren mendeko lehen urtean.

Laurogoi eta hamabortz urteren bizi, bada zerbait.

Hain bizitze luzeko gizon batez iduri luke baginukeela zer nahi erraiteko. Zorigaitzez, orai arte bildu ahal izan diren hamaseigarren mendeko paperek ez daukute utzi Leizarragaz herri guti baizik.

Hasteko, ez dakigu haren arbasoen ez aita-amen izenik.

Ez dakigu zonbat urtetan bere burua apez-gai senditu zuen, ez eta nun zuten eskolatu.

Haren liburuetarik ezagun da bakarrik etxeko eskuararen gainerat, funski ikasi zituela latina, greka eta frantsesa. Españolari ere baditake ohartua zen, urruntxago ikusiko dugun bezala.

Jakes Bela famatuak bere Tablette-tan salatzen dauku Leizarraga Lapurdiko apez katoliko jakintsu eta kartsuenetarik izan zela. Haatik ez da nehun ageri zoin herritan izan zen bikario edo erreto, ez eta zonbat urtez.

Hain guti erran dezakegu noiz nola lerratu zen Protestanten sinestetarat.

Luthertiarren hatzik ez dugu hemen gaindi kausitzen mende hartako berrogoi lehen urtetan. Handik goiti ordean, bai, erlisione berriaren hedatzaileak ikusten dira ipar-Eskual-herriko jauregietan, apeztegitan eta burgesen etxetan ibilki; buruzagiak eta handi-mandiak nahi dituzte lehenik bildu, gero jende xheke aiseago jarraikiren zaiotelakoan.

Horrela biltzen dituzte beren saretara, berzeak bertze: Bidaxuneko Agarramont, Makeako Belzuntze, Meharineko jauna, Xuberoko Sponde, Belapeyre, Zalgiz, Bela familiak, baieta zonbait apez, gehienak Xubero-aldekoak.

Jaun horien guzien buru, Agarramont ahaltsu eta amorratua, Jeanne d'Albret erreginaren laguntzale kartsua.

Theodore de Bèze-k bere orroitzapenetan, nahiz ez duen izenik emaiten, aipatzen ditu zonbait ministro eskualdun Geneve-n eskolatu eta moldatuak: sort-herritik urrun atxikitzen bide zituzten ixtan

bat, bereziki erretor ohiak, Calvin-en erakospenez hazirik, gogobiho-tzak arras berri eta bero zakizkioten.

Ritter Paueko ixtoriotzale jaunak uste du Leizarragak ere, Eliza katolikoa utzi ondoan, Eskual-herritik lekuak hustu zituela norapait.

Bainan, nun ere kokatu baitzen, han berdin etsaiak aurkitu zituen: Testamentu berri-ko aintzin-solasean, Jeanne erreginari berak aitortzen zion preso eman zutela, eta orduan jasan penez orroitzean, buruko ilea lazten zitzaiola.

Nun, noiz, zer pairatu zuen, ez du salatu.

Ez guri galda ere nola atera zen delako presendegitik, ala etsaiek joaiterat utzirik, ala berak gisa bat edo bertze ihes eginik.

Badakigu halere 1563-an Lapurdin zagola. Urte hartako martxoaren 14-ean Paueko Sinodak (erran nahi baita Protestant buruzagien biltzarrak) hauxe zion hitzez hitz: «Lapurdin bizi den Leizarraga jaunari mezutuko zaio hunat etor dadin, Testamentu berriaren, otcitzen eta Katiximaren eskualarat itzultzeko; eta, nahi badu bere burua (ebanjelioari) osoki eman, bere eskualdean edo Baxenâbarren minixtro izaitera prestatzeko. Eliza-kontseilukoen gain izanen da haren mantenatzea, Erreginak nahi duen ber hura hunat etortzea.»

Leizarragak aitortu zuen, baizik-eta Biarnorat joan aintzin azpitik zaukaten gogo-arranguretan bizi zela, ez jakinez naski bide onari lotu zitzaion ala gaixtoari. Biarnon, itxuren arabera, bakea aurkitu zuen, alde hortarik.

Bizkitartean ez omen zen aise menturatu Testamentu berriaren itzultzerat. Huts egin beldurrez duda-mudan egin-eta, behin entseatu zen; bainan, laster etsiturik, lana utzi zuen bertze batek egin zezan.

Baziren alabainan hor gaindi protestant eskualdun idazlariak. Huna nundik dakigun hori. Begi atxikitzeko higenauten harat-hunateri, Espainiako erregeak ezarri zituen barrandariak ipar-eskual-herrietan. Barrandari horiek Madrillerat igortzen zituzten ikasi berriak. Heien gutuneri esker badakigu hedatzen zirela, eskuaraz, Luthertiarren liburuxka batzu. Damurik ez baitzaiku hetarik batto ere eskue-tarat erori!

Heien itzultzaileak, nor baziren ere, ez bide ziren on, handiagoko lan bati lotzeko.

Agarramunt, Belzuntze, Meharine jaunek eta zonbait adixkidek

Leizarraga hazkarki sustatu zuten, ez etsitzeko; eta berriz egundainokotan hartu zuen bere saila, jo eta ke zeramala.

Bi urteren buruko eginxea zuen.

1565-eko maiatzaren lehenean, Oloron-eko Sinodak erabaki zuen Leizarragak handik goiti eskuratuko zituela berrehun libera, ministro donadoek bezala, ez baitzen bera ere ezkondua. Eta izendatu zituzten lau minixtro eskualdun, haren lanaren begistatzeko eta behar orduan xuxentzeko.

Lauetarik biga segurik xuberotarrak ziren: Landetcheverry Undüreñekoa eta Tartas Sohütakoa. Etcheverry, «Petit basque» erraiten ziotena, kostatarra zen, Donibane Lohizunekoa. Laugarrena, Tardets, ez dakigu xuxen nungotarra zen, deituraz xuberotarra iduri lukelarik.

Lau so-egile horiek pagatuak izanen ziren lan horrentzat: eta lanak iraunen zioteno, ez zuten beren elizetan predikatzerik izanen igandetan baizik.

Ondoko irailaren 5-ean, Salbaterreko Sinodan, Etcheverry-k eman zuen Testamentu berriaren berri. Ala funtsez ala moldez lana hautuzkoa zaukan. Bilkurako minixtroek hitz eman zuten beraz haren ager-arazteko dirua.

Bizkitartean, eskuara toki orotan ez berdin izanez, bortz lagunek eskatu zuten lanaren arra-hunkitzea Eskualdun gehienek uleritzeko gisa. Biltzarrak on-hartu zuen eta erabaki begistatzaleak eta Leizarraga aintzina ordainduko zirela Elizaren dirutik.

1566-an eta ekainaren 5-ean Nay-eko Sinodan nasaiki aipatu zuten Leizarraga, baizik-eta Jainkoak dohainez bete zuela, eta grazia hoieri esker Jainkoaren ospea bere eskualdean aise aintzin-araz zezakela. Ikusi behar ere, ez zenetz Nafarroarat berdin igorriko. Xede horren gatik bagaude ea española ere ez zakienetz, nahiz orduan eskuara orai baino hedatuagoa zen Nafartarren artean.

Ondoko urtean, 1567-an, Leizarragak Pauen minixtro-gaien et-saminak pasatu zituen eta minixtro egin zuten, apirilaren 15-ean Bastidaratz izendatzen zutelarik.

Bastida (erdaraz La Bastide-Clairence), bere portu ttipiarekin, Baxenabarreko herri bat zen, frango ttarroa, kaskoin kofoin bat, nahiz (paper zaharrak lekuko) Eskualdun hainitz ere bazaukan.

Hiru minixtro protestant baziren hirixka hortan, zeren zen Lapurdiko muga-mugan eta bertzalde Bidaxuneko Agarramonten gerizapean.

Gainera, Beskoitzetik ez urrun, toki hauta zateken minixtro berriarentzat.

Bastidarrak jende maltsoak ziren. Izanik ere erlisioneaz bi artalde, elgar jasaiten zuten hisiarik gabe. Bainan ordu arte herriko eliza, katoliko xoilan eskuetan baitzen, Erreginarenean manuz erabaki zen handik aintzina izanzen zela bai katolikoene bai protestanteen zerbitzuko, tenoreak aldizkatuz.

Hortik sortu da fama Leizarragak berak egiten zituela Bastidako elizan bi zerbitzu: batto katolikoentzat meza emanez, bertzea protestanteentzat kultua segurtatuz. Bainan, Haristoy zenaren eleak eletei, ez da nehun deus holakoren frogarik.

Tardets izan baitzen bortsu urtez Bastidako lehen minixtro, haren lekua eman zioten artzain berriari. Bizkitartean denbora batez ez zen Bastidan iragan ager-itzalka baizik.

Roxelan bazuen aski lan, hantxe bere eskuarazko liburuak inprimatzen baitzizkaten Hautin baitan, eta hango nehork eskuararik ez jakin.

Liburuak erran dut eta ez Liburua. Ezen, Testamentu berriaz bertzalde ager-arazten baitzituen, datxizkola edo berex, bertze dotzena bat obra.

Horiek oro —mila plamaz goiti —agertu ziren urte berean, 1571-ean.

Paueko Sinodak orduan erabaki zuen Leizarraga alde bat jarriko zela Bastidan.

Handik bi urteren buruan, urriaren 13-an Sinodak itzuli ziozkan 50 eskudo, Hautin jaun inprimatzaleari aintzinatua. Bertzalde 335 libera-iguzki xahutu zituzten Roxelan, orotaratu heldu baita: orai-ko 10.600 libera berri, frantses dirutan.

1574-ean Paueko Sinodak igortzen diozka hiru mutiko, Tartas, Landetcheverry eta Tardets-en semeak (minixtro gai gisa dudarik gabe), Bastidan harekin eskuararen ikasteko. Bagaude ez ote zen izan eskual ikastoletan lehen-lehena!

Denbora berean Sinodak batzorde batzuen gain emaiten zuen Testamentu berriaren hedatzea: hedatzailek beren lanaz kondu emaitetokotan.

Ez da ondikotz nehun ageri nork zonbat saldu edo banakatu dituen, ez eta orotaratz zer keta izan den irarkolak aterarik.

Egia erran, bi jalgi-aldi edo edizioe izan direla uste dute liburu ale batzuetan hitz zenbait ez baitira bertzetan bezalakoak. Bainan nola jakin zenbanakoak izan ziren jalgi-aldi hoik?

1575-etik aintzina protestanten paperetan ez dugu Leizarragaz deus hain berezirik ikasten. Bastidan bizi zela, bai: artetan sinodetan agertu zela, ere bai; eta l'*Antique* eman ziotela izen-goitia.

De Thou famatuak Thumeri adixkidearekin egin zion bisita bat, gizon bikain bati bezala, eta ordainez minixtro zaharrak present eman zion bere Testamentu berria. Hori gertatu zen 1582-an.

Leizarraga 1598-an oraino mundu huntan zela frogatutako, bertze xehetasunik gabe. Bainan nun noiz nola hil zen, ezin erran, lekukotasun eskasez.

1602-tik harat segur gira ez zela Leizarragarik; haatik ez dakigu nundik atera duten 1601-ean zendu zela.

Dakiguna da, Bastidan erlisione berriak ez zuela biziki iraun: 1625-ean ez zen minixtrorik ere gelditzen.

Zer nahi den, Leizarragaren eskuarazko obra hor dugu, arbasoen mintzaire zaharraren lekuko. Jakintzunentzat ez da abantaila tipia, René Lafon jaunak erranen dautzuen bezala.

Berant bada berant, egun bederen denek eskerrak diozkagu bihotzaren erdi-erditik. Nik segurik bai...

P. LAFITTE.

Beskoitzen, 1971-eko uztailaren 4-ean

JOANES LEIZARRAGA, ITZULARIA ETA IDAZLEA

Guziek badakite eskuaraz idatzi eta argitaratu zen lehen liburua dela «*Linguae Vasconum Primitiae*», Bernard Dechepare erretor-olerkariak ontua. Egileak presuna bati bezala eskuarari erraiten zioen: «Heuskara, jalgi adi kanpora, plazara, mundura, mundu guzira!» Haren liburua ez zen jalgi, ez eta eskuara. Ale bakar bat heldu zaiku. Hogoietan sei urte eskuara oraino gorderik egon zen. Hogoietan

sei urtheren buruan, ez goizago, berriz agertu zen eskuara, hiru imprimatu libururen itxuran, Rochellan, Pierre Hautin Imprimizalea baithan. Izendatuak dire: «Jesus Krist gure jaunaren Testamentu Berria», «Kalendrera», «ABC, edo Kristinoen instrukzioea othoitz egiteko formarekin».

Julien Vinson'ek erraiten zuen ezagutzen zituela Leizarragaren obren hogoi eta sei ale. Hetarik bat Baionan, hiriko liburutegian, aurkitzen da. Hugo Schuchardt, eskualari handiak, Theodor Linschmann lankidetzat zuelarik, mende hunetako hastean berean, Leizarragaren obrak, fotografiatzeko egin-molde batez itxuratuak argitaratu ditu. Sartzean, Schuchardt'ek ezarri lan luze eta balios bat. Hala eskual-ixtudioak azkarki lagundu ditu.

Minza gaitezen lehenik liburu hetarik ttipienez. «Kalendrera»k ez daduzka hamasei horri-alde baizik. Titulu osoa da: «Kalendrera, Bazko noiz daten, ilhargi berriaren eta letra Dominikalaren ezagutzeko manerarekin». Ez dakigu Leizarragak osoki itzuli duenez ala xoilki holako liburutto bat imitatu.

ABC izendatu liburuak daduzka ehun eta hiruetan hogoi eta hamasei horri-alde. Pharte bat, partikulazki Katexismeak, khausitzen da ere «Testamentu Berria»n. Liburu hartan Leizarragak darabiltza *gizoner, guzier, dutener* formak, *gizonei, guziei, dutenei* formen lekhuak. Esplikarzen du bertzetan usaia hau. «Datiuo singularian' *ari* erraiten dena, Zuberoan eta aldirietan pluralean erraiten da *er*, eta bertzetan guzietan *ei*: hala nola batez mintzatzeraz erraiten da Heuskalerri guzian *gizonari, emazteari, haurrari*: eta anhitzez mintzatzeraz, Zuberoan eta aldirietan *gizoner, emaxter, haurrer*, eta bertzetan guk heuskarazko translatione hunetan [erran nahi baita Testamentu Berriaren itzultzean], usatu ukhan dugun bezala, *gizonei, emaztei, haurrei*, eta eta.» Liburu hau itzulia da. Bainan zein liburutarik, ez dakigu. Nehork ere ez du holako libururik hatxeman ahal izan. Badirudi egileak bildu dituela, heien itzultzeko, mota hainitzetako idatzi batzu.

Bainan Leizarragaren lan handiena da «Testamentu Berria»ren itzulzea. Zer itzuli du titulu hunen pean? Bible batzu, Frantzian protestanten artean usantzatan zirenak, eta ez xoilki bi Testamentuen, ala baxharrik berriaren frantseserako itzulzea, bainan bertze idatzi frantses batzu, hala nola Calvin'en Katixima, «Testamentu berriko materien erideiteko taula», «Testamentu berrian diraden

izen propi Hebraiko eta Greko batzuen deklarazionea», «Testamentu berriko hitz eta mintzatzeko manera difizil bakhointz batzu bere deklazionekin», Liburu hetan Testamentu berriaren frantseserako itzultzea berriz ikusia eta zuzendua izan zen Geneva'ko ministroek. Leizarragak itzuli du ere «Jesus Krist gure Jaunaren Ebanjelioko doktrina puraren araura bizitzeko desira duten Franzesek konsentimendu komun batez beren fedeaz egin duten konfesioean». Leizarragaren liburuaren hatsean erideiten dire, aintzin-solas gisa, hamar horri-alde, bortz eta erdi frantsesez, bortz eskuaraz, han eskaintzen baitio liburua, «Guzizko Andre noble Joanna Albrete Nafarroako Regina Bearnoko Andre gehien eta eta, denari, bere zerbitzari guzizko xipiak eta guzizko obedientak, Joannes Leizarraga Beraskoizkoak, Jesus Kristen grazia eta bakea desiratzen». Ene us-tez, ez da errez erraitea eskaintzazko letra hau lehenik frantsesez, ala eskuaraz, ala, kasik batbatean, bi mintzairez pensatu eta izkiriatu zenez.

Orai, liburu lodi hunetan zer ez-itzulia da? Doidoia bizpahiru horri-alde: «Heuskaldunei», justu letraren ondotik, eta, asko urrunago, «Zuberoako herrian usanzatan eztiraden hitz bakhointz batzu hango anzora itzuliak». Bigarren idatzi hau laphurtar-zuberoatar hiztegi ttipitto bat dugu. Horri-alde hek khontuzko dire eskuararen historiari dagokan bezanbatean. Erakusten dute alde batetik gramatikazale, bai eta ere filologo baten axola zuela, bertzetik izkiriatu nahi zuela Eskualdun guziek adigarri mintzaire batez. Lerro hauk irakurten ditugu «Heuskaldunen» tituluaren pean. «Heuskarazko hitzak, nola skribatzen, hala letra guziekin Latinen anzora pronuntitzen-ere dirade: eta u bokala, betheki, ou baliz bezala. Berzalde Testamentu berriaren heuskarazko translazione hunetan hitz bakhointz batzu letra xeheagoz tekstu artean ezarri izan dirade, ezagun den tzat hek tekstuan aditzen diraden hitzak izanagatik, eztiradela ordea tekstu gorputz berekoak, baina deklaragarri jarriak. [Leizarragak ez du hala egiten liburu sainduaren itzultzean baizik, zeren itzultzeko dena Jainkoaren hitz garbia baita.] Gainerakoaz den bezenbatean, batbederak daki heuskal herrian kasi etxe batetik berzera-ere mintzatzeko maneran zer diferenzia eta dibersitatea den: razoin hunegatik sensu egiazkotik aldaratu gabe, lengoajea den bezenbatean ahalik gehiena guziei adi erazitenari jarreiki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein lekhu jakineko lengoaje bereziri: eta bada-

kigu ezen denborarekin anhitz hitz eta mintzatzeko manera eriden dela obra hunetan berzela hobeki erran zatenik: halakoetan, gauza zeren den dakitenetarik bat-bedera orhoituren da, othoi, ezen hunelako gauzak, guziz lengoaje oraino usatu gabe batetan, ezin behingoaz halako perfekzionetan jar daitezkeela nola behar bailizateke. [Entzun duzue: «guziz lengoaje oraino usatu gabe batetan». Leizarragak ez du Dechepareren izena aiphatzen. Bizkitartean eskaintzazko letran erraiten du: «zenbatez nik skribatu dudana lengoaje mota baita sterilenetarik eta dibersenetarik, eta oraino, translazioetan behintzat, usatu gabea». Baina halarik ere ez du katoliko aphezaren izena aiphatzen, bertzela haragizko, bekhatuzko amodioa khantatu baitzuen.] Guziagatik ere mintzatzeko maneran anhitz arrastatu gabe Jainkoaren hitz purari jarreikiteko desira dutenek sporzu dugu eridenen dutela (suporturekin) zertzaz kontenta. Eta baldin speranza dugun bezala, oraindrano egin den hunetan heuskaldunak gozorik edo edifikazionerik hartzen badu, hunetan enplegatu izan diradenek bihotz harturen dute, oraindranik gogoere duten bezala, egin denaren berriz ikhusteko eta korrijitzeko. [Leizarragak hemen nahi du bere lankideez mintzatu.] Baieta, baldin Jaunak hala plazer badu, pasaje difizilenen deklaragarri anotizionen ezarteko. Jainkoak othoi, haren desohorateko den doktrina guzia ezagut erazirik eta konfunditurik, haren ohoretako dena bethi entreteniri eta abanza dezala Jesus Krist bere Seme gure Jaunaren izenean. Amen.»

Bigarren euskarazko liburua lehenaz, Decheparerenaz, bertzelakoa da lau ponduz. Lehenik, izkiribatua da hitz laxotan. Bigarrenekorik, itzulia da. Hirugarrenekorik, ez daduka erlijionezko gairik baizik; gehienetan Jainkoaren hitz garbia emaiten zaio irakurtzaleari. Laugarrenekorik, egileak izan zituen lau lankide, haren lanaren berriz ikhusteko eta korrijitzeko.

Xuxen erraiteko, Leizarragak zer irakurgai itzuli du? Baliatu da oroz gainetik frantseserako itzultzeaz, Pierre Robert, Olivetan izangoituak, Calvin'en ahaide eta adixkideak, egin baitzuen, eta hainitzetan berriz ikhusi eta korrijitua baitzen. Leizarraga eta, darik gabe, haren lankideak, jarraiki dire guzien gainetik itzulpen huni. Baina bertzalde grekozko ithurburuari, bai eta ere latinezko «Vulgata» deitzen denari arthoski behatu diote. Zein nahi mintzaitez, zein nahi herritan, liburu sainduetako irakurgaia itzulariak

borthizki ohi hersten zuten, «Jainkoaren hitz pura» behar adiarazi baitzuten. Hartako zerbait ez bada argi irakurgaia sainduan, ez da itzulzean argi. «Haur bai erranen dut, dio Leizarragak eskain-letran, ezen bethi orhoitik nola Jainkoaren manu espresa den haren hitzari deus edeki eztakion ez eratxeki: hala egin ahal dudana fidelki egin ukhan dudala.» Bertze irakurgaiak ez dire hainbertze hertsiki itzuliak.

Zein kondizionetan lan handi hau hasi eta urhendu zen? Pau'en bildu Bearnoko Sinodoaren ordenanzaz, mila bortz ehun eta hiruetan hogoi eta lauean, martxoaren hamalauean, Joanes Leizarraga Beraskoizkoa kargatu zen Testamentu berriaren eta bertze irakurgaien itzultzeaz. Orduan egoiten zen «Laphurdin»; paperek ez dute deus ere gehiago erraiten. Hari manatu zioten lana egin zezan Pau'en. Ministroa izendatu eta, mila bortz ehun eta hiruetan hogei eta zazpian, aphirilaren hamabortzean, igorri zen Labastide-Clairence'rat, Eskual Herriari hurbilerat. Hil arte han egon zen.

Bearnoko Sinodoaren manuz, lau lankide, lan eginaren bisitatzetaz eta konferitzetaz «behar izan zenean» kargatu ziren: Tartas, La Rive, Landetcheverry eta Tardets. Hetaryik bida bederen zubertarrak ziren: Sanz de Tartas Sarrikotapekoa, eta Pierre de Landetcheverry Ündüreñokoa. Ez dakigu nola lau lankideek beren saila egin zuten. Bainan dudarik batere gabe Leizarraga zen buruzagia.

Lan manatua, ez bazen ere errex, arthoski egin zen. Nahiz Leizarragaren sor mintzaire mota, Beskoitzekoa, zen nafarrazkoa, hautatu zuen eskual literaturazko mintzairearen zolatzat mintzaire bat, erraiteko maneran, bertzeen artekoa, laphurtarra. Arrazoinekin. Hala ideki zuen bidea errege bide agertu da.

Leizarraga idazle handi bat othe da? Adiarazi dituen gogoetak ez ditu berak asmatu. Bainan eriden du heien adiarazteko mota. Eta khontuzko gauza da hori. Eskual Herrian, bertze herri hanitzetan, agian ere guzietan, bezala, lehenik neurthitzetan kanpoko herri hainitzetan bezala, hitz laxotan izkiriatu zuten lehen idazleak itzulariak izan ziren. Hori errexki adigarri da. Itzultzen ari dena, bereziki Jainkoaren hitza itzuli nahi duena, ez zaio ahal bere fantasiari jarraiki. Itzultzea etserizio arras ona da, elhea aberasten eta malgutzen baitu. Itzulariak ez dire lehen aldian ongi heldu. Leizarragaren izkiria-mota maiz dorpea da. Bainan orhoit gaitezen Dechepereren liburuko aintzin solasa, hitz laxotan izkiriatura, zein luze

eta pizua den. Ez da barritzeko. Eskuararen egitura erdararenaz guziz bertzelakoa da. Bertzalde Leizarragak mailegatu ditu sobera erdarazko hitz: hala nola *mestedostal* hitzaz. Zertako ez *sebi buru* edo *mutbil nausi*? Leizarragak eta, dudarik gabe, haren lankideek, ezagutzen zituzten osoki eskuara eta haren jalgibideak. Bazakiten, partikulazki, eskuarazko berboa zein aberatsa den. Oroz gainetik Leizarragak, haren lankideek lagundurik, erabili duen mintzaire berak moldatu du, eta mintzaire hau, Grezia zaharrean *koine* deitzen zutenaren antzora, modelatzen Eskualdun guziei eman diote. Zola laphurtarra da; bainan zenbait nafatar erran-molde, bai eta ere zuberotar daduzka. Bertzalde, Leizarragaren liburuetan markatua da hainitz hitzetan seinale batez bertzeak baino azkarkiago erraiten den hitzaren partea. Orai irakur dezagun Pierre Lafitte kalonje gure Eskualtzainkideak bere gramatika orotan aiphatuan, duela hogoi eta zortzi urthe, zer izkiriatu duen. «Jakiara ez jakiara idazle berriek, hiruetan hogoi urthez geroztik, nahiz heien gramatika-moldurako kadrea kasik osoki laphurtarra zen, barnerat sar-arazi dituzte nafatar hainitz ekhai, bai eta ere zuberotar hatz.» Hala sorthu da literaturazko mintzaire bat Eskualdun guziek, bederen leihorrezko Eskual Herrian, elgarreki ahal erabilten dutena eta nafatar-berri edo hobeki nafar-laphurtarra deitzen duguna.»

Orai, hitz hoietan Luis Michelena gure Eskualtzainkideak erraiten dauku zein lerrotan Eskual-idazleen artean ezarri behar dugun. «Leizarragaren entseguak ez zituen holako ondoreak izan literaturazko eskuararen fink ezarriteko ahaliko izanen baitzituen, liburu sailduen itzulpenak hainbertze herritan izan dituen bezala. Santsitu zen entsegu hori erlijione protestantaren hedatzea herrian hondatzen zelarik. Nahiz Leizarragak egin itzulpenetik dudarik gabe lekhu hainitz athera izan ziren, baitakigu geroztikako idazle batzuek ezagutu zituztela (Pouvreau aphez katolikoa asko baliatu zen «Testamentu Berria»z bere hiztegiaren egitera), sinheste makurrak zirelaketz, ez zuten batere eskurik ahal izan geroztikako literaturaren gainean. Ondoko mendean aberaski lilitzen zirelarik idazle katolikoak, Leizarragak ezarri mintzaire motak lekhu utzi zioen bertze bati, ez baitzen hain hertsiki usantza zaharrari jarraikiten, eta jende guziek aditzen ahal baitute. Bertzalde mintzaire hau lekhu koloreak gehiago tindatzen zuen: Sarako eta Donibane-Lohitzuneko laphurtarra.»

Aspaldiko mendeek zirauteño, eskuara ilhunpean nekez doi-doia, dudarik gabe, bizi izan zen. Hamaseigarren mendean, bi Eskualdun khartsuk erakutsi eta phorogatu nahi izan zuten eskuara, bertze mintzaireak bezala, «eskribatzeko hon» zela, lehenik neurthitzetan, geroz hitz laxotan. Ez elgarrekin, ez batean. Bi partetan, bi erditan argitaratu zen phorogua. Nehor ere ez zen bi erdien bateratzea atrebitu. Nehor ere ez zen Dechepareren ez Leizarragaren izenen aiphatzera ausartu. Nehork ere ez bataren ez bertzearen ikaslea, jarrailea guti edo aski zela aithortu nahi zuen. Apheza bekhatuzko amodioaren khantaria izan zen; ministroa, egiazko erlijionea ukhatu eta, haren etsaia bilhakatua zen. Aphez katolikoaren eta ministro protestantaren obrak gaitzeru pean ezarriak ziren. Bainan ez zuten lur harrizu gainean erein. Egungo egunean, Jainkoari eskerrak, gogoetak eta bihotzak khanbiatuak dire. Haizu gare bien izenen gorestera. Eta erran dezakegu ez kinukeela Joanes Etcheberri'rik ez Axularr'ik ez balire izan Dechepare eta Leizarraga.

René LAFON'ek.

ARAMAIOKO HITZALDIAK

ARAMAIOKO BATZARRE AGERIAN EUSKALTZAINBURUAK EGINDAKO HITZALDIA

Jaun-Andreak:

Arabán du gaurko batzarrea Euskaltzaindiak. Euskalerriko alderdi guztiak ikuskatu eta bisitatu ohi ditu gure Akademiak, eta gaur Arabari tokatzen zaio txanda. Bai. Euskalerriaren zati ezin utzizkoa dugu Araba. Gure idazle zaharrek Euskalerriko alderdi guztiak bana banaka izendatzen dituztenean, han dator beti Araba eta Arabako euskeraren aipamena. Bai Axularrek eta bai Oihe-nartek ere Araba eta Arabako euskera gogoratu digute.

Hegoaldeko eskualdea dugu Araba. Hori dela ta, latina eta latinaren kume diren erderak goizago sartu ziren bertan. Hala ere,

bere euskaltasunaren marka ugariak —harrigarriak, bihotz ukigarriak, nik esango nuke— utzi dizkigu Arabak. Erraietan tinkaturik dauzka Arabak euskal marka hoiek.

Gure euskal idazleetan zertzelada eta xehetasun asko dago Arabako euskerari buruz: bai Kardaberaz, bai Añibarro, Larramendigan ta abar. Aita Bernardo Recio-k XVIII. mendean euskeraz ikasi eta Arabako zenbait herrixkatan (Aspuru-n ta abar) mixioak eman zituela esaten digu. Elgea-n euskera isildu dela ez dira berrogei ta amar urte izango. Juan Mateo de Zavalak joan den mendean Luyando eta inguruetan mixioak euskeraz ematen zituela badakigu. Landazuri-k ere berri jakingarri asko utzi digu Arabako euskerari buruz.

San Millan-go herri izendegiari eskerrak dakigu nola deitzen ziren Arabako herriak orain dela mila urte eta lehenago: Hagurahin, Dulanci, Narbaiza ta abar. Izen zerrenda hortatik argibide asko atera dezakegu Arabako euskera antzinate hartan nolakoa zen jakiteko. Izen hoetatik batzuk gero aldatu egin dira, beste batzuk berdin xamar edo aldaketa gutirekin gaur arte heldu dira. Landucci-ren hiztegiak ere Arabako euskeraren hitzak eta berriak ematen dizkigu.

Toki izenetan, berriz, aparteko joritasuna du Arabak, eta bertan egiten den erderan ere euskal jatorrizko hitzak erruz aurkitzen dira. Hitz hoetatik asko eta asko jasoak daude Baraibar y Zumarraga eta López de Guereñu jaunen lanetan, eta seguru asko badira oraindik hamaikatxo jasogabeak.

Euskal idazleak —nahiz olerkari, nahiz teatrogile nahiz pro-sistak— eman dizkio Arabak ama euskerari, bai joandako mendeetan eta bai gure egunetan ere. Juan Bautista Gamiz, L. Latierro, Barrutia, Ulibarri Galindez, Jauregi karmeldarra, Olabide jesuita, ta abar.

Ez. Euskera ez da arrotza Araban. Bere berea, etxekoa du Arabak gure mintzaira. Gaur ere euskaltzaletasunean arabarrak ez dira azkenengoak. Badakigu arabar asko saiatzen dela euskera ikasten.

* * *

Baina Euskaltzaindiak, gaur Arabara etorri denean, ez du topo egin behinolako oroigarri batzuekin edo euskal ondakin hil batzuekin. Ez ditu hemen hezur iharrak aurkitu. Ez. Aramaioko bailara

hontan euskera bizi bizirik dago. Zutik, bizkor eta zoli irauten du gure mintzairak Arabako txoko honetan. Bejondeizuela. Euskaltzaindiak bere aitorra, bere eskerrona agertu nahi dio gaur Araban euskaltasunaren testigurik finena den alderdi honi.

Eta guztiei —guraso, apaiz, agintari, maisu, gazte, ume, gizon nahiz emakume— guztiei eskatu nahi die, arren, gure herriaren ondasun hau, gure izatearen arima, lokarri eta odola bezala den euskera hau ez dezatela galtzera utzi. Araban orain arte pizturik mantendu duzuen argizuzia ez dezazutela itzaltzera utzi.

Badugu gaur euskaldunok arrisku bat, tentazio gogor bat: aurrerapenaren izenean, zibilizazio berri eta orokarraren aitzakiaz, gure mintzaira arbuiaitzeko tentazioa. Engainu ikaragarri bat litzake. Herri guztiek bere nortasuna, bere izakera eta kultura berezia gordetzen duten bitartean, eta era hortara, eta ez bestela, herri guztien arteko anaiatasunari eta benetazko kulturari eta zibilizazioari laguntzen dioten bitartean, guk kontrara jokatzea. Euskalerriak bere nortasuna ukatu eta bere izateari traizio egingo balio, gizarteko zibilizazio eta kulturari mesede ez, baina kalte egingo lioke. Ez da hizkuntza bakarrik. Hizkuntzarekin batean loturik dijoaz izpirituaren ondasun, dohain eta berebiziko balioak. Eta hoiek alferrik galtzeko ez dugu eskubiderik.

Eskerronezko hitz bat, azkenik, Aramaioko alkate jaunari, Euskaltzaindikoei egin digun harrera on eta eman dizkigun erraztasunakgatik. Berari eta Araban kargudun direnei eskari erregu bat: izan dezatela kezka eta ardura Aramaioko ondasun berezia den euskera gure gizaldi honetan gal ez dedin, orain arte gorde den bezala, orain eta gero ere iraun dezan. Landare berrietan, ume eta gazteetan ez dedilla eten, ez dedilla moztu euskaltasunaren lokarria. Gure zabarkeriaz galduko balitz, errudun gertatuko bait ginake munduaren eta kondairaren aurrean.

L. VILLASANTE

Aramaion, irailaren 5ean, 1971.

A R A M A I O N A ' K O

- *Euskeraren berezitasunak,*
- *Euskal idazleak, eta*
- *Euskeraren egoera eta etorrera.*

Euskaltzaindiaren Batzar Agirirako,
 Uribarren'dar Patxi'k gertatutako itzaldia.
 (1971'ko Irailaren 5'tean)

ITZ-AURREKOAK:

Zeregin astuna esku artean artu dotena. Ezin ba amabost minutuan arlo hau, bear dan eran sakondu. Itzaldi honetan ba, barri batzuk aitatu baino ezin izango dot egin.

Lantxo hau zati bitan bananduta daukazu errezago ta obeto aitu daizun. Honeik dituzu zati bi horreik:

1'goan... Aramaio'ko berezi-izatea eta euskal-idazleak aitatuko ditut.

2'garrenean: Aramaio'ko euskeraren gaurko egoera eta biarko etorrera.

Beste barik, ba, zuon danon baimenagaz, lanari ekingo dausat.

* * *

ARAMAIONA, ARABAKO ERRIALDE BEREZI BAT

Gaur egunetan Aramaionako errialde hau Arabako muga barruetan agiri jaku. Araba dala esan behar, naiz da antxina beste batera izan. Laureun urte honeitan Aramaiona Arabako zati dogu. Eta izan bere, zati berezi-berezi bat. Aramaiona, Araba barruan izan arren, bestelango erri bat legeaz agertzen jaku. Eta euki bere modu askotako ezbardin izateak daukaz. Hona hemen batzuk:

- a) Kondaira aldetik Aramaiona Arabatik guztiz baztartuta agiri jaku XV'garren gizaldirarte. Gizaldi horretan lotu zan, berak gura-ta, Arabari, bake-billa edo Gipuzkoa-Bizkaiko erriburuketatik igez egitearren. Ordutik hona Araba barruan bizi izan arren, bizitza bakar bat eroan dau. Arabaganako lokarri horreik

meheak izan dira eta hori dalata, Gipuzkoara begira egon jaku urte askotan, apur bat baztartuta edo. Kondaira aldetik errial-di berezi agertzen jaku ba.

- b) Giro ta bizimodu aldeari begiratura be, beste ainbeste ikusten dogu. Araba-aldia lautara eta beroa dogun bitartean, Aramaio-na mendiz inguratuta eta ipar-itxaso giropean dago. Bilarletik aruntz Mediterráneo giroa eta andik onuntz Kantaurikoa. Hori dala-ta, landa, bedar, eta zugatzez beteta, orlegi agertzen jaku gure errialde hau, Araba geiena legor dagoan bitartean. Honek eta Gipuzkoarako urterak zer-ikusi aundia izango dabe gure erriaren bizitzan.

Au da: Aramaiotarrok, Araba barruan izan arren, beti apartekotzat euki dogu geure burua. Hemen «Arabara joan» esaten dogu, arabarrak ez bagina lez. Ori dala-ta, edo, Arabako erriak euren euskera galdu arren, Aramaiotarrok geurean jarraitu dogu. Bilarle'ko mendi tontorrek gelditu dabe euskera-ren atzerakada hori.

- c) Beste ezbardintza bat be badaukagu. Aramaiona'ko legeak eta Arabakoak ez bardinak ditugu. Araban antxinatik Kastilako legeak izan dira nagusi. Aramaiona'n ez. Emen, gaur egunez bere, Bizkai'ko foruak euren indarra daukee. Honek, bear bada, antxina Aramaiona Bizkaiari lotuta egon zala gogoratzen dausku. Berbetan bere, beste ainbeste ikusiko dogu.
- d) Azkenez gogoratu daigun Errialde honen ezbardintasunik sokena: Euskera. Araba erdelduta gero bere, Aramaiona'k euskaldun jarraitzen dau. Honetan bere, bestelango errialde bat dogu ba. Euskera horrek, berealaxe ikusiko ditugun legez, bere aparteko alderdi ezbardin batzuk bere baditu.

ARAMAIONA'KO EUSKERAREN BEREZITASUN BATZUK

Sarritan entzun dogu Aramaiona'ko gure berbetea euskaldi berezi bat dala ta olango batzuk. Nik ez neuke oraingoz olangorik esango, bertako euskerak apartekotasun batzuk euki arren.

Azaletik begiratura, Aramaio'ko berbetea ta Bizkaikoa antzerakoak dira, eta ala ta guztiz bere, ezin esan bat-bat-diranik. Hemen-

go euskera gaurkoz sakondu barik dagoanez, ezin dogu azken itzik esan. Jarri daigun ba Bizkaiko euskera bertakoaren oinarri lez. Eta behin hori holan gogoratu daiguzan bertako berbeteak dituan ez-bardintasun batzuk. Hona hemen batzuk:

- 1 ... Aditz-jokoan laburtze gogor batzuk ikusi daikeguz. Hone-tara: esantso, entzunsku, ekarrikost, ekarriskun, ekarritson, ekarri biesku... esan dautso, entzun dausku, ekarriko daust, ekarri euskun, ekarri eutson, ekarri bear dausku... esan be-harrean.
- 2 ... Aditz jokoak «gaurkoaren» eskema darabil «atzokoan» bere. Hau da: Zerbait-zer-nori-nork; ez dogu entzungo ba emen «ekarri neutzun», «zeustan»... «ekarri eutzuten», «eusta-zun» eta abar baino.
- 3 ... Bai «gaurkoan» bai «Atzokoan» aditz jokoak «asko» adie-razteko Gipuzkoako jokoa artzen dau. Esate baterako: ekarri dot-ditut; ekarri neban-nituan...
- 4 ... «t» izkia ez da buztiten; au dala-ta beti «t» gogorra entzun-go dozu eta ez «d» bustia. Esate baterako, eutzuten eta ez eutzudan, artu dotena eta ez dodana...
- 5 ... «j» beti gogor esaten da emen eta ifioiz ez «i». Au da: Jauna eta ez «iauna»... «Jan» eta ez «Ian», «jantzi» eta ez «ian-tzi»...
- 6 ... Bizkaiko erara amaitzen ditugu itzak bakarrik darabilguza-nean. Au dala-ta, «xe» «ie» amaituko ditugu itzak: idixa, beixe, aundixe... aite, ormie...
- 7 ... Bokalak zabaltzera egiten dogu, batez be aditzetan. Onetara esango dogu: «dautsat» eta ez «deutsot»; «daukat» eta ez «deuket»; «Aundia» eta ez «andia», «gutxitan» eta ez «gi-txitan»...
- 8 ... Asko erabilten dogu, batez bere baserritarrek, «ika» aditz jokoa eta beti arnas-gogorraz: Eroan joat, jok, joagu... ji-tuk, jituek... joan ninsoan, gintsezan, eta abar...
- 9 ... Amaiera bereziren bat aurkitzen dogu emengo berbetan: «Betik» eta ez «beti»...

Amaitzeko, auxe esan daikegu: Oraindiño gai honetaz lan sa-
konik egin barik dagoanez, ezin dogula eretxirik segurutzat emon.

Dana dala, agirian Bizkaiko aditz-jokoa darabilgu aramaiotarrak, eta itz eta doñu-arloan gipuzkoaruntz joten dogu. Onegaitik edo Gipuzkoarrak bizkaitartzat artzen gaitue, eta bizkaitarrak gipuzkoartzat.

ARAMAIONA'KO EUSKAL-IDAZLARIAK

Aramaiona'ko errialde eta euskeraren berezitasun batzuk gogoratu ditugu. Orain bertako idazle batzuk aitatzera noatzue. Euskera arloan asko saiatu diranez bear-bearrezkoa dogu gaur heurak hemen aitatzeta. Lelengo maila baten bi idazle jarriko ditut eta gero ostantzekoak aitatu baino ez. Ekin daiogun ba arloari.

Lelengo mailan gizon ospetsu bi agiri jakuz ba. Bat, antxina-koa, euskal literatura kondairan zaharrenetaikoa; bestea gaurkoagoa. Gizon bi honeik Pedro Ignazio Barrutia eta Gabriel Jauregi ditugu. Biak, eskuz-esku, alkarregaz aitatu daikeguz. Biak, bide urratzaile ditugu. Barrutia, antzerki sailean; Jauregi, teknika arloan. Heurendako ba-nire oroipenik ederrena eta Aramaionatarron eskerrikeria beroena.

Pedro Ignazio Barrutia eta Basagoitia (1682-1759)

Mondrago'ko eskribaua izan zan. Berari zor dautsogu antxinako antzerki labur bat: «Gabon gaberako ikuskisuna» edo «Acto para la Noche Buena».

Mondrago'n bizi izan arren, Barrutia aramaiotarra zan. Zalgo'ko semea. Azkue jaunari esker ezagutu eta eskuratu dogu antzerki zahar hori. Berak argitaratu eban lelengoz «Euskerazale» aldizkiaren 50 eta 51'garren aletan. Gero, Barrutiaren bizitzako barri batzuk batu eta, bai «Morfologia» liburuan, bai «Euskera» aldizkarian, argitaratu euskuzan. Baita gure idazle ospetsu horren antzerki zahar hori ainbat goratu bere. Geroagao, iru edo lau aldiz argitaratua izan da Barrutiaren antzerki hori. Aita Akesolo karmeldarrari eta Aresti jaunari eskerrak gaur egunean ezagunago dogu gure Barrutia. Idazle bi honeik, eretxi bardinekoak izan ezarren, biek goratzen dabe gure aramaiotar Barrutia'ren lan hori.

Ez daukat lan hori jorratzeko asmorik. Ezagutu eta irakurri gura dozuenok errez eskuratu zeinke bai «Euskera» aldizkarian, bai «Auspoa» liburu-xortan.

Gabriel Jauregi eta Uribarren (1892-1945)

Karmeldar honek aparteko txalo bat merezi dau. Berak idatzi zituan teknika arloko lelengo euskal liburu biak: «Fisia» eta «Kimia». Gai horretan jakitun zanez, oso ondo idatzita dagoz liburu bi horreik, eta gainera argazki askoz apainduta. «Aramaio» izenagaz lan asko argitaratu zituan «Karmengo Argia» aldizkari ospetsuan. Esate baterako: «Izarren gora-berak», «Azeriak zelan arrapatu», «Aramaio Araba ete da», «Argi-txakurrak zer ete dira» eta abar.

1930'garren urtean, 300 pesetako sari eder bat eskuratu eban, «Euskal-Esnalea» aldizkariak gertatutako sariketa nagusian. Elburu barregarri hau ezarri eutson bere lanari: «Anboto'ko doña Urraka'ren gonapean». Ikusten dogun legeez ez eban egundo aramaioitar kutsua erantzi.

Idazle hau zerbait baztartuta euki dogu askenengo urte honetan, euskaldunok. Bere «Fisia» eta «Kimia» liburuak zer-erakutsi asko daukee, batez bere eskola-liburuak euskeratzen gabilzan une honetan. Gaurko idazleok zer-ikasi asko daukagu idazle honetan. Gabriel Jauregi, Aramaio-ko idazlerik onena eta ugaritsuena dogu. Zoritzarrez, gure gizona gazte il jakun.

Beste idazle eta gizon ospetsu batzuk.

Aramaiona'n beste idazle eta euskerazale batzuk be euki ditugu. Ezin ba eurak bere aitatu barik itsi. Naiko ondo irabazia daukeek gaur hemen gogoratzea. Honexeik dituzu:

Rafael Eriz.—Bolinbu'ko semea eta abadea. 1906'tik 1921'arteko urteak hemen Aramaiona'n egin zituan: Etxan'en, Ibarra'n eta Gantza'n. Euskerazale amorratua zan. Frantziar mojak hona etorri ziranean umeei erderaz erakutsiaz, gogor ekin eutson ume horrein artean, heuren euskera galdu ez egien. Bere beste barri aundirik ez dakigu: Gantza'n euskeraz eskola emoten ebal, idatz lan batzuk bere idatzi zituala eta besterik ez.

Ramon Kutzeta.—Aramaiotarra izan ezarren, emen gogoratu gura izan dot. Politikari bat izan zan eta hemen Aramaiona'n, ekin eutson gizaldi honen lelengo urteetan, bai jai egunetan bai itzaldi beroak eginaz mitin-egunetan. Euskera utsean egiten eban berba gi-

zon erritar honek eta beti Aramaiona'ko errialde honen alde jokatuz. Bilbotar hau eskola bakoa zan eta erri berbetea erabili eban.

Goikoetxea.—Musikalari ospetsua bere gogoratu daigun, naiz da naiko ezaguna izan gure artean. Bera bere euskaldun zintzo bat dogu eta asko jaso ta zabaldu eban gure errialdearen izena.

Roman Jauregi.—Abadea bere, Goikorretako semea dogu. Gaur, larogi urte inguru daukaz. Berak bizkaieratu eban «Umeen laguna» liburua. Aldizkari batzuetan bere esku-artu eban «Euskal-Esnalean» esate baterako.

Jose Jauregi Uribarren.—Hau bere karmeldarra. Gabriel Jauregiren anaia. Etxan'en jaioa. Asko lagundu ei eutsan anaiari bere teknikazko liburu eder biak gertatzen. Naiz da bizitza osoa atzerri-tik egin, ainbat lantxo argitaratuak ditu «Karmengo Argia» «Euskadi», eta «Karmel» aldizkarietan. Iru izen erabilten ditu bere lanak izenpetzeko: Gotzon, Anjelo, Jauregi. Azkenengo urte honeitan lan eder bat gertatu dau: «Euskal-aditza». Lan honetan, aurrez-aurre jarten dauskuz Euskalerriko lau euskaldi nagusien aditz-jokoak. Oso lan interesgarria dogu euskaldiak euren artean dituen antzak eta ez-bardintzak begikada batean ikusteko. Ez dau argitaratu.

Beste batzuk:

Hor diardue jo ta ke zerbait egin gura edo: SABIN SALABERRI, abade musikalaria; FLORENZIO UNZUETA, abadea eta bere anai ANTONIO UNZUETA, Karmeldarra; PATXI URIBARRREN, Karmeldarra; FELIPE TOLOSA, abadea, eta beste banakaren batzuk. Olaeta aldeko, PEDRO PUJANA abadea, eta LEON ARANGUREN, Karmeldarra bere gogoratu daikeguz.

Ala ta guztiz bere, gure errialde honetan utsune bat ikusten dot. Orain arteko idazle guztiak, Barrutia izen ezik, abadeak edo praileak izan dira. Erriko gizonik ez jaku agiri. Ia hemetik aurrera erriko andra-gizon erritar batzuk be izaten ditugun. Horren behar aundia ikusten dot.

ARAMAIONA'KO EUSKERA GAUR, ETA BIARKO ETORRERA

Gure euskeraren berezitasun batzuk eta gure arteko euskal-idazle batzuk aitatu ditugu. Orain, lan honetako bigarren zati honetan gure euskeraren gaurko egoera eta biarko etorrera astertu gura

ditut. Izan bere, erriak atzoari begiratu, gaurko izateari gogor ebatu eta biarko etorrera gertatu bear dau, bizitza bat eukitekotan. Guk bere, beste ainbeste egin beharko dogu gure erriko euskerari indar barri bat emotekotan.

Gure erri hau oraingoz euskaldun dogu, naiz da bertako euskera egoera gatx baten aurkitu. Ez dira izan ba alperrezkoak gure aurrekoen aleginak. Ala ta guztiz bere, hemen bere, atzeraka asi jaku euskera. Arrisku aundi batean aurkitzen da. Zer dala-ta? Ikusi daigun:

- 1.º Ezer baino len, Aramaio'ko bizitza azkenengo urte oneetan, asko aldatu dala esan bear. Eta aldaketak beti dakarre heuren arriskua, onerako izan arren. Beste Euskalerriko bazter geienetan legez, baserri bizitza-ta atzeraka asi jakuz. Baserri txikiak ez dabe bertatik biziteko lain emoten eta beste bideren batzuk artu behar. Hau dala-ta, gaur egunean Aramaiotar erdiak baino geiagok lantegi lanetik atarutzen dabe jatekoa.

Honeek danok berez dakarre baserri bizitza makaltzea, bertako seme-alabak kanpora joatea, kale-bizitza indartzea. Baserri ta auzo bizitza berantza etorri jakuz, kale ta lantegi bizitza gorantza doazen era berean.

Ikusten dogun lez ba, baserriak gitxitzera doakuz, eta gaur, kale-inguruan bizi jakuz aramaiotar geienak. Errialdeak berak bere, askenengo urte honeik arte, utsitzera egin dausku. Orain hemengo etxegintza ugaritu danez, bertako semeak nun bizi erritik urten barik daukee. Etxe barri horreik ugaritzean dago, egon bere, gure erriaren etorrera. Lantegirik ez dagoanez, ugaritu daiguzan beintzat etxeak errialde hau gorantza ikusi daigun.

Bizitza aldatze honek ondorengo eder asko bere ekarri daukuz. Gaurko aramaiotarrak lengoak baino askozaz obeto bizi gara. Eskolatze bideetan bere aurrerakada aundiak izan ditugu azkenengo urte honeetan. Inguru osoan jakin-gura aundi bat sortu jaku, lantegietarako ondo gertatu beharrak zirikatuta edo. Bertako seme-alabak eskola mailetan goruntz asi jakuz. Geroago ta gizon jakintsu eta trebetsu geiago izango ditugu ba gure artean. Baina onek, bere arriskua bere da da-

kar gure euskerarentzat, sarri askotan gure neska-mutil horreik guztiz erderatuak izaten diralako.

Agiri jakun legez ba, gure erri hau aldatze bidetik aurrera doaku. Urte batzuk barru guztiz aldatuta agertuko jaku. Ori dala-ta aparteko ardura aundi bat artu beharko dogu, ostan-tzeko errietan legez euskera ta beste oitura zaharrak galdu ez daiguzan.

- 2.º Baina jo daigun arira. Azkenengo urte honeetan «Zeruko Ar-gia»n da, behar ez diran batzuk irakurri ditugu, hemen eus-kera betiko galdu dala-ta holango batzuk. Billera honek naiko ondo agertzen dau hori ez dala egi utsa.

Gaur egunean gure euskera, beste toki askotan legez, arrisku bizian agiri jaku, besterik ez. Beste edozein baztarreko arrisku ber-beretan. Ezin daikegu ba esan, ez euskera galdu danik ez indartsu dagoanik. Gure euskera atzeraka doala? Bai, eta... nun ez?

Hau holan, zelan dago gure euskera Aramaiona honetan? Hona hemen nire eritxia:

A) *Kalean* (izen honegaz hau «Ibarra» izendatzen dogu) Utsune aundi batzuk:

- 1) Lau urtetik beragoko umeak: Geienak, euskaldunen seme-alabak, badakie euskeraz, naiz da batzuk behar dan lain ez. Batzuk sortu berri dan ikastolara bialtzen ditue gura-soak. Erdeldunen seme-alabak ez dakie ezertxo bere. Ala ta guztiz bere ardura gutxi agertzen dabe guraso askok, euskera erakuste horrerik behar dauan garrantzirik emon ezaz.
- 2) 4'urtetik 7'rartekoak. Bertakoen seme-alaba geienak aitzen dabe euskeraz. Berba, gutxik eta etxean baino ez. Esko-lara asteen, guztiz baztartzen dabe euskera. Gurasoak be ardura gutxi agertzen dabe eta ume horreik euskera guz-tiz aztuteko arrizku gorrian daukaguz.
- 3) 7'urtetik 17'rartekoak, erdiak baino geiagok guztiz aztu dabe euskera. Beste askok aitu baino ez dabe egiten. Ba-nakaren batzuk bakarrik errestasunez berba.
- 4) 17'urtetik goragokoak, kanpotar utsak izan ezik geienak aitzen dabe euskera, naiz batzuk, neska-mutil gazteak eta andrazkoak, berba egiteko lain errestasun euki ez.

Zeozar agiri jaku ba garbi: 17'urtetik berakoen artean ez dogu ia euskerarik entzuten, eta 17'urtetik gorakoak geroago ta gitxiago egiten dabe. Andrazkoak, geienak, lendik itxita dauke euskeraz egitea. Agirian bentzat! Gizonak askenengo urte honeitan geroago ta gutxiago egiten dabe. Atzaraka goaz ba.

- B) *Baserri-auzoetakoak*, ostera, danak ditugu euskaldunak, naiz da heuren artean bere neskak eta andrak erderaruntz egin. Hori dala-ta oraindino euskera indartsu agiri jaku Aramaiona'n. Ea Aramaiotar erdiak inguru baserrietan bizi diranez oraindik gure euskera naiko indartsu dagoela hemengo lurraldeetan esan behar. 327 sendi buruen artean 28 erdeldun baino ez dagoz. Gainetikoak euskaldunak dira, eta honein artean erdiak inguru baserritarrak.

Baina hemen dago kakua. Hori holan izan arren geroago ta euskera gutxiago entzuten da emetik. Baserrietan dan-dana euskeraz, baina behin kalera inguratu ezker, ia gutzia erderaz. Batez ere berrogei urtetik beragokoen artean. Gazteak egia esan behar, azkenengo urte bi honetan onera egin dabe. Nagusiak eta umeak ez.

Zer esan? Atxakiak ugari, zaletasun gutxi, eta buru arin eta ezjakin asko. Badakigu telebizioak-eta, kalte aundia egiten dauskuela, oso-osoan erderazkoak diranez, baina ori ez da naurrizko atxakia. Inundiko laguntza aundirik bere ez dogu euki, egia esatekotan. Baina bai beste baztar askotan baino giro obea!

Aramaiona'ko euskerea ez da berez ilgo. Geuk ilgo dogu. Geu izango gara iltzaile eta errudun zeozar geiago honetan alegintzen ezbagara. Eta euskera itoaz batera geure erri au bere ilgo dogu. Geure nortasuna eta berezitasunak betiko itoko ditugu. Euskera galtzeaz batera, geure kultura aberastasunik ederrena bere galduko dogu.

Zer egin ba, gure euskeraren alde?

Bide askotatik jo daikegu aurreruntz. Zer egin asko bere ba-daukagu esku artean. Euskeraren etorrer aez dago jakitunen eskue-tan erriaren erantzunean baino. Aramaiotarrak gura badogu, ez da

inoz gure euskera maitea gure lurraldi honeetan galduko. Geuk daukagu ba azken berbea.

Hau holan dala, nundik nora jokatu daikegun edo zer egin leiteken esatera noatzue. Hona hemen nire ustez biderik onenak:

- 1 ... Euskeraz dakigun guztiok, batez bere gurasoak eta, beti euskeraz berba egin. Hau egin ezik ez dago ezer egiterik. Ostantzekoak ipinkiak jarteak baino ez ditugu izango.
- 2 ... Sortu barri dan ikastola indartu, umetxoak euskeraz ikasteko aukera euki dagien. Aramaiotar guztiok artu behar geunke ikastola horren ardura, al dogun neurrian lagunduaz.
- 3 ... Igaz gazte batzuen artean gabeko eskola bat asi eben. Eskola honeek ugaritu egin behar dira, eskolara ez dabilzan gazteak heuren euskera ikasteko edo errazteko bideak euki dagiezan.
- 4 ... Araban eskola batuak jarri daukuez. Hemetik aurrera ba, baserriko umeak eta kalekoak alakarregaz ibili beharko dabe. Horrek euskera baztartzeko arrisku aundia dakar. Behar-beharrezkoa dogu ba kaletar umei euskera erakustea. Hor-tarako Erriko arduradunak asteen iru aldiz edo, erderazko eskola ostean, euskera erakustea lortu behar leukee, Napparuko erri batzuetan egin daben antzera. Diputazioaren laguntzaz ez litzake ain zaila izango hau.

Eta hau, ez bakarrik hemen, Aramaiona'ko alderdi honetan. Baita Olaetako alderdian bere. Hango umeak bere eskolara batura dabiltz orain, eta arrisku bardinean dabe euskera. Beharrezkoa dogu ba honetan gurasoak eta Erriko arduradunak alkatu eta zerbait egitea, gure alegin guztiak utsean gelditu ez daitezan.

- 5 ... Beste zerbait bere lortu beharrean gagoz. Baserriko umetxoak, nik entzun dotanez, ez daukee bost urte arte kaleko eskolara jasteko erarik. Beste umeak autobusetan jasten dituen bitartean heurak etxean gelditu behar. Ondo eta beharrezkoa da Erriko agintariak honetan bere aleginak egitea ume horreik besterik ez bada, ikastolara jasteko.

Ume horrentzako mesede aundia litzake eta alegin aundi barik lortu leitekena.

- 6 ... Erriko Agintariak heuren babespean artu behar leukee gure euskera era guztietara indartzea. Orain urte batzuk dirala Arabako alkateak hemen, Aramaiona'n, batu ziranean, gogor egin eben gure euskeraren alde. Arabako euskaldun erri bakarra dala eta ezelan bere ez galtzeko eskatu euskuen. Eta Diputazioko agintariak heuren laguntza eskeini bere bai. Laguntza hori eskuratzeko unea dogu. Nik uste dot, gaur emengo agintariak Euskaltzandikoekaz alkar artuta dei bat egin behar dautsezuela bai Diputaziokoei bai Arabako Dirukutxakoei, kulturaren alde lanean dabilzen ezkerro, gure euskera heuren ardurapean artu eta aurrera ataratzeko behar diranak egin dagiezan. Izan bere Araba osoarentzat lotsagarria litzake hemen euskera galtzea. Eta, behar bada, orain gogor ekiten ez badautsagu gero beranduegi izango dogu.

Azkenez, eskerrik beroenak Erriko Agintariei, bai ikastolarako tokia emon dabelako, bai jai eder hau egiten alegindu diralako. Bai, jaunak, nun lan egin asko daukazue eta gogor ekingo dautsazuela uste dot.

Eskerrak baita Euskaltzandikoei. Izan daigula zuen etorrera hau gure euskerari aurrerakada bat emoteko.

Eskerrak, azkenez, billera eder hau gertatzen saiatu diranai, batez bere txistulari, dantzari, andereno ta arduredunei. Baita bere, Arabako Diputazioari bere diru-laguntzagaitik.

Eta zuoi, Aramaiotar guztioi dei eta deadar gogor bat. Geure eskuetan dago gure euskeraren etorrera. Geuk gura badogu betik iraungo dau euskereak Aramaionan. Geu arduratzen ez bagara, kanpotik ardura ta laguntza asko artu arren, alperrezkoak izango ditugu.

IDATZARAUAK

IDATZARAUETAZKO BATZORDEAK PRESTATU DUEN II. TXOSTENA

Loturik ala bereiz

idatzi behar diren hitz, aurrizki eta atzizkiak

(Txostenaren II. Atala)

Badira, aurreko atalean aztertutakoez gainera, beste hiru partikula axolarik handienetakoak, bai maiztasunagatik eta bai esaldian betetzen duten zereginagatik ere. Hona hemen zein diren: 1 *Ez*, ezetza adierazteko hitza. 2 *Bait*, aditz aurreko aurrizkia. 3 *Ba*, baldintza eta baietza adierazteko aurrizkia. Partikula hauen erabilkeran batasuna ez da beti gorde. Horregatik, gaiaren axola ikusiz, eta hauzi hau xehekiago eta astiroago aztertu nahiz, hiru partikula hauekin Atal berezi hau osatu nahi izan du Batzordeak.

1

«Ez», ezetza adierazteko hitza

Partikula hau ondoko aditzari lotua, ala beronetik askatua idatziz behar ote da?

Jar ditzagun jokaera bakoitzak bere alde dituen arrazoiak eta ager dezagun azkenik Batzordeak proposatzen duen erabakia.

a) Loturik idaztearen aldeko arrazoiak:

— *Tradizio zaharra*. Erabat dago loturik idaztearen alde.

— *Ahoz egiten diren hots aldaketak*. Ez partikula horrek, aditzaren aurreko «d» eta «g» letrarekin topo egitean, soinu aldatze batzuk sortzen ditu pronunziazioan, eta aldaketa hoien araura idazkera egin izan da (ez beti, baina bai gehienetan). Adibidez: *extu*, *extabiltza*, t. a. Beste batzuetan partikula honen «z» ezabatu ohi da; adibidez: *enuen* (ez nuen). Idazkeran hots aldaketa hoiek hainztat hartu behar baldin badira, badirudi «ez» eta ondoko aditza loturik idatzi behar direla.

— Loturik idaztearen partea segitzen dutenen izenak. Batzordeak iskribuz hartu dituen iritzien artean uste dut bat bakarra dagoela loturik idaztearen alde: J. Etxaide.

b) Partikula hau beti osorik eta aparte idaztearen aldeko arrazoiak:

— Gure aroan ohitura hau orokar bihurtu da. Bai mugaz beste aldekoek eta bai hemengoek, guztiek onartu dute.

— Pronunziazioan gertatzen diren hots aldaketok ez dira hizkuntza idatzian haintzat hartzekoak. Alde eta aldi guztietakoak ere ez dira. (Horrek ez du esan nahi irakurtzean gorde behar ez direnik.)

— Aparte idaztearen aldeko iritzia. Batzordeak iskribuz hartu dituenen artean, honako hauek daude: Erkiaga, Berriatua, Kintana, Berrondo, Mitxelena.

Batzordearen proposamendua:

«Ez» partikula beti osorik eta beti aparte idaztea.

(Euskaltzaindiak 1971go irailaren
24eko batzarrean onartua)

EUSKALTZAIN OSOENGANDIK HARTU DIREN IHARDESPENAK

(Bait eta Ba-ren idazkera)

Jaunak:

Joan den iraileko batzarrean Idatzaraueatzko Batzordeak presatutako txostena aztertu zen («ez», «bait» eta «ba»-ren idazkerari buruz). «Ez» partikula aditzetik aparte idaztea erabaki zen. Beste bi punduen gainean, berriz, eztabaida gehiegi luzatu zelako eta batzarrean zeudenen artean iritzia oso barreiatu zirelako, hontara heldu ginen: Euskaltzaindiaren zuzendaritzak euskaltzain oso diren guztiei berariazko galdera bat egingo ziela iskribuz, eta hauzia, jasotako erantzunen arabera erabakiko zela.

Batzarrearen agindu hori betetzeko, bada, eskutitz bat bidali zitzaion euskaltzain oso diren guztiei, eta eskutitzarekin batean Ida-

tzarauetazko batzorde idazkariak eratutako txostena ere bai, hauzipean ziren puntu hoietaz.

Hona hemen, bai eskutitzaren eta bai txostenaren testua ere:
1971 urriak 10

euskaltzain jauna

Jaun agurgarri eta adiskide maitea:

Ongi dakizunez, joan den irailaren 24 ean Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra egin zuen Donostian. Euskera idatziaren arauak estudiatzeko jarri zen Batzordeak hiru puntu ekarri zituen: 1 «Ez» aditzari lotua ala askatua idatzi behar ote den. 2 «Bait» aditzari lotua ala askatua idatzi behar den; edo ta bereizkuntza egin behar den (baldintzazkoa denean lotua, eta bestela askatua).

Lehendabiziko pundua errazki erabaki zuen batzarrak: «Ez» beti askatua idatz dedila. Beste punduetan, ordea, iritziak oso zeuden parekatuak. Orduan, eta hauzia finitzeko, zera erabaki zen: Euskaltzaindiko zuzendaritzak, iskribuz, euskaltzain oso guztiei galdera berezi bat egitea, eta hoiien erantzun eta botoen araura erabaki dezala.

Hau da, bada, galdetzen zaizuna: Aditz aurreko «bait» eta «ba»-ren idazkeraz zer-nolako erregela eman behar luke Euskaltzaindiak? Alde bateko eta besteko arrazoiak begien aurrean izan ditzaun batzordeko idazkariak prestatu duen txostena bialtzen zaizu.

Zure aburuaren begira gelditzen da Euskaltzainburuaren izenean,

J. L. LIZUNDIA, *Idazkari-ordezkoa*.

IDATZARAUETAZKO BATZORDEA

Joan den iraileko batzarrak erabaki bezala, bana banaka eta iskribuz bi puntu hauen gainean galdera berezia egiten zaie euskaltzain oso guztiei:

1

«Bait», aditz aurreko aurrizkia

Hiru eratara idazten da aurrizki hau: a) loturik, b) aparte, d) marratxo batekin berezia.

a) Loturik idaztearen aldeko arrazoiak:

— *Tradizio zaharra*. Erabat dago loturik idaztearen alde. Eta gaur eguneon ere mugaz beste aldean eta bai hemengo aldean ere batzuek antzinako erara idazten dute.

— *Aboz gertatzen diren hots aldaketak*. Aurrizki honek («ez» hitzarekin gertatzen den bezala), aditz aurreko «d» eta «g»-kin topo egitean hots aldaketa batzuk sortzen ditu pronunziazioan, eta aldaketa hoién araura idatzi egin izan da. Adibidez: *baitu, baita, baika-biltza*... Hots aldaketa hoiek idazkeran haintzat hartu behar baldin badira, badirudi aditzari loturik idatzi behar dela.

b) Aparte idaztearen aldeko arrazoiak:

— Ohitura hau gure mendean asko zabaldu da, nahiz eta orokarra ez izan.

— Badu bentaja bat: partikula bera hobekiago nabarmentzea, eta fonetika lege hoiei kasu egin gabe, beti osorik eta den bezala agertzea. (Horrek ez du esan nahi irakurtzean lege hoiek gorde behar ez direnik.)

d) «Bait» aurrizkia marratxo batez aditzari elkartzeko ohitura ere zerbait zabaldu da gure egunotan. Marratxoa kasurik beharrezkoenatarako bakarrik gorde behar zela erabaki zen, eta hemen ez dugu uste horren beharrezkoa denik.

Batzorde idazkariaren proposamendua:

«Bait» aurrizkia beti aparte idaztea.

Oharra.—«Bait» aurrizkiak badu heste aldaera bat: «bai». Hau ere onartzen da, noski, eta bestea bezalaxe beti aparte idatziko da.

2

«Ba», baldintza eta baietza adierazteko aurrizkia

Hiru jokaera eta iritzi aipa ditezke hemen ere: a) Partikula hau beti loturik idaztearen aldekoa; b) Beti aparte edo bereziturik idaztea nahi duena; d) Baldintzazkoa loturik eta baietzazkoa aparte idaztearen aldekoa. Hona hemen bana banaka jokaera bakoitzaren aldeko arrazoiak.

a) Partikula hau beti loturik idaztearen aldeko arrazoiak:

— *Tradizioa* erabat dago loturik idaztearen alde. Tradizio hori ez da lehengoa bakarrik; orain ere horrela idazten dute mugaz beste aldean, eta hemengo aldean ere bai batzuek.

— *Era honen abantailak: erraztasuna.* Ba guztiak berdin idazteaz alde batetik betiko ohitura segitzen dugu, eta bestetik lasaitasun bat ematen zaio idatzi behar duenari. Bestela, berriz, analisi gramatikala beti egiten ibili beharra dauka eta traba nekagarri bat ezartzen zaio: berariaz eta ohartuki konturatu behar da ia *ba* hura baiezkoa ala baldintzazkoa ote den. Kontuan eduki behar dugu gaur eguneon idaztea ez dala klase hautatu baten monopolioa, herri osoaren ondasun edo ondarea baizik; eta horrelako analisi eta jakintzak eskatzen dituzten erregelak, ahal dela, aurreratu egin behar zaizkiola jendeari, jakintza hoiek ez bait daude denon eskuetan.

b) Partikula hau beti aparte idaztearen alde. Egia esan, jokaera honek ez du bat ere tradiziorik bere alde.

d) Baldintzazkoa denean loturik. Baiezkoa denean, aparte. Jokaera honen arrazoiak:

— Gure mendean ohitura hau pixka bat zabaldurik dago, orokarra ez bada ere.

— Idazleari nekea ematen zaio, baino irakurleari argitasuna.

Batzorde idazkariaren proposamendua:

«Ba» guztiak berdin idatz ditezela, hau da:
beti aditzari lotuak.

Oharra.—«Ba» guztiak esatean, aditz aurrekoak esan nahi dela bistan da. *Omen*, *Othe* eta *Ahal*-en aurrean datoztenak aparte idatzi behar direla, aurreko Atalean erabaki bait zen.

1971eko urriaren 10ean.

* * *

Orain bada, jaunak, inkesta edo iskribuz egindako auteskunde honen ondorioak hauetxek izan dira.

Jaso diren ihardespenak: 15.

Bertan datozen iritziak sailka jarri ondoren, honela banakatzzen dira:

«Bait» aurrizkiari buruz:

Lotua idaztearen alde: 8.

Askatua idaztearen alde: 7 (baina azkeneko hauetatik batzuk nahikoa ezbai daude, eta kartaz diotenez berdin emango lukete botoa loturik idaztearen alde ere).

Gauzak horrela daudelarik, eta iritziak hain parekatuak direnez gero, zuzendaritzak uste du hobe dela puntu hau oraingoz erabaki gabe uztea. Beraz, libre izango da, oraingoz, nahiz batera nahiz bestera idaztea.

«Ba» aurrizkiari buruz:

Hemen, berriz, aburuak honela datoz sailkatuak:

Ba guztiak askaturik edo aparte idaztearen alde: 1.

Berezketa egitearen alde (hau da, baldintzazkoa era batera eta baietzazkoa bestera jartzearen alde): 3. Gainera, boto auk ez datoz bat beren artean. (Batek, esate baterako, nahi du kasu batean apostrofua eta bestean marratxoa jar dedin: beste batek, berriz, bata loturik eta bestea aparte jartzea nahi du, bat ere markarik gabe, ...)

Ba guztiak loturik idaztearen alde: 11.

Beraz, batasun handi bat lortu da puntu honetan. Uste dut, bada, puntu hau erabakitze eman behar dela. Aditz aurreko *ba* guztiak, bada, aditzari loturik idazteko eskatzen eta gomendatzen du Euskaltzaindiak.

Gainerakoan, Euskaltzaindiaren zuzendaritzak eskerrak ematen dizkie euskaltzain numerokoei puntu hauek argitzen eta ahal den neurrian erabakitzen lagundu dutelako. Uste dugu, gainera, esperientzia hau probetxugarria izan dela. Batzarrean, alegia, luze tratatu eta astindutako gai batzuei, inoiz, prozedura honen bidez buru eman dakiekela ikusi da.

Jasotako erantzunak Euskaltzaindiaren artxibuan gordeko dira, egiztapen eta sinestamendu gisa.

Donostia, 1971, azaroak 26.

IDATZARAUETAZKO BATZORDEAREN BERRIZTATZEA

Jaunak:

Euskera idatziaren arauak aztertuz eta ahal dela finkatuz eta erabakiz joan zedin, Idatzarauetazko Batzordea jarri zen. Batzorde honek joan den urtean barrena egin du bere lana eta ahal izan duen eran bere txostenak presentatu dizkio Batzarreari. Eta honek hauetatik batzuk onartu eta erabaki egin ditu.

Batzorde honen idazkari izan naizen aldetik, batzordearen buru den Mitxelena jaunarekin eta bai beste zenbaitekin ere mintzatu izan naiz, heldu den urtean batzorde honek estudiantarako zein sail hautatuko duen jakin nahiz. Eta konsulta hoiengandik ondoren hauek pentsatu dugu: alegia, euskal leku eta herrien izendegia prestatzea. Denek aho batez aitortzen dute zer nolako nahaspila den gure artean. Euskal aldizkariak eskutan hartu besterik ez dago, hori ikus-teko. Gure herrien izenak euskeraz nola diren askotan ez dakigu, zehatz behintzat. Batak esango dizu *Oñate*, besteak *Oñati*, besteak *Oinati*. Batak *Bilbo*, besteak *Bilbao*. Batak *Galdakano*, besteak *Galdakao*, besteak *Galdako*, ta abar. Herriarraren izenaz (hots, gentilizioaz) berdin gertatzen zaigu. Nola esan behar da: *abadiñarra* ala *abadiñotarra*, *durangotarra* ala *durangarra*? Xehetasun hauek herrian bertan edo herri hartatik gertu xamar bizi direnek jakiten dituzte, baina urrutikoek ez.

Nolanahi ere, Nomenclator ofizial baten beharrean gera, eta hori, inork egitekotan, Euskaltzaindiak behar du egin. Eta Idatzarauetazko Batzordeak datorren urterako lan horixe hautatu du.

Aramaioko batzarreko Mitxelena jaunak txosten labur baina mamitsu bat prestatu zuen gai hontaz. Eta dakizuten bezala, Aramaioko egunean irakurria izan zen.

Ez naiz ni hemen hasiko sail berezi honek dauzkan zailtasun, katramila eta problematika berezia azaltzen. Baina zerbait esan beharra dago, gaiak berak eskatzen duen bezalako batzordea jartzen asma dezagun. Konplejidade handiko saila bait da hau.

Lehenik, gaiak biltzen izango ditugu lanak. Kontutan euki beharko ditugu erderazko izen ofiziala, eta erderaz mintzatzean inguru hartakoek erabiltzen dutena (beti ez bait dira berdinak). Euskeraz mintzatzean gaur esaten dena eta behinola esaten zena (hau iskribu

zaharretatik jakin behar da). Euskera galdu den eskualdeetan franko aldiz toponimia xehean gorde da antzinako euskal izena. Gaiak biltzen bakarrik lan izugarria dago, bada, eta eskualde bakoitzean lankideak bilatu beharko dira.

Eremua ere zabalegia izan ez dedin, mugatu beharko dugu. Oraingo, behintzat, toponimia handia (hots, «toponimia mayor») hartuko genuke bakarrik: herrien izenak, hauzo handitxoak ere bai, zenbait mendi eta ibai (aipatuenak soilki). Euskalerritik kanpora egonarren, badira zenbait ziudade ospetsu euskeraz izen berezia dutenak edo behintzat euskeraz molde berezi batean izendatzen direnak, eta hoiek ere jarri behar lirake delako Nomenclator hortan (*Bordele, Pabe, Akitze, Sibilia...*).

Jakina da «a» organica delakoaz dagoen istilua. Badira herri izen batzuk erderaz a-kin bukatzen direnak, baina euskeraz ez dute behin ere a-rik izan. *Alsasua/Altsatsu, Bacaicoa/Bakaiku...* Beste batzuek, berriz, «a» iraunkorra dute: *Nafarroa, Donostia, Pasaia*. Eta bien artekoa ere frankotan gertatzen da: hots, deklinazioko zenbait kasutan «a» hori beharrezkoa da, eta beste batzuetan beharrezkoa da kentzea: *Bizkaia, Bizkaitaren, Bizkaitari, Bizkaian*, baina *Bizkaiko, Bizkaira, Bizkaitik*, ta abar. Xehetasun hoiek ere kontutan hartu beharko dira.

Herri izen batzuk mendeetan barrena aldatu egin direla bada-kigu. Askotan bokalen arteko «n» galtzetik etorri da aldaketa: *Lazkano/Lazkao*. Baina badira lege horrekin zer ikusirik ez duten aldaketak ere. Beste batzuetan antzinako leku izena eta hiri izen berriagoarena ez datoz bat. *Arrasate/Mondragoe, Gasteiz/Vitoria, Ariznoa/Bergara, Hagurabin/Salvatierra*, t. a.

Zahar zaharra hartu behar ote da, ala berri berria eta bat ere tradizioz ez duena? Beharbada bien artekoa hautatzea izango da irizpide zuzena. Nolanahi ere, izango ditugu istiluak. Eta kasu bakoitza bana banaka estudiatu beharko da. >

* * *

Gai hortaz eginik dauden lanen bibliografia bat osatu beharko du batzordeak, hasteko. Izan ere, badira lan batzuk gure sail honetarako laguntasun ederra eman dezaiguketenak. Mitxelena, Aramai-

oko txostenean, bi bereziki aipatzen ditu: *Raymond*, «Dictionnaire topographique du département des Basses-Pyrénées», eta *Corona Baratech*, «Топонимия Navarra en la Edad Media». Arabako herriei buruz dokumentazio aberats aberatsa, osoa eta erabatekoa eman digu *Gerardo López de Guereñu*-k: «Pueblos alaveses», «Boletín de la Institución Sancho el Sabio» aldizkarian, XIII (1969), 19 ss. Mugaz handiko herri eta herritarren izendegia egina du, baita ere, Dassance euskaltzain jaunak: *L. Dassance*, «Herrien eta Herritarren izenak eskuaraz», Editions Gure Herria.

Aingeru Irigarai eta Etxaide jaunak ere lana franko egina dute sail honetan. Mitxelena jaunak ere bildurik ditu euskal testu zaharretan ageri diren herri izen zaharrak. Gure idazkari ordeak, Lizundiak, alegia, berebiziko zaletasuna eta gaitasuna agertu du euskal Geografia eta Kondaira gaiak aztertzen. San Martin gure Idazkari jaunak ere, berdin, Onomastika eta Kondaira izenak arakutzen. Eta badakit kondaira nahiz herri ikertze lanetan gailurtu diren gure elkargoako anaietatik dexente uzten ditudala aipatu gabe.

Ez gaude, bada, horren eskas eta urri lan honi, denon argi eta konseiluarekin, lotzeko. Hori bai, denon argia beharko du batzordeak lan hau behar bezala burutzeko.

* * *

Idatzaraueatzko Batzordea, sail berezi hontara jartzean, berriztatu egin behar zela pentsatu dugu. Egikizun hau betetzeko trebeago eta gaiago bihurtu, alegia. Horra, bada, Euskaltzaindiaren zuzendaritza edo burugoak proposatzen duen izen lerroa. (Guk proposatuez gainera, batzarreko jaunen batek bere izena edo bertzerena eskaini nahi baldin badu, egin lezakela esan beharrik ez dago).

BATZORDEAREN EGILE ATALA

Atal honetarako jakintzaz gainera dinamismuz eta lan egin goz horniturik agertzen direnetatik hautatu nahi izan ditugu.

Buru: *Luis Mitxelena* jauna, batasun kontu guztietan buru izateko hautatu genduen, eta sail honi dagokion dokumentazio zaharra hain ongi ezagutzen duena.

Idazkari: *Jose Luis Lizundia*, euskal Geografia eta Kondaira gauzetan duen jakitateagatik, eta gainera Bizkaiko eskualdearen izenean.

Salbador Garmendia, literatura eta hizkuntza zaharraren eza-gutzagatik, eta Gipuzkoako eskualdearen izenean.

Manuel Ruiz Urrestarazu, Arabako izenean, eta dituen ikaste eta beste dohaiakgatik.

Jose Maria Satrustegi, kondaira eta herri ikertze gauzetan egin duen lanagatik, eta Nafarroako izenean.

Jean Haritschelhar euskaltzainburu ordea, mugaz hango Eus-kalerraren izenean eta bere orotariko euskal jakitateagatik.

BATZORDEAREN KONTSEILARI ATALA

Eskualde bakoitzetik bi jartzen ditugu.

Gipuzkoatik *Jon Etxaide* eta *Juan San Martin*, sail hontan egi-nak dituzten lanakgatik.

Arabatik, *Gerardo López de Guereñu* eta *Odon Apraiz*, sail honetan lan guztiz merezigarria egin dutenak.

Nafarroatik, *Aingeru Irigarai*, lan baliotsuen egile delako. Eta *Basilio Sarobe* apaiza, arrazoi beragatik.

Mugaz hango Euskalerritik *Louis Dassance*, sail honetan eginik duen lanarengatik, eta *Guillaume Eppherre*, Gure Herria-ren zuzen-dari, eta Zuberoako berri emale izan dedin.

Eta azkenik, Errioxako aldean azterketa baliotsuak egina den *Jose Juan Bautista Merino Urrutia* jauna.

Donostia, 1971, urriak 29.

ARAUTEGIA

ARAUDI BERRIZTATUA EUSKALTZAINEI AURKEZTEKOAN

Euskaltzain jaun agurgarriak:

Ihaz, hemen Donostian, azaroko hilabeteari dagokion batzurrean, jarri zen Araudia berriztatzeko eta gaurkotzeko batzordea. Batzorde honi egotzi zitzaion egitekoaren garrantsiarekin haxe esan nuen orduan: «Euskaltzaindiak legeko nortasun bat erdietsiko badu, nahi ta ez bere Araudi gaurkotua aurkeztu beharko du. Horregatik —eta besteak beste direla—, Araudiaren berritze eta gaurkotze horri premiatsuenetako puntua derizkiogu».

Hamahiru hilabete igaro da orduez geroztik. Eta azkenik batzordeak bere lanari buru eman dio eta gaur Batzarreari aurkeztu dio.

Ez naiz hemen hasiko gaurko testu honetara heltzeko egin behar izan diren pauso, atzera-aurrera, itzul-inguru, luzapen, zuzenketa, orrazketa eta abar kontatzen. Lehenik handitu, gero murriztu, egin, desegin, berregin, nik ahal dakit zenbat redakzio, aldaketa, eraskin! Azkenik, ordea, gaur presentatzen dizuegun honetan mamitu dira gure ensei, zirriborro eta izerdi guztiak.

Pundu batzuk xoilki ikutuko ditut, Batzordeak bere lana nolako kriterioekin burutu duen jakin dezazuten, eta hartu diren bide batzuen arrazoiak emateagatik



Eta aurrena, erabilitako hizkuntzagatik geure burua zuritu beharrean gera. Araudia gaztelaniaz egin behar izan dugu. Eta hori, arrazoi bategatik: geure Estatutoen testua agintariei presentatu beharko diegu, Euskaltzaindiak erdietsi nahi duen legeko ezagutza hori erdietsi ahal dezan. Eta hortarako nahi ta ez Estatutoen testua legeko hizkuntzan egin behar zen. Baina, jakina, testu hau Euskaltzaindiak onartu bezain laster, itzulpenak egingo dira, bai frantsesera eta bai euskerara. Eta geron arterako egingo den edizioan hiru hizkuntzatan egongo da Araudia: euskeraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

Lehengo Araudiak ez zuena, oraingoari «Preámbulo» labur bat jarri nahi izango diogu. Euskera eta euskal literaturari buruz, euskeraren gaurko egoeraz eta Euskaltzaindiaren sorreraz zenbait berri ematen da bertan. Labur eta murriztuz, bat ere triumfalismurik gabe, eta euskeraren alde esan behar zirenak besteren ahoz esanez burutu dugu atariko hau.

Gainerakoan, Araudian bertan, gure erregelbidea izan da lehen-go Estatuto zaharrei ahal dela orpo orpo segitzea, haietatik ahal den gutiena aldentzea, haien tradizioa eta izpiritua gordetzea. Beraz, berritu eta gaurkotu behar ziren gauzak bakarrik aldatu dira.

Beste kriterio hau ere izan dugu geure lanean: larregizko txiki-keria eta xehetasun konkretuegietan ahal dela ez sartzea. Estatu-toak oinarri legea dira. Eta hain zuzen, horrexegatik iraunkorrago behar dute izan. Ardura handiko diren legeak, puntu beharrezkoak eta nagusiak bakarrik eduki behar dituzte. Xehetasun konkretuegiak «Reglamento interior» deitzen den hortarako geldituko dira. Berez, Reglamento interior delako hori aldakorragoa da; gauza konkretuak aipa ditzake, baina horrexegatik igarokorragoak ere badira.

Araudi zaharrean mugaz beste aldekoen aipurik ez zen egiten, nahiz eta etengabeko pratika garbi bat egon puntu honetan. Guri iduritu zaigu une honetan, Euskaltzaindiaren legezko nortasuna garbitu nahi den une honetan, behar beharrezkoa zela puntu hau argi eta garbi uztea. Eta hain zuzen, horrexegatik jarri dira 4. eta 5. artikulua.

Euskaltzaindiaren legezko nortasuna erdietsi nahi dugula diodanean, bego hau garbi: horrekin ez dut esan nahi orain arte gure elkargoa legetik kanpora edo horrelako nortasunik gabe egon denik. Baina bistan da nortasun hori ere gaurkotu edo argitu beharrean gerala.

* * *

Baina buruhausterik gehiena eman digun artikulua 20.a izan da: hots, gure elkargoaren bilkurena. Gauza jakina da Euskaltzaindiaren sorreratik honera euskaltzainen kopurua asko ugartu dela. Hasiera hartan hamabi euskaltzain eta zortzi urgazle ziren; guztiak euskaldunak izan behar zuten jaiotzez eta hizkuntzaz. Hoieta lan-dara, urgazle eta ohorezko erdaldu batzuk izatea ere ontzat ematen

zen. Batzarre arruntetara bai euskaltzain osoak eta bai urgazleak ere etor zitezken. Eta inoiz legezko batzarrea egiteko euskaltzain osoetatik aski ez zenean, Azkuek berak urgazleren bati ematen zion eskubidea batzarrera euskaltzain oso bezala joateko. Era hortara Orixe behin baino gehiagotan egon zen batzarreetan euskaltzain osoeri dagokien eskubidez, nahiz eta orduan oraindik maila hortakoa ez izan. Nolanahi ere, bilkura haietan biltzen zirenak oso guti ziren.

Gerra osteko aroan, berriz, Euskaltzaindiak hazitze ikaragarria ezagutu du, eta hortik problemak sortzen dira gure bilkuretan. Zer egin? Batzuek nahi lukete gure elkargoaren bilkura arruntetara euskaltzain osoak bakarrik joatea. Beste batzuek, bilkura hoiek bi zatitan partitzea: lehenengo zatira euskaltzain osoak bakarrik joango lirake eta gero bigarrenera denak, hau da, bai euskaltzain osoak eta bai laguntzaileak ere. Ez zaigu iduritu gure bilkuren ajeentzat sendabidea hor bilatu behar denik: eta emango ditut arrazoiak. Alde batetik, Euskaltzaindiak badu bere tradizioa, eta tradizio horren arabera bai euskaltzain osoek eta bai besteek ere eskubidea dute bilkura arruntetara joateko, nahiz eta erabakietan euskaltzain osoek bakarrik botua izan. Beste aldetik, euskaltzain osoetatik gure bilkuretara franko aldiz zein guti datorren ikusiz, gure bilkurak hoiekin bakarrik egin behar direla erabakiko baltiz, nik ez dakit hori gure bilkuren heriotzea erabakitzea ez ote litzaken. Gainera, gaur ez legoke Azkueren harako sistema hartara jotzerik; inork, alegia, ez luke onartuko euskaltzain oso ez den bati hartako eskubideak ematea eta era hortara euskaltzainen hutsuneak hornitzea.

Beste sistema: bilkura arruntak bi partetan partitzea, hori lehen inoiz egin izan dugu, baina ez dut uste horrekin deus erremediatzen denik. Gauza bera bi aldiz esan behar da, lehenik euskaltzain osoei bakarrik, eta gero denei; beraz, batzarrea luzatu, astundu eta aspergarri bihurtzen da. Eta euskaltzain osoak bakarrik batzarturik dau-den bitartean, besteak han kanpoan uztea, Testamentu Zaharreko «prosélitos de la puerta» balira bezala, egia esan, ez zait gizalegezko iduritzen.

Beraz, arrazoi guzti hoiek neurtu eta pisatu ondoren, gure Euskaltzaindiaren tradizioa, egungo egoera eta abar konsideratu ondoren, puntu hau lehen bezala utzi behar zela pentsatu dugu. Hau da: batzarre arruntetara denek dute joateko eskubidea, nahiz euskaltzain

oso, nahiz laguntzaile nahiz ohorezkoek; erabakiak hartzeko botua, ordea, euskaltzain osoek bakarrik. Haatik, zirrikitu bat utzi da Estatutoetan zabalik: inoiz bilkura bereziak, ez arruntak, egin ahal izango dira euskaltzain osoekin bakarrik. Hain zuzen, hoietakoa da gaur goizeon hemen egiten duguna.

Era hortara jende gehiegi biltzen dela gure bilkuretan, gehiegizko liskarrak eta neurriz kanpoko garrazkeriak gertatzen direla batzuetan? Bai, hori ere egia da; baina esan ditudan arrazoiakgatik, ez dut uste bilkurak euskaltzain osoentzat bakarrik jarriaz ezer irabaziko gendukenik. Gaitz hori erremediatuko dugu jarritako gaietatik inñori irteten ez utziz, batzarretan disziplina bat jarriz, hitz egiteko bakoitzak bere aldia eskatuz, hizlariari bere esangoa esaten utziz, eta guztien gainetik dialogatzen ikasiz. Edo guztiz oker nago, edo horren beharra dugu gehienok. Jainkoak mihi bat eta bi belarri eman zizkigun guretako bakoitzari. Horrek esan nahi du mintzatzea bezain beharra edo beharragoa dela besteren arrazoiak entzutea. Baina hori egin beharrean, geurea bakarrik gogoan dugula,itsu-itsuan besteari erasotzera joaten bagera, orduan ez dugu deus onik egingo, ez gera sekula elkarrizketa on batetara iritxiko.

Gure batzarreetan behar den errespetoa, ordena eta seriotasuna egon dedin, Euskaltzainburu ordezkoari eskatu diot moderatzaile kargua har dezan. Denok ezagutzen eta aitortzen ditugu jaun honek hartarako dituen dohain apartekoak eta uste dut guztion gogokoa izanen dela izendapen hau. Baina gauza hauek, jakina, ez dira Estatutoetan jartzekoak.



Batzarrea erabakiak hartzeko gai izan dedin 6 euskaltzain osok gutxinaz presente egon behar dutela jarri dugu. Zenbaiti gutxitxo iruditzen zaio eta Real Academia Española jartzen digu ispilutzat. Baina Akademia horren egoera eta gurea ez da bat ere berdina. Española-ko akademikuak uste dut Madrilen bizi direla denak eta gainera soldata pagatzen zaie batzarrerara joateagatik. Era hortara, jakina, askoz errazago da akademikuak Akademiako lanei lotzea. Gure euskaltzainak, berriz, Euskalerra osoan berreiaturik bizi dira eta Euskaltzaindirako egiten dituzten lanakgatik ez zaie deus ordaintzen. Bizibidea eta irabazpidea beste nunbaitetik atera behar baldin ba-

dute, Euskaltzaindiko lanetarako ez zaie tarte eta adore handirik geldituko. Azkueren garaian ostatu eta biajeko gastuez kanpora, euskaltzain bakoitzari batzarrera etortzeagatik bakarrik bost hogerleko ematen zitzaion, eta garai hartarako bazen zerbait! Honetan ere beheraka joan gera. Gerra ondoko garaian ere nik gogoan dut Nazario Oleaga zenak beti galdetzen zidala: Biajea zenbat kostatu zaizu? —Hainbeste, esaten nion, eta txintxo ordaintzen zidan beti. Ohitura hori ere geroztik galdu egin dela uste dut. Diru konturik Estatu-toetan ez dugu aipatu, baina diru iturriak gure elkargoarentzat bilatzea beharrezkoa izango dela uste dut, eta lan egiten duenari sari egokia eman ere bai, bestela beti ibiliko gera gaizki.

Beraz, gauden egoerari begiratur, batzarreak erabakirik har dezan 6 euskaltzain gutxinaz presente egon behar dutela jarri dugu. Gutxitxo da, bai, baina realismuak ez digu numero hau gorago altxatzen uzten. Gutxitxo da, bai, baina hor da Aramaioko batzarrea: horrenbeste ere ez ginen bildu. Gainera kontuan euki behar da euskaltzain batzuk batzarrera etortzerik ez dutela; eta orduan —orduan bakarrik, jakina— botua iskribuz edo poderioz eman dezaketela jarri da.

Estatuto zaharretan, egia esan, batzarrea egiteko zenbat euskaltzain osok egon behar duten ez da esaten. Barneko Araudian, orde, bai. Ikus 16. artikulua. Zazpi gutienez esaten du; baina norbaiten heriotzea edo karguaren uztea gertatu baldin bada, orduan sei egotea aski izanen da. Eta esan dugu gorago nolako baliakizunez baliatzen ziren kopuru hori osatzeko.

Labur, eta gure bilkuren hauzia buka dezadan, era hontara ikusten du Batzordeak pundu hau: Ezin dugu ahaztu gaur eguneon laguntzaileen aldetik berebiziko indarra eta laguntasuna datorkiola Euskaltzaindiari, eta laguntasun hori haintzat hartu behar dugu. Beste aldetik, Euskaltzaindiak badu bere sortzetik lege garbi bat bere batzarre arruntetara hoiek etor ahal ditezen. Hoiek hola, zer egin behar genduen, egin duguna baizik? Hau da: batzarre arruntetara denei atea zabaldu; euskaltzain osoetatik sei gutxinaz presente egon behar izatea; eta etorri ezin dutenak iskribuz edo poderioz botu eman ahal izatea. Ez degu gure elkargoaren hara-kiririk dekretatzeko gogorik, zenbaitek hala nahiko balu ere.

Gainerakoan, karguen iraupena lehen bezala utzi da. Ikusten duzue, lehengo Araudiaren mamia gorde eta errespetatu izan dugu pundurik gehienetan.

* * *

Orain, jaunok, zeuen aztertze eta baimenduaren eske duzue Araudi berria. Urrats handi bat ematera goaz. Erdi ezkutu gisako bizitzetik irten, eta legezko nortasun batekin geure elkargoa bere eginbide betetzeko gaiago bihurtzea: hori da gure nahia eta ametsa. Pauso hau ematea beharrezkoa iduritzen zaigu gure eragina hutsaren pare baino gehiago izango baldin bada.

* * *

Estatuto hauen aztertze eta onartzean segituko den prozedura honela izango da. Artikuluak bana banaka irakurriko dira. Artikulu bakoitza irakurri ondoren, ia guztiak akort diren galdetuko da. Inork ezer esaten ez baldin badu, erabaki eta onartutzat emango da. Batek edo batek baino gehiagok testua beste era batera aldatzeko eskatzen baldin badu, berak nahi luken redakzioa iskribuz presentatu beharko du eta batzarrean bototara joko da ia zein redakzio onartzen den jakiteko: ala Araudian dagoena ala beronen ordezkari beste euskaltzain hoiek presentatu dutena.

Gure bilkuraren martxa ahalik eta laburren, lasterren eta garbien joan dedin, gure Euskaltzainburu ordezkari erregutzen diot orain beretik aitzindari edo moderatzaile lana har dezan.

Donostia, 30-12-1971.

ARAUDI BERRIA EGITEKO ZER PROZEDURA SEGITU DEN

Euskaltzaindiaren Araudia (hots, Estatutoak, ez oraingoz «Reglamento interior» deitzen den hori) berriztatu eta gaurkotu egin behar zela hamaika aldiz esan izan da gure batzarrean, eta horarako pausu batzuk eman ere egin ziren; baina asmoa ez zen aurrera

eraman. Bi Araudi zeudela ere esan behar da: bata Euskaltzaindia sortu zenekoa (1920. urtekoa); eta bestea 1954. urtean Etxaide euskaltzainburu zelarik argitaratua. Baina ez bata eta ez bestea gure gaurko egoerarako ez ziren gai edo egoki; eta hortaz gainera, bietatik ez zenekian inoiz —garbi behintzat— zein zegoen indarrean, bigarrenak lehenbizikoaren eremu guztia ez bait du hartzen.

Beste aldetik, Euskaltzaindiak bere legezko nortasuna garbitu eta gaurkotu nahi du, eta hori irixteko nahi-eta-nahiezko urratsa zen Araudiaren gaurkotze hau egitea.

Araudiaren testu berria gertatzeko, bada, batzorde bat jarri zen 1970.go azaroaren 27an. Hona hemen batzorderako hautatuak izan ziren jaunak: Egile Atalerako: Luis Villasante, J. M. Lojendio, A. Arrue eta J. L. Lizundia. Kontseilari atalerako: J. Haritschelhar, M. Lekuona, J. San Martin, Jesus Oleaga, J. M. Satrustegi, M. Ruiz Urrestarazu.

1971.go urtarrilean Egile Atalekoak bildu ziren (Lojendiok ez zuen etortzetik izan). Arrue jaunak bilera hortara ekarri zuen berak lehendik prestaturik zeukan asmoa edo proiektu zatia, eta pundurik nagusienak eztabaidatu ziren.

Hango oharrekin Egile Ataleko buru eta idazkariak (Villasante-Lizundiak, alegia) aurre-asmo edo anteproiektu bat gertatu zuten. Kontuan euki ziren, Arrueren proiektuaz gainera, Euskaltzaindiaren Sortarauak (1920), «Estatutos y Reglamento de la Academia de la Lengua Vasca» (1954), eta bai Real Academia Gallega-ren Estatutoak ere.

Aurre-asmo hau batzordeko denei bidali zitzaizen, bai egile atalekoei eta bai kontseilariei ere, beren oharrak egiteko aukera izan zezaten. Idatzizko bi erantzun jaso ziren: San Martinena eta Ruiz Urrestarazurena.

1971.go otsailaren 26ko batzarrean euskaltzainburuak Araudi berriztatze lanen berri eman zuen.

1971.go maiatzaren 28ko batzarrean berriz ere euskaltzainburuak Araudi lanen berri eman zuen, anteproiektuari zuzenketa batzuk egin zitzaizkiola eta orain lana Lojendio jaunaren eskuetan uzten zela esanez. Jaun honek bere orraztapenak egin ondoren, batzordeak lana berriz ikusiko zuela gaineratu zuen.

Abuztuaren 4ean berriz ere egin zen Egile Atalekoen bilkura, Araudiari ikutu batzuk eginez. Egun hortan bertan arratsaldeko batzarrean Lojendio jaunak egiten hari zenaren berri eman zuen.

Irailaren 16an dei bat egin zitzairen batzordeko denei, nahiz Egile atalekoei nahiz kontseilariei, irailaren 24ean egingo zen bilkurarako. Eta hots egin bezala, irailaren 24eko bilkura hortan prestatutako testuaren azterketa egin zen.

Azaroan berriz ere Egile atalekoak bildu ziren (Lojendiok ez zuen etortzetik izan). Mugaz handikoen aipamena zer moduz egingo, aztertu zen bilera honetan; eta hortarako Haritschelhar jauna deitua izan zen. Baita Euskaltzaindiko bilkuren kontua ere, iraileko batzarrean erabakitakoaren arabera, finkatu zen.

Prestamen guzti hoiek egin ondoren batzordeak bere lana egina eta bukatua zeukan. Kopiak atera, beraz, eta euskaltzain oso guztiei garaiz bidali zitzaizkien, testua, batzarrera aurkeztu baino lehen, ikus eta azter zezaten.

1971.go abenduaren 30ean, goizean, euskaltzain osoen bilkura berezia egin zen, batzordeak prestatu zuen testua aztertu eta onartzeko. Lekuona jaunak ezin etorria adierazi zuen, zenbait ohar bidaliz. Bilkura horretan Araudiaren erdia baino gehiago aztertu zen. Artikuluak bana banaka diskutitu, testua hobetu eta askotan aldatu ere egin zen.

Eta azkenik, gaur, 1972.go urtarrilaren 31n, goizeko bilkuran, berriz ere azterketa eta onartze lan honi jarraitu eta buru eman izan zaio. Beraz, Euskaltzaindiak aspaldidnik zuen ametsa —Araudia gaurkotzekoa— egia bihurtu eta mamitu da. Orain Araudi honen testua hiru hizkuntzatan jarri eta argitaratu nahi litzake (hots, euskeraz, gaztelaniaz eta frantsesez).

Bukatzekoan, aipamen berezi bat egin nahi dut hemen euskaltzain eta lege gizon diren Lojendio eta Arrue jaunen alde, Estatuto hauei beren egitura eta taiua ematen egin duten lan baliotsuagatik.

Donostia, 1972, urtarrilak 31

EUSKALTZAINEI EGINDAKO ESKUTITZA ARAUTEGIAREN BIRRETSIA ESKATUZ

Arantzazutik, martxoak 17, 1972.ean.

Euskaltzain eta lagun maitea:

Jasoko zenduen, noski, joan den otsailaren 29an egin nizun eskutitza, eta bai harekin batean bidalitako Arautegiaren testua ere.

Eskutitz hartan Arautegia eratzeke erabili den martxa guztia, izan diren gora-beherak eta egin diren lan eta pausuen berri aipatzen nizun laburzki.

Arautegi horren testua euskaltzain osoen bi bilkura berezitan punduz-pundu aztertua eta jorratua izan da. Bilkura hoietan gauza asko aldatu eta hobetu ziren, eta orain bidali zaizun eran onartu zen.

Lan guzti honetan (Arautegia prestatze lan guztian, alegia), gure elkargoan diren lege gizonek asko lagundu digute, eta beroiei neure eskerrona agertu nahi diet.

Orain euskaltzain osoei Arautegi honen birretsia (ratificación) eskatzen zaie. Hartako bilkura berezira datozenak bertan eman ahal-ko dute botoa. Ezin etorri direnak iskribuz edo beste euskaltzain oso baten bidez igor lezakete. Bilkura hori Apirilaren 4ean egingo da eta deiak bidaliko dira.

Arautegi honi buruz iritzi zuzen egoki bat moldatzen zeuri laguntzeko, oharpen edo gogoeta hauek, txosten gisa, bidaltzen dizkitzut. Arautegi berri honen premiaz, hizkuntzaz eta mamiaz izango dira gogoetok.

1. *Premia*

Arautegi berri baten premian ginela makina bat aldiz esan izan da gure batzarretan, eta ni euskaltzainburu hautatua izan baino lehen ere, lan horretan hasiak ziren. Izan ere, bi Arautegi ditugu, bata 1920.goa, eta bestea 1954.goa, baina ez bata eta ez bestea ere ez dira Euskaltzaindiaren gaurko egokerarako gai. Hau denek aho batez aitortu dute beti. Eta Institutio bat lege gabe ibiltzea ez da on. Lege bat behar dugu, gu guztion gainetik egongo dena eta neurtuko gaituena. Legea guztiontzat da babes, neurri eta gidari: Zuzendari direnentzat eta bai besteentzat ere. Legetasunaren barrenean ibiltzea guztiontzat da mesede.

Gainera, gure elkargoarentzat legezko ezagutza osoa erdietsi nahi litzake, euskeraren alde benaz joka ahal dezan, eta horretarako ere, gure lege-gizonen iritziz, Arautegia gaurkotu egin behar zen.

Horra, bada, lehenbiziko punduari, premiari buruz, esan gogo nizuna.

2. *Hizkuntza*

Arautegiaren jatorrizko testua gaztelaniaz egin izan da. Hone-tan ere geure lege-gizonen konseiluari jarraitu gatzaizkio. Baina tes-tu honen euskal itzulpena, Mitxelena jaunaren laguntzaz, euskaltzain-burua egiten ari da. Frantses itzulpena, berriz, Euskaltzainburu-or-deari eskatu zaio. Arautegiari birretsia eman dakion bezain laster, hiru hizkuntza hoietan argitaratuko da. Eta geure artean euskal tes-tuaz baliatuko gera, noski, dudetan jatorrizkora joaz.

3. *Mamia*

Goazen orain Arautegiaren mamiaz zerbait esatera.

Lehenik, kontuan euki behar da Arautegian arau nagusi batzuk bakarrik sartzen direla: hots, oinarri legeak, iraunkorren eta beha-rrezkoen diruditenak. Azken artikuluan esaten den bezala, beste erregelak geroago egin beharko dira («Reglamento Interior» ta abar), eta hor xehetasun gehiago sartu ahal izango da: gauza arina-goak eta aldakorragoak, alegia. Honelako gauza asko Arautegiaren lehen-asmoan sartu ziren, baina lege-gizonen iritziz, kendu egin ziren, edo hobeki esateko, Erregela hoietan sartzeko utzi. Adibidez, Batzordeen martxa nola izango den, euskaltzain osoen joan-etorrien ordainketa, ta abar.

Gainerakoan, Arautegia prestatu duen Batzordearen asmoa izan da lehengo Arautegien izpiritua, muina eta ahal dela hitzak ere gor-detzea eta Institutuzioaren gaurko egoerak eskatzen duenari erantzutea.

Instituziorik gehienetan bezala, egon daiteke gurean ere halako soka-tira bat: alde batetik Instituzioko lagunen eskubideak babestu behar dira, eta bestetik Institutuzioaren beraren eskubideak eta bizi-tzea ere bai. Eta Institutuzioaren eskubideak Zuzendaritzak zaindu behar ditu. Ekilibrio bat, beti egiten erraza ez dena, lortu beharra dago bi aldeetatik. Eta ene ustez, nahikoa ongi lortu da hori Arau-tegi honetan.

Hona hemen euskaltzainen eskubideak babesteko Arautegiak ematen dituen bideak:

Zuzendaritzako karguak bi urtetik bi urtera hautatzea (art. 28). Bost euskaltzain osok iskribuz eskatzen duten guztietan, Zuzendaritza beharturik dago bilkura berezia biltzera, eta han beren ustez egin behar diren karguak eta eskatu behar diren kontuak egin eta eska ditzakete (art. 18). Lehendakariak axola handikotzat eman ez duen arazoa erabaki nahi denean, aski da batek eskatzea, hauzi hura hurreneko batzarrerera arte mahain gainean uzteko (art. 26). Eta aski da batek hala eskatzea, bozketa izkutua egin dadin (art. 21). Eta oraino: batzarrerera etortzerik ez dutenek iskribuz edo beste baten bidez boza eman dezakete (art. 22). Erabakiak beti nagusitasunez hartuko dira (art. 21).

Ikus dezagun orain beste alderdia, Instituzioaren eskubideak zaintzen dituen alderdia:

Instituzioaren egitura, nortasuna, izena, ibilpidea t.a. zaindu behar ditu Zuzendaritzak. Hortarako ematen zaizkio 8. artikuluan eta honen hurrenekoetan aipatzen diren ahalak. Euskaltzain osoei batzarrerera etortzeko eginbidea jartzen zaie (art. 17). Hau hil edo biziko gauza da Euskaltzaindiarentzat, eta horrela izan da Euskaltzaindiaren kondaira guztian eta Arautegi denetan. Orain, jakina, ezinak ez du legerik. Batzuk adin handiz, eritasunez, urrun daudelako, lanpeturik dabiltzalako t.a. ezin etorri direnean, beren ez etortze hori gatzigatu eta zuritu behar dute (art. 17).

Euskaltzain osoek batzarrerera joan behar baldin badute, bidezkoa da Euskaltzaindiak haien joan-etorrien gastuak ordaintzea ere. Hontaz ez da deus esaten Arautegian; xehetasun hau, lege-gizonen konseiluz, «Reglamento Interior» erako utzi zen. Euskaltzaindiaren ekonomi egoera ere, daukan laguntza urriaz, ozta-ozta izan ohi da gaur bere gastuei erantzuteko gai. Istudiotan dago Euskaltzaindiaren auto-finanziazioa, eta uste dugu hortara ere helduko garela. Gaur bazkaria behintzat pagatzen zaie hotelean elkarrekin bazkaltzen dutenei; eta gure asmoa da puntu honetan, ahal den bezain laster, leheneko usadiora bihurtzea.

Batzarrak egin ahal izateko eta erabakiak hartzeko ez da «Quorum» bat jarri, axola handiko erabaki bat hartu behar denean baizik (art. 25). «Quorum» delako hortaz Euskaltzaindiak badu bere tra-

dizioa. 1920.go Arautegian ez da quorum-ik aipatzen. (Arautegian dio. «Reglamento Interior» delakoan bai.) Orduan 12 euskaltzain ziren, eta 7 ipini zen. Baina badakigu zer irtenbidez baliatzen zen Azkue horrenbeste euskaltzain oso biltzen ez zenean: batzarrean zeuden urgazleetatik bati edo behar zirenei eskubidea ematen zien euskaltzain oso bezala batzarrean egoteko. Eta beharko egin zer bait, bestela instituzioaren ibilpidea eta bizitzea bera arriskutan jarriko lirake eta! Beren obligazioa beteaz batzarrerara etorri diren euskaltzainak zapuztuta itzuli behar, joan-etorria alferrik eginda! Hori Zuzendaritzak ez du sekulan onartuko, instituzioaren deretxoak zaindu behar bait ditu! 1954.go Arautegian ere ez da quorum-ik aipatzen. (Arautegian diot hemen ere). «Reglamento Interior» delakoan, berriaz, bai: euskaltzainak 18 zirelarik, quorum-a beheratu egin zen: 5era gutxitu zen.

Oraingo Arautegian ere quorum-ik ez da aipatzen, axola handiko erabakientzat izan ezik (art. 25). Eta orduan bi dei aipatzen dira: lehenbizikoan neurri estua jarri da, bigarrenean zabalagoa.

Hemen esan lezake norbaitek: Orduan bigarrenekoan errazegi hartuko lirake erabakiak. Baina erantzun garbia du horrek: Ez da hori gertatuko, baldin, etorri behar duten bezala, lehenbiziko deira etortzen badira euskaltzainak, eta ezin etorri direnak botoa bidaltzen badute. Horretarako egiten zaie aurretik deia, eta erabiliko diren gaien berri ematen zaie. Ez etorri eta ez botorik bidali egiten ez badute, hartzen den erabakiaren aurka ez dute zer esanik.

Honelako zaluitasun bat gabe Euskaltzaindiak ezingo luke deusik egin. Ezin dugu Euskaltzaindiaren bizitzea arriskutan jarri, edo, berdin dena, haren ibilpidea geldiarazi. Era honetara uste dugu, ahal den ederkiena ezkontzen direla Arautegi honetan bai Euskaltzaindiaren eskubideak eta bai euskaltzainenak ere.

Euskaltzain eta lagun maitea: Zatoz, otoi, Arautegiari birretsia eman behar zaion bilkura berezira. Benetazko etorri ezina baldin baduzu, bidali zeure boza iskribuz edo etorriko den beste baten bidez. Baiezkoa edo ezezkoa eman ezazu libreki. Edo eta erdiko bidea hauta dezakezu: baiezkoa eman, baina honetan edo horretan ez zaudela konforme esanez, eta hori ere agirian jasoko litzake.

Aurretik eskerrak emanez.

ESTATUTOS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

PREAMBULO

La lengua vasca ha atraído la atención de eminentes especialistas que han consagrado a ella sus estudios e investigaciones. Baste recordar los nombres de Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Schuchardt, Uhlenbeck, Menéndez Pidal, entre otros.

Además de su originalidad, el euskera ofrece al investigador la huella de los sucesivos estratos lingüísticos, que en el transcurso de los siglos se fueron sedimentando en el idioma por efecto de las diversas influencias históricas recibidas por éste a través de su larga vida. Por ello, y por ser vehículo de una civilización de la que constituye hoy el único testimonio vivo, representa un valor de extraordinario interés cultural y humano. Así lo proclamaba don Ramón Menéndez Pidal en discurso pronunciado en Bilbao el año 1921: «Por eso he querido hoy hablaros del estudio histórico. Tenéis todas las ventajas para emprenderlo y llevarlo a cabo: una lengua cuya bibliografía puede ser abarcada sin cansancio, y muchas de cuyas cuestiones interesantes apenas están desfloradas; un territorio pequeño, que cómodamente puede ser recorrido; una variedad interna sumamente ilustradora, y, sobre todo, un arcaísmo misterioso, preñado de interés. No hay documento histórico más venerable que este documento vivo, esta lengua conservada sobre este territorio, desde época incalculable, quién sabe si anterior al clima y al período geológico actuales. Ella, en sus multiseculares sedimentos, nos ofrece restos preciosos para ilustrar los más oscuros problemas de nuestra historia. Tenéis la fortuna de que vuestro pueblo sea depositario de la reliquia más venerable de la antigüedad hispana. Otras tendrán más valor artístico, serán más admiradas y codiciadas universalmente, pero no hay otra que tenga la importancia de esta lengua, sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser revelados del todo los fundamentos y los primitivos derroteros de la civilización peninsular, ni podrá ésta ser esencialmente comprendida».

Irreductible a las lenguas vecinas —herederas directas del latín—, sólo tardíamente fue el euskera objeto de cultivo literario escrito. La poesía épica y lírica medieval, transmitida por tradición

oral, quedó recogida en documentos de los siglos XV y XVI. En los siglos XVI y XVII se editaron las obras de Dechepare, Leizarraga, Etcheberri, Axular, Oihenart y otros. Más tarde, en el siglo XVIII, el uso escrito de la lengua vasca adquiere sensible incremento, gracias a los eruditos trabajos de Larramendi y a la producción literaria de Mendiburu, Moguel y otros destacados cultivadores del idioma. Hoy es general la preocupación que en el País Vasco se siente, no sólo por asegurar la conservación y supervivencia de la lengua vasca, sino también por promover su desenvolvimiento en todos los órdenes de la cultura, así en el puramente literario como en el de la investigación y de la técnica. Para ello se hace preciso que el idioma tenga acceso a los centros de enseñanza y a los medios escritos y audio-visuales de difusión, con la imprescindible adaptación de su léxico a las terminologías modernas. Este es uno de los objetivos propios de la Academia de la Lengua Vasca.

La Academia de la Lengua Vasca nació bajo el patrocinio de las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya. La Diputación de Vizcaya, a propuesta de los Diputados Sres. D. Cosme de Elguezábal y D. Félix de Landáburu, acordó, en sesión de 25 de enero de 1918, promover su fundación, y las demás Diputaciones hermanas se adhirieron a dicho acuerdo.

En el memorable Congreso de Estudios Vascos celebrado en la antigua Universidad de Oñate el citado año de 1918 y que fue realzado con la asistencia y personal participación de S. M. el Rey D. Alfonso XIII, se elaboró el proyecto de constitución de la Academia, designándose como académicos fundadores a los Sres. Don Resurrección María de Azkue, D. Julio de Urquijo, D. Luis de Eleizalde y D. Arturo Campión.

En sesión de 21 de septiembre de 1919, celebrada por la Sociedad de Estudios Vascos en el Palacio de la Excma. Diputación de Guipúzcoa y presidida por D. Julián Elorza, Presidente de la Diputación y de la Sociedad citada, se procedió a la elección de ocho académicos numerarios más, a saber: los Sres. Domingo de Aguirre, Pierre Broussain, J. Blaise Adéma, Ramón Inzagaray, José de Aguerre, Juan Bautista Egusquiza, Raimundo de Olabide y Pierre Lhande. Por renuncia de los señores Adéma y Aguerre y fallecimientos de

los Sres. Aguirre y Broussain, fueron elegidos los Sres. Severo de Alrube, Dámaso de Inza, Georges Lacombe y Martín Landerretche.

La Academia de la Lengua Vasca celebró su primera sesión en el Palacio de la Excma. Diputación de Guipúzcoa el 5 de octubre de 1919. Fue elegido Presidente de la misma el Sr. D. Resurrección María de Azkue, que más tarde sería nombrado —al igual que el Sr. Urquijo— miembro de número de la Real Academia Española.

Los Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca fueron publicados en 1920. En 1954 volvieron a publicarse modificados en algunos puntos. El texto actual es una refundición y actualización de los dos anteriores, manteniendo fielmente el espíritu y en muchos casos aun la letra de los mismos, pero haciendo al mismo tiempo las acomodaciones que reclaman el desarrollo y la situación actual de la Institución.

ESTATUTOS

FINES Y NATURALEZA

Artículo 1.º La Academia de la Lengua Vasca, fundada en 1918 bajo los auspicios de las cuatro Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, es una Institución que tiene por fines:

- a) investigar y formular las leyes gramaticales del idioma vasco
- b) dar orientaciones y normas para el cultivo literario del mismo
- c) inventariar su léxico
- d) laborar por la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, gramática y grafía
- e) promover su uso
- f) velar por los derechos de la lengua
- g) trabajar en la capacitación de la lengua, a fin de que ésta pueda ser medio de expresión de la comunidad a todos los niveles
- h) fomentar la celebración de concursos literarios y didácticos

- i) promover los estudios de filología y lingüística con la creación de cátedras de lengua y literatura vasca
- j) expedir los oportunos títulos y certificados.

Art. 2.º En conformidad con estos cometidos, la Academia abarca dos grandes secciones, a saber: la de investigación y la tutelar.

CONSTITUCION ORGANICA

Art. 3.º La Academia de la Lengua Vasca se compone de 24 académicos de número, y de un número indeterminado de académicos correspondientes y de académicos de honor.

Art. 4.º Los académicos de número serán naturales u oriundos de las distintas regiones del País Vasco (provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra, Vizcaya y departamento de Pirineos Atlánticos), a fin de que estén representados en la Academia todos los dialectos tradicionales de la lengua vasca.

Art. 5.º La Academia contará con una Junta de Gobierno, compuesta del Presidente-Director, de un Vicepresidente, de un Secretario y de un Tesorero, elegidos de entre los miembros de número.

Art. 6.º Se podrá designar un Vicesecretario retribuido, que no sea académico de número.

Art. 7.º De entre los miembros de número o correspondientes se designará un Bibliotecario.

Art. 8.º A la Junta de Gobierno incumbe despachar los asuntos de trámite y burocráticos de la Institución, proponer los nombres de las personas que hayan de integrar las distintas Comisiones de trabajo y redactar notas informativas en relación con los asuntos tratados en las sesiones.

Art. 9.º Serán atribuciones y obligaciones del Presidente:

- a) presidir las reuniones de la Institución
- b) cuidar del cumplimiento de sus Estatutos, Reglamentos y acuerdos
- c) representar a la Institución ante toda clase de personas y entidades públicas o privadas
- d) ejercer las demás facultades que se le confieran por reglamentos y acuerdos de la Institución.

Art. 10.º Será de la incumbencia del Vicepresidente sustituir al Presidente en ausencia de éste.

Art. 11.º Corresponderá al Secretario:

- a) extender el acta de cada sesión y firmarla con el visto bueno del Presidente-Director, después de aprobada
- b) dirigir la correspondencia y dar cuenta de ella en las sesiones
- c) redactar la memoria anual y presentarla a la Academia en la sesión correspondiente
- d) coordinar las actividades de las distintas Delegaciones
- e) cumplir los demás cometidos que se le confieran por los reglamentos y acuerdos de las sesiones y de la Junta de Gobierno.

Art. 12.º Compete al Tesorero:

- a) recaudar las cantidades que por cualquier concepto deba percibir la Institución
- b) efectuar los pagos correspondientes
- c) rendir cuentas trimestralmente a la Academia, sin perjuicio de hacerlo al Presidente-Director o a la Junta de Gobierno siempre que sea requerido al efecto.

Art. 13.º Corresponde al Vicesecretario:

- a) sustituir al Secretario en su ausencia
- b) atender en el domicilio de la Academia al despacho normal de los asuntos
- c) despachar los asuntos de trámite de acuerdo con el Presidente, Vicepresidente, Secretario, Tesorero o Bibliotecario, según proceda
- d) remitir por orden del Presidente a todos los miembros el acta de la sesión anterior y la convocatoria de la sesión inmediata, con el orden del día de los asuntos a tratar en ella
- e) colaborar con el Secretario en la coordinación del trabajo de las Delegaciones.

Art. 14.º Será de la incumbencia del Bibliotecario:

- a) conservar y ordenar los libros, manuscritos y documentos de la Institución

b) facilitar tales libros, manuscritos o documentos conforme a las normas que se establezcan en reglamento especial

c) dar cuenta en cada sesión de las nuevas adquisiciones.

SEDE Y DELEGACIONES

Art. 15.º La Institución tiene su sede en Bilbao. Su domicilio actual es Ribera, 6, entresuelo.

Art. 16.º Podrán establecerse Delegaciones en San Sebastián, Vitoria, Pamplona y Bayona.

JUNTAS DE LA INSTITUCION

Art. 17.º Las Juntas de la Institución podrán ser ordinarias y extraordinarias, y estas últimas, públicas o privadas. Todos los meses se celebrará en principio alguna de estas reuniones, y a ellas deberán asistir todos los académicos de número. En caso de no poder hacerlo, deberán excusar su ausencia. Los académicos correspondientes y los honorarios podrán asistir tanto a las sesiones ordinarias como a las extraordinarias públicas, por lo que serán convocados a ellas. Y tendrán voz, aunque no voto, en los asuntos que se refieran a materias gramaticales o literarias.

Art. 18.º Las sesiones extraordinarias privadas se reunirán cuando así lo acuerde la Junta de Gobierno. Esta estará obligada a convocarlas cuando sea requerida a ello por petición escrita de cinco miembros de número.

Art. 19.º Las sesiones extraordinarias públicas se celebrarán con motivo de la recepción y toma de posesión de los nuevos académicos de número, homenajes, conmemoraciones y actos, en general, que, a juicio de la Junta de Gobierno, deban ser revestidos de especial solemnidad.

Art. 20.º A las sesiones extraordinarias privadas asistirán solamente los académicos de número, sin perjuicio de que puedan ser convocados a ellas académicos correspondientes, académicos honorarios e incluso personas ajenas a la Academia, en razón de los asuntos a tratar.

Art. 21.º Las decisiones se tomarán por mayoría y, en su caso, con el quorum que especialmente se determina en estos Estatutos.

Bastará que así lo solicite un académico de número para que la votación sea secreta.

Art. 22.º Los académicos de número que justifiquen la imposibilidad de asistir a la sesión podrán emitir su voto por escrito o por medio de otro miembro de número, debidamente autorizado al efecto. En caso de empate el Presidente tendrá voto de calidad.

Art. 23.º Cuando el Presidente-Director y el Vicepresidente no asistan a la sesión, será ésta presidida por el académico de número más antiguo.

Art. 24.º El Secretario será sustituido en caso de ausencia por el académico de número de más reciente nombramiento.

Art. 25.º Cuando se trate de asuntos previamente declarados importantes por el Presidente-Director será preciso, en primera convocatoria, para la validez de los acuerdos, que asista la tercera parte de los miembros de número y que vote la mitad más uno del total de los académicos; y simple mayoría en segunda convocatoria.

Art. 26.º Tratándose de asuntos no declarados importantes, bastará que así lo pida un académico de número para que queden sobre la mesa hasta la siguiente sesión.

FONDOS DE LA INSTITUCION

Art. 27.º Los fondos de la Institución estarán constituidos:

- a) por las subvenciones y donativos de Corporaciones, Entidades y particulares
- b) por el producto de las publicaciones y trabajos de la Academia.

ELECCION DE CARGOS

Art. 28.º Los cargos de la Junta de Gobierno se proveerán por dos años. Los nombrados pueden ser reelegidos.

Art. 29.º La elección se hará por votación secreta, en sesión extraordinaria privada, dedicada exclusivamente a esta concreta finalidad.

Art. 30.º Con quince días al menos de antelación se remitirá el aviso de sesión, en cuyo orden del día figure la renovación de cargos que en la dicha sesión va a tener lugar.

Art. 31.º Para que la elección sea válida será preciso que el candidato obtenga la mayoría absoluta de votos. Si no se alcanzara el expresado quorum, se verificará nueva votación en la que bastará la simple mayoría.

Art. 32.º La elección y toma de posesión de los miembros de la Junta de Gobierno tendrán lugar en el último trimestre del año.

NOMBRAMIENTO DE NUEVOS ACADEMICOS

Art. 33.º Las vacantes de académicos de número se anunciarán en sesión ordinaria, pudiendo presentarse propuestas para proveerlas en las dos sesiones siguientes a aquella en que se hubiese anunciado la vacante.

Art. 34.º La propuesta para miembro de número deberá ser firmada por tres académicos también de número. Acompañará a la propuesta una relación detallada de los méritos de cada candidato.

Art. 35.º Para ser elegido académico de número será indispensable obtener la mayoría de los votos de los académicos numerarios.

Art. 36.º La recepción de los nuevos académicos de número se efectuará en sesión extraordinaria pública. El académico electo pronunciará el discurso de ingreso y será contestado por un académico de número.

Art. 37.º Cada dos años considerará la Academia la oportunidad de la designación, en su caso, de nuevos académicos correspondientes.

Art. 38.º Para el nombramiento de académico correspondiente será precisa propuesta escrita de dos académicos de número, en la que consten los méritos del candidato. Para la designación será necesario el voto favorable de la mayoría de los académicos de número. La votación será secreta.

Art. 39.º Al rango de los académicos honorarios pertenecerán aquellas personas que en opinión de la Academia hayan prestado

servicios eminentes al idioma. Para su nombramiento se requerirá propuesta escrita de la Junta de Gobierno o de dos académicos de número, y la subsiguiente aceptación del Pleno en sesión académica.

PUBLICACIONES

Art. 40.º La Academia publicará un boletín periódico, donde figurarán, juntamente con trabajos de investigación y literarios, las actas y acuerdos de la Institución.

DISPOSICION ADICIONAL

Art. 41.º Las disposiciones de estos Estatutos serán desarrolladas en oportunos Reglamentos.

(El texto de estos Estatutos fue revisado y aprobado en las sesiones extraordinarias de 30 de diciembre de 1971 y 31 de enero de 1972, y ratificado en la de 4 de abril de 1972).

EUSKALTZAINDIAREN ARAUTEGIA

LEHEN SOLASA

Makina bat jakitun argi izan da euskerari kasu eman, eta hizkuntza hau beren istudio eta azterketen gai bihurtu duenik. Aski izan bedi Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Schuchardt, Uhlenbeck eta Menéndez Pidal-en izenak —beste batzuen artean— gogoratzea.

Bere baitako orijinaltasunaz gainera, euskerak zera eskeintzen dio ikertzaileari: bizitze luzean zehar kondaira eraginen ondorioz ezarri zaizkion hizkuntza-estratuen aztarna. Mendeetan barrena, alegia, bata bestearen segidan, hizkuntzan gertatu diren har-emanen kutsua eta oinatza. Horregatik, eta zibilizazio baten lekuko bizi bakarra delako, bai gizatiar aldetik eta bai kultura aldetik ere balio apartekoa du. Halaxe zion Ramón Menéndez Pidal jaunak Bilbon,

1921. urtean egindako hitzalditan: «Horregatik kondaira istudioaz natorkizue gaur mintzatzeraz. Abantail guztiak dituzte istudio lan honi ekin eta buru emateko: mintzaira bat, zeinaren bibliografia neke handi gabe mendera daiteken, eta zeinaren hauzi larri eta interesgarririk asko doi-doi ukiturik den; herri tipi bat, erraz ingura daitekena; barrengo aldakortasun bat guztiz salataria; eta, batez ere, aintzinatearen bat, liluraz ernaria. Ez dago kondaira dokumenturik, dokumentu bizi hau baino beneragarriagorik, lurralde honen gainean ez dakigu noiztik, menturaz egungo klima eta geologi aroa baino lehenagotik, bizi den hizkuntza hau bezalako dokumenturik. Hark, mendez-mendeko bere estratuetan, gure kondairako korapilorik ilunenak argitzeko ageri baliotsuak eskeintzen dizkigu. Zuen herri honek badu zori handi bat: Hispania-ko aintzinatearen erlikia beneragarrienaren jabe izatea. Bestek balio gehiago izan lezake arte aldetik, miretsiago eta gutiziatuago izanen da gehienetan, baina hizkuntza honen garrantzia duenik ez da. Beronen istudio sakona egin gabe, ezingo dira sekula Hispania-ko zibilizazioaren oinarriak eta lehen urratsak osatoro argitu, eta zibilizazio hori ez da bere mui-nean konprenitua izango».

Latinaren ume diren aldameneko hizkuntzen ondoan zeharo bestelakoa izanik, euskera berandu xamar izan zen idatziz landua. Erdi Aroko olerki epikoa eta lirikoa, ahoz-aho emana, XV eta XVI. mendeetako dokumentutan bildu zen. XVI eta XVII. mendeetan Dechepare, Leizarraga, Etcheberri, Axular, Oihenart eta beste zenbaiten obrak argitaratu ziren. Gero, XVIII. mendean, euskeraz idazteak ugaritze nabaria ezagutzen du, Larramendiren lan jakintsuei eta Mendiburu, Mogel eta beste langile argiren obrei eskerrak. Gaur, Euskalerrian, orotara zabaldu da euskeraren aldeko kezka: hizkuntza hau, alegia, ez bakarrik gorde eta bizirik atera, baina kultura maila guztietara ere behar dela egokitu, bai literatura sailean, eta bai iker-tze eta teknikarenean ere. Hortarako behar-beharrezkoa da euskerak irakastokietan eta begi-belarrien komunikabideetan sarrera izatea, eta hizkuntza honen hiztegia egungo terminologietara jartzea. Hau da Euskaltzaindiaren egiteko berezietarik bat.

Euskaltzaindia Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko Diputazioen babespean sortu zen. Bizkaiko Diputazioak, 1918. urteko urtarilaren 25eko bilkuratan, Diputadu jaun Elgezabal-dar Kosma eta Landaburu-tar Peli-ren proposamenduz, elkargoa hau sortzea era-

baki zuen, eta gainerako Diputazioek erabaki honi beren baiezkora eman zioten.

Oinatik Unibertsitatean, 1918. urtean Eusko Ikaskuntzak eratutako Bilera ospetsuan —errege Alfonso XIII.ak pertsonalki etorri eta parte hartzeaz goratu zuen hartan—, asmu hau mamitu egin zen, eta euskaltzain fundatzaile bezala jaun hauek izendatu ziren: Resurrección María de Azkue, Julio de Urquijo, Eleizalde-tar Koldobika eta Arturo Campión.

1919. urteko irailaren 21ean beste bilkura bat egin zen, Eusko Ikaskuntzak Gipuzkoako Diputazioaren jauregian eratua, eta Julian Elorza Diputazioko eta Eusko Ikaskuntzako lehendakaria buru izanik. Orduan gainerako zortzi euskaltzain osoak izendatu ziren: Txomin Agirre, Pierre Broussain, J. Blaise Adéma, Ramon Inzagaray, Jose de Agerre, Juan Bautista Eguzkitza, Olabide-tar Erraimun eta Pierre Lhande. Adema eta Agerrek kargua utzi egin zutelako eta Agirre eta Broussain hil egin zirelako, hoiien ordeiz Altube-tar Seber, Intza-ko Aita Damaso, Georges Lacombe eta Martin Landerretche izendatu ziren.

Euskaltzaindi sortuberriak bere lehen bilkura Gipuzkoako Diputazioaren jauregian egin zuen, 1919. urteko urriaren 5ean. Resurrección M.^a de Azkue jauna euskaltzainburu hautatua izan zen. Jaun hau geroago, Urquijo jauna bezala, Real Academia Española-ko hizkeltzain oso izan zen hautatua.

Euskaltzaindiaren Arautegia 1920. urtean argitaratu zen. 1954. ean berriz argitaratu zen, zenbait pundutan aldatua. Oraiko testua leheneko bi hoiien bateratze eta gaurkotzeaz egina da, haien izpiritua eta frangotan baita letra ere atxikiaz, eta denbora berean elkargoaren handitze eta oraiko egoitzak eskatzen dituen aldakuntzak eginez.

A R A U T E G I A

Xedeak eta izaera

Lehen artikulua.—Euskaltzaindia Institutio bat da, 1918. urtean, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko lau Diputazioen babespean sortua. Honako xede hauek ditu helburutzat:

- a) euskeraren gramatika legeak ikertu eta mamitzea;

- b) hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea;
- c) hiztegia biltzea;
- d) bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea;
- e) euskeraren enplegua aitzinatzea;
- f) hizkuntzaren eskubideak zaintzea;
- g) hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea;
- h) literatur eta ikas lehiaketak eragitea;
- i) filologia eta linguistikako istudioak suztatzea, euskera eta euskal literaturaren irakas-aulkiak sortuaz;
- j) hartako titulu eta ageriak ematea.

2. art.—Egiteko hauen arauaz, bi sail nagusi ditu Euskaltzaindiak: iker saila eta jagon saila.

Egitura

3. art.—24 euskaltzain osoz, euskaltzain laguntzailez eta euskaltzain ohorezkoz osatua da Euskaltzaindia. Euskaltzain laguntzaile eta ohorezkoentzat ez da muga jakinik.

4. art.—Euskaltzain osoek, sortzez edo jatorriz, Euskalerriko eskualdeetakoak izan behar dute (Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko probintziak eta Atlantiko Pirinioetako departamendua). Era hortara, ahal dela, euskalki guztiek Euskaltzaindian beren ordezkaria izan dezaten.

5. art.—Euskaltzaindiak Zuzendaritza bat izango du, honako hauek osatua: Euskaltzainburu, Buru-orde, Idazkari eta Diruzainaz. Hoiek euskaltzain osoetarik hautatuko dira.

6. art.—Idazkari ordeko bat ere izan daiteke, alogeraz ordaindua. Hau ez da euskaltzain osoa izango.

7. art.—Euskaltzain oso nahiz laguntzailetarik Gutunzain bat izendatuko da.

8. art.—Zuzendaritzari dagokio elkargoaren egunoroko gaiak eta bulego arazoak artatzea, lan Batzordeetan parte hartuko duten pertsonen izenak proposatzea, eta Euskaltzaindiaren bilkura, erabaki eta lanei buruz ageri berriketariak idaztea.

9. art.—Euskaltzainburuaren ahal eta eginbideak hauetxek dira:
- a) elkargoaren bilkuretan buru izatea;
 - b) Euskaltzaindiaren Arautegi, erregela eta erabakiak bete ditezzen begiratzea;
 - c) Institutzioaren ordezkaritza, lagun eta elkargoa mota guztien aurrean eramatea;
 - d) elkargoaren erregela eta erabakiek eman ditzaioketen beste zereginak betetzea.
10. art.—Euskaltzainburu-ordezkoari dagokio: euskaltzainburua falta denean, haren lanak egitea.
11. art.—Idazkariaren zereginak dira:
- a) batzar-ageria egitea. Eta Euskaltzainburuaren oniritziaren izenpetzea, onartu ondoan;
 - b) hartutako eskutitzen erantzutea eta beroien berri batzarretan ematea;
 - c) urteoroko oroit-idazkia prestatzea eta Euskaltzaindira, hartako batzarrean, aurkeztea;
 - d) Ordezkaritzetako lanak kidekatzea;
 - e) Batzarren eta Zuzendaritzaren erregela eta erabakietarik heldu ohi zaizkion gainerako zereginak betetzea.
12. art.—Diruzainari dagokio:
- a) edozein arrazoigatik elkargoak hartu behar dituen diruak jasotzea;
 - b) pagakizunak egitea;
 - c) Euskaltzaindiari hiru hilabetez behin kontu errendatzea; Euskaltzainburu nahiz Zuzendaritzari, eskatzen zaion bakoitzean, egingo dionaz gainera.
13. art.—Idazkari-ordeari dagokio:
- a) Idazkaria falta denean, haren lanak egitea;
 - b) Euskaltzaindiaren etxean zeregin arrunten arta izatea;
 - c) Bulego arazoak aitzinatzea, Euskaltzainburu, Buru-ordezko, Idazkari, Diruzain edo Gutunzainaren oniritziaren, gaiak nola diren;
 - d) Euskaltzainburuaren aginduz, joan den batzarreko ageria eta heldu denekoaren deia, berean erabiliko diren gaien zerrendaz, batzarkide guztiei bialtzea;

- e) Ordezkaritzetako lanak kidekatzen Idazkariari laguntzea.
14. art.—Gutunzainari dagokio:
- a) Elkargoaren liburu, esku izkribu eta gutunak gorde eta ondozkatzea;
- b) liburu, esku izkribu eta gutun hoiek uztea, jarritako erre-gela berezi batzuen arauaz.
- c) etxera diren liburu nahiz gutunen berri ematea.

Etxea eta Ordezkaritzak

15. art.—Euskaltzaindiak Bilbon du bere etxea. Haren egungo egoitza: Hibaiondo, 6, arteko.

16. art.—Ordezkaritzak sor daitezke Donostian, Gasteizen, Iruinean eta Baionan.

Elkargoaren bilkurak

17. art.—Elkargoaren bilkurak arruntak eta bereziak izan daitezke; eta azkenengo hauek, agerikoak edo barrengoak. Hilabete oro, ahal dela, bilkura hoietakoren bat egingo da, eta euskaltzain oso guztiak daude joateko behartuak. Joaterik ez baldin badute, joan ezinaren arrazoia agertu behar dute. Euskaltzain laguntzailleak eta euskaltzain ohorezkoak bilkura arruntetara eta berezi agerikoetara joan daitezke, eta horregatik hartako deia bialduko zaie. Gramatika eta literatur arazoetan hitza izanen dute, bainan ez boza.

18. art.—Bilkura berezi barrengoak Zuzendaritzaren aginduz xoilki bilduko dira. Bilkura hoiek biltzera beharturik dago Zuzendaritza, noiz eta bost euskaltzain osok izkribuz hala eskatzen duten.

19. art.—Bilkura berezi agerikoak, euskaltzain oso berrien sarretan, gorazarre, oroitzapen, eta, labur, Zuzendaritzaren iritziz halako ospe batez inguraturik egotea komeni diren paradetan eginen dira.

20. art.—Bilkura berezi barrengoetara euskaltzain osoak bakarrik joango dira. Horrek ez du esan nahi, ukitu behar diren gaiak hala eskatzen dutenean, besterik ere joan ez daitekeanik, nahiz euskaltzain laguntzaile, nahiz euskaltzain ohorezko, nahiz Euskaltzaindikoa ez dena ere bai.

21. art.—Erabakiak nagusitasunez hartuko dira, eta, behar denean, Arautegi honetan berariaz agintzen den «quorum» delakoaz.

Aski da euskaltzain oso batek hori eskatzea bozketa izkutua egin dadin.

22. art.—Batzarrera ez etortzeko arrazoi taxuzkoa duten euskaltzain osoek beren boza nahiz izkribuz nahi beste euskaltzain oso baten bidez (hartako ahala honi emanez) igor dezakete. Iritziak berdin agertzen badira, Lehendakariak izanen du bere azken hitza.

23. art.—Euskaltzainburua eta Buru-ordea batzarrera etor ez balitez Euskaltzaindian zaharrena den euskaltzain osoa izanen da buru.

24. art.—Idazkaria falta denean, azkenengo izendatua izan den euskaltzain osoak egingo du haren lana.

25. art.—Lehendakariak alde aurretik axola handikotzat jo dituen arazoak erabaki behar direnean, erabakiak indarra izan dezan, lehen deian, euskaltzain osoek hirutatik batek joan behar dute batzarrera, eta erdiak baino bat gehiagok boza eman behar du; bigarren deian, berriz, aski da nagusitasun soila.

26. art.—Axola handikotzat jo gabeko arazoetan, aski izanen da euskaltzain oso batek hori eskatzea, arazo hura hurreneko batzarrera arte mahain gainean utz dadin.

Elkargoaren dirutza

27. art.—Hona Elkargoaren dirutzaren etorpideak:

- a) Korporazio, Elkarte eta partikularren laguntza eta emaitzak;
- b) Euskaltzaindiaren agerkari eta lanen etekinak.

Karguen hautatzea

28. art.—Zuzendaritzako karguak bi urtetarako izanen dira. Izendatuak berriro hautatuak izan daitezke.

29. art.—Hautatzea bozketa izkutuz egingen da, hartarakotzat soilki bilduko den bilkura berezi barrengo batetan.

30. art.—Kargu berritzea egingen den bilkurarako deia, hama-bost egun aurretik gutxienez bidali behar da, eta egitarauetan hautatzea aipatuko da.

31. art.—Hautatzea errutsua izan dadin, gaiak nagusitasun osoa erdietsi beharko du. «Quorum» hori izango ez balitz, bozketa berria egingen da, eta orduan aski da nagusitasun soila.

32. art.—Zuzendaritzako lagunen hautatzea eta kargu hartzea urtearen azken laurdenean egingo dira.

Euskaltzain berrien izendapena

33. art.—Euskaltzain osoen hutsuneak batzar arruntetan jakinaraz bitez, eta hutsuneok hornitzeko proposamenduak horren hurreneko bi batzarretan aurkeztu ahal izango dira.

34. art.—Euskaltzain osoa izateko proposamendua hiru euskaltzain osok izenpetu behar du. Proposamenduaz batera, zerrenda bat egin behar da, gai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz.

35. art.—Euskaltzain oso hautatua izateko, euskaltzain osoen bozen nagusitasuna erdietsi behar da.

36. art.—Euskaltzain oso berrien sarrera bilkura berezi agerikotan eginen da. Euskaltzain hautatuberriak sarrera hitzaldia eginen du, eta euskaltzain oso batek erantzungo.

37. art.—Bi urtez behin ikusiko du Euskaltzaindiak ea euskaltzain laguntzaile berririk izendatu behar ote den.

38. art.—Inor Euskaltzain laguntzaile izenda dadin, proposamendua bi euskaltzain osok izkribuz egin behar du, eta izkribu horretan gaiaren merezimenduak aipatuko dira. Hautatua izateko, euskaltzain osoen bozen nagusitasuna behar da, gainera.

39. art.—Euskaltzain ohorezkoen mailan sartuko dira Euskaltzaindiaren ustetan euskerari mesede bikainak egindako lagunak. Izendatuak izateko, izkribuzko proposamendua behar da, nahiz Zuzendaritzak nahiz bi euskaltzain osok egin, eta Batzarraren onartzea.
Agerkariak

40. art.—Euskaltzaindiak aldiroko boletin bat argitaratuko du, eta berean, iker eta literatur lanekin batean, elkargoaren ageri eta erabakiak etorriko dira.

Eraskina

41. art.—Arautegi honetako arauak behar diren erregelez osatuko dira.

STATUTS DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

PREAMBULE

La langue basque a attiré l'attention d'éminents spécialistes qui lui ont consacré leurs études et leurs recherches. Qu'il suffise de rappeler les noms de Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Schuchardt, Uhlenbeck, Menéndez Pidal entre autres.

Outre son originalité, l'EUSKERA offre au chercheur la trace des successives stratifications linguistiques qui, au cours des siècles, se sont déposées dans la langue par suite des diverses influences historiques qu'elle a reçues à travers sa longue vie. Pour cela et parce qu'elle est le véhicule d'une civilisation dont elle constitue aujourd'hui l'unique témoignage vivant, elle représente une valeur d'un extraordinaire intérêt culturel et humain. C'est ce que proclamait Don Ramón Menéndez Pidal dans un discours prononcé à Bilbao en 1921. «C'est pour cela que j'ai voulu vous parler aujourd'hui «de l'étude historique. Vous avez tous les atouts en main pour l'entreprendre et la mener à bien; une langue dont la bibliographie peut «être embrassée sans fatigue et dont beaucoup de questions intéressantes sont à peine effleurées; un petit territoire qui peut être «commodément parcouru, une variété interne extrêmement révélatrice et surtout un archaïsme mystérieux plein d'intérêt. Il n'y a «pas de document historique plus vénérable que ce document vivant, «cette langue conservée sur ce territoire depuis une époque incalculable peut-être antérieure au climat et à la période géologique actuels. C'est elle qui, dans ses sédimentations multiséculaires, nous «offre des restes précieux pour éclairer les plus obscurs problèmes «de notre histoire. Vous avez la chance que votre peuple soit le «dépositaire de la relique la plus vénérable de l'antiquité hispanique. «D'autres langues auront une plus grande valeur artistique, seront «plus admirées et enviées universellement, mais il n'y en a pas d'autre «qui ait son importance. Sans l'étude approfondie de l'EUSKERA, «jamais ne pourront être révélés totalement les fondements et les «primitifs chemins de la civilisation péninsulaire, pas plus que celle-ci ne pourra être essentiellement connue».

Irréductible aux langues voisines, héritières directes du latin, ce n'est que tardivement que l'EUSKERA a été un instrument de

culture littéraire écrite. La poésie épique et lyrique médiévale, transmise par tradition orale, a été conservée dans des documents des XV^{ème} et XVI^{ème} siècles. Aux XVI^{ème} et XVII^{ème} siècles furent éditées les oeuvres de Dechepare, Leizarraga, Etcheberri, Axular, Oihenart et autres. Plus tard, au XVIII^{ème} siècle, l'usage écrit de la langue basque s'accroît sensiblement grâce aux travaux érudits de Larramendi et à la production littéraire de Mendiboure, Moguel et autres remarquables ouvriers de la langue. Aujourd'hui on sent que se généralise au Pays Basque la préoccupation non seulement d'assurer la conservation et la survivance de la langue basque, mais aussi de promouvoir son développement dans les domaines de la culture, aussi bien dans le domaine purement littéraire que dans celui de la recherche et de la technique. Pour cela il faut que la langue basque ait accès aux centres d'enseignement et aux moyens écrits et audio-visuels de diffusion, avec l'indispensable adaptation de son lexique aux terminologies modernes. C'est là un des objectifs propres à l'Académie de la langue basque.

L'Académie de la langue basque naquit sous la patronage des «Diputaciones» d'Alava, de Guipuzcoa, de Navarre et de Biscaye. La «Diputacion» de Biscaye, sur la proposition de M. M. les Députés Cosme de Elguezábal et Feliz de Landáburu décida dans sa séance du 25 Janvier 1918 de mettre en oeuvre la fondation de l'Académie et les autres «diputaciones» soeurs approuvèrent cette décision.

Au cours du mémorable congrès des études basques qui eut lieu dans l'antique Université d'Oñate, cette même année 1918, et qui fut rehaussée par la présence et l'effective participation de S. M. Alphonse XIII, fut élaboré le projet de constitution de l'Académie et furent désignés comme membres fondateurs MM. Resurrección María de Azkue, Julio de Urquijo, Luis de Eleizalde et Arturo Campión.

A la séance du 21 Septembre 1919, tenue par la Société des Etudes basques au Palais de «Diputación» de Guipúzcoa et présidée par Don Julián ELORZA, Président de la Diputacion et de la dite Société, il fut procédé à l'élection de huit académiciens titulaires supplémentaires: MM. Domingo de Aguirre, Pierre Broussain, J. Blaise Adéma, Ramon Inzagary, José de Aguerre, Juan Bautista

Egusquiza, Raimundo de Olabide et Pierre Lhande. A la suite de la renonciation de MM. Adéma et Aguerre et du décès de MM. Aguirre et Broussain, furent élus MM. Severo de Altube, Dámaso de Inza, Georges Lacombe et Martin Landerretche.

L'Académie de la langue basque tint sa première séance au Palais de la «Diputación» de Guipuzcoa le 5 Octobre 1919. M. Resurrección María de Azkue qui, plus tard, devait être nommé, de même que M. Urquijo, membre titulaire de l'Académie royale espagnole en fut élu le Président.

Les statuts de l'Académie de la langue basque furent publiés en 1920. Ils furent publiés à nouveau en 1954, modifiés sur certains points. Le texte présent est une refonte et une mise à jour des deux textes antérieurs; il en maintient fidèlement l'esprit et en plusieurs cas la lettre, mais il procède en même temps aux adaptations que réclament le développement et la situation actuelle de l'Institution.

STATUTS

BUTS ET NATURE

Art. 1. — L'Académie de la langue basque fondée en 1918 sous les auspices des quatre «diputaciones» d'Alava, Guipuzcoa, Navarre et Biscaye est une institution qui a pour buts:

- a) de rechercher et formuler les lois grammaticales de la langue basque.
- b) de donner des orientations et des normes pour la culture littéraire de la dite langue.
- c) d'inventorier son lexique.
- d) de travailler pour la formation d'un langage littéraire unifié dans son lexique, sa grammaire, sa graphie.
- e) de promouvoir son usage.
- f) de veiller aux droits de la langue.
- g) de travailler à l'enrichissement de la langue afin qu'elle puisse être un moyen d'expression de la communauté à tous les niveaux.
- h) de fomenter l'éclosion de concours littéraires et didactiques;

- i) de promouvoir les études de philologie et de linguistique avec la création de chaires de langue et littérature basques.
- j) de dispenser les titres et certificats idoines.

Art. 2. — Conformément à ces tâches, l'Académie comporte deux grandes sections, à savoir, la section d'investigation et la section tutélaire.

CONSTITUTION ORGANIQUE

Art. 3. — L'Académie de la langue basque est composée de 24 académiciens titulaires et d'un nombre variable de membres correspondants et d'académiciens d'honneur.

Art. 4. — Les Académiciens titulaires doivent être natifs ou originaires des différentes régions du Pays Basque (provinces de Alava, Guipuzcoa, Navarre, Biscaye et département des Pyrénées-Atlantiques) afin que soient représentés à l'Académie tous les dialectes traditionnels de la langue basque.

Art. 5. — L'Académie dispose d'un bureau composé du Président-Directeur, d'un Vice-Président, d'un Secrétaire et d'un Trésorier élus parmi les membres titulaires.

Art. 6. — On pourra désigner un Secrétaire - Adjoint rétribué qui ne sera pas membre titulaire.

Art. 7. — Parmi les membres titulaires ou correspondants sera choisi un bibliothécaire.

Art. 8. — Il incombe au Bureau d'expédier les affaires et formalités courantes de l'Institution, de proposer les noms des personnes qui composeront les différentes commissions de travail et rédiger les notes d'information relatives aux sujets traités au cours des séances.

Art. 9. — Le Président a pour attribution et obligation:

- a) de présider les réunions de l'Institution;
- b) de veiller à l'application de ses statuts, règlements et décisions.
- c) de représenter l'Institution devant toutes sortes de personnes, entités publiques ou privées;

- d) d'exercer les autres pouvoirs qui lui seront conférés par les règlements et décisions de l'Institution.

Art. 10.—Il incombe au Vice-Président de remplacer le Président en l'absence de celui-ci.

Art. 11.—Le Secrétaire est chargé:

- a) de rédiger le procès-verbal de chaque séance et de le signer avec l'accord du Président-Directeur après son approbation.
- b) de s'occuper de la correspondance et d'en rendre compte au cours des séances.
- c) de rédiger le rapport annuel et le présenter à l'Académie dans la séance affectée à la lecture de ce rapport.
- d) de coordonner les activités des différentes délégations.
- e) d'accomplir les autres tâches qui lui seront confiées par les règlements, les décisions prises pendant les séances et par le bureau.

Art. 12.—Le Trésorier est chargé:

- a) de recevoir toute somme d'argent due à l'Institution.
- b) d'effectuer les paiements qui incombent à l'Académie.
- c) de présenter les comptes chaque trimestre à l'Académie, sans préjudice d'avoir à le faire au Président-Directeur ou au bureau, chaque fois qu'il le lui sera demandé.

Art. 13.—Le Secrétaire-adjoint est chargé:

- a) de remplacer le Secrétaire en l'absence de celui-ci;
- b) de s'occuper au domicile de l'Académie de l'expédition normale des affaires.
- c) d'expédier les affaires courantes, en accord avec le Président, Vice-Président, Secrétaire, Trésorier ou Bibliothécaire, selon les cas.
- d) d'adresser sur ordre du Président à tous les membres le procès-verbal de la séance précédente et la convocation à la séance suivante avec l'ordre du jour des sujets qui y seront traités.
- e) de collaborer avec le Secrétaire à la coordination du travail des délégations.

Art. 14. Il incombe au bibliothécaire:

- a) de conserver et mettre en ordre les livres, manuscrits et documents de l'Institution.
- b) de communiquer les dits livres, manuscrits ou documents conformément aux normes qui seront établies dans un règlement spécial.
- c) de rendre compte à chaque séance des nouvelles acquisitions.

SIEGE ET DELEGATIONS

Art. 15.—L'Institution a son siège à Bilbao. Son domicile actuel est Rue Ribera, n.º 6, Entresol.

Art. 16.—Des délégations pourront être établies à Saint Sébastien, Vitoria, Pampelune et Bayonne.

REUNIONS DE L'INSTITUTION

Art. 17.—Les réunions de l'Institution pourront être ordinaires et extraordinaires et ces dernières publiques ou privées. Tous les mois auront lieu en principe l'une ou l'autre de ces réunions et tous les académiciens titulaires devront y assister. Dans le cas où ils ne pourraient y assister, ils devront excuser leur absence. Les membres correspondants et les membres d'honneur pourront assister aux séances ordinaires comme aux séances extraordinaires publiques et ils seront convoqués aux dites réunions. Ils auront voix consultative mais non délibérative pour les sujets se référant à des matières grammaticales ou littéraires.

Art. 18.—Les séances extraordinaires privées se tiendront uniquement sur décision du bureau. Celui-ci sera obligé de les convoquer quand il sera requis à cet effet par une demande écrite de cinq membres titulaires.

Art. 19.—Les séances extraordinaires publiques auront lieu à l'occasion de la réception et prise de possession de charge de nouveaux membres titulaires, d'hommages, commémorations et actes en général qui, selon l'opinion du bureau, devront revêtir une spéciale solennité.

- Art. 20.—Seuls les membres titulaires assisteront aux séances extraordinaires privées sans préjudice de la participation, lorsqu'ils y seront requis, de membres correspondants, membres d'honneur et même de personnes étrangères à l'Académie en raison des sujets à traiter.
- Art. 21.—Les décisions seront prises à la majorité et, en ce cas, avec le quorum qui est spécialement déterminé dans ces statuts. Il suffira pour que le vote soit secret qu'un membre titulaire le demande.
- Art. 22.—Les membres titulaires qui justifieront de l'impossibilité d'assister à la séance pourront voter par écrit ou par l'intermédiaire d'un autre membre titulaire dûment autorisé à cet effet. En cas de partage, la voix du Président est prépondérante.
- Art. 23.—En cas d'absence du Président-Directeur et du Vice-Président, la séance sera présidée par le membre titulaire le plus ancien.
- Art. 24.—En cas d'absence, le Secrétaire sera remplacé par le membre titulaire le plus récemment nommé.
- Art. 25.—Quand il s'agira de sujets préalablement déclarés importants par le Président-Directeur, il sera nécessaire à la première convocation pour la validité des décisions que le tiers des membres titulaires assiste à la réunion et que vote la moitié plus un des membres titulaires et la majorité simple à la seconde convocation.
- Art. 26.—Lorsqu'il s'agira de sujets déclarés non importants, il suffira qu'un seul membre titulaire le demande pour qu'ils soient renvoyés à la séance suivante.

FONDS DE L'INSTITUTION.

Art. 27.—Les fonds de l'Institution seront constitués:

- a) par les subventions et dons de corporations, d'entités et de particuliers.
- b) par le produit des publications et travaux de l'Académie.

ELECTIONS AUX CHARGES.

- Art. 28.—Les membres du bureau seront élus pour deux ans. Ils peuvent être rééligibles.
- Art. 29.—L'élection se fera au scrutin secret en séance extraordinaire privée consacrée uniquement à cela.
- Art. 30.—La séance au cours de laquelle aura lieu le renouvellement du bureau sera annoncée quinze jours à l'avance.
- Art. 31.—Pour que l'élection soit valable, le candidat devra obtenir la majorité absolue des voix. S'il n'y parvient pas, un nouveau vote aura lieu pour lequel la majorité simple suffira.
- Art. 32.—L'élection du bureau et la prise de possession des charges aura lieu au cours du dernier trimestre de l'année.

ELECTION DE NOUVEAUX ACADEMICIENS.

- Art. 33.—Les vacances aux postes de membre titulaire seront annoncées en séance ordinaire. Les propositions pour y pourvoir pourront être présentées au cours des deux séances, qui suivront celle où a été annoncée la vacance.
- Art. 34.—La proposition pour un membre titulaire devra être signée par trois académiciens titulaires. Elle sera accompagnée d'une notice détaillant les mérites de chaque candidat.
- Art. 35.—Pour être élu membre titulaire, il sera nécessaire d'obtenir la majorité des voix des membres titulaires.
- Art. 36.—Les nouveaux membres titulaires seront reçus en séance publique extraordinaire. L'académicien élu prononcera le discours de réception auquel répondra un membre titulaire.
- Art. 37.—Tous les deux ans, l'Académie envisagera l'opportunité de l'élection de nouveaux membres correspondants.
- Art. 38.—Pour l'élection de membres correspondants une proposition écrite de deux membres titulaires attestant les mérites du candidat sera nécessaire. Pour être élu, le candidat devra obtenir le vote favorable de la majorité des membres titulaires au cours d'un vote secret.

Art. 39.—Feront partie des membres d'honneur les personnes qui aux yeux de l'Académie auront rendu des services éminents à la langue. Pour l'élection sera exigée une proposition écrite du bureau ou de deux académiciens titulaires et l'accord du Plénium au cours d'une séance de l'Académie.

PUBLICATIONS.

Art. 40.—L'Académie publiera un bulletin périodique où figureront à côté de travaux de recherche et de travaux littéraires, les actes et décisions de l'Institution.

DISPOSITION ADDITIONNELLE.

Art. 41.—Les dispositions de ces statuts seront développées en des règlements opportuns.

Le texte de ces statuts fut revu et approuvé au cours des séances extraordinaires du 30 Décembre 1971 et du 31 Janvier 1972 et ratifié au cours de la séance extraordinaire du 4 Avril 1972.

ARAUTEGI BATZORDEAK «GESTIO» BATZUK EGIN DITZAN

Jaunak: Dakizuten bezala, apirilaren 4eko bilkura berezian Arautegi berriari birretsia edo ratifikazioa eman zitzaion. Gero Arautegi honen testuaren kopiak atera eta denon artean zabaldu dira. Euskal eta frantses itzulpenak ere eginik daude. Eta horrela —hiru hizkuntzetan, alegia— agertuko da Euskera-ren hurrengo zenbakian.

Hemendik aurrera, bada, gure Euskaltzaindiaren martxa eta gora-beherak zuzentzeko, Arautegi hau izango dugu oinarri lege.

Alde hontatik Arautegia prestatzeko jarri zen Batzordeak burutu du bere lana. Baina hauzi honek badu oraino beste saietsik.

Euskaltzaindia Institutuzio bat da, eta nahi dugu hala aitortua eta ezagutua izan dedin; legearen aurrean bere nortasuna aitortu da-kion, alegia. Uste dugu geroago eta beharrezkoago duela legezko

ezagutza oso eta garbi baten jabe izatea, bere helburuen alde esku-bide osoz eta efikaziaz lan egin ahal izateko.

Ixilpean edo erdizkako legetasun batekin geroago eta gutiago egin ahal izango dugu.

Hortarako, ordea, «gestio» eta urrats bat baino gehiago egin beharra dago.

Egin beharko diren urrats hoiek egiteko, nik ez dut uste batzorde berezirik jarri behar denik. Arautegia prestatzen lan egin duena bera aski da hortarako.

Nik hauxe eskatzen diot, bada, batzarrari: Arautegi batzordeari baimena eman dakion gestio edo urrats hoiek egiteko. Egile Atalekoak egile bezala, eta kontseilari atalekoak kontseilari bezala, batzorde hau da egokiena, nik uste, arazo hori nola aurrera eraman istudiatu eta hortarako egin beharko diren gestioak egiteko.

Donostia, 28-4-72

HARITSCHELHAR JAUNA, BATZAR MODERATZAILE

Gure batzarreetan elkar hizketaren gidari, eztabaiden neurtzaile eta batzarrearen martxa zuzentzeko zuzendari bat, euskaltzainburuaz landara, behar zela, behin baino gehiagotan esan dugu. Eta hortarako idazkari ordea izendatu ere egin zen. Baina bere zeregina betetzea ez zaio erraz egiten, eta bera euskaltzain oso ez izatea ere beti da zerbait eragozpen kargu hau ongi bete ahal izateko. Berak utzi nahi luke, bada, zeregin hori.

Eginbide hau betetzeko euskaltzainburu ordea, Haritschelhar jauna, pentsatu dugu txit aukerakoa izango litzakela, duen itzalagatik eta bai jaun honen beste dohaiagkatik ere; eta hala, jaun horren baietza jakin ondoren, berau proposatu dut gaur goizean euskaltzain osoen bilkuran, eta hala onartua izan da.

Beraz, berau izango dugu batzarrearen moderatzaile. Moderatzaile honen egitekoak honako hauek izango dira: batzarrearen haria ipinitako gaien arabera zuzen eramatea, elkar hizketa gidatzea, hitza

6. Lanak argitara gabeak izan behar dira, eta hiru kopia bialdu behar dira Euskaltzaindiaren etxera (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, Bilbao-5), 1972ko Uztailaren 26rako. Lema batekin izenpetua, eta lemaren giltza estaldua, lanarekin batera bidali.
7. Epai-mahaina Euskaltzaindiak izendatuko du.
8. Saria, Urriaren 31an, Aurrezki Kutxen egunean emango da, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren etxean egingo den jaialdian.
9. Arau hauek interpretatzean sortzen diren arazo guziak Euskaltzaindiak izendatzen duen epai-mahainak erabakiko ditu. Eta erabakiaren kontra inora joaterik ez dago.

EUSKALTZAINDIA

ALFABETATZE BATZORDEAREN OINARRI ARAUAK

Euskaltzaindiak, Donostian, 1972ko Ekainaren 30ean egindako batzarrean onartuak

1. Alfabetatze Batzordea, Euskaltzaindiaren batzordeetarik bat da, Euskaltzaindiak bere batzar arrunt batean bi urterako izendatua.

2. Batzorde honen xedeak, hauek dira: euskeraz irakurtzen eta idazten irakastea. Horrekin batean, euskeraren inguruko gaiak sar daitezke: euskal literatura, euskeraren batasuna, euskeraren geografia eta dialektologia, eta abar. Alfabetatze literarioa, beraz. Bestelako gaiak ez dira Euskaltzaindiaren Alfabetatze Batzordearenak. Zenbaitek beste gairik erabili nahi baldin badu, ezingo du Euskaltzaindiaren eta bere «Euskal Alfabetatzearen» izenik hartu.

3. Alfabetatze Batzordeak hiru sail izango ditu: bi Euskaltzaindikoen artean (gidaritza saila eta bulego saila), eta hirugarrena irakasleen artean osatuak.

4. *Gidaritza Saila*. Sail honek, ahal izatera, Eusklerriko bost eskualdeetako (Bidasoaz hango, Nafarroako, Gipuzkoako, Araba eta Bizkaiko) jendez osatua izan behar du, euskaltzain oso bat lehen-dakari dela. Idazkari bat izatea ere komeni da. Sail honen zereginak: irakurgaiei kasu egitea, testuei oniritzia ematea eta Euskal-

tzaindiari batzarrera aurkeztea, alfabetatze irakasleen azterketak egitea, ikastaroen mahaiburua osatzea, eta antzerakoak.

5. *Bulego Saila*. Sail hau Euskaltzaindiaren Ordezkaritzetako Bulego idazkariekin osatua da. Sail honen zeregina: burokrazia arazoan arta izatea. Euskaltzaindiaren etxean egongo da Alfabetatze Batzordearen artxibo nagusia.

6. *Irakasle Saila*. Sail hau irakasleek beren artean osatzen dute. Eskualdeka idazkari bana izango da, eta idazkari horien artean idazkari nagusi bat egongo da, beren artean hautatua eta Euskaltzaindiak batzarrean onartu beharko duena. Sail honen zereginak: irakasleen arteko har-emanak ugaritzea, egindako lanen eta esperientzien berri elkarri ematea, irakasle berrien ikastaroak eragitea, erabili behar diren metodoak hobetzeko asmoak hartzea, eta abar. Guzti hauen berri, «dossier» erara, Euskaltzaindiari, Gidaritza eta Bulego Sailen bidez, eman beharko diote: eskualde bakoitzekoak, hango bereko idazkariak, eta denenak, idazkari nagusiak.

7. Alfabetatze ikastaroak Euskaltzaindiaren gidaritza eta babesaz eratzen dira, tokian tokiko Elkarteren baten laguntzaz. Elkarre horren buruak ikastaroa Arautegi honen arabera egiteko erantzukizuna hartu beharko du.

8. Irakasle Sailean sartuak egongo dira orain arte karnetdun direnak eta hemendik aurrera karnet hori erdietsiko dutenak. Gaur karnetdun direnak beren karnet horiek Euskaltzaindiaren etxera bidaliko dituzte, irakasleen fitxerua osa dedin, bakoitzak ikastaroak non eman dituen eta abar adieraziaz; eta karnet berria hartuko dute, bakoitzari dagokion zenbaki bereziaz hornitua.

9. Ikastaroaren eratzaileek galdeketa bat bete eta Euskaltzaindikiko Ordezkaritzaren batera bidali behar dute. Ikastaroa Bizkaitik kanpora egiten bada, bi ale bidaltzea hobe, bat gero Ordezkaritzak Euskaltzaindiaren Etxeko artxibu nagusira igor dezan. Aldamenen doa galdeketa honen eredu.

10. Alfabetatze Batzordeak urtean lau batzar egin beharko ditu gutienez. Bat, orokarra: honetan Sail guztietako ordezkariek bakarrik parte hartuko dute. Beste hiruretan, berriz, Gidaritza eta Bulego Sailetako guztiek eta Irakasle Saileko idazkariak (edo honen ordezkoak).

EUSKAL IRAKASLE TITULUA

Euskaltzaindiaren euskal irakasle titulua lortzeko eskatuko dena

A. LEHENGO MAILA

1. *Ortografiazko arauak*. Arantzazun eman zirenak. Diktado baten bidez eskatuko litzaizkioke kandadatoei.

2. *Morfologia*: izenjokoa, sufijazioa, aditza.

3. *Analisa*: morfologiari eta sintasiari buruzkoa. Morfologiazkoan lehen aipaturikoak sartuko lirake. Sintasiatzkoan galdegaia, esaldien azterketa (kausalak, relatibozkoak, noizkoak, kondizionalak, konzesibak, konparatibak, etab.), *la* eta *n* noiz, nola eta zergatik erabiltzen diren galdegingo litzaioke.

4. Gaztelaniatik euskarara itzulpena.

5. Oinarrizko *hiztegia*, Mitxelenak aurrenik proposatu zuena, ezaguteza. Norberak erabiltzeko adina ez baledi ere, testo batean azaltzen delarik hitz haien berri jakiteko adina bederen.

6. Gai batez *mintzarazi*. Aukera hiru eman, esaterako, eta ikasleak leritzakeenaz ordu laurdenean hitz egin.

7. *Metodologia*. Zer da hizkuntza irakastea? nola irakats?

8. Egungo eguneko *autoreak ezagutu*, horiek irakurtzeko erraztasuna izan, autore horietako batzuen berri jakin, etab.

9. *Euskera batua*ren teoria. Haretan idatziriko puska eman eta bere xehetasunik nabarmenen berri eman. Batasunerako proposatzen diren aditz sistemen berri jakin.

B. BIGARREN MAILA: Lehengoez gainera:

1. *Dialektologia* piska bat. Bateko eta bosteko puskek eman eta bakoitzaren berezitasunak ezagutu. Zer euskalkitako den halako puskarri igerri, noizkoa den, norena den asmatu eta urreman bederen.

2. *Literatura*: oraingo idazleez gainera klasikoak ere ezagutu, bakoitzaren berri jakin: Axular, Detxepare, Mogel, Agirre, etab.

3. Euskararen historia eta bizitza ezagutu. Zer da euskara?

4. *Estilistika* piska bat. Testoa emanik, bere berezitasunik nabarmenenak aditzera eman: esaldi osatzeko tankera, izena eta izenlaguna erabiltzeko era, joskera, esaldi bakoitzaren tolestapena, etab.

5. *Lan monografikoa* nahiz literaturari nahiz pedagogiari buruzkoa. Baita autoreren baten idazlanaren azterketa ere. Hamabost edo hogeit hamar orrialdetakoa.

6. *Praktika* luze samarra. Lehendik irakasten aritua beharko luke izan maila honetako titulu bila letorkeenak.

C. GORENGO MAILA:

Nolabait esateko, Filosofiako karrera duen mailakoa beharko luke izan maila honek. Goregi irizten balio norbaitek, profesionalistena bederen, hots, euskaraz irakasten bizimodua atera eta gehienbat hartean arituko lirakeenena. Ez bekigu ahantz, euskal IRAKASLE tituluaz ari garela.

Lehenengo bi mailatan *eskatuaz gainera*, honetan bereziki besteok eskatuko dira:

1. Euskal jakintzaz gainera, linguistikaz ikasia beharko luke izan. Linguistika zer den, joerarik eta eskolarik ezagunenak zein diren, fonologia zer den, etab. Hitz batez, Mitxelenaren Euskal Fonetikaz ongi jabetua beharko luke izan.

Linguistikako teoriarik ezagunenak jakin beharko lituzke: estrukturalismoa eta konparatibismoa zer diren: Chomskyren berri ere bai.

2. Euskal literatura osoaz gainera beste herrietako literaturaz ere jakin behar luke zenbait gauza; ezin bait daiteke gure zenbait autoreren berri eta gure obra batzuen balio, zenbaiterainokoa den ongi jakin, inguruko literaturaren berri jakin gabe. Beraz esaterako, romantizismoa zer izan den, kostumbrismoa zer den, tragedia bat eta komedia bat zertan bereizten diren, poesia nolakoa eta zenbat eratakoa eta garairik handienetan zer joeratakoa izan den, etab. jakin gabe ezingo luke inork maila honetako titulurik eskura.

3. Euskararen jatorriari buruz eta beste zenbait hizkuntzarekin omen duen antzari eta aldeari buruz ere ezagutu beharko lituzke bataren eta bestearen iritziak. Uhlenbeck, Schuchardt, Bouda, La-

fon, Tovar eta beste zenbait hizkuntzalarik euskarari buruz esanak jakin behar ditu. Kaukasoetako hizkuntzekin, iberikoarekin, eta abarrekin zer antz eta zer alde dituen. Latinetik hartu dituenak, zer esanik ez.

BIBLIOGRAFIA PUSKA BAT

A. *Lenengo maila*

Euskera 1968, Academia de la Lengua Vasca, Bilbao, 1968.
Villasante-ren *Hacia la lengua literaria común*.

Villasante-ren *La declinación del vasco literario común*,
biak Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate, 1970
eta 1972.

Batasunaren kutxa, Lur Editoriala, Donostia, 1971.

Lehen urratsak, Lur Editoriala, Donostia, 1971.

Ikastola hiztegia, Gordailu, Donostia, 1971.

Euskal Gramatika, Fernando Mendizabal, Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate.

Euskal Gramatika laburra, A. Villasante, Editorial Franciscana Aránzazu, Oñate,
eta Harriet, Etxeberri, Harotçena, Belloc-ekoa, Umandi,
Arrigarai (Ataun), Lopez-Mendizabal, Peña, Oñatibia,
Altuna etab.-en gramatika eta euskal irakasbide.

B. *Bigarren maila*

La lengua vasca, Lafon, Enciclopedia ling. hispánica I,
Madrid, C.S.I.C.

P. de Yrizar, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de
Amigos del País.

Ettxepare, Leizarraga, Axular, Oihenarte, Etxeberri Sara-
koa, *Peru Abarka* Mogelena, *Testamentu Berria* Lardi-
zabal-ena, Iturriaga, Etxahun, Bilintx, Elizanburu, Do-
mingo Agirre, Jean Etchepare, Lizardi, *Refranes y Sen-
tencias*, eta abarren obrak zatika edo osorik erraz aur-
ki daitezke.

C. *Gorengo maila*

Introduction to theoretical linguistics, Lyons.

Lingüística estructural, F. R. Adrados, Editorial Gredos.

Introducción a la lingüística descriptiva, Gleason, Editorial Gredos.

Éléments de ling. générale, Martinet, Ed. Gredos.

Aspects, Chomsky, C. P. Oterok itzulia, Ed. Gredos.

Introducción a la lingüística histórica, Lehman, Ed. Gredos.

Fonología española, Alarcos, Ed. Gredos.

La lengua vasca, Enciclopedia ling. hispánica I, Madrid, C.S.I.C.

L'euskaro-caucasique, «Le Langage», Encyclopédie de la Pléiade XXV, Gallimard.

OHARRA: Bibliografia hau ez da osoa, gidatzeko zerbait baik. Hortik gainera *Euskera*, *Fontes linguae vasconum*, Egan, eta beste aldizkari batzuk eta baita ere euskarari buruzko euskal argitaldarien zenbait liburu interesgarri.

EUSKALTZAINDIRA EUSKAL IRAKASLE TITULUA ESKURATZEKO BIDALIAK IZAN ZIREN «CURRICULUM VITAE» EIBURUZ, HORRETARAKO IZENDATU ZEN BATZORDEAREN AGIRIA

«Eibarren, 1972eko Apirilaren 9an bildu gara, Euskaltzaindiak lan honetarako izendatu gintuen hiru lagunok: Alfonso Irigoyen, Patxi Altuna eta Serafin Basauri.

Gure eginzuna honako hau izan da: «curriculum vitae» baten bitartez beste gabe, hots, esaminik gabe, euskal irakasle titulua eskuratu nahi zutenei eman behar zitzaien ala ez erabakitzea. Alegia, euskaraz *mintzatzen irakasten* oraindano egin dituzten merezimenduak aski ziren ala ez titulu hori eskuratzeko.

Ez zaigu bidezko iduritu esku zabalegiz jokatzeari: bidali zaizkigun eskabideak banan banan aztertu ditugu eta zenbaitek aurkeztu

dituen merezimenduak txalotzen ditugu. Alabaina, Euskaltzaindiaren titulu hori baliotsuago izan dedin eta beherengo mailako agiria eskuratzeko prestatu den programa ikusirik, egokiago iruditu zaigu, lagunik gehienek urrian izango den esaminaren bidez eskura dezaten.

Halaz are, banaka eman ahal izan diegu delako titulu hori.

Izenpetzen dute: A. Irigoyen, S. Basauri eta P. Altuna-k.

TITULUA JAUN-ANDERE HAUEI EMATEA ERABAKITZEN DA: Imanol Laspiur Zabala, Jaime Goenaga Cenicacelaya, Xabier Peña Albizu, Eusebio Osa Unamuno, Juan M.^a Artola Cortajarena, Aita Letona, Flora de Idarreta, M.^a de Ojanguren, Jesus Oyarzun San Roman, Patxi Uribarren Leturiaga eta Francisco Murguruza Ansola».

Euskaltzaindiaren erabakiz (Auritze 1972 Iraila 10), Behengo mailako irakasle karneta lortu nahi dutenentzako esaminak urrian izango dira, Bilbon eta Donostian.

Eguberrietan beste esaminaren bat izatea baditeke, horretarako ikastaroren batzuk eratzen badira.

Bilboko esamina, Euskaltzaindiaren Etxean izango da, Urriaren 7an, arratsaldeko 3retan.

Donostiakoa, Mundaizen, E.U.T.G. delakoan, Urriaren 14an, ordu berean.

Matrikulatzea, Bilbon esamina nahi dutenek, Euskaltzaindiaren bulego nagusian, Ribera, 6,an egin beharko dute. Donostian nahi dutenek, Euskaltzaindiaren Donostiako Ordezkaritzan (Diputazio Jauregian), goizeko 10,5 — 13,5 bitartean.

Matrikula ordaina 250 pezeta da. Hiriburuetatik kanpo bizi direnentzako errazago delako alde batetik, eta bulego arazoetarako egokiago eta garbiagoa delako ere bai bestetik, ordainketa hori banku bidez egitea eskatzen da, era honetara: Hurbilen duzun «Caja Laboral Popular» batera joan eta Bilboko bankuetxe horretako 198 «cuenta corriente»ra: Euskaltzaindia «Academia de la Lengua Vasca» izenekoaren alde abonatu bat egin, «duplicado» delakoa bu-

legora eramana edo korreoz bidaliaz. Horretara Bilbo edo Donostia zertan joanik ez duzu.

Esamina hauetara lehen «curriculum vitae» bidali zutenak, ikastaroa Donostian edo Bilbon egin dutenak, nahiz bere aldetik nahi duena joan daitezke.

BATZAR-AGIRIAK (1970)

1970-I-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko urtarrilaren 30-ean, goizeko 10 t'erdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Arrue, Diharce, A. Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, eta Villasante euskaltzainak; Altuna, F. Arregi, Bastarrika, Beobide, Berrojalbiz, Berrondo, J. Estornés, Etxaniz, Garmendia (Salbador), Lekuona (Juan María), Lizundia, Oñatibia, Ruiz Urrestarazu, Saizarbitoria, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Agiria ontzat hartzeko orduan, Irigoyen-ek dio, legeari buruz berak esanak ez daudela zeharo berdin jarriak eta zuzenketa nahi duela zehatz gelditu dedin. Eta ondorean egileak beren lanegatik dituzten eskubidezko xehetasunak honela ematen ditu:

15592-Ley 10 de enero 1879 (M.º Fomento, G. 12). *Sobre propiedad intelectual o literaria*. Eta, 15.594.—*Real Decreto 3 septiembre 1880* (M.º Fomento, G. 6). *Reglamento para la ejecución de la Ley de Propiedad Intelectual*: Art. 36. El plazo para verificar la inscripción será el de un año, a contar desde el día de la publicación de la obra; pero los beneficios de esta Ley los disfrutará el propietario desde el día en que comenzó la publicación, y sólo los perderá si no cumple aquellos requisitos dentro del año que se concede para la inscripción. Art. 38. Toda obra no inscrita en el Registro de la Propiedad Intelectual podrá ser publicada de nuevo reimpresa por el Estado, por las Corporaciones científicas o por los particulares durante diez años, a contar desde el día en que terminó el derecho de inscribirla. Art. 39. Si pasase un año más después de los diez sin que el autor ni su derecho-habiente inscriban la obra en el Registro, entrará esta definitiva y absolutamente en el dominio público. Art. 40. Las obras no publicadas de nuevo por su propietario durante veinte años pasarán al dominio público, y el Estado, las Corporaciones científicas o los particulares podrán reproducirlas sin alterarlas; pero no podrá nadie oponerse a que otro también las reproduzca. Art. 41. No entrará una obra en el dominio público, aún cuando pasen veinte años: 2.º Cuando después de impresa y puesta en venta

la obra con arreglo a la Ley pasen veinte años sin que vuelva a imprimirse porque su dueño acreditó suficientemente que en dicho período ha tenido ejemplares de ella a la venta pública. Art. 42. Para que pase al dominio público una obra en el caso que expresa el artículo 40, es necesario que preceda denuncia en el Registro de la Propiedad, y que en su virtud se excite por el Gobierno al propietario para que la imprima de nuevo, fijándole al efecto el término de un año."

Hala ere idazkariak dio, Euskaltzaindiaren ikus-moldeak ez direla aldatzen, zeren Sociedad General de Autores-ko Asesoria Juridica-kegin zigun ofizio hartan argi eta garbi agertzen duela: "Como existe una amnistia hasta el 31 de diciembre próximo para registrar todas las obras que no lo hubieran sido a su debido tiempo, pueden Vds. inscribir en el Registro de la Propiedad todas las obras del Sr. Azkue. Para ello será necesario que si las obras están editadas antes del año 1958, presenten tres ejemplares, y si están registradas con posterioridad, un ejemplar." Eta eskari hau bete dala urtearen azkena baino lehen. Bestalde, Villa jaunarekin ere, bere abogaduauren aurrean, elkarrekiko lotura emana dugula.

Labayen jaunak euskaltzain-buruarentzat doluminak eskatu ditu, bere anaia hil berri dalako.

Ondorean, Erkiaga diru-zainak 1969 urte-azkeneko egoreraren berri ematen du, idazkiz. Bilboko diru-etxeetan abuztuan egoana: 20. 824, 31; gehitua, 197. 955,42; urritua, 206. 956,92; dagoana 11. 822,81. Eta Donostiako diru-etxeetan uztailean egoana: 122. 006,24; geitua, 7. 668,92; urritua, 80. 941,30, dagoana 48.733,86. guztiz, duguna: 60.556,67 peseta. Eta ondorean, gora-behera guzien xehetasunak ematen ditu.

Eta diru-zainak, txartel batean gogorazten du karguak aldatzeko epea igaroa dala eta berea laga gura duela.

Bilboko Euskerazaleak beren Batzar Nagusirako txartel bat bialtzen digute, otsailaren lehenengoan izango da, eguerdiko 12-etan. Alfonso Irigoyen izendatzen da Euskaltzaindiaren ordezkari, batzar horretarako.

Idazkariak aditzera eman du Madrilgo *Fuerza Nueva* aldizkarian 159 zeb., 9 or. (1970-1-24-koz) *Elsa Scheelen*, 1968-ko "Txomin Aguirre" nobela saria irabazi zuenari, Euskaltzaindiari eta euskaltzainburuari buruz dakarrenaren berri eman du.

Symposium-ari buruz, idazkaria Santamaria jaunarekin mintzatze-kotan gelditu da.

Euskaltzaindiko lege-gizonen esku uzten da Euskaltzaindiaren personalidad juridika hobeto lotzea. Beren artean mintzatzeko ardurak Lojendio jaunaren esku uzten dira.

Arrue mintzatu da aski luze Euskaltzaindiaren personalidadeari buruz.

Gaur-ekoekin arratsaldean batzarra egingo dutela, har-emanerako izendatu zan batzordekoak, euskeraren estadistika estudioari buruz aditzera eman da.

Beobidek berriz eman ditu, zehatz-mehatz aditz batua sariketa-erregelak. Eta Labayen-ek eskatzen du, mahai-burua Oñatibia eta Altunarekin gehitzea.

Idazkariak adierazi du, Instituto Nacional del Libro-ko G. Díaz Plaja-k Villasanten-ri eskatu diola Euskaltzaindiak ia bere gain hartuko lukean salgai dauden liburu guztien katalogo bat egitea, Institutoak bere

kontura argitaratu ahal izateko. Idazkaria gelditu da, lan hori Euskaltzaindiak osatzeko, beharko diran enkuesta eta fitxen modeloak berak gertatzeko, bibliografiak eskatzen dituen normetan.

Euskaltzain-buruak txosten bat irakurri du, bere hiru urteko burutzaren kontuemanenez. Batasunari buruz gertatu diranei adierazpenak Euskaltzaindiak ez dituela gauzak *por decreto* bezala eman behar, *normative* baizik. Eta Euskaltzaindiak *neutral* izan behar duela holako gauzetan. Mitxelena jaunaren iritziaz gainera, beste iritzi gehiago ere entzun beharra zegoela. Batasunak oinarri zabala eta denbora eskatzen dituela eta abar.

Ondoren zenbait eztabaida sortu da, Arantzazun bide bat behartu ez bazan ere, bide bat markatu zala eta hortara ahalegindu beharra dagoela. Beste batzuen iritzian, bakoitzak nahi duena egiteko eskubidea izan behar du. Batez ere H letrati buruzko eztabaidak izan dira gainerako normak ahotan hartu gabe. Diharce mintzo da; mugazandikoen izenean, esanez, sentitzen duela berek beharrezkoa duten letra horregatik besteak hain asarre ibiltzea. Berek letra hori ahal izan duten guzian kendu dutela, baina bokalarteetan, demostratiboetan eta zenbait nitzetan hain beharrezkoa dutenez hor utzi ezina dala. Eztabaida beroak iraun du ezertariko erabagirik hartu gabe.

Aita Intza-koak irakurri du txosten bat, H letra euskera idatzian noiztikoa eta zelan sartua don, XVI eta XVII-gn. mendeetan. Baina bere agerpenak ikusi da ez direla berak agertzen dituen bezala, nornahik Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca*, *Textos arcaicos vascos* estudioetan edo XVI-gn. mendeko literaturan argi ikus ditzakean bezala. Hon-taz ere, eztabaidak lehenera jo dute.

Bukatzeko, kontu eman da liburutegirako hartu diren titulu berriena: X. Gereñok bere *Arantzaz artean*, Anastasio Arrinda (Anes Laskau-kok), *Juantxo-triki* eta *Oto ta Pototo*, A. Zubikarayk *Motrico* (Apuntes, extractos y divagaciones), eta J. San Martin-ek *Uhin berri* liburuak. Guztientzat bijoaz eskerrak.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1970-II-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko otsailaren 28-an, goizeko 10 terdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Diharce "Iratzeder", Erkiaga, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Larzabal, Villasante, eta Zabala euskaltzainak;

Altuna, Aresti, Beobide, Berriatua, Berrojalbiz, Berrondo, Estornés (José), Etxaniz, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Gereño, Goi-koeixea (Gaztelu), Kintana, Lizundia, Oleaga, Oñatibia, Saizarbitorja, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Agiria ontzat hartzeko orduan, Zatarain-ek dio, H-ak Arantzazun errekomendatutakoak baino gehiago sartzen direla agirian, zeren han

jasotako agiri harek zionez: "*H*-ren hauzian, izan diran iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindik letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea. Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ondo ikusiak izango." Gorago jo nahi dutenenak etzirela errekomentatuak, bere iritiz.

Idazkariak dio, agiriak argi dion bezela, gorago jotzea ere ez tala gajzki ikusia, eta erabagi zehatz bat hartzen ez dan artean ia zergaitik ez duen erabiliko. Gainera, agiritan *H*-ak erabiltzea Arantzazuko bilerak ondoren goragokoei baimena eskaturik egin zuela, eta hortarako Arantzazuko agiria bera eredu harturik, *H*-etan gorago joaz. Eta galdetzen du, ia besteak, Euskaltzaindiko guziak, zergaitik ez diren ahalegintzen erdibide mailarako autatu zan era erabiltzera; ia errekomentatuko *H* haiek erabiltzera behartu ez diranek zeren kexu izan behar duten.

Hontaz izan dira eztabaida batzuek.

Iratzeder jaunak berritzen du lehenago esana, beren aldetik amore emana dutela *H* letrarekin zenbait lekutan, baina beste batzuetan euskeraren onerako dalako eskatzen du hemengoak erabiltzea, batez ere bokal berdinak dauzkaten hitzak eta gainerako premiazkoenak soilki; eta beste guzietan, bakotzak agiri dezala bere euskalkiaren edo iritzia-
ren arabera: *H* eman ala ez eman.

Erkiagak dio, Bizkaiko euskaltzalerik gehienak *H*-ren kontra daudela. Baina beste bizkaitar batzuek irten dira ezetz esanez. Iritziak ebakita daudela argi ikusten da.

Idazkariak kontu ematen du, Losada izeneko polizia jaun bat joan zitzaiola, euskaltzain-buruarekin mintzatu ondorean, *Elsa Scheelen*-ri 1968-ko "Txomin Agirre" saria zelan eman zitzaionaren xehetasunen eske. Sariketaren araudiaren kopia bat eman zitzaiola eta izendatutako mahaiburukoak zelan erabagi zuten, egile nor zen jakin gabe.

Arenazat'ar Josuk bialdu duen orri baten berri ematen da. Ikusten denez Euskaltzaindikoen artean zabalduta. Idazkariak adierazten du, bertan esanekin ez datorrela ados, eta, gainera, Bilboko "Hoja del Lunes"-ean egin zituen deklarazioak bere egunean Euskaltzaindiak egin beharrezkoak zirela, baina nolabait alderantziak zirela. Hortaz, lehendik ere kontu emanez argitasun batzuko adierazi nahi zituela, eta orain ere txosten bat gertatua dela, baina euskaltzain-buruak, bake biderako isiltzea hobe zala ta, horrela gelditzen da.

Deba-ko Asociación para el Fomento de la Enseñanza y la Cultura dalakoaren zuzendari dan Patxi Aldabaldetrekuk egin duen ahozko eskaria, alfabetatzo kanpainak bertan antolatzen laguntzeko. Idazkaria bera gelditu da hortan ari diranekin har-emanean jartzeko.

A. Ismael Torres-en idazki bat, Salvatierra-tik, lehenago bere anaia zan A. Murieta-koak ateratzen zuen *Umeen-deia* berbiztu nahi duela adieraziz.

Cirilo de Zabala-ren gutun bat, "derrigor" euskeraz ongi esanda dagoan eta hitz jatorra den galdetuaz. Bere lehen sustraiak euskerazkoak ez badira ere, hitz asko bezala eta hizkuntza askotan gerta ohi dan bezala, gaur euskeran sustraitua dagoanez, ezin esan ditekela euskerazkoa ez danik.

Euskeraren estudioa egiten ari den gaur, S. C. I.-aren txostena eta gertatu duten kuestionarioaren berri ematen da. Orain arte egin dutena,

bibliografiaren bilketa izan da batez ere, eta hortarako izan dituzten har-emanak zelan eta nortzuekin izan dituztenaren berri emanez.

Langileen Kutxa Herrikoiaren (Caja Laboral Popular) gutun bat, beren bilera nagusirako deia eginaz.

Kerexeta euskaltzain laguntzailearen bidez Retana-ri egin genien konponketa baterako eskaintza, elkar aditze bide baterako. Jarri zan epea igaro da, Retana-ren aldetik erantzunik gabe.

Idazkariak aditzera ematen du, euskaltzain laguntzile baten denuntzia bat dagoela, Euskaltzaindikoen artean zabaltzen diren zenbait "anonimo"-ri buruz. Baina euskaltzain-buruak nahiago du isilik utzi, eskandaluak sortuko diren beldurrez. Idazkariak dio, besterik ezik, euskaltzainak bakarrik bildurik, baina gauza hau ondo aztertu beharrezkoa dala, batez ere sospetxaz Euskaltzaindiko batzuen izenak ahotan erabili diranez gero.

Aditzera eman da Ipar-Ameriketatik etorriak direla gure Hizkuntza eta kultura estuditzera, gero han irakaskintza sortzeko asmoz.

Mokoroo jaunaren esaera-hiztegi lanari buruz mintzatu da, eta pozik jakin da jaun batek 100.000 peseta eman dituela lan hori argitaratzen laguntzeko. Eta, Euskaltzaindiak, Mokoroo jaunak bere lan hoiek aurrera eramateko, bere ordenako nagusieri gutun bat egitea komeni dala erabaki da, beste lanetatik uzteko eskaria eginaz.

Aditzera eman da Rudolf P. G. de Rijk euskaltzain laguntzailea Bizkaiko fonetikaz lan bat gertatzen ari dela.

Euskaltzaindiko hileroko bileren eguna aldatzeaz hitz egin da. Estornés jaunak dio, ostirala guzientzat egoki ez bada eta beste batzuentzat ere ez larunbata, hil batean larunbatez eta bestean ostiralez egitea izango dala onena. Datorren bileran erabakitzekotan geditu da. Eta, etorri ezin diranak idazkiz beren iritziak bialtzekotan.

Euzkerakz liburuen katalogoa osatzeko fitxak inprentan atereak dira. Argitaratzaileen artean zabalduko dira, fitxa bat eredutzat beteaz igorritz; eta nahi duten partikular guztiak eskatu lezateke.

Lizundia idazkari-ordezkoak eman ditu Euskaltzaindiaren etxe-behritze gora-beherak eta hartu dan diruaren xehetasunak. Langileen kutxa Herrikoiak (Caja Laboral Popular) eman du gehien, 100.000 peseta. Eta dirua eman duten asko gertu daude urtera emaitza berdina egiteko.

Lur editorealekoak adierazi dute nola ari diren euskal hiztegi bat egiten, euskeraz adieraziaz; hau da, hiztegi euskerazkoa.

Euskaltzaindiaren euskal hiztegiari buruzko argitasunak datorren bilerarako uzten dira. Aste Santuan Mitxelena hemen izango danez, bera bilerara etorri ahal izango dalako.

EUSKERA 1969-kora lanak bialtzea. Haritschelhar jaunak eskeini zuen Etxahunen lanari buruzkoa, urre-etzteien bilera berezietako txosten eta hitzaldi eta abarrekin hornitzeko.

Idazkariak, kargu aldaketan epea igaro dala eta berritzea proposatzen du, Euskaltzaindiaren araudiari jarraituaz; eta aldaketak ez badira planteatu behar, bere dimisioa presentatuko duela datorren bileratik.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1070-III-31

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko martxoaren 31-n, goizeko hamaikaterdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, Diharce, Aita Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Mitxelena, Villasante eta Zabala jaun euskaltzainak; Altuna, Alzola (Anai Berriotxo), Andiazabal, Arenaza, Basterretxea, Beobide, Berrondo, Eizmendi (Basarri), Esnal, Estornés (José), Etxaniz, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Gereño. Goikoetxea (Ignazio), Lizundia, Martin (Felix) Oñatibia, Ruiz Urrestarazu, Saizarbitoria, Zugasti, Zatarain, Zubikaray jaun euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala. Ohi dan otoi-tzarekin hasi da biltzarra.

Batzar Orokarra baino lehenago, Urgazleak ez besteko euskaltzain jaunak egin dute bilkura berezia, beharrezko zenbait arazo, beren artean aztertzeko. Azkue zanaren liburuari dagozkien arazoak aztertzeko, izan da, batez ere, eta Euskaltzaindiko zenbait kargu berritzeko epea beterik, berritze hori egin gaberik daukaten kargu-berritzea eratzeko. Azkeneko arazo hau aztertutik, erabagi da, Arauak agintzen duten bezela, kargu-berritzeak Uztaileko batzarrean egitea, bitartean bakoitzaren bere karguan jarraituaz. Azkue zanaren liburueri buruz, berriz, eta batez ere *Hiztegiari* buruz Mitxelena jaunak txosten luze bat irakurri du, *Hiztegiaren* okerbidezko argitaltze berriari behar dan bidez gogor-egin beharra azalduaz, behar bada hauzietara joaz.

Hamabietan euskaltzain guztion arteko batzar orokarra egin da.

Agiria ontzat hartzeko orduan, Zugasti jaunak dio, Diharce "Irazeder" jaunak *H* letrari buruz esandakoak, otsaileko biltzarrean, ez daudela zuzen, harek, bokalen arteko *H*-etatik aparteko hitzetan hamairu bakarrik eskatzen zituela eta gainera azken partea zerbait aldatua dagoela.

Idazkariak dio, Diharce jaunak esana agirira ohi dan laburpenez jaso zuela, bana ez ezer aldatuaz, laburpena Diharce beraren esku-izkributik egin zuela. Eta, ondorean, esku-izkribu hau bi aldiz irakurten du, honela arkitzen dela: "Bateratzerat ekarriak ditezken bokalen artean *H* ematea ongi iduritzen zaio Euskaltzaindiari. Hek dira: 1ik bokal berdinak dauzkaten hitzak. 2ik 15 hitz hauek: Hori da Euskaltzaindiak ematen duen lege "normativo" bakarra. Bertze guzietan, baktotxak egin dezala bere eskualkiaren edo iritziaren arabera: *H* eman edo ez eman, behi, nahi, zahi, ohi". Hau da Diharce jaunak hitzez hitz egin zuen eskaria.

Espasa-Calpe, S. A.-ren gutun bat, aditzera emanez, 1969-ko azken sei-ilabetetako kontu-zuritzea, Azkue-ren *Euskalerriaren Yakintza*-gatik autore deretxoak ordainduaz, 2.315,— peseta, redituena %-tik 20-koa gutxituaz, 1852,— peseta guztiz bialduaz. Eskerrak ematea erabagi da.

K. E.-ren gutun bat, Euskaltzaindiaren etxea berritzeko egin zan eskeari buruz. Eskea gogo onez hartzen duela eta oso pozik emango duela bere laguntza; baina gauza bat jakin nahi duela: "La Gran Enciclopedia Vasca"-koak hain dotore argitaratu dituzten *Morfologia Vasca*, *Dicc. Trilingue* eta abar, uste zuela Euskaltzaindiaren eskubidezkoak zirela, behinipehin *Morfologia*; eta hala izanik, itxuraz iduri duela Euskaltzaindiak ez lukeala diru premiarik izan behar, bere eskubideak

ondo zaindu baditu. Kanpotik ikusirik behintzat hori agiri dala, eta abar.

Ebangeliozko Elizaren gutun bat, gure etxea berritzatzeko egin genuen eskariari erantzunez, Bizkaiko Diru-etxearen bitartez 5.000 peseta bialtzen dituela esanez. Eskerrak ematea erabagi da.

X. Market, X. Unzurrunzaga, L. M. Zulaika eta J. A. Arze-ren ize-nean gutun labur bat, Euskaltzaindiaren liburutegia euskerazko liburuz osatzeko, J. San Martin euskaltzainak egin zuen deiari jaramon eginez, argitara berri duten *Isturitzetik Tolosan barru* liburuaren ale bat igorriaz. Eskerrak ematea erabagi da.

Hileroko batzarren eguna hautatzeari buruz egin da. Oraingo ezta egin egun-aldaketarik. Hiru hilabetez behin Bilboko etxean batzartzea, urteko bilera erdiak (6) Donostian bertan eta gainerakoak banandurik.

Hiztegi gaia ikutu da, eta hontaz irakurri da Kerexeta laguntzailearen gutun bat, bere ustez "Euskaltzaindiak ez daukala egitekorik eta ezer irabaztekorik auzi horretan. Beraz auzi hori Retana jaunagaz guttitz, onean eroatea ta ebaztea dala bidezkoena". Moralezko arrazoia, Euskaltzaindiak, here alde duela pentsatzen da, eta legezkoan azken hitza juezak duela. Oinharritzko lotura batzuen xehetasunak eman dira, eta Euskaltzaindiak bere burua defenditu beharra duela erabagi da. Mitxelenak bere txosten luze bat irakurri du egoera haueri begira.

Gauza hau bultzatzea pentsatu da, onean azken-ahalegina egin ondorean, hauzietara joteko. Eta berriro Euskaltzaindikoeri dei-egitea erabagi da hauziak konpontzen ez diran artean behinipehin, "La Gran Enciclopedia Vasca"-n inork ez dezan kolaboratu; eta bertan lankide egiten duenari boto-zensura jarriko zaiola.

Symposium eta Hizkuntza-idazkaritzari buruz Santamaria-ren txartel bat irakurri da, eta Frederic Roda-ren gutuna, izan dituzten zenbait eragozpeni buruz. Lizundiak, gai hontaz Iruñara egin duen osteraren kontuak eman ditu eta gainerako hizkuntza elkargoekin ditugun konpromisoak azaldu ditu. Eta, *Symposium* antolaketa nolabait aurrera eramane beharra dagoanez, hortarako batzorde berritza erabagi da. Izendatzen dira: Aita Intza buru, Cortes Izai, Satrustegi eta Lizundia.

Haurren antzerki-sariketari buruz, mahaiburuko bat aldatu beharra izan da, izendatu zanetako batek sariketan parte hartu duelako. Mahaiburuko biren erabagiak idazkiz hartu dira eta beste biren erantzunaren zai gelditzen da. Arkotxa-ren ordez, mahaiburuko, Berrondo jauna izendatu ondorean.

Euskaltzaindiaren nortasunari buruz, Euskaltzaindiko lege-gizonekin har-emanen, argi-bide gehiago bilatzea pentsatu da.

Lizundiak dio, Zumajan egin diran bertsolari-txapelketa Euskaltzaindiaren babesean bezala anuntziatu direla, eta Euskaltzaindian hortarako batzorde bat izendatua dagoanez eta txapelketa hoiek koordinatu beharra dagoanez, batzarrean kontua eman gabe eta behar diran antolakizunak egin gabe holako babesik inori ez ematea, baizik berekin kolaboratu barrutietako mugak ondo finkatuaz.

X. Gereñok Bizkaiko bertsolari jaia, abuztuan, Bilboko jaien barruan sartzea eskatu du.

Euskaltzain buruak dio, bi urterik behingo kargu aldatzea, araudiak dionez, uztailleko batzarrean egitekoa dala.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkariordea
JOSE LUIS LIZUNDIA

1970-IV-24

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko Apirilaren 24-an, goizeko hamaikaterdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Haritschelhar buru ordezkoko, Arrue, Aita Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lojendio eta Villasante jaun euskaltzainak; Berrojalbiz, Berrondo, Etxaniz, Fernandez Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Goikoetxea (Ignazio), Kere-xeta, Oñatibia, Ruiz Urrestarazu, Valverde, Zatarain eta Zubikarai, Lizundia idazkari-ordezkoak idazkari egiten duelarik.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Batzar Orokarra baino lehenago, jaun euskaltzainak bilkura berezi bat egin dute. Bertan, Euskaltzainburuak Martin Retanaren karta bat irakurri du, bere ordain edo konponketa proposamendu batzuk eginaz. Mitxelenaren beste karta bat ere irakurri da Akesolori buruz, gero berriz aipatuko dana. Arrue, Lojendio eta Haritschelhar jaunak Euskaltzaindiaren nortasun eta araudi berrieztatzear mintzatzen dira eta lege-gizonen eskuetan gelditzen da arlo hori, bereziki Arrueren kargu. Gero Euskaltzaindikoko kargu aldatzeari buruz Arrue jaunak biko bigarren araudiaren utsunez, lehenengoak balio duela, eta beraz Uztaillean egin beharko dirala, eta Irigarai jaunaren lehenengoak jarraitzea komeni dala, baina Haritschelhar jaunak erantzuten dio horrek ez duela esan nahi botoa emateko ohiturarik ez danik hartu behar.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxak, Euskaltzaindiaren liburutegirako "Gipuzcoa" liburua bidali du. Eskerrak ematea erabaki da.

Gaur bertan, Bilboko Unibersidadean jarri berri dan "Institución de Ciencias de la Educación"-ean batzar bat izango da bilinguismoari buruz eta Euskaltzaindiari deitu diote. Irigoyen jauna Euskaltzaindiaren ize-nean joatea erabaki da.

Bileren tokien arazoari ikutuaz, urrengo batzarra Bilbon oraindik egiterik ez dagoala esaten du Lizundia jaunak, berrieztatzeko lanak amaitzeke daudelako. Jaun berak esaten du Satrustegi jaunak esan diola Luzaideko herria Manezaundiri omenadi bat egitekoan dala eta egoki izango litzakela aukera horrekin baliatuaz bertan egitea uda edo udazkeneko batzarren bat. Ontzat hartu da. Haritschelhar jaunak era berean Salaberriren omenez Ziberoako hiriburuan. Maulen beste batzar bat egiteko iritzia agertzen du, urrian seguru asko. Hau ere ontzat hartzen da.

Ultzamako Symposiumi buruz Lizundia mintzatu da Nafarroara egin duen osteraren berri emanaz. Bertan Ultzamako idazkari dan Iribarren jaunarekin hareman bat izan du eta gero Satrustegi, Cortes Izal eta Aita Intza-koarekin mintzatu da. Horien iritzia entzun ondoren "Institución Príncipe de Viana"-ko zuzendariari irailaren 4, 5 eta 6an egitea erabaki dala aitzen emango zaio, erakunde horrek onar dezan. Era be-

rean, "Omnium Cultural"-ari idatziko zaio, egun hoiek aipatuaz, Barcelonako Idazkaritzakoak batzar baten premina adierazoaz eta beste hizkuntza erakundeei erabaki honen berri ematea eskatuaz. "Gaur, S. C. I."-ekoek gertutzen ari diran lanetatik landa Aita Iratzoz, Aita Intza, Villasante eta Berrojalbiz-i Symposiumerako lanak gertutzea eskatzen zaie.

Euskaltzaindiaren Hiztegiari buruz Mitxelena jaunaren karta bat irakurri da. Berak jakinen gainean jarri nahi du Euskaltzaindia, Aita Akesolok zer egin duen Azkue-ren Hiztegiaren bigarren zatian, "Suplemento al Diccionario precedente" izenburuaz itsatsi duela eraskin bat, Euskaltzaindiarena den Azkue-ren hiztegiaren ale batekin baliatuaz. Lehendabizi Akesolok berak "Suplemento" horretan diona laburtzen du eta gero hamar puntutan bere iritzia agertzen du, Akesoloren Euskaltzaindiaren jabetasunez baliatze hortaz. Jokabide horren aurrean erabaki bat hartu baino lehen, beste parteari, Akesolori alegia, entzutea komeni dala erabaki da, eta horretarako Mitxelena jaunaren kartaren xerokopia bat bidaliko zaio Akesolo jaunari bere deskargua egin dezan.

"EUSKERA" aldizkariari buruz, Irigoyen eta Haritschelhar mintzatu dira, lehenengoak esaten du 750 horrialdeko 1.000 libururen presupuesto 237.000 peseta dala. Bigarrenak presupuesto hori apaltzeko 500 bat alekin konprometituko litzakela. Dauden lanak ikusiaz, urrango 1969-1970 ornituko dituan zerbaki honek Etxauni buruzko Haritschelhar-en tesisa, 1968-ko agiriak eta Urre Eztaietako batzar berezien hitzaldi eta berriak sartuko lirake, gainerako lanak urrango zenbakirako utziaz.

Euskal Izendegiaren behar-izana geroago eta preminatsuago dalarik, idazkari-ordezkoaren eskuan gelditzen da lana bururatzea. Horretarako dei egiten zaie Euskaltzaindikoei, berek dituzten fitxa, xehetasun, edo beste; gizon edo emakume izenenak Euskaltzaindiaren Etxera igortzea hainbat azkarren.

Arrue, Irigoyen eta Berrondo jaunak "Gero" liburuaren kontuaz mintzatu dira. Lehenengoak dio badirela gauza batzuk ilun xamar dauden antza dutenak. Irigoyen jaunak buruz ematen ditu xehetasun batzuk, eta urrango batzarreko xehetasun zihurrak ekarriko dituala, hau hau argitzeko.

Xenpelar Saria urrango batzarrean emango da.

Umeen "Toribio Alzaga" antzerki sariketaren erabakia urrango batzarrean emango da.

Andereño talde batek, Gipuzkoako Ordezkaritzaren bidez, Euskaltzaindiak aztertu, ikertu eta onartu dagian Geografi-Hiztegi bat, horretarako lan bat aurkeztuaz. Ontzat hartzen da eta Batzorde bat izendatzen da Euskaltzainburu jaun, Akesolo, Goikoetxea (Ignazio), Villasante eta Lafitte jaunek osazen dutela, lan horretarako.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkariordea
JOSE LUIS LIZUNDIA

1970-V-29

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko Maiatzaren 29-an, goizeko hamaikaterdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Haritschelar buru ordezko, Arrue, Aita Intza-koa, Irigaray, Labayen, Lafitte, Larzabal, eta Zabala jaun euskaltzainak; F. Arregi, Beobide, Berrondo, Estornés Lasa (José), Etzaniz, Garmendia (Jon), Goikoetxea, Kerexeta, Oñatibia, Ruiz Urres-tarazu, Saizarbitoria, Sarasola, Zatarain, eta Zugasti, euskaltzain laguntzailleak, Lizundia idazkari-ordezkoak idazkari egiten duelarik. Ezin etorria adierazi dute Dassance, Epherre, Diharce (Iratzeder) eta Villasan-te jaun euskaltzainak).

Lehenengo jaun euskaltzainak bilkura berezi egin dute. Bertan legegizonen ustez, Arrue eta Lojendio jaunaren ustez, "Arbitraje de derecho o de equidad" batera joan behar dala Martin Retanaren auzia aurrera eramateko. Euskaltzaindiaren nortasun arazoa ere aipatzen da. "Gero" liburuaren kontua Irigoyen jaunak ematen du.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Nafarroako Diputazioaren, "Institución Príncipe de Viana"-ren babesean agertzen dan "Fontes Linguae Vasconum" aldizkaria Euskaltzaindiaren liburutegirako bidali digute duban. Eskerrak ematea erabagi da.

Editorial Aguilar-aren liburu eskabide bat irakurri da, Toribio Etxebarriaren "Lexicón del Euskera dialectal de Eibar". Liburu bakar bezala agortua danezkeroztik, ezin dala bidali erantzungo zajo, bakarrik EUSKERA sail osoa erosten dutenentzako salduko da liburu hau.

Ignazio Goikoetxeak Euskaltzaindiaren batzarretatik burokrazia arloak kentzea eskatzen du, horretarako sail bat izendatuz.

Barcelonatik, Jose Maria Bizkarolazaga jaunaren karta bat irakurri da, gure toponimiaren izen guztien batasuna Euskaltzaindiak egin dagiala eskatuaz. Euskaltzainburuak gogoratu erazten digu, gai honi eta beste batzuei buruz, berriz batzar bakoitzera txostenak ekarri behar litzakezala.

Diruzainak Donostiako Ordezkaritzaren kontu ematea egiten du, Bilbokoak etxe barriztatze lanakaitik hauek amaitu arte zaila baita. Donostian urtearen hasieran egoana 48.733,36, gehitua 61.500, urritua 73.273; gelditzen dana Apirilaren azkenean 36.960,86 peseta.

Idazkari-ordezkoak aitzen ematen du, lehengo bulego laguntzaileak alde egin zuala, lehenengo arratsaldetan bakarrik eta gero egun guztian. Horretarako hartu zuala andereño ikasten diarduen neska bat arratsaldetarako 2.000 peseta hilean ordainduaz, astelehenetan honek ezin du etorri musika klaseak ditualako. Gero goizetarako eta astelen arratsaldetarako, besteak alde egin zuanean hartu zuala. Ordu gehiago egiten bai ditu, Donostiako bulego laguntzaileari beste ordaintzea konbeni litzakea-lala dio, alegia 3.000 peseta hilero. Ontzat hartzen da.

Ultzamako Simposiunari buruz, "Institución Príncipe de Viana" eta Barcelonako "Omnium Cultural"-ari egindako kartak irakurtzen dira. Aita Iraizoz-koaren karta bat ere irakurtzen da, berak Ultzamarako lanik ezin duala prestatu aitzen emanaz. "Gaur, S. C. I"-ekoei eskauta dagoan euskerari buruzko estudioa nola dagoan aztertzen da, batez ere, Symposium horretarako beharrezkoa izango dalako. Saizarbitoria jaunak Errederia eta Elgoibarren egiten diarduen estudioaren euskerari dagoz-

kiozan galdera eta estadistikak azaltzen ditu, berekin baliatuko baitira gero beste herrietarako. Ultzamako arazoari jarraituaz, idazkari-ordezkoak goian aipatu diran erakunde biek in har-emanen jarraituko du.

Euskaltzaindiaren Hiztegiak, Zubikarai euskaltzain laguntzailearen karta bat irakurtzen da, berarekin batera Martin Retanari bidali dion kopia igorriaz. Bertan aitzen ematen du, zelan eskatzen dio "La Gran Enciclopedia Vasca"-ri berak bidalitako lana itzultzeko, argitaldari horretan kolaboratu nahi ez dualako, Euskaltzaindiak hartutako erabakiak beteaz. Ondoren Aita Akesolo euskaltzain laguntzailearen deskargua irakurtzen da. Berak, Euskaltzaindiak Retana-ri buruz ezer erabaki baino lehenago jaun horri lana bidali ziola eta gainera Azkue-gandik hartutako eraskinak, berak emanak zirala, bereak ziralako eta ez Euskaltzaindiarenak Karta horren kopia Mitxelenari bidaltzea erabakitzen da eta baita ere Idazkari jaunari, bera ere aipatzen dualako. Gai honi jarraituaz, Euskaltzainburuak, Martin Retanari berak egindako karta bar irakurtzen du, Euskaltzaindiari egin zion proposisiok ez zirala egokiak esanaz. Oraindik ez du ezer erantzun baina ondoren Kerexeta euskaltzain laguntzaileak, berari Martin Retanak telefonuz egiteko dan erantzunaren berri eman dio. Euskaltzaindiako diranai, liburu erregalatzeko prest omen dago Martin Retana jauna, lehen liburu eta Euskaltzaindiaren Etxearen berriztatze lanearako emoteko zan zuren balorea. Arrue eta Zatarain jaunak dirutan konkretatu behar leukela diote.

Antzerki sariketako epai mahaikoak beren erabakia ematen dute. Larzabal eta Beobidek "Martin Aretza" izenekoak jotzen dute hoberenentzat eta Labayen eta Berrondok "Inakitzoren altxorra". Bigarrenen ustez "Martin Aretza" onenentxoena bezala joarren, 45 minututik gorako iraupena duanez sari honetarako jarri ziran kondizinoetatik, 3-garrenek, kanpora gelditzen da. Larzabal eta Beobideren ustez, era berean, "Inakitzoren altxorra" izeneko lanak beste baldintza bat apurtzen du, umeentzako antzerkia izan arren, nagusiak antzeztua izan behar duela, eta lan horretako personajea mutikoa dala. Beraz, erabaki bakar batera ez diranik eldu, laurak elkartu eta erabaki bakar batera iritxi daitezala eskatzen zaio.

"Xenpelar Saria"-ren erabakia agertzen dute epai-buruko diran, Aita Onaindia, Pedro Berrondo eta Juan Garmendia "Zeleta"-k: Lehenengo saria, 2.000 pesetakoa, Inozenzio Olea-ri; bigarrena 1.500 pesetakoa Manuel Matxain-eri; hirugarrena, 1.000 pesetakoa, Mantxola-ri; laugarrena, 500 pesetakoa, Segundo Kalonje-ri. Aipamen ohoregarria Jose M.^a Etxeluze eta Jesus Lete-ri.

Arrue jauna araudi berrieztatze eta Euskaltzaindiaren lege nortasunari buruz mintzatu da, azkenengoetaz har-eman batzuk izan dirala esanaz, baina gauza horietan diskrezio bat gorde behar danez, arazo honen berri zeatzaio gorpuz gehiago dutenean emango duala.

Arrue jaun berak gogoratu du, urte honetan Julio Urkixoren eunurteburua betetzen dala.

Haritschelhar euskaltzain buru-ordezkoak aitzen ematen du Euskaltzaindiak Maulen egiteko gelditu zan batzarra, urrian izango dala, Salaberri-ren omenez, azkenengo batzarrean esan zan bezala.

Haritschelhar jaun berak, Euskaltzaleen Biltzarrak, Ikas batasunaren laguntzaren, Uztailaren 2, 3 eta 4-an, eta 6, 7 eta 8-an, "Fededu-

nak" batasunaren laguntzarekin, Euskal Aste bat eratzen duala, aitzen ematen du.

Ruiz Urrestarazu euskaltzain laguntzaileak, Arabako Ordezkaritzaren izenean urrengo batzarra Gasteizen egin dedilla eskatzen du. Ontzat hartzen da.

Idazkari-ordezkoak aitzen ematen du, Bizkaiko kantari eta bertsolari batzun izenean, Nacho de Felipe abeslaria eskeintzen dala, jaialdi bat egiteko, bertan ateratzen diran irabaziak, beren tresna gastuetarako apur bat utziaz, Euskaltzaindiaren liburutegia ordajitzeko izatekotan. Bilbon udaran egingo litzake jaialdi hau. Ontzat hartzen da eta eskertu beaie beren eskeintzagatik.

Jon Garmendia "Zeletak" galdetzen du ia zertan dan bertsolari txapelketa. Arrue, Irigoyen, Zavala eta Lizundiak hitz egiten dute horretaz eta arlo horretan arduratzen direnen batzar bat komeni litzakela esaten da, arazo honi azterketa bat egiteko.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

MANUEL LEKUONA

Idazkariordea

JOSE LUIS LIZUNDIA

1970-VI-26

Gasteiz-en, 1970-eko, Ekainaren 26-an, Euskaltzaindiaren Arabako Ordezkaritzan, goizeko 11 t'erdjetan.

Bildu dira: M. Lekuona, buru; Aita Intza-koa; Iratzeder; Labayen eta Villasante, jaun euskaltzainak; Odon Apraiz, euskaltzain ohorezkoa; Atxa, Basauri, Baztarrika, Berrondo, Enbeita, Etxaniz, Etxebarria, Fernandez Setien, Garmendia, Gereño, Goikoetxea-Maiza, Goikoetxea "Gaztelu", Martin, Ruiz Urrestarazu, eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, Lizundia idazkari-ordezkoak idazkari egiten dualarik.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Lehendabizi Vicente Botella Altube, Gasteizko Aurrezki Kutxaren zuzendariak hitz batzuk esan ditu, ongi etorria batzarkideei emanaz, eta Gasteizko Aurrezki Kutxaren "Institución Sancho El Sabio" Euskaltzaindiari eskainiaz.

Jarraian Euskaltzainburu jaunak erantzuten dio Euskaltzaindiaren izenean eskerrak emanaz, Gasteizko Aurrezki Kutxagatik ahal izan baita Arabako Ordezkaritza lortzea, bere "Institución Sancho El Sabio"-ren babesean.

Arabako Diputazioaren karta bat irakurri da, gure eskariari erantzunaz urteko 5.000 peseta eskaintzen dituala adieraziaz. Eskerrak eman begioz, hainbeste urtetan utzita egon dan bidea berriz hasi dualako.

"Berceo" Instituto de Estudios Riojanos delakoaren aldizkaria bidali dute, gure aldizkariarekin trukatzeko. Ongi ikusten da hainbeste euskal aztarren herrialdeko erakunde batekin har-emanetan jartzea.

Alemaniano Koloniako Unibersidadeak ere aldizkari trukatzeko eskatu du. Ontzat hartzen da.

Symposium-ari buruz, nola Barcelonako Omnium Cultural-ean aldaketa batzuk izan diranez, hiru hizkuntzen Idazkaritzako arazoa geldi

xamar egondu da. Asti gutxi dagonez, Idazkari-ordezkoa, Euskaltzaindiaren aldetik batzordeko diranakin, Irigarai, Santamaria eta Oleaga-rekin har-emanetan jarri ondoren euretariko batekin Barcelonara joatea erabaki da gauzak bizkortzeko.

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arazoa dala-ta, Retana-ren proposamenduak entzun ondoren, Mitxelena jauna etorri arte ez erabakitzea pentsatu da, eta bera datorrenean Euskaltzainburu jauna, Donostia inguruan dauden jaun euskaltzainak, Beobide, Berrondo, Mitxelena bera eta Timun Mas-ekoak bildu daitezela eta proposamendu aztertu eta iritziak entzun ondoren, urrengo batzarrean azken erabakia hartu.

Pontevedra-ko "Asociación Amigos da Cultura" delakoaren karta bat irakurri da, eta erderaturiko idazki bat ere batera bidaltzen dutena. Idazkiak eskatzen du, gailegoarentzat, eta baita ere euskera eta katalanarentzat auzitegiatarako ofizialtasun edo balioa, eta Galiziako lau probintzietako Abogaduen Kolegioetara bidalia da. "Asociación Amigos da Cultura"-ren ustez guretzako ere idazki horrek baljo berdina duenetik, antzerako bide bat proposatzen du Euskaltzaindiarentzat. Ondo ikusiten da, baina erabaki bat haru baino lehen Euskaltzaindiko diren lege-gizonen iritzia beharrezkoa iruditzen dalako, berei entzun ondoren hartuko da.

Euskaltzainburuak aitzen ematen du nola entzun duen Satrustegi euskaltzain jauna Auziegietara deitzekotan dirala. Amaya izenaren gora-beherakaitik. Gai honi buruz zerbait egin dabe ezin dala egon bere ustez Euskaltzaindia, bere alorreko, sorokoa baita, esate baterako lau probintzietako Guraso Taldeko Korteetako Prokuradoreei auzi hau aldeztea eskatu. Gai honi jarraituaz Idazkari-ordezkoak aipatzen ditu azken denboretan gurasoei jartzen zaizkien zenbait traba, ez "Registro Civil" denetan, baina bereziki batzuetan. Berak proposatzen du "Director General de los Registros y del Notariado" delakoari idazki bat igortzea, zailtasun eta eragozpen batzuk ba direla-ta adierazkizun estuz Registroak legeaz baliatzen ez dezaten jarrai eskatuaz, eta bide batez Euskaltzaindiaren laguntza teknikua eskainiaz. Ontzat hartzen dira, eta baita ere erabakitzen da Iruñako Artzapezpikuari karta bat egitea ere Satrustegi jauna auzitegiatar agramateko baimena ukatu dagiala eskatuaz.

Antzerki sariketako mahai-burukoak azken erabakia bidali dute, esanaz iritzi desberdinak dituztenez saria erdibanatzea erabaki dutela, "Martin Arotza" eta "Iñakixoren Altxorra" izeneko lanen artean.

Ondoren Odon Apraiz euskaltzain ohorezkoak txosten eder bat ematen du Arabako euskerari eta idazliei buruz, batzarkide guztiak txalotua.

Ondoren Jon Garmendia "Zeleta"-k aitzen ematen du nola Euskaltzainburuak hartu duala "Euskal Kulturaren Alde" delakoak Liturgia Batzordeari eman dion "Agirre Saria". Batzorde horren buru ere dan aldetik eta horregatik zorionak ematea proposatzen du. Ontzat hartzen da ta bijoakoz batzarkideen zorionak D. Manuel Lekuona Euskaltzainburu jaunari.

Juan Anjel Etxebarria euskaltzain laguntzaileak galdetzen du ia Euskaltzaindiak Bilboko "Información y Turismo"-ko Ordezkaritzarako ezer erderatu duen, eta batez ere bere "MARTIRIEI" izeneko liburua, eta agiri bat eskatzen du baiezeko edo ezezkoarena. Inork ez duanetik erderatzerik eskatu ezezkoa ematea erabaki da.

Lizundia jaunak txosten bat irakurri du Durangoaldeko herri eta herritarren izenei buruz.

Aita Intza-koak beste bat irakurtzen du II eta ñ-ri buruz.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkariordea
JOSE LUIS LIZUNDIA

1970-VII-29

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko Uztailaren 29-an.

Bildu dira goizeko 11 t'erdietan lehendabizi Gipuzkoako Ordezkaritzako Bulegoan: M. Lekuona buru, Haritschelhar buru ordezko, Erkiaga diruzain, Arrue, Diharce "Iratzeder", Irigoyen, Aita Intza-koa, Labayen, Lafitte, Larzabal, Lojendio, Mitxelena, Villasante eta Zavala jaun euskaltzainak, Lizundia idazkari-ordezkoak idazkari egiten dualarik.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Euskaltzainburuak irakurtzen ditu Martin Retana jaunaren proposamenduak Euskaltzaindiaren Hiztegiari buruz. Arrue eta Lojendio legegizon eta euskaltzainak proposamendu horri begiradaxo bat egin ondoren Pi Ayanz legegizonarekin hitz egiteko gelditu dira.

Arrue jauna mintzatzen da esanaz Araudiak garbi ez duela agertzen botoa personala, edo kartaz edo poderioz eman litekena danala ez, eta bere ustez personala izan behar lukela. Agirietan ikusten da azkenengo auteskundeetan poderioa emanda autatu zutela lau euskaltzainek. Onhartzen da Arrue jaunaren proposamendua botoa personala izatea, baina ez oraingoan, Araudi berrian baizik, beraz gaur azkenengoan bezala izango da.

Auteskundera hastera doaz, baina Mitxelena jaunak eskatzen du aurreztik gauza batzuk argi utzi beharra dagoela, zenbait aldizkari eta tokitan auzitan eta dudan jartzen bai dira Arantzazuko erabakiak. Proposatzen du euskal aldizkari guztietara ohar bat bidaltzea puntu batzuk argituaz: a) Arantzazuko batzar hura, Euskaltzaindiarena zela eta ez zenbait idazleena; b) Han irakurri ziren lanak, Euskaltzaindiak Euskaltzaindikoei eskatuak zirela; d) Han irakurritako agiria, bertan ziren jaun euskaltzain osoen artean harturiko erabakia zela. Eztabaida luze bat sortzen da eta azkenean denak onhartzen dute Mitxelenaren proposamendua, bakarrik Lekuona jaunak ohar bat ezartzen du esanaz Arantzazuko erabakia kontseilu erakoa zela eta ez agindu erakoa, Labaien jaunak ere hori uste du.

Auteskundera hasten dira eta agertzen dira Eppherre eta Dessance jaun euskaltzainon eskutitzak Lafitte jaun euskaltzainari poderioa ematen, San Martin euskaltzain jaunarena Satrustegi, edo honen faltaz Mitxelena jaun euskaltzainei poderioa emanaz. Krutwig jaun euskaltzainarena Euskaltzain-burua autatzeko poderioa San Martin edo honen faltaz Mitxelena jaun euskaltzainari emanaz eta Irigaray jaun euskaltzainak Lojendio jaun euskaltzainari ematen dio poderioa. Horretara batzarrean daudenakin 20 boto dira Euskaltzainburua autatzeko eta besteetarako 19.

Euskaltzainburua autatzeko botoak ematen dira eta honela agertzen dira: Villasantek, 11 boto; Lekuonak, 3 boto; Arruek, 3 boto; Barandiaranek, 1; boto zuriak, 2. Beraz, Luis Villasante Euskaltzainburua izendatua gelditu da.

Euskaltzainburu ordea autatzeko botoak ematen dira eta honela agertzen dira: Haritschelharek, 15 boto; Lafittek, 1; boto zuriak, 3. Beraz Jean Haritschelhar Euskaltzainburu orde gelditu da izendatuta.

Idazkaria autatzeko botoak ematen dira eta honela agertzen dira: San Martin-ek, 11 boto; Irogoyen-ek, 3 boto; Zavalak, 1; Lojendiok, 1; boto zuriak, 3. Beraz Juan San Martin Idazkari izendatua gelditu da.

Liburuzaina autatzeko botoak ematen dira eta honela agertzen dira: Irigoyen-ek, 13 boto; Lafittek, 2 boto; Satrustegik, 1; Erkiagak, 1; boto zuriak, 2. Beraz, Alfonso Irigoyen Liburuzain izendatua gelditu da.

Ondoren. Batzarre-Sala Nagusira pasatzen dira euskaltzainak, euskaltzain laguntzaile hauek gehituaz: Altuna, Aresti, Baztarrika, Becbide, Berrojalbiz, Berrondo, Enbeita, Garmendia Jon ("Zeleta"), Gereño, Kerexeta, Ruiz Urrestarazu, Sajzarbitoria, Sarasola eta Zatarain.

Euskaltzainburuak irekitzen du bigarren batzarra, oi dan otoitzarekin eta jarraian idazkari-ordezkoak irakurtzen ditu auteskundearen ondorioak.

Antonio Valverde eta Domingo Soubelet euskaltzain laguntzaileak atzo hil diran albistea eman da. Aho batez beren etxekoei idazkiz gure doluminik sentikorrenek eskaintzea erabakitzen da.

Irigoyen jauna ezkondu da. Bijoakioz batzarkideen zorionak.

Dirección General de los Registros y del Notariado delakoaren idazkia irakurtzen da Euskaltzaindiak Gasteizko batzarraren erabakiaz egin zionari erantzunaz. Bertan Euskaltzaindiaren agintaritza galdetzen du personen izenen arazoan. Idazkari-ordezkoak dio Euskaltzaindiak zailtasun batzuk gertatzen diralako laguntza eskaintzen zuela. Satrustegi jaunak eskerrak ematen ditu Euskaltzaindiak egin dion laguntzagatik eta aitzen ematen du nola Amaia izenaren auzia konpondu dela gurasoen alde, goragoko Auzitegiak Amaia jartzeko agindu dio beheragokoari.

Nafarroako Diputazioaren idazki bat irakurri da, bere erabaki baten berri emanaz, nola aurtengo bere laguntza 25.000 pesetara jaso digula adieraziaz. Orainarte 10.000 peseta ematen izan ditu. Eskerrak eman heikioz.

Idazkari-ordezkoak "Symposium" -eri buruzko gora-beheren kontua ematen du. Roda, Herri hizkuntzen idazkaritzako arduradunarekin mintzatu da, eta Nafarroan Satrustegi eta Cortes Izal-ekin ere. Santamaria jaunaren iritzia ere jaso du eta Roda-ren usteari jarraituaz ikusten da komenigarriena batzar txikitxo bat egitea, Barcelonan edo Iruñan gaiak koordinatzeko, ahal bada irailean, eta gero lana banatuaz hizkuntza bakoitzekoari orduan erabaki noiz izango Symposiuma. Idazkari-ordezkoa bera gelditu da Roda-ren berri duanean hemengo Batzordeko diren Irigarai, Santamaria eta Oleagari aitzen emateko, eta baita ere "Príncipe de Viana"-ko Satrustegi eta Cortes Izal-eri ere. Ontzat haritzen da bere egipidea.

Euskaltzainburuak Martin Retanaren proposamenduen berri ematen du eta zertan gelditu dan euskaltzain osoen batzarra arazo horretaz.

San Martin jaunaren idazki bat irakurri da. Bertan aitzen ematen du nola jestio bat egin duan "Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian" delakoaren zuzendaritzakoekin, Mitxelena jauna Atlas Lingüistikorako lanetan soilik aritzeko Donostiara ekartzea, aurrezki kutxaren diru babesean. Ontzat hartzen da eta Mitxelena jaunak berak egingo du bere plan bat horretarako. Datorren urtean Bizkaiko Aurrezki kutxaren urre eztaiak diranetik, kutxa horrek ere zerbait egiteko gertu omen dago. Hori ere kontuan eukiko da.

"Toribio Alzaga" antzerki sariketa, azkenengo batzarreko erabakiari jarraituz, M.^a Lurdes Iriondo-k, bere "Martin arotza eta Jaun Deabrua" eta Estanislao Urruzuno: "Inakixoren altxorra" antzerki lanakaitik dirala sarituak agertzen da.

Ondoren Bilboko Apezpikuari, Bilboko Herri Irratiak euskerazko irratsaioak sartzeko Xabier Gereñoren eskabidea onartzen da, zeren Elizaren beste irrati batzuetan euskerazko irratsaioak egiten bai dira eta uste da Bilbokoan ere beharrezko dirala Bizkaiko euskaldunentzat mesedegarriak izango litzakezalako. Apezpikutegiak edozertan eukiko leuke Euskaltzaindiaren teknika aholku eta laguntza.

Jon Garmendia "Zeleta" jauna bertsolarien txapelketari buruz mintzatzen da.

Urrengo batzarra, irailaren azkenengo ostiralean Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean egitea erabaki da.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburna
MANUEL LEKUONA

Idazkariordea
JOSE LUIS LIZUNDIA

1970-IX-25

Bilbon, Euskaltzaindiaren Etxean, 1970-eko Irailaren 25-ean, goizeko 11 t'erdietan bildu dira: M. Lekuona buru, Haritschelhar buru ordezeko, Erkiaga diruzain, Arrue, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Villasante eta Zavalala euskaltzainak eta Alzola, Arenaza, Aresti, Azpeitia, Berriatua, Berrojalbiz, Berrondo, Charritton, Enbeita, Etxaniz, Etxenagusia, Garmendia (Jon), Gereño, Kerexeta, Kintana, Olerga, Oñatibia, Ruiz Urrestarazu eta Zatarain euskaltzain laguntzaileak, Lizundia idazkari ordezekoak idazkari egiten dualarik.

Ohi dan otoitzarekin hasi da batzarra.

Azkenengo batzarreko agiria ontzat hartzen da.

Euskaltzaindiaren Etxearen berrieztatze lanak zuzendu dituzten bieideitzen zaie. Juan Mikel Astiz eta Xabier Amuriza jaunei, eta batzarkideen eskerrak hartzen dituzte.

Berrondo euskaltzain laguntzailearen idazki bat irakurtzen da, bere ardurakizuna, alegia, Donostiako bulegokoa uztea erabaki duala aitzen emanaz.

Zirarda, Bilboko Gotzain jaunaren eskutitz bat irakurtzen da. Bertan Euskaltzaindiaren eskariari erantzunaz, Bilboko Herri Irratian euskera sartzeko erantzun egoki bat emoten ahaleginduko dala adierazoaz,

eta guk eskainitako aholku eta laguntzagatik eskerrak emanaz. Era berean gure eskerrak berari agertzea erabaki da.

Espasa-Calpe, S. A.-ren gutun bat, aditzera emanaz, 1970-eko lehen sei hilabetetako kontu-zuritzea, Azkue-ren Euskalerrriaren Yakintza-gatik egile eskubideak ordainduaz, 2.184 peseta bidaltzen ditu. Eskerrak ematea erabaki da.

Txillardegiren gutun bat irakurtzen da, Euskaltzaindiaren eginkizun, aditz batuaren arazo eta beste puntu batzuk aipatuaz. Etxaniz jaunak berak ere zerbait esan beharra baduala esaten du. Baina har-emanen jarraituaz, Etxaide jaunak bidalitako beste gutun bat irakurtzen da Etxaniz jaunak berak "Zeruko Argia" asterokoan Euskaltzainburu berria autatzeari buruz egin duen artikulua, gero "Agur" hilerokoak kopiatuaren aurrean Euskaltzaindiak zerbait egin behar lukeala eskatuaz. Jarraian Etxaniz jaunak idazki bat irakurtzen du Euskaltzaindiaren oharra, batasuna, h-a eta beste puntu batzuk aipatuaz. Eztabaida garratz bat sortzen da eta ezer erabakitzeko modurik ikutzen ez zalarik moztutzen da eztabaida eta beste gai batera pasatzen da.

Symposium delakoari buruz, Oleaga eta Lizundia jaunak batzordearen kontu ematea egiten dute, Herri Hizkuntzen Idazkaritzako buru den Roda jaunarekin batzordekoek Zornotzan izan zuten bileraren berri emanaz. Lizundiak irakurtzen ditu bertan bururatu zan Symposium-erako gaien proietoa. Onhartzten dira gai horiek eta batzordekoen lanak.

Euskaltzaindiaren Hiztegiari buruz, horretarako dagoen batzordeko dan Berrondo jaunak arazoa zertan dagoen adierazitzen du. Batzordeak bere eginkizunean jarraitu dagiala erabakitzen da.

Xarriton jaunak ikastetxeei Euskaltzaindiak dei bat egitea komeni litzakela euskera bertan, toki horietan sartzeko. Lizundiak aitzten ematen du Goierrri eta Urola eskualdeko Alfabetatze batzordeko arduradunek arlo horretan egin duten lana aipatzen du eta Kintanak Deustuko Unibersidadean. Haritschelhar jaunak ere Xarriton jaunaren uste bera agertzen du. Ikusirik Alfabetatze batzordeak asmo hori lortu duela toki batzuetan, Ruiz Urrestarazu Arabako Ordezkarri eta batzorde horretakoa danak ere lortu du Laudioko Lasalletarren ikastetxean euskera sartzeari, Alfabetatze batzordearen eskuetan geldi dedila erabakitzen da, arazo hau eta lenen batzordeko diranei Haritschelhar eta Xarriton jaunak gehitzea.

Oregi jaunaren aditz batuari buruzko txostena ez da iritxi eta Euskaltzainburuak adierazten du nola Aresti eta Kintanak ere lan bat egin duten, eta beste norbaitek ere egin lezaketa eta bidezkoena, arazo honetarako batzorde berezi bat sortzea. Urrengo batzarrean batzorde hori izendatzeko gelditzen da.

"Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro —Delegación de Guipúzcoa" delakoak— idazki baten bidez erdera- euskerazko etxegintzako hiztegi bat egiteko asmoetan daudela aitzen ematen du eta beren aldetik Roman Azkue Goenaga eta Jose Uribe-Etxeberria lan taldeak sartzeko gertu daudela ere bai. Bizente Saralegi nafarrak horretaz lan bat egin zuala adierazitzen da eta Irigarai jaunari horren berri jakingo duanez galdetzea erabakitzen da. Zatarain jaunari arlo honetan sartzeari eskatzen zaio eta urregorako uzten da Euskaltzaindiaren aldetik lan talde horretan zeintzuk sartuko diren erabakitzea. Bestalde beharrezko ikusten da Kolejiio horrerri gure laguntza ematea.

Bertsolari Txapelketari buruz, datorren batzarrerako Zavala jaunak txosten bat prestatuko du.

Arrue jaunak aitzen ematen du, Gipuzkoako Lehendakari-ordearekin egondu dala eta aitzen eman diola Diputazioak, Euskaltzaindiak egin dion eskaria onhartuaz jasoko duala urteko emaitza. Baita ere esaten du, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian berritze lanak egitekotan dirala eta Euskaltzaindiak bere Ordezkaritzarako leku egoki bat izango duela.

Villasante jaunak, Aita Añibarroren "Gramática Bascongada" berak prestatuta Euskaltzaindiaren Liburutegirako eskaintzen du. Eskertzen da Bibliotekari egiten dion laguntza. Goikoetxea "Gazteluk" Abadie-ren lanak mikrofilmetan hartzea komeni litzakela esaten du.

Haritschelhar jaunak aitzen ematen du datorren hileko batzarra aurrez erabaki zan bezala, Zuberoako hiriburuan, Maulen izango dala, 25-ean.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1970-X-25

Maulen, Herriko-etxean, 1970-eko urriaren 25-ean, goizeko 11 t'erdietan bildu dira, mahabiruko: Luis Villasante eta Manuel Lekuona; Champo, Mauleko auzapeza eta Haritschelhar euskaltzainburu-ordezkoa; Erkiaga; Dassance; Diharre (Iratzeder); Eppherre; Irigoyen; Lafitte eta Larzabal euskaltzain jaunak; eta Akesolo, Alvarez Enparantza, Andiazabal, Aresti, Artola, Basauri, Berriatua, Berrojalbiz, Bordazarre (Etxahun), Davant, Etxaniz, Eyheramendy, Etxeberri, Etxenagusia, Garmendia (Jon), Garmendia (Salvador), Idiart, Itzaina, Jauregiberri, Labeguerie, Kurutxet, Lizundia, Monzon, Ruiz Urrestarazu, Xarriton, eta Zugasti euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Auzaphezaren agurra, batzarkideei ongi-etorria emanez eta Salaberry kanta eta doinu biltzailearen *Chants populaires du Pays Basque* liburuaren ehungarren urte-burua dela eta honegaitik biltzen gerala gogoraziaz zenbait hitz eginaz Salaberry zenaren goresmenez.

Ondoren Villasantek agurtzen ditu Zibero eta Salaberry, eta Auzaphez eta biltzarkideei eskerrak ematen dizkie.

Agur hoiien ondotik hiru hitzaldi datoz:

Louis Dassance euskaltzain jauna mintzatzen da, Salaberry gizon bezala nor eta nolakoa zen adieraziaz.

Jean Haritschelhar euskaltzain buru-ordezko jaunak, Salaberry olerki biltzaile.

Grégoire Eppherre jaunak, Salaberry musika biltzaile. Ziberotar kantari batek laguntzen dio bere eginkizunean, doinuak adierazi ahal izateko.

Haritschelhar jaunak bi hitz egin ditu Salaberry zenaren senideak aurkeztu ditu, eta Salaberry zenaren iloba batek hartu du hitza batzarkideei eskerrak emateko.

Labeguerie jaunak, Euskaltzaleen biltzarraren izenean eta bertako buru bezala, euskeraz eta euskeraren alde hainbeste lan egin duten Madeleine Jauregiberri anderea eta Pierre Bordaçarre (Etxahun) jauna Zi-

berotarraren goresmenez hitz egin du eta elkartearen izenean ohorezko medaila bana jartzen dizkie.

Montzon jaunak, bere aldetik, bi hitz eskaintzen dizkio Jaureguiberry andereari, bai berak eta bai bere anaiak herbesteratutako euskaldunei ordu larrietan laguntzen jakin zutelako. Eta, berak bilduta dituen paperak, euskal literaturarentzat hain garrantzizkoak, herriarenak direla eta ez bereak, eta argitaratu nahi dituztenen eskuetan uzteko gerturik dagola.

Lekuona jaunak bi hitz egin ditu, Salaberry eta bere lana goratuaz eta Villasante euskaltzainburu berria aurkeztuaz.

Villasante jaunak, bere aldetik, batzarkideei eta Ziberoari agur egin ondoren, Salaberry-ren lana goratzen du, eskertzen du don Manuel eta bere dohainak adierazi, eta bukatzeko, Euskaltzaindiaren egitekoa gogorazten digu, gaurko egoeran zer nolako lanak dituen aurrez-aurre, eta abar.

Beste gabe bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1970-XI-27

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko azaroaren 27-an, goizeko hamar terdietan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Diharce "Iratzeder", A. Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Larzabal, Lekuona eta Satrustegi euskaltzainak; Baztarrika, Beobide, Berriatua, Enbeita, Etxaniz, F. Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Goikoetxea-Maiza, Gereño, Lizundia, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre eta Erkiagak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Urriko agiria ontzat hartu da. Eta, urriko bileran iraileko agiriri buruz erabakitzerik ez egoanez, Mauleko bilera berezia izan zelako, Etxaniz jaunak aditzera ematen du iraileko agirian M. Lekuona jaunak anonimu bat hartu zuela aipatu beharra dagola.

Idazkariak aditzera eman du, "La Gran Enciclopedia Vasca" argitaldaria eta Euskaltzaindiaren arteko auzia, Azkue-ren laneri buruz, erabakita gelditu dala. Urriaren hogeian M. Lekuona eta L. Villasante jaunek artean (Euskaltzaindiaren izenean hauek) agiri bat egin zutela Retana jaunarekin auziak zuritzeko. Argitaldaria, Euskaltzaindiari, 200.000 pezetaren ordainketa ontzat hartu du 1971-eko urtarritetik ekainera bitartean onhartutako letren bidez, egile eskubideena, eta aurrerakoan Euskaltzaindiaren baimenik gabe Azkuenik ezer ez argitaratzeko erabakitzen da.

Fernando Pi Ayanz, bitarteko egin duen lege-gizonak, bere lanagaitik 31.300 pezetako kontua pasatzen digu.

"La Gran Enciclopedia Vasca" - Azkue auziagatik Euskaltzaindiak bere artekoentzak jarri zuen kolaboraziozko betoa jasotzen da.

A. Irigoyen jaunak dio, betoa altxa baino lehen agertua dala Eus-tzaindikoren baten kolaborazioa.

Idazkariak, bere aldetik, argi jarri nahi du, *Peru Abarka*-ren argitalpen berriari, "La Gran Enciclopedia Vasca"-k argitaratu berri duena, ba direla bi urte hitzaurrea berak egin ziona, eta bitarte auzia zalako urte betearen egon dala argitaratzeko eman zuen ukapenez eta orain zabaldu berri bada ere, ez oraindik berak hortarako baimenik eman duelako.

Haritsschelhar jaunak *Centre International de Recherches sur le Bilinguisme* elkargoaren azterlari den Roger Marcastel jaunaren gutunaren berri, Canada-ko Québec-go Unibersidadetik, gure lan eta agiri-rien berriak eskatuaz, berezki gure argitalpen, eta lanak, batez ere bilinguismoari buruz Espainian ditugun prolemeri buruzko informazioa.

Donostiako "Gordailu"-ren gutuna, Ikastolen izenean, gure herriaren une honetan "Euskera-Batasuna"-ren auziaz dugun arloa erabaki beharra dugula, eta ikastoletako irakasleak beren aldetik laguntza emateko prest daudela, horrela erabaki dutenez. Gutunarekin batean gai honi buruz hartutako erabaki-agiria igortzen dute, zer ontzat hartzen duten eta zer ez adieraziaz, batez ere Arantzazun markatu ziren oinharriekin daudela aditzera emanez.

Idazkariak aditzera ematen du, hil honen 21-erako Gipuzkoako Diputazioak egin zuen deira, 1971-rako kultura elkargoeri diruzko laguntza, bilera labur eta azkar bat egin beharra izan zutela idazkari-ordezkoak eta berak Donostiako euskaltzainekin dei honi buruz. Euskaltzaindiako Gipuzkoako ordezkari-tza bildu zirela: Arrue, Irigaray eta Lojendio jaunekin eta diru eskarizko gutun bat egin, eta era berean, idazkari-ordezkoak aurrez gertaturik, 1971-eko lan egitaraua eta presupuestoen agiria irakurri, eta ondorean, Santiago San Martin Diputazioko buru-ordezkoarekin mintzatu zirela. Deia ez zala Euskaltzaindiarekin pentsaturik, elkargo hau Diputazioak bere duelako eta bilera kanpokoeri begira zala. Dana dala, diru gehitze bat izango dugula agindu zigun.

Arrue jaunak, hontaz zenbait xehetasun geituaz bat, aditzera ematen du, Diputazioa berritzean duten asmoa. Gela berriak egingo dituztela, elkarren ondoan, Euskaltzaindia, "Julio Urkixo" Mintegia eta Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-elkarteentzat, elkarrengandik aparte bulego lanetarako, eta gela nagusi bat bilerak egiteko, 100 jarlekukoa, premia denean berreunera arte gehitu ahal izatekoa. Berriok pozik entzun dira.

Idazkari-ordezkoak diru-kontu agerpena ematen du, Erkiaga jaunak bidalia. 1970-eko urtarriletik irailaren azkenera arte: Bilbon, Kutxan zegoana, 898,—; gehitua, 230.282,—; urritua, 230.760,20; dagoana 419,80. Banku-etxeetan zegoana, 10.924,81; gehitua, 516.396,94; urritua, 451.547,15; dagoana, 75.774,60. Bilbon guztiz dagoana, 76.194,40 pezeta. Donostian (Maiatz-Irail azkenera), Kutxan zegoana, —,—; gehitua, 1.500; urritua, 1.500,—; dagoana, —,—. Banku-etxeetan zegoana, 48.733,86; gehitua, 75.000,—; urritua, 100.034,—; dagoana, 23.699,86. Donostian guztiz dagoana, 23.699,86 pezeta. Ondorean jartzen ditu Bilboko banku-etxeetan zelan daudenaren xehetasunak.

Euskaltzainburuak aditzera ematen du EUSKERA, XIV-XV (1969-1970) osatzen duena argitaratu dala, monografia bezala, urre-ezteietan erabaki zanez, Jean Haritschelhar jaunaren *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* lan mamitsua, Etxahunen idazki, itzulpen, aldaketa eta oharrez, 710 orrialdeko lana. Euskaltzaindiaren etxetik zabaltzen ari direla eta oraindik hartu gabeak ere laster izango dutela.

Lafitte jaunak, Euskaltzaindiaren liburutegirako, argitara berri den J. B. Etcheberry-ren *Obrak mintzo* (Baiona, 1969) eskaitzen du. Larresorok bere *Sustrai bila* (Donostia, 1970) eta azkenik Iñaki Beobidek, Irakur sail-en izenean, *Bertrand Russellen azken iritziak* (Donostia, 1970). Jon Garmendiak, A. Plazido Mujikak bialdurik, *Aditz laguntzaien* orriak. Guztiei eskerrak ematea erabaki da.

Euskaltzainburua Euskaltzaindiaren egituraz mintzo da. Hontarako dugun premia agerrerazi ondorean, honela sailkatzen du Euskaltzaindia: *Lehenbizikoa*: Euskaltzainburugoa (Directiva). *Bigarrena*: Batzor-deak (Comisiones). *Hirugarrena*: Ordezkaritzak (Delegaciones). *Bigarrena* eta hirugarrena Araudiak dion Iker-Saila (sección filológica) eta Jagon-Saila (sección tutelar) izango lirake, gutti gora-behera behintzat. Bi atal horiek osatua dala Euskaltzaindia. Eta ondorean hiru sailen xehetasunak ematen ditu, bakoitzaren eginbearra, ibilbide-legea eta abar gogoratuaz: I *Euskaltzainburua*, honako hauek osatua: Euskaltzainburuak, Buru-ordeak, Idazkari Nagusiak, Idazkari-ordeak, Diruzainak eta Ordezkaritzetako bulego-buruek. Beren egin behar berezia Euskaltzaindiaren burokrazia arazoak eramatea. II *Batzordeak*, bigarren saila, Batzordeak osatua. Euskaltzaindiak bere Iker-sailean zerbait egingo badu, bere lan hori Batzordeen bidez burutu behar du. Orain, Batzordeetatik behar den fruitua ateratzeko, berebiziko inportantzia du horiek behar den bezala eratuak egotea eta prozedura lege jakin batzuen arabera jokatzea; bestela ez dugu horietatik atarramendu onik aterako, maiz ikusi dugun bezala. Idazkari-ordeak dionez, bada, Batzorde bakoitzak bi atalez behar du osaturik egon: bata, Atal Eragilea izango litzake; eta bestea, Kontseilari-Atala (hots, erderaz Comisión ejecutiva y Comisión consultiva esan ohi dana). Batzordearen Atal Eragilerako pertsonak hautatzea Euskaltzainburuagari dagokio. Honek batzarkideei Batzarrean proposamendua egiten die, beti eskribuz eta arrazoiak emanez; beraz, arrazoiez hornitu eta finkatutako proposamendua izan behar du. Era berean, beste batzarkideek ere proposamenduak egin ditzakete, baina beti eskribuz eta arrazoiak emanez horiek ere. Batzarreak ontzat eman ondoren, Batzordearen Atal Eragilea izendatua gelditzen da. Batzordearen Atal Eragilean ez bitez egon hiru baino gutiago, ez eta bost baino gehiago ere. Arrazoiak bistan da: jende gehiegi sartzen baldin bada, ez da lanik egiten. Gainera, Atal Eragile hunek buru bat eta idazkari bat izan behar du. Kontseilari-Atala nahi den beste lagunez osatua egon diteke. Beren borondatez eskatzen dutenak sar ditezke Atal honetan; eta inork bere burua eskaintzen ezpadu, Euskaltzainburugoak egingo du proposamendua eskribuz eta arrazoiak emanez (eta berdin egin ditzakete beste batzarkideek ere). Proposamenduaren onhartzea, beti bezala, Batzarreari dagokio. Era honetan lana eramateko zenbait xehetasun gaineratzen ditu. Baita ere, aditzera ematen du, gaurkoz Alfabetatze Ba-

tzordea bakarrik daukagula zutik, Bilbon Iraileko Batzarrean erantsi zitzaizkion emendailuekin. Euskaltzainburugoak hurrengo biltzarrerako Batzordeen organigrama bat prestatu eta ekarriko du. Era hortara begi kolpe batez ikusi ahal izango da Euskaltzaindiaren Sail, Batzorde eta Atal guztien multzoa.

III *Ordezkaritzak* —dio euskaltzainburuak jarraituaz—. Hauek dira hirugarren saila. Hauek osatzen dute batez ere Euskaltzaindiaren Jaigon-saila. Donostia eta Gasteizen ba dira bulegoak: Iruine eta Baionan ere jarri behar lirake. Bilbon Euskaltzaindiaren etxe nagusia dago, baina haatik ongi litzake Ordezkaritza batzorde bat ere bertan balego, Ordezkaritza hauek egikizun berezia baitaukate. Ordezkaritza bakoitza bospairu lagunek osatua izango da. Gutienez, ilean behingo bilera egin beharko lukete. Ordezkaritza bakoitzak lehendakaria eta idazkaria eduki behar du; hortaz gainera, kontseilari bat, bi edo hiru ere bai. Bilboko Ordezkaritzarako idazkari, bertan Idazkari-orde dagoena izango litzake. Ordezkaritza-Batzordeko ez izanarren, edonor Euskaltzaindikok bertan parte har lezake, hartarako Batzarrean proposamendu eginez. Euskaltzaindikoko Idazkari Nagusia izango da Ordezkaritza guztien buru. Eta Idazkari-ordezkaria izango da koordinatzailea. Koordinatzaile hunek hileroko agertu bat egin beharko luke Ordezkaritzetara, horien lana koordinatzeko. Hiru hilabetez behin Idazkari Nagusi eta Idazkari-ordeak Ordezkaritzetako idazkariekin bilera egin beharko dute. Euskaltzainburuari ere, alde aurretik bilera horren berri emango zaio; eta joateko eskubidea du, berak nahi baldin badu behintzat.

Gero, gaineratzen du, hileroko Batzarretan ere, disziplina baten beharra dugula, denon onerako, eta proposatzen du: Euskaltzainburuaz gainera izan dedila gure Batzarreetan moderatzaile edo speaker bat, bere mikrofonu, txintzarri eta guzti. Honi eskatu beharko zaio hitza, honek ebakiko ditu sesioak, eta hitz batean esateko, Batzarrearen haria berak eramango du. Aldiz aurretik banatuko den egitaraua segituz, noski. Nik Lizundia Idazkari-ordea proposatzen dut zeregin hortarako.

Ontzat hartuak izan dira proposamenduok.

Satrustegi jaunak eskatzen du, hartzen diren txostenen artean Euskaltzaindiak eskatutako gaiari preferentzia emateko. Hau ere ontzat hartu da.

Euskaltzaindiaren araudia berritzea eta "personalidad jurídica" behar bezala lortzeko ere batzorde bat izendatu beharra dagoela eta jaun hauek izendatzen dira Batzordearen Atal Eragilerako: A. Luis Villasante, euskaltzainburu bezala; J. M. Lojendio, euskaltzain eta lege-gizon den aldetik; A. Arrue, euskaltzain eta lege-gizon den aldetik; J. L. Lizundia, burokrazia arazoetan aditua den aldetik. Atal Eragile honen buru Villasante izango da, eta Lizundia idazkari. Kontseilari Atalerako: Jean Haritschelhar, mugazandikoen eskubideak eta errepresentazioa zaintzeko; Manuel Lekuona, euskaltzainburu izanak eman dion esperientziagatik; J. San rMatin, Euskaltzaindiaren Idiazkari den aldetik; Jesus Oleaga, lege-gizona den aldetik; J. M. Satrustegi, euskaltzaina, Nafarroako eskualdearen izenean; M. Ruiz Urrestarazu, Arabakoarenean.

Iruineko *Symposium*-a eratzeko batzordea izendatzen da: Atal Eragile: Carlos Santamaria, Jesús Oleaga eta Jorge Cortes Izal. Carlos San-

tamaria izango da buru, eta Cortes Izal Idazkari. Kontseilari Atalerako: A. Irigaray, J. M. Satrustegi, M. J. Urmeneta, J. L. Lizundia eta A. Damaso Intza-koa. *Symposium*-a, oraingoz, udaberrira atzeratzea eskatu zaio Roda Idazkari-Nagusi jaunari, antolamenak eskatzen duen denboragatik.

Etxegintza hiztegia prestatzeko batzordea, Euskaltzaindiari egin zaion eskariari jaramon eginaz, izendapen hauek egiten dira: Atal Eragilerako: J. M. Barandiaran, J. San Martin, J. Elozegi. Barandiaran buru eta Jesus Elozegi idazkari direla. Kontseilari Atalerako: Jose Miguel Zumalabe "aparejadorea", A. Zatarain euskaltzaindiko eta ingeniuru dena, Castor Uriarte arkitektoa eta P. Lafitte euskaltzaina.

Idazkariak adierazi du hiztegiak egiterakoan orain arteko esperientzia jasoaz, lehendabizikoz bibliografian adituak direnei dei egin behar zaiela hiztegia osatu nahi dugun espezialidaden lehendik euskeraz zer dugun galdetuaz, eta dugunaren gainean hitzez-hitz bulegokoak fitxak bete hitz bakoitzari egile-singla emona zeta ondorean oraingo espezialista eta kontseilari artean hiztegiok zabaldu, beren iritzia jasotzeko. Honeta-ra lana arindu, eta azkenik, Atal Eragileko batzorde espezializatuaren esku utzi erabagi zihurra emateko. Sistema honetan lan egitea ondo ikusi da.

Donostiako Ordezkaritza osatzeko, hirukote hau proposatzen du Euskaltzainburugoak: Aingeru Irigaray jauna buru bezala, Carlos Santamaria jauna laguntzaile, kontseilari bezala, eta Salvador Garmendia jauna idazkari bezala. M. Lekuona jaunak dio, Berrondok ez duela usten ordezkaritza, azkenengoz esan duenez. Eta, esandakoez gainera, Berrondo jauna ere kontseilari bezala sartzea erabaki da. Hauek, Ordezkaritza hau, urte-beteko epean hartzen dute.

Iraileko Batzarrean erabaki zenari men eginez, aditz batasuna nola egin ahal izango den estudiatzeko, Batzorde bat izendatu behar da, eta Euskaltzainburugoak, bada, bere proposamendua egiten dio Batzarreari. Euskerak lau euskalki literario ditu. Beraz, euskalki bakoitzaren izenean pertsona bat hautatzen. Batzordearen Atal Eragilerako: Mitxelena buru; Lapurdi eta Nafarroa-Behereko euskalkiaren izenean, Pierre Lafitte, garamatika eta euskal idazle zaharrak eta berriak hain sustraitik ezagutzen dituen; Zuberoa euskalkiaren izenean, Guillaume Eppherre ziberotar euskaltzain eta "Gure Herria"-ren zuzendaria; Gipuzkoako euskalkiaren izenean, *Patxi Altuna*, irakaskintzan sartua dagoena, eta *Euskeraren hire laguna* metoduen egilea; Bizkaiko euskalkiaren izenean, Imanol Berriatua, euskal aditzaire buruz azterketa sakonak eginga eta "Anaitasuna" aldizkariaren zuzentzailea. Atal Eragilearen burutza Mitxelena, ordezkari Lafitte, eta idazkari P. Altuna. Kontseilari Atalerako: A. Damaso Intza-koa, René Lafon, I. Omaetxebarria, Joseba Intzausti, G. Aresti, X. Kintana, Isidro Baztarrika, J. Oregi, J. L. Alvarez Enparantza, Aita Iraizoz, F. Mendizabal, L. Akesolo eta J. Etxaide izendatzen dira. Eta ontzat hartuak izan dira.

Gai honi buruz J. Oregi-ren txosten bat jaso da, zenbait ohar eginaz "Anaitasuna" (189 zenb.) aldizkarian *Jakin eta Ekin* izenburuz agertu zen lanari eta *Batasunaren kutxa* izeneko liburuari. Txosten hau, Batzordearen eskuetan utziko da, haintzat har dezaten.

Beobidek eskatzen du, Hegosa-k aditz-batuari buruz antolatutako sariketaren epea igaroa dala eta epai-mahaia Euskaltzaindiak izendatu beharra duela. Honetarako dauden 100.000,— pezetatik, 50.000,— lehen sarritzat dala eta beste 50.000,— batzorde baten hartu diran lanen artean osakuntza bat egiteko. Aditz-batuaren Batzorderako izendatu den Atal Eragilea bera hautatzen da epai-mahaiko.

Ondorean, Beobide berak gogorazen du, datorren urterako ere beste 100.000,— pezetako emaitza bat egingo dutela, era berean. Idazkariak eskatzen dio, Euskaltzaindiak bere aldetik lankideak ordaindu ahal izateko dirurik ez duenez, ia zergatik ez utzi, Hegosa-ren diru hori, Aditz-batuaren Batzordearen lanak ordaintzeko. Beobidek, bero aldetik ondo ikusi du, baina Hegosa-koekin erabakitzekotan gelditu da.

X. Gereñok toki-izenen ofizialkien era jatorrezko lista bat behar dala dio. Idazkari-ordezkoak dionez, aurki argitaratuko da "Nomenclator"-a, Instituto Nacional de Estadística-k hamar urterik behin argitaratzen duena eta bera harturik, herri eta hauzo izen guztiak ekartzen dituenaz, berezi behar diren zuzenketak egitea izango dela onena. Ondo ikusi da.

Idazkariak dio, "Agur" (6 zenb.) aldizkariak Pozak eta kezkek izenako lan bat argitaratu duela Euskaltzaindiarentzat irainez, tartean idazkariaren izena ere era berean erabiliaz. Behar dan disziplinari eusteko, aurrerantzean abusurik izan ez dedin, sekretaritzaren izenean ofizialki erantzuteko eskubidea eskatzen du, bestela, bere izenaren honra mantentzeko partikular egitera beharturik dagoelako. Euskaltzainburu-ordezkoak dio, iraindua Euskaltzaindiaren idazkaria izan dala, eta ez pertsona partikular bat, eta Euskaltzainburuak beregain hartu behar duela "Agur" aldizkariari erantzuna ematea. Era hau ontzat hartua izan da.

Idazkari-ordezkoak, Gonzalez Ollé-k Burebari buruz argitara berri duen katalogoa Euskaltzaindiko liburutegirako komenigarria dela. Erostea erabaki da.

Aita Damaso Intza-koak aditzera ematen du, aspaldidanik egina zuela H letrari buruzko lan bat, argitasunak emanez. EUSKERA-rako egin zuela, baina denboraz argitaratuko ez zen ustean Bizkaiko beste jaun batzuei eskaini ziola, eta oraintsu *Karmel*-en argitaratua izan dela. Eta argi utzi nahi duela, lehen Euskaltzaindiak hartu zuen elabakiaren kalterik gabe, bakoitzak bere aldetik ikakurri eta kontsideratzeko dala H-ren historian.

Datorren Batzarrea, Donostian, abenduaren 30-ean izango da.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

1970-XII-30

Iruñean, Nafarroako Museoa, 1970-eko abenduaren 30-ean, goizeko 11-etan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Arrue, Irigaray, Irigoyen, Satrustegi, eta Zavala euskaltzainak; Bazterretxea, Berriatua, Berrojalbiz, In-

txausti, Kintana, Guillermo Larrañaga, Lizundia eta Ruiz Urrestarazu, euskaltzain laguntzaileak, Juan San Martin idazkari dala.

A. Intza-koak eta L. Mitxelena jaunak ezin etorria adierazi dute Ohi dan otoizarekin hasi da biltzarra.

"Institución Príncipe de Viana"-ko buru don Jose E. Uranga jaunak agurrezko hitz batzuekin eman dio ongi-etorria Euskaltzaindiari. Ondorean euskeraren zahartasunez, Espainiako hizkuntzarik zaharrena, eta ohorez mintzo da, eta bere alde "I. Príncipe de Viana"-k hartu duen lana adierazten du: Aspalditik herriz herri haur euskaldunentzat sari-ketak jarriaz, hilero euskerazko "Príncipe de Viana" aldizkaria argitaratuaz, hizkuntza ikerketentzat "Fontes Lingvae Vasconum", eta abar. Aldizkariok, euskaltzaindikoak beren lanak argitaratu ahal izateko idekiak daudela adieraziaz. Euskaltzaindjaren izenean eskerrak eman zaizkio.

Agiria onhartzean, Irigoyen jaunak dio, "La Gran Enciclopedia Vasca"-n kolaboratzeari buruz, "baten kolaborazioa" jarri dala agirian eta, berak, "batzuen kolaborazio" a esan zuela. Beraz, pluralean eta ez singularrean.

Ondoren, Irigoyen jaunak, euskaltzainburuak proposatutako "Euskaltzaindiaren egituraz"-ko txostenari zenbait ohar egin dizkio. Eta, idazkariaren huts egiteaz, zenbait batzarretan idazkari-ordeak bete duela, bokalik gaizteenak egin beharrean.

Idazkariak dio, oharrok, formazkoak direla eta ez funtsezkoak, eta agiriak argi ta garbi jarri ahal izateko, formaren aldetik, idatzitako ohar bat gertatzeko. Honetan gelditu da. Eta, idazkari-ordezkoari bu-ruzkoan, garaia pasatu dala dio, agiriak ontzat emanak daudenez; hala ere, 1967-an, Irigoyen jaunak berak, EUSKERA-n argitaratutako agiri-pean nabari denez, gauza bera egin zuela agiria idazkari-ordezko be-zala izenpetuaz.

Idazkari-ordezkoak aditzera ematen du, G. Aresti jaunak telefonoz dei egin diola, aditzera emanez, aditz batuaren batzordeko kontseilari izatea ukatzen duela.

J. Arenaza jaunaren gutuna irakurri da: Euskaltzaindiaren estruk-tura berriztatzeari buruz, hain garrantzi handiko gaiak diranez, bere epea eskatzen duela, hila bete gutxienez; organigrama horiek eskuratu ondoren Urtarrilera arteko epea bearko litzakeala. Beste alde batetik, idazkari-ordezkoaren iritziak gure arteko lege gizonak estudiatu.

Bizkaiko Diputazioaren gutuna, urterako laguntzaz 50.000,— peseta ematea erabagi dutela, eta beste hain beste Hiztegi lanerako. Eskerrak eman bekioz.

G. Manterola jaunak, euskaltzainburuari eta idazkariari eskerrak emanez egin dituen gutunen berri ematen da, hauek bere omenaldi bide egin zizkien zorion agurrak eskertuaz.

P. Berrondo jaunaren gutuna, Gipuzkoako ordezkariaren bulegoko ez duela jarraitzeko asmorik esanez.

Herri hizkuntzen idazkaritzaren arduradun don Frederic Roda-ren gutuna, *Symposium*-aren antolamenduz abeduen 13-an Iruñean egin zan bileraren berriak emanez. Lehendabizi, aste bukaeraz bilera txiki bat egingo dala, zenbait espezializta hortarako bereziki deituaz, eta az-tertuko diren gaiak: 1) "Espainiako hizkuntzak legearen pean" (Ley de

Educación, de Prensa, de Régimen Local). Oraingo egoeran eta zelako adierazpenak egin. 2) "Espainiako hizkuntzak eta herriaren iritziak" (zer nabari den ohartu eta ekintzak eratu: iritzi hobetzeen teknikak bideratu). 1971-eko otsailaren aste bukaera batean aztertzeke, eta, gero, bertatik eratu bilera nagusia, *Symposium*-a.

Arrue jaunak dio, Ley de Educación dalakoari buruzko azterketak, legea egina denez, "Desarrollo de la ley" behar duela gaitzat, eta ez "enmiendas a realizar", Roda jaunak dion bezala, eta Ley de Régimen Local-i "enmiendas a realizar". Ondo iduritu da.

Euskal izeneri buruzko gutun bi, Donostiako Juzgadutik, "ENEKOIZ" izenaren argitasunak eskatuaz; eta, Tolosatik "ZIGOR" izena galerazten, Euskaltzainditik bidalitako agiriak aski indar ez duelako. Baina, idazkariak dio, *Zigor* izena 1415-ean ba zala, J. C. Guerra zanak, *Oñacinos y Gamboínos, rol de banderizos vascos* (Donostia, 1930) liburuaren 119-garren orrialdean dakarrenez. Eta *Las Bienandanzas e Fortunas*-en ere agertzen dela izen hau.

Satrustegi jaunak dio, *Antzina* izena onhartu dala Iruñean.

Euskaltzaindian salgai dauden liburuen katalogu bat egin da, eta salketarako, lehendik euskal liburuekin horretara ari dan bat eskaini da.

Uranga jaunak "Institución Príncipe de Viana"-k argitara berri duen M. H. Anglés-en *Historia de la Música Medieval en Navarra* liburu eman du Euskaltzaindiko liburutegirako. Eta J. M. Satrustegi jaunak berak euskeratu duen *Ardo ta Ogi Martxelín*, José M.^a Sánchez Silva-rena, Iruñeko Gómez argitaldaria agertua. Eskerrak eman zaizkie.

Euskaltzainburuak "Idatz arauen batzordea" proposatzen du. Honen egitekoa izango da azaleko gauzetan oinharriak finkatzea, puntuazio kontua eta gainerako zenbait seinale, hitz elkartuak, eta abar euskera idatzian ahalik eta berdinen erabiltzeko. Hauek izendatuak: Pierre Lafitte, Imanol Berriatua, Salbador Garmendia eta Luis Villasante bera Egile Atal honen idazkari. Kontseilari: J. A. Alvarez Enparantza, X. Kintana, J. Etxaide, E. Erkiaga, M. Lekuona, A. Irigaray, O. Apraiz eta J. M. Satrustegi. Buru, L. Mitxelena.

Batzarrak egiteko era eta egituraren organigrama: Ideki, Euskaltzainburuak, I Otoitzarekin zabalduaz, II Eguneko gaiak irakurri; Bigarren, Agiria onhartzea; hirugarren, Idazkari nagusiak har-emanen berri; laugarren, hiru hilabetero diru kontuak ematea, Diruzainak edo bere ordezkariak; bosgarren, Eguneko gaiak. Hemen, batzorde bati dagokion arloa denean, batzordekoek dute lehen hitza, batzorde buruagandik hasi, idazkariak jarraitu eta beste batzordekoekin segi. Gero, beste bazkideek, banan bana; seigarren, aurrez aurrez utzikoak (ahal dala idatzita). Idazkariak irakurriko ditu zeintzuk diren, gero speakerrak, ordenuari jarraituaz, hitza emango du. Bakoitzak eta batzordeak dakartenen gaian, iker txostenak preferentziadun, baina aurrez Euskaltzaindiaren etxera bidali beharko da, honek kopiak ateratzeko, batzarra baino lehen. Txostenak, erantzunez adierazpenak izaten baldin ba ditu, eta zerbait luzatu, urrango batzarrerako utziko da, gaian sartuaz eta era horretara zerbait esateko dutenak epea izan dezaten.

Euskaltzainburu jauna Euskaltzaindiaren prensa bulegoaz mintzatu da, berriak ofizialki emateko. Oraingoz berak egiten du Euskaltzainburugokoen laguntzaz.

Euskaltzainburuak adierazten du, Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartek euskal irakaskintzarako liburuentzat sari bat sortu zuela igazko urtean, "Andima Ibiñagabeitia Saria", eta Euskaltzaindiari eskaini djola bera banatzea, irabazlea Nafarroan bizi danez. Euskaltzaindiak gogo onez hartu duela ohore hau eta orain dala unea. Euskaltzaindiko zen Ibiñagabeitiaren goresmenezko hitzen ondorean aurkeztzen du Gillermo Larrañaga jauna, *Landare jakintza-rekin* 1.000 dolar zituen sariaren irabazlea, eta bere alde txaloak eskatuaz, Euskera Lagunen Elkartek bidali digun txekoa ematen dio. Ondorean, G. Larrañaga jaunaren eta bere lanen berri ematen du, eta euskaltzain laguntzaile izendatzea eskatzen die batzarkideeri. Ontzat hartua izan da izendapena.

Batzarkide batzuen eskariz, Burgos-en heriotzara kondenatu dituzten euskaldunen bizitzan alde zerbait egin beharra dagoela esan da, eta Estadu-buruari telegrama egitea erabaki da, hitz hauekin: "Academia Lengua Vasca, reunida sesión académica Pamplona, suplica clemencia procesados Burgos".

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-I-29

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971-ko urtarrilaren 29-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Di-harce, Aita Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Lekuona, Lo-jendio, Satrustegi eta Zabala euskaltzainak, Beobide, Berriatua, Berro-jalbiz, Etxaniz, F. Setien, Garmendia (Jon), Garmendi (Salbador), Le-kuona (Juan Maria), Lizundia eta Zatarain euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre eta Larzabal euskaltzainak ezin etorria adiera-zi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Agiria onhartzean, Irigoyen jaunak zenbait ohar egin ditu Euskal-tzaindjaren egiturari buruz, araudien arabera bete ahal izateko zer behar den adieraziaz, euskaltzainburugoa eta batzordeak hornitzeko. Baita ere, dio, aldizkari batean irakurri zuela Lizundiak firmatua zela agiri bat, eta legezkoa izateko firma baten faltan dagoela. Berak idaz-kari-ordezko egin duenean bokalik gazteena bezala egin duela.

Idazkariak aditzera ematen dio, berak dakielarik ez dagoela agi-ririk firma baten faltaz.

Labayen jaunak speaker premiarik eza agertzen du, eta idaz-arauen batzordean beste izen batzuk sartzea eskatzen du.

Lizundia jaunak eman dio arrapostua. Eta, izendatua dagoenean ustea erabaki da.

Ohar horien ondorean agiria ontzat hartu da.

a) *Har-emanak*:

Basauriko udaletxeak antolatu duen "Premio Basauri de Estudios Vascos" sariketaren berri eman da, 1971-rako jarri duen gaia "Historia" izango da, naiz euskeraz edo naiz erderaz idatzia, eta saritzat 100.000 peseta izango dira.

Murcia-tik Carlos Molina Garcia-Tornel jaunaren gutun bat liburu zaharren dendan aurkit uzuen Iztueta-ren *Guipuzcoaco provinciaren condaira* (1847) Euskaltzaindiaren liburutegirako eskainiaz.

Caja de Ahorros Vizcaina-ren buru den Francisco Greño Pozurama jaunaren agurra, argitara berri duten *50 años al servicio de Vizcaya* izeneko liburua bidaliaz.

Hartu diren beste liburu batzuen berri ematen da: J. Arana jaunak ONU-ren *Protección a las minorías* (New York, 1967) liburuxkaren sei ale, Euskaltzainburuak *Hacia la lengua literaria común*, (Arantzazu, 1970).

Salbador Garmendia laguntzaileak berri duen *Lurraren kondaira* (Donostia, 1970).

Joan Goikoetxea Maiza euskaltzain laguntzaile jaunak bidaliak, *Loyola'ko Etxe Santua*, Juan Maria Perez Arregui-k idatzia eta Jose M.^a Bergarak euskeratua (Bilbao, 1951); *Olatz'ko Andre Mari'ri Bede-ratzurrrena*, Jose M.^a Bergara-ren (Zarautz, urte gabe); *Xabier-izpiak* (Donostia, 1961) eta *Loiola'ko Iñigo* (Zarautz, 1970), Luis M.^a Arrizabalaga-renak. Jose Maria Satrustegi euskaltzain jaunak "Fontes Linguae Vasconum"-en argitaratu ziren lanetatik aparte inprimatu diren *Libro de cuentas de un herrero de Valcarlos* (s. XIX), *Notas al libro de cuentas de Valcarlos* eta *Personajes populares relacionados con la brujería en Navarra*, guztiak Iruñean 1970-ean argitaratuak. Pedro Pujana jaunak *Euskal Aditza Bizkaiera* (Bilbao, 1970). Eskerrak guztiei.

Diruzain jaunak bidalia, 1970-eko laugarren hiru-ilabeteko kontu ematea irakurtzen da, Bilboko diru-etxeetakoa: zegoana, 76.104'40; gehitua, 465.370; urritua, 188.589'84; dagoana, 352.974'56. Ondorean zenbait zertzelada, diru etxeetan zelan banandurik dauden, non eta zenbat, eta azkenean ordaintzeko ditugunak. 352.974' pesetas ditugularik. 345.505'90 peseta ordaindu beharrezkoak, parterik handiena, 335.629'—pesetakoa Graficas Ellacuria-ri EUSKERA aldizkarietatik.

b) *Bertsolaritzari buruzko txostena*:

Antonio Zabala euskaltzain jaunak txosten bat irakurri du, bertsolari txapelketari buruz. Azken urteotan txapelketarik ez dala egin, izan diren eragozpenak, eta abar adierazi ditu. Ondorean egiterik komeni ote den eta egitekotan zelan egin beharko direnari buruz iritzia batzuk eman ditu. Zabala eta J. M. Lekuona jaunaren eskuetan uzten da elkarrekin estudiatu dezaten txapelketak komeni diren eta egin behar diren.

Ondorean Andres Narbarte bertsolariaren heriotzaren berri eman da.

d) *Baionako ordezkarietzako bulegoa*:

Haritschelhar jaunak Baionan Euskaltzaindiaren ordezkarietza bulego bat jartzera doazela adierazi du, "Herria" astekariaren inguruan

izango du tokia. Labegerie jaunak Eskualtzale Biltzarraren bidez Euskaltzaindiarentzat eskaria egin ziola Kontseilu Jeneralari, eta 2.000 libera berri emanak dituela bulego lanetarako. Eskerrak eman bekioz. Bulego-buru Piarres Lafitte jauna jartzen dute.

Haritschelhar jaunari eskerrak ematea erabaki da, hau lortzeko egin dituen lanegatik.

e) *Liburuzainaren txostena, Liriburutegiaz:*

Irigoyen euskaltzain jaunak libuburutegiaren antolakizunari buruzko txosten bat irakurri du. Euskaltzaindiaren biblioteca hornitzen duten libururik gehienak Azkue zanak utzitakoak direla, eta ez gutxi Altube zanak ere. Euskaltzaindikoko bibliotekak espezializatua behar duela, batez ere linguistika generala, euskal linguistika eta euskal literatura, eta gainerako liburuak horren inguru. Liburuak gureganatzeko hiru bide ditugula: beharrezkoenak erostea, zenbait errebista gurearen trukez hartuaz eta Euskal Herriko editorialetan ala bana bialtzera ohituaz. Trukean, orain ere aldizkari asko artzen direla, gehitu ahal izateko. Eta ordenamenduaren gora behera eman ditu zenbait argitasun.

Haritschelhar jaunak egin berri den gaskoinaren estudio baten berri eman du, guretzako hain beharrezkoa dena, eta Sorbonan Amaiur-go euskalkiaren estrukturaz tesis bat presentatua izan dela, pozgarriena, han ba zirela aski irakasle euskaldun mahaiburua hornitzeko, eta lan hau, linguistika berria denez, komeni dela ezagutzea.

f) *Giza-soina hiztegia aztertzeako batzordea:*

Giza-soina hiztegia, lehenago andereñoak presentatua, Donostiako bulegoko arduradunen esku utzia da, azterturik batzarrera aurkeztu dezaten, azken epaia emateko. Baina, bulegoak, hiztegi kontu hau espezialidadez ala era orokorrean hartzea komeni den estudiatu nahi dute lehenik.

Irigoyen jaunak dio, *soina* hitza ez dala gorputza, inoiz horrela erabili bada ere, eta zenbait agiriren argitasunak eman ditu honetaz. *Gorputz* hitza alderdi guztietakoa danaz gero, hau erabili behar dugula, zeren batez ere batasuna egina dagoenean hala utzi behar dala.

g) *Symposium-ari buruz:*

Symposium-aren antolakizunari buruzko txosten bat irakurri da, Santamaria jaunak bidalia Symposium ttipia edo aurrerapena martxoaren 5, 6 eta 7-an Iruñen bertan izango dala, gero udazkenerako edo Symposium nagusia egiteko. Bertara, jaun hautatu batzuek soilik deituko dira. Bertan, hiru gauko oheak eta azken bazkaria Institucion Principe de Viana-k ordainduko ditu, eta gainerakoa bertara joango diren jaunak beren elkargoekin bat harturik. Gure partetik joango direnen lista, Santamaria jaunakin bat harturik, Lizundia gelditu da I. Principe de Viana-ko Cortes Izal jaunari bialtzekotan.

h) *Batzordeak eta bakoitzak dakartena*

Bizkaiko Aurrezki Kutxak, bere urre-ezteiak direla ta, aurtengo literatura saria diruz gehitua, 25.000 pesetara, gai bereziz egin nahi

omen du, eta gaia jartzea gure esku lagatzen du. Gaitzat, literatura saia-
kera hautatu da, eta literaturaren barnean libre.

Haritschelhar jaunaren eskariz, aurtan, ifarraldeko Euskal Herriko
Beskoitzen egitea Euskaltzaindiaren bilera, Leizarragaren ohorez. Baio-
nan euskal kulturaren astea egin nahi dutenez, gure bilera egun horri
lotuko diotela.

Irigaray jaunaren eskariz, Rodolfo Bozas Urrutia euskaltzain lagun-
tzaile izendatzen da, lehendik euskal literaturaz dituen merezimendue-
gatik eta oraintsu gertatu duen *Athea* gaitzeko oihartzunak lehen eus-
kerazko nobelaren argitalpenagatik.

"T. Alzaga" izeneko haur-antzerki saria jasotzera, Maria Lourdes
Iriondok eta Estanislao Urruzolak, beren ezin etorria adierazi dutenez,
beren ordezkioak jaso dituzte I. Beobide eta A. Labayen jaunak.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1971-II-26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971-eko otsailaren 26-an, goi-
zeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buru-ordezko, Arrue,
Diharce, A. Damaso Intzakoa, Irigaray, Labayen, Lafitte, Lekuona, Lo-
jendio, Satrustegi eta Zabala jaun euskaltzainak; F. Arregi, Beobide,
Etxaniz, Fernandez Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador).
Goikoetxea (Ignacio), Intxausti, Lizundia, Ruiz Urrestarazu, Saizarbi-
toria, Santamaria, Sarasola eta Zatarain jaun Euskaltzain laguntzaileak
San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre, Larzabal eta Irigoyen jaunak ezin etorria adie-
razi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Urtarrileko agiria onhartzean, Labayen jaunak agerpen hau egiten
du: bere eritzian, speaker, euskaltzain numerokoak txandan egin behar
zutela adierazi zuela.

Euskaltzainburuak Luis Jauregui "Jautarkol" euskaltzain lagun-
tzailea eta Diez de Tuesta euskaltzalearen hilberria jakin erazi du, eta
era berean, buru-ordeak Antoinette Lakarra euskaltzain laguntzaileare-
na. Goian beude.

a) *Har-emanak:*

Hartu diren liburuak: Camus-en *Arrotza*, J. M. Agirrek euskera-
tua (1970) "Irakur sail"-ek emana; Ignacio Garmendia Berasategik bere
Irudi itxas-iztegia (1970) "La Gran Enciclopedia Vasca"-k argitaratua.
Eskerrak ematea erabaki da.

Pi jaun lege-gizonaren minutaren berri eman da.

Irigoyen jaunaren "Soina"-ri buruzko txostenari egindako erantzun-
ak irakurri dira: Labayen, Arrue, Lekuona, Aita Intzakoa, Zatarain,
Satrustegi, Salbador Barandiaran, Etxaburu, J. Azpeitia, Basauri eta

Villasante jaunak. Gorputza eta soina, biak elkarren artean ondo bereizirik erabiltzea komeni dela esan da, zein batak edo zein besteak bere zentzun berezia dutelako.

b) "Asko" hitzaren joskeraz M. Lekuonaren txostena:

Lekuona jaunak "Asko" itzaren sintaxisa izeneko txosten bat irakurri du. Bereiziki, Larresoro-ren *Sustrai bila* izeneko liburuari oharrez. Haritschelhar jaunak zenbait ohar erantsi dizkio Zuberoako adizari dagokion partean.

d) *Oztopen hiztegi*az, C. Santamariaren txostena:

Santamaria jaunak beste txosten bat irakurri du, euskeraren oztopen hiztegi, zelan behar duen hiztegi honek, hizkuntzaren aberastasuna gordetzeko duen garrantzia eta gaur egun dugun premia larria agererraziz.

e) *Donostiako bulegoaren lanak*:

Salbador Garmendiak Donostiako Bulegoan egiten ari diren laneri buruzko txostena, salgai dauden euskerazko liburu guztien fitxak bukatutzat dituztela eta orain haurrak lau urtetik zortzi urera artean maizen erabili bahar dituzten hitzen zerrenda egiten ari direla. Anderreñogandik hartutako giza-soiña edo giza-gorputza hiztegiari, behar dituen ikutuak egiten ari direla, eta abar.

f) *Batzordeak eta bakoitzak dakartena*:

Arrue jaunak aditzera eman du Gipuzkoako Diputazioak Junta de Cooperación Cultural de Guipúzcoa sortzeko dituen asmoez. Araudi gisa gertatu duten ante-proyektua dalakoan, hirugarren artikulua b) partean euskerari laguntza eta f) partean kultura eta literaturari, hogetamargarren artikuluan berriz dion bezala, euskera eta euskal-literaturaren saila jarriaz. Junta de Cooperación dalako honetan, "miembro nato", betirako batzarkide izanen da euskaltzainburua.

Haritschelhar jaunak aditzera eman du, nola mugaz beste aldeko elkargoek, Euskaltzaindiaren Baionako ordezkaritza barne delarik, dei bat egin dioten herri bozketetako kontseilarigaiei, euskera eta euskal kultura arazoak haintzat har ditzaten.

Lafitte jaunak jakitera eman du, Baionako ordezkartitzaren inguru, gramatika berri bat egiten ari direla, estruktural erakoa. Egungo egunean irakasten den bezalakoa, oraingo metodo berriz.

Satrustegi jaunak, Nafarroako ikastolak Nafarroako Forudun Diputazioak bere ardurapean hartzen dituenaren berri eman du.

Euskaltzainburu jaunak Euskaltzaindiaren araudi berriaren oinharriak zer diren eta lana zelan doanaren berri eman du.

Santamaria jaunak, *Symposium* ttipia apirilaren 4 eta 5-erako jarri dala esan du.

Zabala jaunak, Bertsolari txapelketa egiteko araudia gertatzeko batzorde bat izendatzea eskatu du, eta hauek izendatzen dira: Zabala, Juan Mari Lekuona, Arrue, Irigoyen, Artola "Bordari", Itzaina eta Izeta jaunak.

Idazkariak, irakasle karnetak sortzeko premia agerrera du. Eta gauza hau aurrera eramateko, hasieran, esamíña premiarik gabe, zenbait urtean euskeraz irakaseta ari direnei, *curriculum vitae* bat ekarriaz karnetak eman eta ondorengoei ere, sistema honetatik aparte, esamíñaren bidez. Eta esamíñak egiteko oinharriak ere beharko direla. Urrengo batzarreko zenbait irakasle aspaldiko urteetatik egiten ari diren lanen berri ekartzea erabaki da.

Irigaray jaunak dio, urrengo batzarreko gaetan "Euskera" aldizkariari buruzko azterketa bat komeni dela, geroari begira.

Aurtengo literatura saria, Bizkaiko Aurrezki Kutxak 25.000 pezetako sari berezizat jarri duena eta urtarileko batzarrean guk gaitzat literatura saiakera autatu genuenari, oinharriak jarri beharra agerrera zuten da, eta "Txomin Agirre" izeneko nobela saria eta "Toribio Alzaga"-n izeneko antzerki sariaren arabera martxoko batzarreko oinharriok ekartzea erabaki da.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1971-III-26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971-eko martxoaren 26-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu direnak: Villasante buru, Haristchelhar buru-ordezko, Arrue, Diharce, Aita Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Lekuona, Labayen eta Zabala euskaltzainak; Beobide, Berrojalbiz, Enbeita, Fernández Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Intxausti, Lizundia, Sarasola eta Zatarain euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Epherre, Larzabal eta Satrustegik ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra. Otsajleko agiria onhartu da.

a) *Har-emanen*: Mitxelena eta Peillen jaunen idazkiak hartu dire, otsaileko biltzarrean aztertu zen "gorputz-soin" gaiari buruzko agiri ta xehetasunak emanez, behar bezala berezirik erabiliko ba dira: "gorputz" itza, "cuerpo" edo "corps" bezala erabili behar dala eta "soin" hitza, "hombro" edo "épaule" bezala.

Gipuzkoako Diputaziotik hartu den gutun bat irakurri da, Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaritza bulego berritzeaz hil honen hogeiko bileran ontzat eman dutela Bibliotekaren ondoan gela berritu bat jarritza, lehen dugunaren orde. Eskerrak ematea erabaki da.

Arabako ordezkariaren gutuna, Araban aurtan egingo dugun batzarra Aramaion egin dezagula proposatzen dute, Barrutia-ren sorlekua dalako, probintzia hartan euskerarik geien egiten den lurraldea delako eta euskal giroa berbizteko onuragarri derizkielako. Ontzat hartu da, baina eguna erabakitzeke gelditzen da.

Biltzar programa beharra aipatu da. Haristchelhar jaunak, muga-zandiko bilera, uztailaren 4-an izanen dela, Baionan egiten duten Euskal-asteakin batera, eta tokizat Beskoitze autatu dute Leizarraga-ren ohorez, aurtan betetzen direlako laurhun urte *Jesus Christ gure jauna-ren Testamentu berria* argitaratu zuela.

Bizkaikoa, datorren hilaren hogeian Bilbon egitea erabaki da, II Semana de Antropología Vasca-n euskerari buruzko mahai-biribila izango den egun berean.

Nafarroakoa erabakitzeko gelditzen da.

Lexonako udaletxearen gutuna, herri hartan euskaldun eta erdalduen estadistika bat egiteko laguntza teknikoa eskatuaz, estudio zehatz baten ondorean oinharritzko irakaskintza behar bezala antolatu ahal izateko. Gaur S. C. I.-ekin gai honi buruz lana egitea erabakia dugunez, elkargo honetakoekin mintzatu ondorean erantzuna ematea erabaki da.

1971 Jaialdi Euskerazkoak Durango-n antolatzaileak eskaintzen digute Euskaltzaindiak beren jai honetan parte hartzea eta "Proyecto de creación de una Biblioteca de Clásicos Euskéricos" sariketa bere babespean hartzea. Onzat hartu da.

Hartu diren liburuak: Jakin sortak *Rikardo Arregi* liburua (1971), R. Arregi, Alfabetatze Batzordea, J. Arregi eta J. M. Torrealday-ren lanez osatzen dan bilduma; Irakur sailek Oihenarteren *Atsotitzak eta neurritzak* (1971) liburua. Eskerrak ematea erabaki da.

Gipuzkoako gobernadorearen agurra: Txosten gaietan hasi ta laster, Gipuzkoako gobernadore jauna sartu da, Diputazioko presidentea lagun duela, eta mahai buruan jarririk batzarkide guziak agurtu ditu. Euskeraren alde bere gogoa agerreraiz mintzatu da eta Euskaltzaindia hizkuntza honegatik egiten ari dena txalotu du. Euskaltzainburu jaunak, bere agertze eta agurragatik eskerrak eman dizkio, eta Gobernadore jaunak, bere laguntza eskaini dio, eta ondorean batzarkide guztiak banan bana agurtu ditu. (Biharamuneko "La Voz de España"-n, 27-III-71, jasorik argitaratu dira hemen egindako hitzak oro.)

b) "*EUSKERA*" aldizkariaren eraberritzearena: Euskaltzainburuak irakurri du txosten bat orain arte aldizkarian egin dan laneri buruz, azken urteotan A. Irigoyenek egin duen lana eskertuaz, eta aurrera begira behar dituen hobekuntzak adieraziz. Gure elkargoaren gaurkotasunari tokatzen zaion neurrira jartzeko beharko dituen zenbait puntu ere ikutu ditu, hiru hilabeterokoa izatea, t. a., eta azkenik, aldizkariaren lana aurrera eramateko batzorde hau proposatzen du: Euskaltzainburua, Buru-ordezkoa, Idazkari nagusia, dituzten karguegatik, A. Irigoyen lan honetan duen esperientziagatik, A. L. Akesolo bibliografian eta kondairan duen jakitateagatik, A. J. Intxausti gazte-dinamika ekarri dezan, P. Lafitte euskal eremu guzietan maixu denez, J. M. Satrustegi *Fontes Linguae Vasconum* eta *EUSKERA*-ren artean bitarteko bezala izan dedin, eta L. Mitxelena linguistika gaietan beronen aholkua izan dezagun. Eta, eragile lana, lan ejekutiboa, Idazkari-ordearen esku. Ontzat hartu da.

d) *Santamaria jaunaren txostena, euskal esaeren hiztegi*az, Santamaria jaunak ezin etorria izan duenez gero, urrengo biltzarrerako utzi da.

e) *Lekuona jaunaren txostena "asko" hitzaz* (bigarren zatia): "asko" hitzaren sintaxisaz joan zen bilerakoari jarraitu dio, zenbait exenplu gaineratuaz pluralean erabili ohi denez bai singularrez eta bai pluralez, iege hertsirik gabe.

f) *Labayen jaunaren txostena zuta, zear, ordezkartza hitzei buruz*-koa: "Bertikalki" eta "horizontalki"-ren ordezkartza eta zear proposatzen ditu, eta ordezkartza *delegación*-en ordezkartza, eta ez bulego. Elkarritzketaren ondorean, zuta, "vertical" en kideko dela esan da, baina geometrian

"bertikalki" erabili ezinik ez dagoela, bestea gainerakoetarako utziaz. Zear edo zehar, ez dala "horizontal", baizik "transversal"-en kideko. Gure artean, ordezkuritzza beti erabili dela "delegación"-en ideaz, eta bulego, "oficina" esateko bereizten dela, aspaldiko urteetan Euskaltzaindiko agerietan agertzen denez.

g) *Batzordeak eta bakoitzak dakartenarenean*: Gredos argitaldariai argitara berri duen Joan Corominas-en *Diccionario Crítico-Etimológico de la Lengua Castellana*, gure lanetarako hain premiazkoa denez, erostea erabaki da.

Irigoyen eta Lizundiak, biblioteca eraberritzeko diru eske-kanpaña egitea eskatzen dute. Ontzat hartu da.

Symposium ttipia, edo lehen bilerak, geroago izango den *Symposium*-aren gertaeraz egingo dana, apirilaren 4 eta 5-ean izango da Iruñean, Nafarroako Museoa. Bertarako deiak dituztenak bereziki parte hartuko dute.

Berriz gogorazten da, euskera irakasten ari direnei karnetak gertatzeko, irakasleen *curriculum vitae* eta hoiek erabiltzen duten erakusketa metodoen berriak eta noiztik ari direnen xehetasunak ekartzea, bakoitzak bere aldetik hortan ari direnei dei eginaz.

Aditzera eman da, azken bozetan Baigorriko auzaphez irten dala Haritschelhar jauna. Zorionak eman zaizkio.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-IV-20

Bilbon, Euskaltzaindiaren Etxean, 1971-ko apirilaren 20-an, goizeko hamar t'erdietan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Aita Damaso Intza-koa, Irigoyen, Lafitte, Mitxelena jaun euskaltzainak; G. Manterola jauna, euskaltzain ohorezkoa; Altuna, Arenaza, Aresti, Arkotxa, Azpeitia, Baztarrika, Berriatua, Berrojalbiz, Enbeita, Etxaniz, J. A. Etxebarria, Fernández Setien, Garmendia (Jon), Gereño, Intxausti, Kereketxa, Kintana, Lizundia, Oleaga, Onaindia eta Santamaria jaun lagun-tzaileak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Dassance, Diharce, Erkiaga, Eppherre eta Larzabal jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Martxoko bilerako agiria ontzat hartzen da.

a) *Har-emanak*: EUSKERA aldizkariari diruzko laguntza emateko Aurrezki Kutxen federazioan egin den gestioaren berri ematen da.

Patrick J. Farrell euskaltzain laguntzailearen gutuna irakurri da. López-Mendizabal-en gramatika laburra inglesera itzuli duanez, behar diren zuzenketak egiteko laguntza eskatzen du. Mitxelena jaunak bere gain hartzen du zuzenketa lan hau.

Espasa-Calpe, S. A.-tik Azkue-ren *Euskalerriaren Yakintza*-ren egile eskubideen ordainketa, igazko azken sei hilabetekoa, 2.368 pezeta. Baita

ere, aditzera ematen digute, IV-garren tomoaren argitalpena egin dutela.

Bilboko Liturgia batzordeko buru den Dionisio Borobio jaunak, liburu eta liburuxka, argitara berri dituen hamazortzi titulu bidali dizkigu: *Jai egunetako Irakurgaiak*, bi tomo (1970-1971);

(1970); *Cuaresma*, erdera-euskara (1970); *Nueva Pastoral para el bautismo*, erdera-euskara (1970); *Meza Santua*, bi tomo (1969); *Kristau ikasbidea*, hiru tomo (1970); *Aste Santua*, bi tomo (1970-1971); *Garizumako Mezatarako abestiak* (1970); *Bateoa* (1970); *Umeen bateoko elizkizun-liburua* (1970); *Umeen bateoko doiñuak* (1970); eta Autortzarako *parkamen itzak* (1970). Denak Bilbon bertan argitaratuak.

Lafitte jaunak, bere aldetik, beste liburu hauek eman dizkigu: *Euskal alorretik*, bilduma (Baiona, 1970); *Histoire de l'Ame Basque*, Roland Moreau-rena (Bordelen, 1970); *Gure Almanaka* (Baiona, 1971); *Pétain Marechala*, D. Soubelet-ena (Imprimerie Régionale, 1941); *L'Homme Basque*, Etienne Salaberri-rena (Baiona, 1950); eta horiez gainera, bere lanetarik zenbait separata, *Correspondance adressée par G. Lacombe à l'Abbé M. Landerretche*; *L'Art poétique basque d'Arnaud Oyhenart*; *Eguberri-aroa euskaldunen ohiduretan*; *Une lettre inédite du Père Joseph Moret à Arnaud d'Oihenart*; *Sabino Arana Goiri*; eta *Georges Lacombe*. Gainera, *Bibliographie* zenbait lan eta J. Etchepare-ren *Axular* eta *Euskaltzainburu* izeneko lanen separatak.

Borobio eta Lafitte jaunei eskerrik beroenak ematea erabaki da.

Ismael Torres jaunak argitaratu duen *Umeen-deia* izeneko bilduma argital-penarentzat laguntza eskatzen da. 35 ale eskatzea erabaki da (25 ale Julia Berrojalbiz-entzat eta gainerakoak Euskaltzaindirako).

Idazkari-ordezkoak diru kontu gora-beherak eman ditu, aurtengo lehenengo hiruhilabetekoa: Bilbo eta Donostiako diru-etxeetan, zengoana 394.446,45; gehitua 104.341,89; urritua 439.320,14; guztiz dagoana 59.468,20 pezetu. Eta ondorean zertzeladarik aipagarrienak agerreraiziaz.

b) *Iruñean Symposium gertaerarako egin diren batzarren kontu ematen*: Santamaria jaunak txostena irakurri du batzar horietako gora-beheren xehetasunak emanaz. Egin ziren estudioak, irakaskintza legeon egoera aztertu, herri-iritziak zuzentzeko behar diren antolakizun eta zabalkundeak aztertu. Gai hauek behar bezala mugatuaz, udazkenean Symposium handia egingo dala.

Ondorean Herri Hizkuntzen idazkaritzako gutun bat irakurri da, Frederic Roda jaunak izenpetua. Elkargo honen jarraipenerako zuzendaritza berrituz, Santamaria jaunak jarraituko du Euskaltzaindiaren ordezkari, eta Institución Príncipe de Viana-k, bere aldetik, zuzenki izanen du ordezkaria; batzar haietan erabaki bezala, Jorge Cortes Izal jauna izango da. Herri Hizkuntzen idazkaritza hau mantentzeko presupuesto bat ere jartzen da, bertan sartuta dauden elkargo guztiek ordainduko dutena.

d) *Santamaria jaunaren txostena, euskal esaeren hiztegiak*: Esaera arruntenak adibide jarririk, hauek hiztegi bezala zelan antolatatu, zer balio eman, eta abar, zehatz-mehatz aztertzen ditu, euskararen aberastasunerako hauek duten balioagatik hartu behar dugun arreta erakutsiaz.

e) *Etxegintza hiztegiaren batzordeko berriak*: Idazkariak eman du lana aurrera eramateko jarri dituzten oinharrien barri. Hitzen fitxeroa egitekotan gelditu dela Jesus Elozegi, gero, gelditzen diren hutsuneak be-

tetzeko arkitektoen kolejiokoekin eta J. M. Zumalabe jaunaren laguntzaz hornitzeko.

f) *Batzarreak eratzeko asmo batzuk*: Euskaltzainburuak proposatu ditu batzarreak hobeto aprobetxatzeko asmo hauek. Batzar egunean gehienok egun osoa galtzen dugunez, goiza batzordeen lanak antolatzeko utzi eta arratsalde batzar orokorra egin. Batzordeak gehienetan toki askotako lankidez osatzen direnez, hauek elkarrekin batzartzeko aukera eman, hortara egun guztia Euskaltzaindiari eskaini ahal izateko. Prueba egiteko datorren batzarretik hastea erabaki da.

g) *Aresti, Berriatua eta Kintunaren txostena*, aditz batua eratzeko bideei buruz: Kintanak irakurri digu hiruren artean gertatu duten estudioaren sarrera, beren asmoa zertan den adieraziaz. Ortografiaren oin-harrizko batasuna erabakia dagoen eskero, aditz batasuna egin beharra dagoela. Aditz baturako gaiztasunak non dauden eta zelakoak diren azalduaz. 23 aditzen konjugazioa eskatzen dute, beren proposamendua eskainiaz.

Aditz batuaren batzordearen esku uztea erabaki da. Batzorde hone-tako kontseilari bezala, Aresti jaunak lehenago ezezkoa emana bazuen ere, orain konforme dagoela dio, eta bere laguntzarekin ere konta dezaten.

Altuna jaunak, bere aldetik, aditz batuaren batzorde berari, argitara berri eta laster zabalduko den liburua eskaini dio, aditz bateratuaren proposamenduz. Hau ere batzorde beraren eskuetara pasatuko da, behar diren azterketen lagungarri izateko.

h) *Batzordeak eta bakoitzak dakartena*: Euskaltzainburu jaunak, idatz araueri buruz egin den lanaren berri ematen du.

Euskaltzaindiko araudi berriztatuaren berradorea, aspaldi zabaldu zela batzordekoen artean, aditzera eman du Euskaltzainburu jaunak, baina oraindik erantzun guztiak hartzeke daudela. Bizkortu nahi litzake. Eta lege-gizonekin bileratxo bat egitea komeni dela.

"Xenpelar" izeneko bertso-paper sariketarako mahiburua izendatzen da: A. Irigoyen, S. Onaindia eta J. Garmendiak osatuko dute.

"Lizardi" izeneko poesia sariketa iragarri beharra adierazi da.

Euskera hitza "euskara" behar duela izan. Baina ez da ezertariko erabakirik hartu.

Euskaltzaindiko bileren berriak argitaratzen dituzten aldizkariak eskertzea agirian jartzea erabaki da. Euskarazkoetan bialtzen zaizkien guztiak argitaratzen dute "Agur"-ek ez-ezik. Erderazkoei euskaraz eta erderaz bialtzen zaje, eta "Hierro"-k bakarrik argitaratzen du euskaraz.

Irrati eta egutegiei euskeraz zerba it jartzea atseginez ikusiko gennueala esanaz idaztea komeni dala.

Real Academia Españolak, "euskara" hitza K-kin jartzea onhartu duela, aditzera eman da.

Mitxelena jaunak, arratsaldean Deustuko Unibersidadean "Euskara-ren irakaspidea eta euskara irakaspide" gaiez jendaurren egingo den elkar-hizketan, bere sarrera erderaz hasiko duela, gero elkar-hizketak euskaraz jarraitzeko, baina bakoitzak libre izango duela nahi duen hizkuntzaz bialitzea.

Salamanca-n udaran egiteko den Congreso Internacional de Hispantistas-erako deia egiten digute Mitxelena jaunaren bidez, Euskaltzain-

diko norbaitek txostenen bat bidali edo bertan parte hartu nahi baldin badu.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-V-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971ko maiatzaren 28an, arratsaldeko lauretan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Jean Haritschelhar buruordezko, Arrue, Diharce, Irigoyen, Labayen, Lafitte, eta Zabala jaun euskaltzainak; Akesolo, Altuna, Berriatua, Etxaniz, F. Setien, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Lizundia, Ruiz Urrestarazu, Sarasola, Zatarain eta Zugasti jaun laguntzaileak, San Martín idazkari dala.

Dassance, Eppherre, Larzabal eta Satrustegi jaunak ezinetorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Apirileko agiria ontzat hartzen da. Bertan esan gabe utzi zan, Erkiaga diru-zainak, bere etorri ezinagatik, idazkari-ordetzkoaren esku utzi zuela aurtengo lehen hiru hilabeteko kontu ematea.

a) *Har-omanak*: Washington-dik Embajada de España-ko gutuna, eskerrak emanez beren eskaria beteaz *The Legend and Tales of the Basque People* Mariana Monteiro-ren liburuari buruzko berriak bidali genizkiolako.

Caja Laboral Popular-eko zuzendari den Jose Mari Ormaetxearen gutuna, egin genien diru eskariari erantzunaz, 50.000 pezeta bialtzen digutela aditzera emanez. Diru hau zernahitarako subentzio bezala ematen digute, batez ere gure biblioteca era-berritzeko. Eskerrak eman bekiez.

Ixaka Lopez Mendizabal euskaltzain ohorezkoaren gutuna irakurri da, Patrick J. Farrell jaunak bere gramatikari inglesera egin dion itzulpenaren zuzenketeri buruzko xehetasun batzuk eskatuaz. Idazkariaren esku gelditzen da xehetasunak idazkiz ematea.

Hartu diren liburuak: Diharce jaunak, *Aldareko liburua*, Liturgiaren Kontzilio ondorengo lehen urratsa Belokeko Beneditanoek egin eskaintzen du, eta P. Lafitte jaunak Ikas-koek argitara berri duten Jean Barbier-en *Antxitxarburu-ko buhamiak* izenekoa. Eskerrak eman zaizkie.

b) *Araudia berriztatze*ko batzordearen lanen berri ematea: Euskaltzainhuruak aditzera ematen du zenbait azterketa eta zuzenketa egin zaizkiola lehen idazkiari eta orain Lojendio jaunaren eskuetan utzia dala, zenbait orraztaka egiteko. Orraztapenon ondorean, batzordeak berri dildurik begiratu duela biltzarrean presentatu aurretik.

d) *Idazte arauen batzordeak prestatu duen txostena*: "Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri": Euskaltzainburuak irakurri du lan honen sarrera, egoan premia adieraziaz eta lan-estudioa zelan eraman den kontuak emanez. Ondorean, batzordeak presentatu duen lana aztertu da eta erabaki hauek hartu.

1. Harridura eta galdera markak (!?) esaldiaren bukaeran baka-
rrik jartzea.

2. Zenbakiak. a) Ehuneko hainbeste adierazteko: % 5 = ehuneko
bost. b) Ordinalak. Erromatar zenbakiz idaztean puntu bat beste adiga-
rrik ez jartzea. Adibidez, X. mendea (Hamargarren mendea). Dekli-
nazio kasua jarri behar denean, puntua eta atzizki soila jartzea aski da.
Esate baterako, XX.ean (hogeigarrenean). Arabitar zenbakiz idazten
direnean, puntu soila jar bedi azken zenbakiaren ondoan. Adibidez, 200.
urteburua (Berrenhungarren urteburua). Eta deklinazioan, berdin, pun-
tuaren ondoan atzizki soila jartzea aski da. Esate baterako, 200.ean.
Hala ere ez da baztertzen beste era, baina osorik jartzea gomendatzen da:
17garren eta abar. "Lehengo", "Bigarren" eta abar, era hontara idaz
diteke: 1., 2., eta abar. d) Kardinalak. Nahiz eta zenbakiaren ondorean
atzizkiren bat etorri, zilegi izan bedi tartean ezertxo ere ez jartzea.
Adibidez, 8an (zortzian). Arrazoiak: sinpletasuna eta premiarik eza.

3. Komatxodun hitzen ondoren, nahiz eta atzizkiren bat egon, zi-
legi ian bedi, orobat, tartean ez deus jartzea. Adibidez, "Anaitasuna"n,
"Jakín" era, "Zeruko Argia" tik. Arrazoiak: sinpletasuna eta gehiagoren
beharrik eza.

4. Siglez osatutako hitzak, letra maiuskulez jar ditezke, eta dekli-
nazioan, atzizkia letra arruntez, bat ere tarterik gabe. Adibidez, UNES-
COren, USAko. Arrazoiak: sinpletasuna eta gehiagoren premiarik eza.

5. Apostrofua ('). Honetan ohitura bat baino gehiago izan da. Adi-
garri honen zeregina eta marratxoarena ongi mugatu eta berezi behar
dira bata bestetik, bakoitzari bere balio eta esanahi jakina ezarritik. Be-
rezketa hori egin nahiz, eta gaur idazlerik gehienek harturik duten
bidea onartuz, Euskaltzaindiak erregela hau proposatzen du: hitz ba-
tean letra bat edo beste jan dela adierazi nahi denean, orduan jarriko
da apostrofua. Esate baterako, "Bederatzi terdiak". Arrazoiak, hau da
inguruko hizkuntzetan marka honi ematen zaion balio edo esanahia.
Gure artean ere franko ugariak dira bide honi jarriak direnak, eta
marratxoaren eta apostrofuaren zeregina ongi berezteko, bide hau har-
tu eta finkatu behar dela dirudi. Beraz, erregela: hitz batean hotsen
bat ezabatu dela adierazi nahi denean, apostrofuaz aditzera eman bedi.
Hontaz, ordea, oharpen bat egin beharra dago: benetazko premiarik ez
denean (zerbait berezi adierazteko edo), horrelako jate hoiak ez direla
iskribuz adierazi behar. Beraz, hitzak osorik idaztea gomendatzen du
Euskaltzaindiak.

6. Marratxoa (-). Zubi antzo, lokarria adierazteko erabiltzen den
marra txikia. Bi hitzen artean edo hitzaren eta atzizkiaren artean jar-
tzen da. Ez ordea beti. Adigarri honetzaz euskara idatzia gehiegi zama
ez dezagun, kasu beharrezkoenetan bakarrik jarri behar dela uste du-
gu. Kasu hoietaz landara, bat ere markarik ez erabiltzea hobe. Hona
hemen, bada, kasurik beharrezkoenak: a) Pertsona edo toki izen pro-
pioetan. Arrotzak, ezezagunak edo guti ezagunak direnean bakarrik. Adi-
bidez, "Scott-ek", "Bremen-en", "Hitler-ek". Gainerakoetan deus ez.
"Orion", "Bolibarren", "Gernikatik", "Parisen"; "Mogelek", "Axularren
irakurgaiak"... b) Aldizkari eta liburu izenetan, aipamenetan eta atziz-
kiren bat segitzen baldin bada, tartean marratxoa jarri beharra dago.

Adibidez, "Garoa-n irakurtzen da", "*Peru Abarka*-tik jasoa". "Frantsesezko *corps-ek*" (letra berezia marraraino bakarrik). d) Atzizkia edo aurritzia soilik aipatzen denean. Adibidez, "*tu atzizkia*", "*ber- aurritzia*". e) Hitz elkartetan. Ez ordea beti. Hitz elkartek beti sortzen hari da euskara. Beti horrelakoetan marra jarri beharra, aspergarri eta are itsusi ere litzake. Aipa ditzagun kasurik beharrezkoenak. Hoietaz landara, ezer ez jartzea hobe: — Hitz elkartearen bigarren zatia lehenbizikoaren oiartzuna denean. Adibidez, "Tarteka-marteka", "nahas-mahas", "duda-mudatan". — Marratxoa jarri gabez, hitz elkartea ete den garbi ageri ez denean. Adibidez, "Kandela-argia", "batzar-agiria", "andre-sendagile", "haur-saltzaile". Beti ordea, horrelakoetan, jarri beharrik ez da: hitz laburrak direnean edo lehenbiziko hitzaren bokala galdu ez, baina aldatu egiten denean, hobe da dena loturik idaztea. Adibidez, "Ahazabal", "buruhandi", "sudurluze". — Bikotea osatzen duten esaldietan. Adibidez, "Senar-emazteak", "seme-alabak", "nagusilangileak". Marratxoaren enplegua kasurik beharrezkoenatarako utz bedi.

Hauek dira puntuazio markeri buruz ontzat hartu ziren erregelak.

e) *EUSKERA* aldizkariaren *urtego zenbakiaren berri*: hortarako izendatua den batzordearen izenean idazkariak eman ditu berriak. Urteko lau aleetarik, lehen bikoteak osatuko du gertatu den zenbakia, *EUSKERA*, XVI (1971), 1-2, eta Euskaltzaindiaren urte-etzaien azken ondarreri eskainia joanen da. Lan horiez hornitua: Euskaltzainburuaren agurra; Urte-etzaien kronika; Euskaltzaindiaren sorrerako lehen agiria; R. Menendez Pidal-en gutuna; Arantzazuko agiria: Euskaltzaindiak Ministeriora egin zuen gutuna (*Libro Blanco*-ri oharrez); Euskaltzaindiak egin zituen batzar berezietako hitzaldiak: Iruña, Baiona, Gasteiz, Bilbao eta Donostia; Hilen izeneri buruzko txostena, eta txostena egiteko oinharri hartu ziren kuestionarioen berri; 1968-1969.eko batzar-agiriak; 1968-1969 an hartu diren liburuen fitzak; Euskaltzainen lista, numeroa, ohorezko, laguntzaile izen-deiturak eta izendatu ziren urtea, Euskaltzaindiaren sorreratik hasita. Zenbaki honek argazkiak ere eramango ditu, sorrera inguruko eta urte-etzaietakoak.

f) *Bertsolarien txapelketak taxutzeko jarri zen batzordearen berriak*: Zabala jaunak irakurri du batzordearen izeneko txostena. Antolakizun berriaren asmoak agertu ditu. Txapeldunen maila bat jarriko da eta txapelketa bakoitzean berri bat aterako da, lehendik diranekin batean txapeldunen mailan jarriko dena. Txapela ez kentze honek, uste da, giro hobe bat sortuko duela bertsolarien artean, txapelketak hain izugarriak ez izateko.

g) *Batzordeak eta bakoitzak dakarrena*: Ruiz Urrestarazu jaunak, Arabako batzordearen izenean, irailaren 5-erako eskatzen du probintzia hortako batzarra. Aramaion izango litzake, eguerdiko 12-etan, batzar-idikia, herriari begira. Aramaioko Udalaren eta Arabako Diputazioaren babespean izango litzake. Batzar honetan, bertako seme eta euskal idazle den Patxi Uribarrenen hitzaldia izango da.

Beraz ondorengo hiru hilabeteetako biltzarrak honela jartzen dira: uztailekoa, hilaren 4-an Beskoitzen (Lapurdi), Leizarragaren ohorez aurtun 400 urte betetzen direlako idazle honen Testamentu Berria argitaratu zala; abuztukoa, Donostian bertan izango da, baina hillaren 4-an; eta irailaren 5-ean (irailaren lehen igandea) Aramaion (Araba).

Haritschelhar euskaltzain-buru ordeak adierazten du zer eratan izango den Beskoitzeko bilera-idekia, Baionan egiteko den euskal kulturaren astearen barnean. Bileran izango diren hitzaldi laburrak: P. Lafitte jaunak, *Leizarraga nor zen*; R. Lafon jaunak, *Leizarraga euskal idazlea*; eta, L. Akesolo jaunak, *Leizarragaren garaia*.

Mitxelenak, gutunez aditzera ematen digu, Arkitektoen Kolegiara zer bait adierazteko premia dagoela, etxegintza hiztegiari buruz, lanak nola doazen agertuaz. Luis Jesús Arizmendi jaunaren izenera idatziaz edo ahoz adieraziaz.

Satrustegi euskaltzainaren gutuna irakurri da "Goiz-Argi" aldizkariak Gaztañaga jaunak izenpeturiko lan batean, egiaren aurkako giro bat sortzen duela bere izena eta Euskaltzaindiarena zalantzan utziaz adieraziz. Lehen ere, Gaztañaga jauna zenbait aldiz sartua dela Euskaltzaindiaren kontra, eta egiaren alde eta irakurleen jakingarri erantzuna ematea erabaki da. Satrustegi jauna, Arantzazuko bileretan, moderatzaile izan zela, han ziren euskaltzainen eta euskaltzain-buruaren onespenez izendaturik. Beraz, ez zela gidari izan, ez eta ere berak bere burua izendatu neurri-e-maila kargurako. Gainerakoan, Gaztañaga jaunari EUSKERA hobeto irakurtzea gomendatzen zaio.

Josu Arenaza laguntzailearen gutuna irakurtzen da, diru kontuetan, lehen hiru hilabeteko 439.320,14 pezeta urritzearen argitasunak eskatuaz; alogerak, Alfabetatze kanpaina, EUSKERA adizkaria eta abar, diru emaitzak zelan egiten diren. Legez, laguntzaile bati holako konituak eman beharrik ez bada ere, Erkiaga diru-zain jauna mintzatu da Arenaza jaunarekin urritzearen xehetasunak agertuaz. Eta, Alfabetatze kanpainak, berak beren lepotik ordainduak direla Euskaltzaindiaren ardurapekoak izanik ere.

Frederic Roda jaunagandik Iruñako bileren agiria jaso da. Herri Hizkuntzen Idazkaritzaren presupuestu bat ere presentatu da. Idazkaritza osatzen duten lau elkargoen artean bete beharrezkoa. Burugoak estudiatu beharko du hau zelan bete.

Aditz-batuaren batzordeko direnak, HEGOSA-k antolatutako aditz sariketa lehenbait-lehen erabakitzea komeni dela esan da.

Zatarain jaunak, Soin hitzaren adierazpenezko txosten bat irakurtzen du, eta berakin batean J. M. Barandiaranen gutuna. Ataunen behinpehin, *soin gorputz* bezala erabiltzen dela adieraziz. Eibarren ere hala dala, dio T. Etxebarriaren *Lexicón*-ean agertzen denez. Baina idazkariak hau ezeztatzen du, esanez Eibarren inoiz ez dala erabiltzen *soña* hutsik, baizik *soñean* edo *soñeko*, "acuestas" edo "lo de acuestas" (=vestido) adierazteko. Ataunen hola balitz ere, lokalismoa dala eta euskera baturako hainbeste axola ez duena, beste tokietan bestelako esan nahi bat hartzen duelako. Baita ere, esan da, holako elkarriketak hobe direla garrantzi gehiagoko hitzetan, batasunaren izenean behintzat, *kantu* erabili behar dela eta ez *abesti*, adibidez. Hala ere, kontsideratzen da Zatarain jaunaren txosten jakingarria, baliozko azterketa denez.

Ondarroako Isidoro Etxebarria jaunak, Euskal Alfabetatze taldeen-tzat hiler 4.000 pezetako laguntza eskaintzen du. Eskerrak eman bekioz.

"Xenpelar" izeneko bertso-paper sariaren erabakia urrengo batza-

rrerako utzen da, lehenago hartuak ziren zenbait bertso kontuan izan ez direlako.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1971-VII-4

Beskoitzen, 1971ko Uztailaren 4an, jaialdi eta biltzar idekia Leizarragaren ohorez, *Testamentu Berria* euskaraz lehen argitaratzearen 400. urteburuan.

Goizeko hamarretan herri-meza konzelebratua, Diharce "Iratzeder", Villasante, Lafitte eta Irigarai gazteak ofiziatua. Diharce jaunaren hitzak, euskaraz lehen aldiz Kristoren hitzak idatzi zituen Leizarragari eskainiak ziren, Kalbinista ba zen ere, kristau zenez.

Meza ondorean, jendez beterik egoan eliza eta herriko-etxearen tarteetan den plazatxoa, beraskoiztar eta herbestekoz. Hamaika t'erdietan, herriko-etxearen atadian, Jean Eyherabide auzapez jauna mintzatzen da, han bilduak herriaren izenean agurtuaz, Euskaltzaindiari ongi-etorria emanaz eta Leizarraga beraskoiztarra goretsiaz. Bukatzeko, herriko-etxearen sarreran oroit-harri bat agerian jartzen du, hitz horiekin: "Beraskoiztarrek Joanes Leizarraga idazleari".

Beskoitzeko kantari andana batek, Leizarragaren ohorezko kanta bat eman du, hara heldu direnen entzungarri.

Plazan, Zabala txistulariaren doinuaz herriko gazte eta gaztetxo andana dantzatu da.

Ondoren, herriko-etxeko gela nagusian Euskaltzaindiaren bilera hasi da, herriari begira antolatua. 57 entzulo kontatu ditugu bildu direnen arteko, herritarrak, herbesteko euskaltzale, Euskaltzaindiaren laguntzaile eta euskaltzainak. Mahaiburuan, Jean Eyherabide auzapeza, Villasante euskaltzainburua, Haritschelhar buru-ordea, Lafitte, Lafon eta Akesolo hizlariak eta idazkaria. Horiez gainera, bertan dira beste euskaltzain hauek: Arrue, Dassance, Diharce, Eppherre, Irigaray, Irigoyen, Larzabal eta Zavalá.

Lehenengoz Villasante jauna mintzatzen da, bilduak, Beskoitzeko herria, harrera bikaina egin digun auzapez jauna eta erretore jauna agurtuaz; zerek ekarri gaituen adierazten du eta hizlariak presentatzen ditu. Bukatzeko, Eyherabide auzapez jauna eskertzen du.

Jean Haritschelhar euskaltzainburu-ordeak, Piarres Duny Petre-ren ("Piarres Hegitoxa") letra irakurri du, bertsoz egina, Leizarraga zena eta biltzarkideak agurtuaz: eta, ondoren, hizlariak hitza eskaintzen die.

Lino Akesolo jauna Leizarragaren garaiari buruz, batez ere garai haretan eta ordurarte euskaraz idatzi zenari buruz. Orduan iratzartu zen giroari eskerrak sortu ahal izan zela Axular bezalako idazlea.

Piarres Lafitte jaunak jarraitzen du, Leizarraga nor zen adieraziaz. Orainarte izkutuan ziren puntu asko agerrera erazten ditu, eta beragandik lehen aldiz jakiten dugu Leizarraga 1506 urtean jaioa zela, eta *Testamentu Berria* euskaratzen hasi zenean hirurogei urte hurbil zituela.

René Lafon irakasle jaunak, euskaraz honek ere, Joanes Leizarraga itzulari eta idazkari bezala agertzen digu; errege-bideko euskara hura, Lapurdi-Baxenabarren oinharriturik, euskalki orotarik baliaturik egina zuela, eta bere lehen lanetatik azkenekoetara agertzen den eboluzioko xehetasun batzuk adierazten ditu.

Hitzaldiak finitzean herriko-etxeak ahamena eskaini du biltzarki-deentzat.

Bazkaria, Beskoitzeko Salingo jatetxe batean. Bazkalondoan, Haritschelhar jaunak irakurri du Montzon eta Alvarez Enparantza laguntzaileen agurrezko gutuna. Villasante euskaltzaniburuak, EUSKERA aldizkariaren batzordekoen gogoia agertu du, aldizkari honetan Leizarragaren *Testamentu Berria* argitaratzeko, egun Akesolo, Lafitte eta Lafon jaunak eman dituzten hitzaldiak hitzaurre bezala jarririk; nahiz ortografia berrian jarria edo nahiz lehen argitalpena orriz-orri fotokopiatu, zen bezala. Oso pozik entzun da berri hau.

Lafitte jaunak agertzen du, ingelesak argitaratzeko gertu daudela, baina guk hemen 5.000 ale saldu ahal izateko bidea egingo bagendu. Baina, hainbeste lortzea nekeza denez, guk gure aldetik egin beharko dugula argitalpena.

Bazkalondoko solasaren bukaeran Arrue jaun euskaltzaina mintzatzzen da, mugaz alde batekoen izenean bestaldekoiei anaitasuna agertuaz eta elkartasunean irauntzea eskatuaz.

Solas horietan elkar ezagutzen ez ziren anitzek izan dute kontaktu personala egiteko aukera, eta egintza asmoz beteriko elkarriketak girotu zuten Beskoitzeko egunaren bukaera.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-VIII-4

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971eko abuztuaren 4an, arratsaldeko lauretan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Jean Haritschelhar buruordezko, Aita Damaso Intzakoa, Irigoyen, Lafitte, Lojendio eta Mitxelena euskaltzain jaunak; eta Akesolo, Altuna, Aresti, S. Basauri, Beobide, Berriatua, S. Garmendia, Intxausti, Kintana, Lizundia, Ruiz Urrestarazu, Sarasola eta Zatarain euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Epherre, Erkiaga, Irigaray, Larzabal eta Zabala jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Maiatzeko agiria onhartzen da. Baina agiri hau onhartzean, Irigoyen jaunak argitasun batzuk eskatzen ditu Caja Laboral Popular-ek emandako 50.000 pezetak eralgitzeaz, maiatzeko agirian esaten denez: "Diru hau zernahitarako subenzio bezala ematen digute, batez ere gure biblioteka eraberritzeko", eta ia posible dan bibliotekara zenbat emango dan jakitea. Ekonomia aldetik hain urri gabiltzanez gero, ez dala posi-

ble zenbat eman ahal izango dan, eta oraingoz behar-beharrezko premietarako uztea hobe dala.

Bestalde, Irigoyen berak, puntuazioari buruz ohar hau egiten du: ia ordinaletan-garren bereiztu gabe jartzea zer egin behar den numeru erromanoetan ILgarren datorrenean (ilgarren irakurteko arriskoa duenez gero). Holako kaso soil batzuk direnean marratxo batekin edo puntu hutsarekin bereiztu ezinik ez dala esan da, puntu horren erregela hain estu hartu behar ez denez.

a) *Har-emanak*: Irigoyen jaunak bere lanen bi separata eskaintzen ditu Euskaltzaindiaren liburutegirako: *Estudio de un texto arcaico del vizcaino antiguo* eta *Estudio lingüístico de una carta del s. XV en vascuence y en romance navarro*, bigarren hau R. Ciérvide-ren laguntzarekin egina. Juan Garmendia "Zeletak" bere *Euskeraren iraupena eta Euskal-literaturaren aurrerapena* liburuxkaren ale batzuk.

Pensylvania-ko Elizabethtown College-ko Modern Languages-en irakasle den Carlos M. Graupera-ren gutuna euskaraz idatzitako lanen batzun eskaria eginez, berak eskuartean erabili behar izaten dituen materialerako, eta euskara zenbat hitzez osatzen den galdetzen du.

E. L. E., Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartearen gutuna aurtengo "Andima Ibiñagabeitia Saria"ren berri emanez, berakin batean sarirako deia eta araudia. Aurtengo gaia: "Euskal Ikastoletako Textoak" izango da.

Deustuko Unibersidadeko Euskal Kulturaren Mintegiaren gutuna, esanez, datorren irailetik asignatura bezala jartzen dala euskara eta irakasleak hautatu beharra dagoela. Lehendik irakasle bezala esperientzia dutenen artean eta irakasletarako esaminetatik igarotzeko gertu daudenen artean, irakasle karneta zeintzuri banandu. Beren Mintegiaren bidez, Deustun euskerazko irakaslea izateko ofizialki eskatuko du-teia Euskaltzaindiaren karneta edukitzea. Idazkariak aditzera ematen du, Mintegiaren zuzendaria berakin personalki mintzatu dala gai honi buruz, eta, hitzez, honetan geldituak direla: a) lehendik irakasle ari direnak *curriculum vitae* idazkiz gertatu; b) gainerakoak, oraindik has-tea nahi dutenak, Altunak hil honetan Bilbon bertan emango dituen kursilloetatik igaro eta esaminiatik pasatu. Lehendik ari izanarren eta *curriculum vitae* hori presentatuarren, hobe litzakeala hauek ere esaminiatik igaro. Hontaz luze mintzatu da, batez ere gauza hau aurrera eramateko arkitzen den premia gorria adieraziaz. Aita Altunak, Anaia Berriotxoaren laguntzaz, arazo hau aztertzea erabakitzen da, proiektu txosten bat prestatuaz. Berebat, Kintana jaunak txosten bat ekarriko du, euskeraz irakasteko gaitasuna zer nolako azterketen bidez egizta diteken erakutsiz.

Aditzera ematen da, *Literaturari buruzko saiakera* sariketako lanak bialtzeko epea igaro dala, 3 lan hartu direla eta mahai-burua izendatu beharra dagoela; eta jaun horiek izendatzen dira: Jean Haritschelhar, Alfonso Irigoyen eta Gabriel Aresti.

Idazkari-ordeak, diru-zainaren izenean, 1971ko bigarren hiruhila-beteko diru kontu gora-beherak ematen ditu: zegoana, Bilbo eta Donostiakoak batora, 59.468,20 pezeta; gehitua, 154.788,90; urritua, 197.299,12; dagoana 16.957,98 pezeta; lerroz-lerro aipatzen dira zein diru-etxetan

zenbat aurkitzen den, eta azkenik gora-baheren zertzeladarik aipagarrienak.

b) *Idatz-arauen batzordeak prestatu duen txostena (II)*, "Loturik ala bereiz idatzi behar diren hitz, aurrizki eta atzizkiak": Hamar puntu presentatu dituzte batzordeak, banan bana aztertuak izan dire eta, hirutan izan ezik, gainerako guztia ontzat hartu da. 5, 6 eta 7garren puntuak urrengo hobeto aztertzeko uzten dira eta ontzat hartuak hauek dira:

Euskeraz idaztean bada nahikoa zalantza eta istilu hitz eta hizki batzuekin. Hitz eta hizki hoietako batzuk, zenbaitetan, hurrengo edo aurreko hitzari loturik idazten dira, beste batzuetan bereiz, eta beste batzuetan, azkenik, marratxo batez aurreko edo atzeko hitzari elkar-turik.

Hona hemen maizenik gertatzen diren kasuak: 1. Hitz elkarteak; 2. "Gabe" atzizkia; 3. "Baitan", "Baitara", "Baitarik"... deklinazio kasuak; 4. "Arazi"/"Erazi", esanahi eragilea duen aditza; 5. "Ez" ezetza adierazteko hitza; 6. "Bait", aditz aurreko aurrizkia; 7. "Ba", baldintza eta baietza adierazteko aurrizkia; 8. "Ta"/"Eta", aditz ondoko atzizkia; 9. Hitz eta aditz ondoko "Edo"; 10. Eta azkenik, duda sortzen duen beste zenbait itz: "Omen", "Ote", "Ahal", "Bide", "Ai", "Antza"...

Kasu bakoitzean gomendagarri dirudien jokabidea agertuko dugu:

1. *Hitz elkarteak*. Marratxoa jarri behar denekoak alde batera utziz (Ikus Lehen Erabakia), honako beste kasuok gogoratu behar dira:

a) Jatorriz hitz elkartua izanarren, osagarriak elkargana bildu baldin badira eta hitz sinplea bezala erabiltzen bada, orduan dena loturik jar bedi. Adibidez: "sagardo", "galbide", "amorra", "erbiñude".

b) Hitz elkartuaren osagarriak osorik eta garbi ageri direnean, bereiz jartzea hobe. Adibidez: "hitz egin", "elkar hizketa".

d) Aurreko hitzak letraren bat galdu baldin badu, eta aurreko zein atzeko hitza laburra baldin bada, biak baturik idaztea hobe; bestela, berriz, bereiz, Adibidez: "Abendats", "arnasots", "elizgizon", "gizabide", "gizalan", "gizatalde", "itsasertz". Baina: "Anai maitasuna", "Arnas gaitzaldia", "Ekonomi arazoa", "Eliz Agintariak", "Filosofi saila", "Giza eskubideak", "Kultur gaiak", "Euskal kantari", "Literatur irakaskintza". Bi hots berdintsu elkartu behar direnean bereizturik ipintea.

2. "Gabe" atzizkia. Bereiz jar bedi. Gainerakoan, hala izan da ohitura. Adibidez: "Ez naiz egiteko gabe" (Ax 9). "Premia gabe" (Ax 262).

3. "Baitan", "Baitara" eta abar. Deklinazio kasuak loturik jartzen dira. "Baitan" sail honek, ordea, exzepzioa egiten du. Sortaldeko euskalkietan "inesivo" kasua, pertsona izakjekin, "baita" horrekin egiten da gehienetan; eta hurrengoak "baitara", "baitarik"...; -gan, -gana, -gandik, eta abarren ordaina da. Adibidez: "Amarengan"/"Amaren" baitan". Sortaldekoek bereiz jarri dute beti *baita* delakoa. Hala izan da eta da ohitura, eta hala segitzeko erabakitzen da.

4. "Arazi"/"Erazi". Hitz. honekin gertatzen diren kasu bereziak kontutan hartuz, honako bide hauek proposatzen dira:

a) Arazi-ren aurretik dihoan aditza osorik dagoenean, orduan hobe da biak bereiz jartzea. Adibidez: "iraun arazi", "eman arazi".

b) Aurreko nahiz ondoko hitza mozturik baldin bada eta elkar-gana lotzeak idazkera aldaketarik sortzen ez baldin badu, loturik idatziko dira. Adibidez: “trabailarazi”, “obligarazi”, “adierazi”, “ezagutarazi”.

d) Biak lotzetik idazkera aldatzea segituko balitz, orduan hobe da bereiz idaztea. Adibidez: “sor arazi”, “har arazi”, “sar arazi”.

8. “Ta”, *aditz ondoko atzizkia*. Hiru kasu berezi behar dira:

a) -ik edo -rik atzizkiaren sentidu bera duenean. Adibidez: “Haserretuta” (= haserreturik). Orduan loturik idatzi behar da.

b) “Bait”en sentidua duenean. Adibidez: “Hau nere gorputza da ta” (edo *eta*) (= Hau nere gorputza bait da). Bigarren kasu honetan bereiz idatz bedi.

d) Oraindik bada beste hirugarren kasu bat: “eta abar”en ordez, “ta” edo “eta” soilki jartzea. Adibidez: “Pedro ta, joan ziren” (= Pedro eta abar, Pedro eta honen lagunak, Pedro eta gainerakoak esan nahi du). Hemen, “ta” horren ondoren koma jartzea gomendatzen da (coma, virgule).

9. *Hitz eta aditz ondoko “edo”*. Bai sortaldeko eta bai sartaldeko euskaldunen artean ere maiz gertatzen dira honelako esaldiak: “Joa-kinek edo, esango zuon hori”. “Entzun edo, zerbait egin du harek”. Kasu horretan ere, “edo” horren ondoan koma bat jartzea gomendatzen da.

10. *Aditz aurrean edo ondoan jartzen den beste zenbait hitz*: “Ahal”, “Bide”, “Al”, “Omen”-ek “ba” aurretik dutenean, bereiz hоек ere: “Ba omen da”, “B aomen daki”. “Ba ote da inor?”. “Egin bide du”. “Etorri da antza”.

d) *Aditz batuaren batzordearen berri*: Mitxelena jaunak adierazi du lehen urratsak zelan eman diren, punturik errazenak eta euskalki guziak berdintsu direnetatik. Hauek, geroago idatzita emango dira.

e) *Araudi berriztatzearen batzordearen berri*: Lojendio jaunak eman du egiten ari direnaren berri.

f) *Etxegintza hiztegiaren batzordearen berri*: Idazkariak adierazi du zer egoeratan den, apirileko agirian ematen zen berria, fitxak egi-teari buruz, eta oraindik hortan dela. Mitxelenak dio, Lizaso errederi-arra, Burgos-en aparajadore dena, gertu dala hontaz bere laguntza ema-teko eta lehendik zerbait egina ere ba duela. Laguntza hau ontzat har-tzen da.

g) *GAUR-ekoek euskeraren egoerari buruzko estudioaren aurre-
rapenaren berri*: “Gaur”ekoek, bereri eskatutako lanaren aurrerapen bezala, *El euskera hoy* izenez, Elgoibarren, Errederian eta Pasaian egin duten estadistika lanaren kopia bana eman dizkiotela euskaltzain-bu-ruari eta berari, dio idazkariak, behar diren oharra egiteko, gerora begira beren lanaren hobekuntzak lortu ahal izateko. Lan hau, Lur editorialak laster argitaratzeko du euskarara itzulia. Oso interesgarri-tzat azaltzen du idazkariak eta komeni dala liburua argitaratzean Eus-kaltzaindikoak behar bezala aztertzea eta lanaren hobekuntzak nondik lortu adieraztea. Oinharritzko lan hau ontzat ematen du, baina sarreran euskarari buruz ematen den aburu bat ez datorrela ongi Euskaltzain-diaren izatearekin, ez eta ere hizkuntzarentzat gehienok dugun aburua-

rekin. Zalantzak jartzeko besterik ez denez, Gaur, S. C. Lekoei frase hori kentzeko eskaria egitea erabaki da.

h) *Batzordeak dakartena*: Ruiz Urrestarazu jaunak, Arabako Aramaion irailaren 5-ean izango den batzar-idekiari buruzko xehetasunak eman ditu, maiatzeko agirian jartzen direnez gainera.

A. Zabalaren idazkitxo bat irakurri da bertsolari txapelketari buruz. Bertsolariekin elkar-hartze batera iritxi direla eta esperantzaz beterik ikusten duela, eta bertsolaririk gehienak parte hartuko dutela.

Euskaltzainburuak aditza ematen du, bihar bertan, Bilboko etxera etorriko zaigula Peter Zenarruzabeitia jauna, Idaho-ko Estaduko sekretarioa, euskalduna eta euskaltzalea. Ahal duenak bertara agertu bat egitea eskatzen du.

Irigoyenek, Bizkaian bertsolari txapelketak egiteko agintariegandik izan diren eragozpenak adierazten ditu. Eta jokabide hau aldatzen ez ba dute, ez dala posible izango txapelketa egitea.

Kintanak adierazten du, irakaskintzan ere ez dutela betetzen legeak berak diona, ikasleak autaturiko eginkizun orduetan, euskara hautatzea ere libre denez, honetarako eragozpenak jartzen dituela. Ministeriora ere idaztea esan da, baina uste da askozaz hobe izango dala Bizkaian bertan irakaskintzako batzarra hornitzen duten gizonen artean lana egitea, bitartekoz baliaturik, zeren bestela egiten diren idazkariak papelean paratuko direla.

Beobidek galdetzen du, ia zertan den aditz-batuaren sariketa. Aditz-baturako izendatu zen batzorde beraren esku utzi zen erabakitzea, baina ez da egin. Eta, orain, batzuk esaten dutenez, hobe da batzorde aparteko bat izendatzea. Hau ikusirik, batzorde beraren esku uzten da hiru personaz epai-mahia egitea. Baina urrengo batzarrerara erabakiren bat ekartzea komeni dala.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-IX-5

Aramaion, 1971ko irailaren 5ean, goizeko hamaiketan herriko San Martin parrokian herri-meza Markiegi jaunak ofiziatuak Villasante, Diharce, Akesolo, Baztarrika, Tolosa eta Uribarren jaunen laguntzarekin. Meza ondorean, herriko plazan dantzak izan dira.

Eguerdiko hamabi t'erdietan, Udaletxeko Batzar Gelan, bilkura idekia. Mahaiburuko: Villasante euskaltzainburu jauna. Ehundik gora biltzarkide, eta beren arteko: Diharce "Iratzeder" e talrigoyen jaun euskaltzainak; Akesolo, Baztarrika, Berrojalbiz, Enbeita, Etxaniz, J. A. Etxebarria, Gandiaga, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Intxausti, Lizundia, Martin (Felix), Ruiz Urrestarazu, Santamaria eta Sarasola jaun euskaltzain-laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Aita Damaso Intzakoak, Manuel Lekuona eta Luis Mitxelena euskaltzainak, eta Manuel Aranegi Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais-ko buruak beren ezin etorria adierazi dute.

Euskaltzain-buruaren agurra, biltzarrera etorri direnei eskerrak agertuaz eta Arabako euskara eta bereziki Aramaioakoari buruz zenbait berri emanaz.

Idazkariak har-emanen berri eman du, lehendabizikoz Arabako gobernadore jauna den Agustin de Asis-en gutun bat irakurriaz, egun honetan Información y Turismo-ko Ministro jauna Gasteizera etortzeko denez gero, bere ezin etorria agertuaz eta batzarkideak agurtuaz.

Bizkaiko Diputazioaren bi gutun, Euskaltzaindiari subentziotzat 50.000 pezeta ematea erabaki dutela, eta beste 50.000 pezeta R. M. Azkue-ren *Dicc. Trilingüe* berritzeko laguntzarako. Eta Diputazio beretik beste gutun bat heltzen zaigu Pennsylvania-ko kolegio batetik Euskaltzaindiaren berriak eskatuaz egin diotena.

Berlin-go Akademie der Künste-ko Dr. W. Höllerer profesorearen gutuna, euskal literaturari buruzko berri batzuk eskatuaz.

Camilo Jose Cela-ren gutuna, Euskal Herriko herrien izenei buruzko berriak eskatuaz.

Eta, idazkariak batzarkideei agertzen die, Euskaltzaindiak maiz izaten dituela holako galderak, eta bere egitekoa denez euskara eta euskarari bere inguru dagozkion kultura gaiak, bere ateak guztientzat zabalki dituela eta argibiderik behar duenak aski duela Euskaltzaindiko etxera galdetzea.

Xabier Gereñoren gutuna, Filateliarako hiztegi tekniko baten eskea eginaz, honetarako batzorde bat izendatzea eskatzen du, X. Kintana jauna barne dala; eta proposamenduarekin batean bere eritziz egindako hiztegi bat eskaintzen du. Koloreen hiztegia ere beharrezkoa dala adierazten du.

Eta har-emanak bukatzeko, Euskaltzaindiko bibliotekarako zenbait egilek eman dituzten lanen berri ematen da: Luis Mitxelena, *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*, 1970; Jose M.^a Satrustegi jaunak, *Canto ritual del agua en Año Nuevo eta Reminiscencias del culto precristiano en la devoción a San Miguel*, "Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra"-n argitaratuak; *El agua en los ritos y tradiciones populares de la Montaña de Navarra*, "I Congreso Nacional de Artes y Costumbres Populares"-era presentatutako lana, Zaragoza-ko Institución "Fernando el Católico"-n argitaratua. Juan San Martín jaunak, *Unai. Testimonios de su uso y de su significado*, "Fontes Linguae Vasconum"-en argitaratua.

Patxi Uribarren aramaioar jaun euskal idazlearen hitzaldia. Aramaioko euskararen berezitasunak, aramaioar euskal idazleak, eta bertako euskararen egoera eta etorrerari buruz. Txalo handiak jaso zituen. Eta, ondorean, Villasante Euskaltzainburu jaunak Euskaltzaindiko laguntzaile izendatzeko proposamendua egiten du.

Luis Mitxelena jaunaren txostena, herri eta herritarren izenei buruzkoa, Villasante Euskaltzainburuak irakurri du (Mitxelena berak etorri ezina izan duelako, Erronkariko Isaban oraintxu txorkatilan min hartua dalako, leku-izenei buruzko azterketak J. Corominas jaunarekin egiten ari zelarik). Lana egiteko oinharriak jartzen ditu eta lana aurrera eramateko batzordea izendatzea proposatu.

Mondragoeko Udaletxearen ordezkariak, bertako alkateak izenpetutako gutun bat irakurri du. 1972an euskarari buruzko aste bat anto-

latu nahi dutela eta aste honen sarrera bezala gaur Aramaion egiten dan erako batzar ideki bat Euskaltzaindiak egiteko eskaria azaltzen du. Euskaltzaindiak urrungo batzarrean erabakitzeke utzi da.

Beste gabe, Diharce eta Villasante jaunek, Euskaltzaindiaren ize-nean biltzarkideei eskerrak emanez bukatu da.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-IX-24

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971ko irailaren 24an arratsaldeko lauretan.

Bildu dira: Luis Villasante jauna buru, Jean Haritschelhar jauna buru ordezko, Arrue, Aita Damaso Intzakoa, Irigaray, Lafitte, Lojendio eta Zabala jaun euskaltzainak; Altuna, M. F. Arregi, Baztarrika, Bazterretxea, Beobide, Berriatua, K. Esnal, J. Estornés Lasa, S. Garmendia, Intxausti, Kintana, Lizundia, Saizarbitoria, Sarasola, eta Zatarain jaun euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Larzabal eta Mitxelena jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da batzarra.

Abuztuko agiria onhartzen da.

Euskaltzainburuak Joxe Artetxe euskaltzain laguntzailearen heriotzaren berri eman du. Bere senideei Euskaltzaindiaren nahigabea agertzea erabaki da..

a) *Har-emanak*: Mondragoeko Udaletxearen gutuna irakurtzen da Aramaioko batzar idekian ere irakurria, herri honetan 1972an euskal kulturari buruzko aste bat antolatzea nahi dutenez, aste horren igandez Euskaltzaindiak bere bilera ideki horietako bat antolatu ahal baldin badu, gogoz hartuko dutela adieraziaz. Oraingoz ontzat hartzen da, helduden urteko programa egitean erabaki zehatza ematekotan.

Lojuako Udaletxeak egin digun gomitera, Irigoyen jauna Euskaltzaindiaren ordezkotzat bialtzea erabaki da.

Espasa-Calpe, S. A.k aurtengo lehen sei hilabeteetan Azkue-ren *Euskalerriaren Yakintza* liburuen salketen egile eskubideen ordainez 2.589,60 pezeta bialdu dizkigula aditzera eman da. Beti bezala, kontuak xehetasun guztiekin agertuaz.

"Julio de Urkixo" mintegitik helduden astean Urkixoren ohorez A. Tovar, L. Villasante eta J. Caro Baroja jaunak emango dituzten hitzaldietarako gomita.

Ordiziatik, bertan izan duten jakintza astea eta antolatu duten literatura sariketaren berriak ematen dizkigute.

Aretxabaletatik "Loramendi" olerkariari eskaintzen dioten omenaldiaren berri.

Usurbildik, herri honen 600. urteburuan antolatzen dituzten jaialdien berriak.

Hartu diren liburuak: Iñaki Beobide jaunak, argitara berri dituen Walt Disney-ren enziklopediaren bi ale, Frank de Graaf-ek idatzitako

Itsasoko gauza harrigarriak G. Lantzirik euskeratuta, eta G. Zanini-ren *Animalien bizitza izkutua* J. Apalategik euskeratua. Batzarkideen ize-nean eskerrak eman zaizkie.

b) *Aita Patxi Uribarren laguntzaile izendatzea*: Euskaltzainburuak Patxi Uribarren Leturiaga aramaioar euskal idazlea nor den adierazten du, eta Aramaion hil honen 5ean egin zen biltzar idekian eman zuen hitzaldiaren berri ematen du, hitzaldi hau idatzirik presentatuaz, bere gaia: Aramaioko euskeraren berezitasunak, euskal idazleak eta bertako euskeraren egoera eta etorrera. Biltzar idekiaren agirian jarrita den bezala, eta arabarren eskariari men eginez, proposamendua egiten zaio batzarrari euskaltzain laguntzaile izenda dedin. Proposamendu hau ontzat hartu da.

d) *Liburutegia berrizatzeko kanpaina*: Irigoyen, Astiz eta Lizundia jaunen esku uzten da kanpaina hau aurrera eramatea.

e) *Idatz arauen batzordearen txostenetik gelditzen direnak*, “ez”, “bait” eta “ba”: Euskaltzainburuak irakurri du batzordearen txostena, loturik ala bereiz idatzi behar diren hitz, aurrizki eta atzizkiak (txostenaren II. atala). Aurreko atalean aztertutakoez gainera, beste hiru partikula axolarik handienetakoak, bai maiztasunagatik eta bai esaldian betetzen duten zereginagatik ere. Hona hemen zein diren. 1. *Ez*, ezetza adierazteko hitza. 2. *Bait*, aditz aurreko aurrizkia. 3. *Ba*, baldintza eta baietza adierazteko aurrizkia. Partikula hauen erabilkeran batasuna ez da beti gorde. Horregatik, gaiaren axola ikusiaz, eta hauzi hau xehekiago eta astiroago aztertu nahiz, hiru partikula hauekin Atal berezi hau osatu nahi izan du batzordeak: 1) “Ez”, ezetza adierazteko hitza, batzordearen proposamendua, “Ez” partikula hau beti osorik eta beti aparte idaztea da, eta ontzat hartu da. 2) “Bait”, aditz aurreko aurrizkiaren aldeko eta kontrako arrazoiak adierazi dira, eta azterketa egin ondoren, iritzi oso dezberdinak azaltzen dira eta botoetara jo da, batzarturik dauden guztien iritzi zehatza jakiteko, 11 agertzen dira lotuta erabiltzearen alde eta 10 aparte erabiltzearen alde. Diferentziak hain txikiak direnez gero, libre uzten da, oraingoz bakoitzak berari deritzon bezala erabiltzeko. 3) “Ba” baldintza eta baietza adierazteko aurrizkia hiru jokaeraz adierazi da: partikula hau beti loturik idaztea, beti aparte edo bereziturik idaztea eta baldintzazkoa loturik eta baietazkoa aparte idaztea. Homen ere iritzi desberdinak agertu dira eta botoetara jo da: 11 “Ba” danean batuta erabiltzearen aldekoak eta 3 era guztietan banandurik erabiltzekoaren aldekoak. Hemen ere, dauden desberdintasunegatik, erabakitzeke uzten da. “Bait” eta “Ba” zelan erabili behar diranaren galdea egingo zaie euskaltzain numeruko guztiei eta beren iritzia jakin ondorean, hurrengo batzar baten aztertuko da ia erabaki bat hartzea komeni den ala oraingoz puntu horiek libre utziko diren.

f) *Altunaren txostena irakasle karnetaz eta Kintanarena euskaraz irakasteko gaitasunaz*: Hogeitabi punduko txostena irakurri du Altuna jaunak irakasle karneta lortzeko. Karnet hau, euskara ez dakitenei irakasteko ahalmenak dituztenei emango zaizkie, ahozko, idatzizko, gramatikazko eta literaturaren ezaupidezko esamaina baten ondorean; esamaina honek izango dituen baldintza guztiak zehatz-mehatz agertzen ditu, beste hizkuntzetan kasu berdinerako mugatzen diren oinharrietan eginaz. Eta, bukatzeko, Euskaltzaindiak, lan honetarako ondo eraturik dagoen

ikastetxeren baten esku uztea duela onena, proposatzen du. Asmo hoek ondo ikusi dira. Lehen parteari dagokionez, esaminiatze erak txosten honek mugatzen dituen punduetan oinharrituko dira; bigarren parteko proposamendua, hobeto estudiantzeko gelditzen da. Bestalde, bigarren mailako karnet bat ere sortu beharraren premia larria lehenbait lehen bete ahal izateko.

Kintana jaunak, bere aldetik, euskal kulturaren horniduraren esamina programa adierazten du bere txostenean, Euskal Herriaren geografia eta historia oinharritzkoaren eskema bat presentatuaz, gure herriaren kulturaz hornidurik dagoenaren agiritzat. Kultura honen premia ikas-toletako andereñoetan nabari denez gero, beren maestra-pedagogia jakintzaz aparte (zeren Magisterioko euskal jakintza oso kaxkarra denez gero), hobeto esan, jakintza honez gainera beharra duten tokian agertu ahal izateko. Hemen ere, esamina ondorean agiri bat emango litzake.

Bi txosten horiek mahai gainean uztea erabakitzen da, puntuok astiroago hausnar eta barna ahal ditezen hurrengo batzarrean.

g) "*Xenpelar*" bertso-paper saria: Sariketa honetako mahai-burua-
ren erabakieri jarraituaz, euskaltzaniburuak banatzen ditu era honetan: Lehen saria, 2.000 pezetakoa, Joxe Aierberi "Minbizia" bertsoegatik; bigarrena, 1.500 pezetakoa, Manuel Matxaini "Egindako ametsa" gatik; hirugarrena, 1.000 pezetakoa, Mantxolari, "Gosea nagusi" gatik; laugarrena, 500 pezetakoa, Segundo Kalonjeri, "Donostiari" gatik; ohorezko aipamena G. Albizuri, "Xenpelar hil da ehun urtera" gatik.

h) *Aditz batua*ren sariketa: "Hegosa"k antolatutako aditz batua edo aditz baturako sariketaren egoera agertzen da. Idazkari-ordezkoak aditzera ematen du Euskaltzaindiaren agirieta zer eta zenbat aldiz esaten den sariketa hau aurrera eramateko eta behingoan eta lehenbait lehen zuritu beharra dagoela. Sariketaren mahaiburuko, Lafitte, Alvarez Enparantza eta Berriatua izendatzen dira, eta mahaiburuak han biltzea beren artean erabaki edo besteia hangoak aztertu ondorean Berriatua jaunari bialdu.

i) *Bakoitzak dakarrenetik*: Haritschelhar jaunak aditzera ematen du Frantziako Edukazio Nazionaleko ministroagandik duten berria, helduden urtetik emanan direla irakaskintzan euskarazko klaseak. Berri hau pozik entzun da.

Hartu diren zenbait txosten urrengo bilerarako uzten dira gaurko batzarra luze joan delako.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1971-X-29

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971ko urriaren 29an, arratsaldeko lauretan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Arrue, Diharce, Irigaray, Irigoyen eta Satrustegi jaun euskaltzainak; Altuna, M.^a F. Arregi, J. Estornés Lasa, Fernández Setien, S. Garmendia, Intxausti, Kintana, Lizundia, Ruiz

Urrestarazu, Patxi Uribarren, eta Zatarain jaun-andere euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Ezin etorria adierazi dute Aita Damaso Intzakoa, Haritschelhar, Layen, Lafitte, Lojendio eta Zabala jaunak

Ohi dan otoitzarekin hasi da batzarra.

Iraileko agiria onartzean, Zatarain jaunak egin ditu zenbait ohar, idatz araueri buruz. Argitu da, irailean presentatu ziren hiru punduetatik lehena soilik hartu zela ontzat, eta beste biak euskaltzain numero-koen eritzia jakin ondorean berriz ekarriko dala batzarrerara.

a) *Har-emanak*: Patxi Uribarrenen gutuna, laguntzaile izendatua izan dalako eskerrak emanaz. Bera batzarrera etorri danez, euskaltzainburuak ongi-etorria eman dio guztion izenean.

Dr. Hans Mukarovsky-ren gutuna Viena-tik, urte honen bukaerarako euskara-bereber hizkuntzeri buruz eginak dituen lanen sintesi bat bidaliko digula EUSKERA aldizkarirako.

A. Irigaray jaunak adierazten du, izkribuz, Euskal Alfabetatze gora-behera batzuk azalduaz, eta beste batzuk geroagorako utziaz, zeren goizean batzordeko batzuekin bileran bat izan baidute, eta bertan Alfabetatze Batzordearen batzar orokar bat egitea erabaki da. Batzar horretara Irigaray jaunak ikastaroetarako testuen egitarau txosten bat eramango du eta Lizundia jaunak eratze aldetik dauden hutsunak zuzentzeko, alfabetatze bulego eta ikastaron eragileek bete beharko dituzten baldintzen beste txosten bat. Batzar hori egin eta hurrengo Euskaltzaindiarenean bere berri emango da.

Hartu diren liburuak: Jose Maria Arrue apaizak erregalatua, Gregorio Arrue zonaren esku-izkribuzko liburua, Bizkaierazko aditzaren estudioa; eta Real Academia Gallega-ren buru den Sebastián Martínez-Risco-k bialtzen digun liburuzka, *Normas ortográficas e Morfoloxicas do idioma Galego*. Eskerrak bihurtzea erabaki da.

Diharce "Iratzeder" jaunak, Frantziako Irakaskintza Estudioen Sekretaritzak Donibane Lohitzunen egun hoietan dituen bilkuretan euskararen irakaskintzari buruz ere zenbait azterketa egingo direla, bera, Belokeko izenean agertuko dela; eta batzarrak Euskaltzaindiaren izena ere berak eramatea erabakitzen du.

Irigoyen jaunak aditzera ematen du Bizkaian, agintarien aldetik eragozpenak jarraitzen dutela bertsolari saioak egiteko. Lauron saio bat galerazi zutela. Eta uste du ahaleginak egin beharko direla hori zuzendu dedin.

b) *Irakasle karnetak*: Altuna jaunak adierazi du batzordekoak goizeko bileran zer jo-mugatzuk erabaki dituzten. Euskal kulturaren jakinduriaraz jarriko diren bi mailak hau bete beharra: I. mailan, Euskal Herriari buruzko kultura orokorra, Literatura, Historia, Geografia, Euskara; II. mailan, Literatura, Historia, Euskara, eta Hiztegi teknikoa. Lehendik dituen estudioez gainera hornitzeko da hau.

Euskara irakaslearena oraindik zeharo erabakitzeke gelditzen da. Datorren batzarrerako plan oso bat gertatua ekartzekotan gelditu da.

d) *Toki-izenak*. Idatz arauetazko batzordearen erakunde berria:

Luis Villasante jaunak txosten bat irakurri du. Hona hemen beronen mamia: Euskara idatziaren arauak estudiatzeko jarri zen Batzordeak sail berezi bat hautatu du datorren urteko lanetarako: hots, herrien

eta herritarren izendegia osatzea eta ahal dela finkatzea. Herri izendegi ofizial baten premia gorrian gaude, eta horren faltaz nahaspila handia ikusten da gure aldizkarietan. Sail berezi honek dituen katramila eta problematika azaldu du, eta orain arte eginak diren lanen berri eman ere bai. Azkonik, barruti hontarako egokitu dedin, idatz arauetazko Batzordea eraberritu egin behar zela esan du, eta batzorde berrituaren ize-nak agertu ditu. Luis Mitxelena jauna izango da buru eta Jose Luis Lizundia idazkari. Hortaz gainera eskualde bakoitzetik bokalak eta kontseilariak hautatu dira: S. Garmendia, Ruiz Urrestarazu, J. M. Satrustegi, eta Jean Haritschelhar. Eskualdetako arduradunak: Bidazoaz-handik, Dassance eta G. Eppherre; Arabatik, G. López de Gereñu eta O. Apraiz; Bizkaitik, L. Akesolo eta L. Villasante; Gipuzkoatik, Y. Etxaide eta J. San Martin; Nafarroatik, A. Irigaray eta Basilio Sarobe; eta Erri-
oja aldekoa, J. J. B. Merino Urrutia.

J. M. Satrustegi jaunak, gai honi buruz Nafarroako partean Institu-
ción "Principe de Viana" egiten ari denaren berri eman du. Hain zuzen,
guk proposatzen dugun lanerako hain ongi etorriko dena.

e) *Txomin Peillenen txostena*, "Kirio" eta "Soin" hitzei buruz: Ola-
bideren Giza-Soiña (1917) liburuan Kirio eta Soin hitzak gaizki adiera-
ziak direla, aditza ematen du, eta heren xehetasunak agerrera; lehe-
na, Kirio, *médula de hueso* eta *tuétano* adierazteko dela, eta ez *nervio*;
Soin hitzarekin berdin egiten duela, ideiak itzultzerakoan, ideia hauek
alderantziz. Baina lehenago Soin-ekin egin zuen bezala agertu behar
duela Euskaltzaindiak Kirio-ren egiazko esan nahia; eta era berean adi-
tza ematen du, "*vaso sanguíneo*", *Odol zain* eta "*nervio*", *Zain* esan
genezazkeala.

f) *Filatelia hiztegi*az: Aramaioko batzarrera X. Gereño jaunak egin
zuen eskariari buruz mintzatu da. Filatelia izenak finkatzeko batzorde
bat izendatu, alegia. Hauxe erabaki zen: X. Gereño jaunak berak, gauza
hortan jakitun direnen kontseiluaz, osa dezala izendegi hau, eta hori
egindakoa bere lana Euskaltzaindira ekar dezako, hemen azken eskua
eta baietza emateko.

g) *Bakoitzak dakarrena*: Arrue jaunak gogorazten du diru-lagun-
tza eskeak berritu beharra. Diputazioeri memoria batekin batean ager-
tuko zaizkie.

Satrustegi jaunak dio, Fagoaga zenaren Gramatika bat utzi zuela
Euskaltzaindiaren burugoa, eta eskuratu nahi luke argitara eman ahal
izateko. Baita ere, *Fontes*-en edo edizio berezi batean Elkanoko Lizarra-
garen lan argitara gabeak publikatzeko asmoz direla. Berri hau pozik
entzun da.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1971-XI-26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971ko azaroaren 26an, arratsal-
deko lauretan. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-or-
dezko, Arrue, Diharce, Irigaray, Irigoyen eta Lafitte euskaltzain jaunak;

Altuna, M. F. Arregi, J. Estornés Lasa, S. Garmendia, Intxausti, Kintana, Lizundia, Loidi, Ruiz Urrestarazu, Santamaria, Sarasola, Uribarren eta Zatarain laguntzaile jaunak San Martin idazkari dala.

Ezin etorria adierazi dute: Aita Damaso Intzakoa, Dassance, Eppherre, Erkiaga, Labayen (jaun honek gaineratzen du beretzat gaizki datozela ostiral arratsaldeak, eta gure batzarrek arratsaldetara pasatu ditugunetik duela bere etorri ezina), Larzabal eta Zabala jaunak.

Ohi dan otoitzarekin hasi da batzarra.

Klaudio Sagartzazu "Satarka" euskaltzain laguntzailearen hil-berria jakinarazi du euskaltzainburuak. Familikoei gure nahigabea agertzea erabaki da.

Urriko batzarreko agiria onhartzean, Zatarain jaunak zenbait xehetasun argitzea eskatzen du, aurretiko batzarrean berak egin zuen oharra ere nonbait dirudiane ez zela funtsez konprenitu. Xehetasunok *Ez-*, *Bait-* eta *Ba-* zelan erabiliari buruz erabakiak hartu diren moduz dira, eta argi-bide hauek ematen dira: a) *Ez-* zelan erabili behar den, erantsirik edo berezirik, euskaltzain osoeri ere galdetu zitzaizela, batzordeak bere proposamenduak gertatu ondorean eta batzarrean presentatu baino lehen, orri-multikopiatuen bidez, lehen aldiz ekainaren 11garrenean, abuztuko batzarrean lehen aldiz tratatua, eta bertan agertutako zalantzak bide, bigarrenez ere idazkiz galdetu zitzaizela euskaltzain guztiei, eta iraileko batzarrean erabakia hartu, beraz bi idazki eta bi batzarren ondorean erabaki zen (bestalde, iraileko batzarreko deian gaietan sartua egoan, eta araudiak dionez, erabakia hartu ahal izateko aski da 5 euskaltzain bilduak egotea, eta irailekoan, erabaki zenean, 9 euskaltzain ziren batzarrean eta euskaltzain guztiak ziren *Ez-* beti berezirik erabiltzearen aldekoak. b) *Bait* eta *Ba-*era berean aditzera eman ziren, baina erabakitzeko utzi zen, hontaz, agiriari ongi dion bezala, "botoetara jo da, batzarretik dauden guztien iritzi zenotza jakiteko", beraz, ez erabakia hartzeko, eta diferentziak hain txikiak direla ikusirik berez galdetzea erabaki zen idazkiz erantzutea eskatuz, gero batzar batean erabili ahal izateko.

A) HAR-EMANAK:

Literatura saiakera gaitzat zuen sarirako izendatu ziren mahaiburuak, Haritschelhar, Irigoyen eta Arestik, eman dute beren iritzia, maioriaz, "zaldi burdina" plika daraman lanari lehendabiziko saria, 25.000 pezetakoa. Estalgarria ideki eta Ibon Sarasola Errazkin agertu da *Eus- kal Literaturaren Historia* izeneko lanaren egile.

Aditz batua saria, 75.000 pezetakoa, Hegosak jarria, mahaiburuak diren P. Lafitte, I. Berriatua eta J. L. Alvarez jaunak, aho batez, Krutwig jaunaren lanari ematea erabaki dute. Presentatzen duten txostenak hau dio: "Krutwig jaunak ditu bakarrik bete jarri ziren baldintzak, formak hautatuz, erranez bere hautuen arrazoiak, bere burutik formarik ez asmatuz. Izan dira segur lan eder baliosak aditzari buruz, baina baldintzez kanpokoak. Adibidez Alvarez-ek eta Lafittek uste dute Jean Eppherre-k Zuberoako aditzaz egin duen lanak merezi lukela nunbait agertzea, gutik ezagutzen baitute zoin den berezia eta zabala".

Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartea-ren gutuna, adieraziz aurtengo "Il Andima Ibiñagabeitia" jakintza liburu saria, 1.000 dolarrekoa, Luis Egia Rezola jaunari ematen diotela *Neurritzia* (Geometria) lana gatik;

eta *Accesit*, 290 dolarrekoa, Benantzio Otaegi jaunari Giza jakintza (Antropologia) lanagatik, eta igazko bezala Euskaltzaindiak sariok banatzea nahi dutela. Ontzat hartu da.

Lobainatik (Leuven) Baudewijn MEEUS, Fil. Lic.-ek minoria hizkuntzeri buruzko inkesta egiten ari direla Europa guzian eta euskarari buruzko xehetasunak eskatzen ditu.

Amsterdam-go Ynteruniversitaire Studzjerie Frysk-tik XVI eta XVII-ko guraso hizkuntzari buruzko inkesta.

Belgrado-ko (Beograd-Jugoslavia) Konferencija Nauka i Društvo erakundeak, bertan dituzten "Science and Society" gaiezko hitzaldietara gomita eginez.

B) HARTU DIREN LIBURUAK:

Lur Editoriak emanak: *Euskal Elerti* 69, egile askoren lanekin hornidutako bilduma; *Mendebaleko ekonomiaren historia*, R. Saizarbitoria, I. Sarasola, A. Urretavizcaya; *Euskal protestantismoa zer zen*, Joannes Leizarraga; *Literatura eta kritika*, P. Urkizu; *Soziologiaren hasiapenak*, A. Sagarna; *Afrikar iraultzaren alde*, F. Fanon; *Linguistika orain arte*, X. Kintana; *Euskal Literaturaren Historia*, I. Sarasola; *Euskara Gaur*, Gaur SCI; *Lan alokatua eta kapitala*. Alokairua, prezioa eta irabazia, Karl Marx; *Poemagintza*, I. Sarasola; *Argi bat iluntasunean*, X. Gereño; *Hunik arrats artean*, A. Lertxundi; *Haur besoetakoa*, J. Mirande; *Itxura aldaketa*, F. Kafka; *Harrizko herri hau*, G. Aresti; *Lau gartzelak*, N. Nikmet; *Kaniko eta Belxitina*, Jakes Oihenarte; *Bai mundu berria*, Aldous Huxley. Era berean, Editorial Franciscana Aranzazu-k, Joxe Azurmendiren *Hitzkuntza, etnia eta marxismoa*.

Iraskasle Elkartek, *Ikastola-hiztegia* delako liburuxka bialtzen digu, gure oharrak nahi dituztela adieraziz. Euskaltzaindiak bere jakintza hiztegiak atera bitartean, Irakasle Elkartek egin duen hiztegi hau erabil ditekela erabakitzen du.

D) DIRU KONTU GORA-BEHERAK:

Idazkari ordezkioak irakurri ditu diru kontu gora-beherak, Erkiaga diruzainaren etorri ezina adierazi ondorean. 1971ko uztaila-iraila bitartekoa: lehenik egoana, guztiz, 16.957,98; gehitua, 208.364,68; urritua, 99.072,00; dagoana 126.250,66 *pezeta*. Sarrerren eta urrituen zertzeladarik aipagarrienak irakurriaz.

E) "BAIT eta "BA"-ren IDAZKERAZ:

Bait eta *Ba*- zelan erabiliri buruz beren iritzia izkribuz erantzunez eman duten euskaltzainak: Dassance, Diharce, Erkiaga, Haritschelhar, A. Damaso Intzakoa, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Lekuona, Lojendio, Mitxelena, San Martin, Satrustegi, Villasante eta Zabala jaunak. Beraz, 24 euskaltzainetik 15ek erantzun dute. Beretatik, *Bait*- beti loturik erabiltzearen alde 8, eta beti aditzetik bereizturik erabiltzearen alde 7. *Ba*- beti loturik erabiltzearen alde 11, batek beti bereiztearen alde, beste batek idazleak behartu gabe bakoitza bere gisara idaztearen alde.

Iritziok ikusirik, *Ba-* beti aditzari loturik idatziko da. *Bait-* aurrizkiaren idazkera oraingoz erabaki gabe gelditzen da, eta libre izango da nahiz loturik nahiz aparte idaztea.

F) IRAKASLE KARNETAK:

A. Altunaren txostena irakurtzen du Kintanak, Euskal irakasle karnetaren jabe izateko eskatu beharko diren jakingarriak aztertuz. Txosten hau lehenago Kintana berak Aita Altunak aurkeztutako lanetatik osatua da. Batzarrak ontzat eman du bereziki gertatu duten plan hau.

G) BAKOITZAK DAKARRENETIK

Irigoyenek dio, J. Berrojalbizekin mintzatu dala "Azkue" izeneko ikastoleri buruz. Irakaskintzako lege berriak eskatzen duen araua bete ahal izateko gurasoak kooperatiba bezala bildu direla Lauron ikastetxe berri bat egiteko. Estadutik hamar milloi pezeta lortu dituzte, bat berriz igortzeko eta bederatzi "a fondo perdido" esan ohi dan erara. Eman dioten baimenean bi hizkuntzak neurri berdinez ematea onhartzen dela.

S. Garmendiak bere kargua utzi nahia agertzen du, urte beterako hartu zuelako. Oraingoz jarraitzea eskatzen zaio.

Haritschelharrek Eppherre euskaltzain jaun kalonjea gaixorik dala agertzen digu. Bestalde Frantziako telebistak eskuarazko emisioneak muntatu duela, hilean oren erdiz. Oso pozik entzun da hau eta Espainia-koari ere eskaria egitea erabakitzen da.

Zabalak, bere ezinetorria agerreraiz, urrengo batzarrerako bertso-lari txapelketari buruzko berriak urrengo batzarrera ekarriko dituela.

Irigaray jaunak txostenez agertzen du ortografiarekikoa mailaz maila eramateko Arantzazuko agiriaren oinharritz, helburua geroagoko epe batean jarriaz. Baina, azken ohar eta erabakiak EUSKERA aldizkarian laster argitaratuko diranez, oraingoz ez dala garai egokia ezeri ikutzeko eta hobe dala gehiago itxaro.

Beste gabe, ohi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-XII-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971ko abenduaren 30ean, arratsaldeko lau t'erdietan, Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Erkiaga, Irigoyen, Lafitte, Lojendio, Mitxelena eta Zabala euskaltzainak; Akesolo, Altuna, Berrondo, J. Estornés Lasa, S. Garmendia, Intxausti, Kintana, J. M. Lekuona, Lizundia, Loidi, Santamaria, Sarasola, P. Uribarren, Ruiz Urrestarazu eta Zatarain euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Ezin etorria adierazi dute: Dassance, Diharce, Eppherre, Irigaray, Larzabal eta M. Lekuonak.

Ohi dan otoitzarekin hasi da batzarra.

AGIRIA:

Agiria onhartzean, Irigaray jaunak eskatzen du, bidali digun idazkitxo batean, bere txostenarena honela zuzenago dela uste du: "Irigaray jaunak, idazle multzo baten bitarteko gisa, txosten bat agertzen du, ortografia mailaz maila eramateko, Arantzazuko agiriaren oinharritz". —Lehendakariak, Idatzarauetazko Batzorde-buruaren erantzuna jakin arazten dio jaun horri eta izena eman duten besteei...: "Zenbait euskaltzale eta euskal idazle, iritzi horretakoak diranez gero, hauek egin behar lukete, bere izenez, eskabide hori. Ez Euskaltzaindiari, euskaldunei baizik".

Altuna jaunak, bere aldetik, irakasle karneteri buruzko argitasun hau ematen du: Bere lana euskara irakasle karneteri buruzkoa zala, eta Kintanarena, euskal kulturakoa.

Zatarain jaunak ere lehengo *Ez-*, *Bait-* eta *Ba-* erabaki ziren bezala erabakitzea ez duela behar bezala konprenitzen. Adibidez, *Ez* erabakitzeke gauza ziren bederatzi euskaltzainak ia zergatik ez ziren gauza *Bait-* eta *Ba-* erabakitzeke. Baina berriz ere aditzera ematen zaio eskubide osoa dutela euskaltzainak, arauditik ez irtetzean, era batera edo bestera erabakiok hartzera eta *Bait-* eta *Ba-*ri buruz ikusi ziren zalan-tzegtatik egin zitzaizela euskaltzain guziei idazkizko galdea. Dena dela, aditzera ematen da, araudiari ez zaizola hutsik egin.

SARIAK:

Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartearen ienean "Andima Ibiñaga-beitia" izeneko saria ematea: Euskaltzainburoak agurrez eta zorionak emanez zenbait hitz egin ditu eta ondorean txkeak ematea: Luis Egia Rezola jaunari 1.000 (dolar), bere *Neurritzia* (Geometria) lanagatik, eta Benantzio Otaegi jaunari 290, ohorezko aipamenez, bere *Giza Jaintza* (Antropologia) lanagatik.

A) HAR-EMANAK:

Biblioteca berritzeko egin den laguntza eskearen erantzunez hartu diren laguntza aipagarrien artean, Banco de Vizcaya-k 10.000 pezeta eta Xabier Gereño euskaltzain laguntzaileak 2.000 pezeta eman dituzte.

HARTU DIREN LIBURUAK:

Etor argitaldaria emanik: Bigatello-ren *Seksu-ezibidea*; *Urtekari* 72 eta M. Ugalderen *Langileria Historian* zehar.

Graficas Onandia-ko Marcelino Onandia jaunak bere *Ermua -I*.

Artzeniega jaunak bidalia *Gramática Qechwa*.

Lafitte jaunak, *Gure almanaka* 1972.

Lanen separaten artean: A. Arrue jaunak *El bertsolari Borden en el castillo donostiarra* (1823); J. M. Satrustegi jaunak, *Símbolos culturales en la torre de Iturriotz* eta *Pregón festivo de San Juan*; Arantzazuko fraileak emana Fr. Cándido Izaguirre zanaren *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*.

B) ARAUDI BERRITZEAREN BERRI:

Villasante jaunak aditzera eman du goizean zelan bildu diren euskaltzainak eginkizun honetarako, oinharritzko proiektora puntuz puntu

aztertu dala lehen 18 artikulura arte eta falta dena beste batzar bate-rako utzi dela.

Eginkizun honetarako bildu diren euskaltzainak: Villasante, Haritschelhar, Arrue, Diharce, Lafitte, Erkiaga, Irigoyen, Lojendio, Mitxelena, Satrustegi eta San Martin. Beren ezin etorria agertu zuten: Dassance, Eppherre, Larzabal, Lekuona, eta Irigaray jaunak.

D) ADITZ BATUAREN BATZORDEAREN TXOSTENA:

Mitxelena jaunak, batzordearen izenean, lehen txostenaren berri aditzera ematen du. Batzordearen asmoa zatika egitea da, euskalkiak elkarrekin bat datozten eta antzeko dituzten parteak harturik. Zatiok, gertatu ala zabalduko dituzte, eta ezer esateko dutenak, beren eritzia, izkribuz Euskaltzaindiari agertzea eskatzen dute, epe jakin baten barnean erantzunaz. Erantzunak hartu bezin azkar batzordeko direnen artean zabalduko dituzte azken erabakia guziei zabaltzeko.

E) IRAKASLE KARNETARAKO MAHAI-BURUA IZENDATZEA:

Euskaraz irakasteko ahalmena dutela agertuko duten karnetak emateko, hartu diren *curriculum vitae*-ak azterturik, batzorde bat izendatzen da, A. Irigoyen, P. Altuna eta S. Basauri.

F) HERRI TA HERRITARREN BATZORDEAREN TXOSTENA:

Lizundia jaunak aditzera ematen du, atzo arratsaldean, batzordekoak bildurik, hartu zituztela zenbait erabaki lanaren antolakizunez eta has-teko Instituto Nacional de Estadística-ren *Nomenclator*-ean oinharriturik toki-izenak hautatuko dirala eta izenok jasotzeko kuestionario egoki bat gertatu.

G) BERTSOLARI TXAPELKETAZ:

A. Zabala jaunak kontu eman du jestioen egoeraz, esanez zer bide jokatu duten bertsolarien har-emanek, eta oraindik ez dutela bertsolari guzien erantzunik.

H) DATORREN URTEKO LANEN ETA BATZARREN EGITARAU:

Idazkari ordezkoak aditzera eman du EUSKERA aldizkaria argita-ratzearen atzeratzeaz, inprimatzailearengatik izan dala.

Aspaldi hasi zen salgai dauden euskerazko liburuen katalogazioa bukatu eta argitaratzea.

Pertsona izenen lista, dokumentaturik, hornitzea eta agertzea.

Donostiako bulegoak gertatu duen 8 urtera urteko haur-oskoletan behar diren hitzen hiztegiñoa agertzea.

Urteko sariketak iragartzea: "T. Altzaga" teatru saria, "T. Agirre" nobela saria, "Lizardi" poesia saria eta "Xenpelar" bertso-paper saria.

Batzarren kalendrera: Mondragoeko eskabideari jarraiki, herri hone-tan Euskal-Kulturaren asteen. Bilbaon, III. Antropologia asteen, urriko hilean. Iruñean, Symposium-arekin batean edo Larrekoren omenezko jaialdian Auritzen.

Beste gabe, ohi den otoitzarekin bukatu zen batzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

LEIZARRAGAREN OMENEZKO JAIALDIA ETA BILTZAR IDEKIA BESKOITZEN

Beskoitzen, 1971ko Uztailaren 4an, jaialdi eta biltzar idekia Leizarragaren ohorez, *Testamentu Berria* euskaraz lehen argitaratzearen 400. urteburuan.

Goizeko hamarretan herri-meza konzelebratua, Diharce «Iratzeder», Villasante, Lafitte eta Irigaray gazteak ofiziatua. Diharce jaunaren hitzak, euskaraz lehen aldiz Kristoren hitzak idatzi zituen Leizarragari eskainiak ziren, Kalbinista ba zen ere, kristu zenez.

Meza ondorean, jendez beterik egoan eliza eta herriko-etxearen tartean den plazatxoan, beraskoiztar eta herbestekoz. Hamaika t'erdietan, herriko-etxearen atadian, Jean Eyherabide auzapez jauna mintzatzen da, han bilduak herriaren izenean agurtuaz, Euskaltzaindiari ongi-etorria emanaz eta Leizarraga beraskoiztarra goretsiaz. Bukatzeko, herrikoetxearen sarreran oroït-harri bat agerian jartzen du, hitz horiekin: «Beraskoiztarrek Joanes Leizarraga idazleari».

Beskoitzeko kantari andana batek, Leizarragaren ohorezko kanta bat eman du, hara eldu direnen entzungarri.

Plazan, Zabala txistulariaren doinuz herriko gazte eta gaztetxo andana dantzatu da.

Ondoren, herriko-etxeko gela nagusian Euskaltzaindiaren bilera asi da, herriari begira antolatua. 57 entzulo kontatu ditugu bildu direnen arteko, herritarrak, herbesteko euskaltzale, Euskaltzaindiaren laguntzaile eta euskaltzainak. Mahaiburuan, Jean Eyherabide auzapeza, Villasante euskaltzainburua, Haritschelhar buru-or-

dea, Lafitte, Lafon eta Akesolo hizlariak eta idazkaria. Horiez gainera, bertan dira beste euskaltzain hauek: Arrue, Dassance, Diharce, Eppherre, Irigaray, Irigoyen, Larzabal eta Zavala.

Lehenengoz Villasante jauna mintzatzen da, bilduak, Beskoitzeko herria, harrera bikaina egin digun auzpapez jauna eta erretore jauna agurtuaz; zerek ekarri gaituen adierazten du eta hizlariak presentatzen ditu. Bukatzeko, Eyherabide auzapez jauna eskertzen du.

Jean Haritschelhar euskaltzainburu-ordeak, Piarres Duny Petre-ren («Piarres Hegittoa») letra irakurri du, bertsoz egina, Leizarraga zena eta biltzarkideak agurtuaz; eta, ondoren, hizlarietako hitza eskaintzen die.

Lino Akesolo jauna Leizarragaren garaiari buruz, batez ere garai haretan eta ordurarte euskaraz idatzi zenari bruz. Orduan iratzartu zen giroa eskerrak sortu ahal izan zela Axular bezalako idazlea.

Piarres Lafitte jaunak jarraitzen du, Leizarraga nor zen adieraziaz. Orainarte izkutuan ziren puntu asko agerrera erazten ditu, eta beragandik lehen aldiz jakiten dugu Leizarraga 1506. urtean jaioa zela, et *Testamentu Berria* euskaratzen hasi zenean hirurogei urte hurbil zituela.

René Lafon irakasle jaunak, euskaraz honek ere, Joanes Leizarraga itzulari eta idazkari bezala agertzen digu; errege-bideko euskara hura, Lapurdi- Baxenabarren oinharriturik, euskalki orotarik baliaturik egina zuela, eta bere lehen lanetatik azkenekoetara agertzen den eboluzioko xehetasun batzuk adierazten ditu.

Hitzaldiak finitzean herriko-etxeak ahamena eskaini du biltzarkideentzat.

Bazkaria, Beskoitzeko Salingo jatetxe batean. Bazkalondoan, Haritschelhar jaunak irakurri du Montzon eta Alvarez Enparantza laguntzaileen agurrezko gutuna. Villasante euskaltzainburuak, «Euskera» aldizkariaren batzordekoen gogoak agertu du, aldizkari honetan Leizarragaren *Testamentu Berria* argitaratzeko, egun Akesolo, Lafitte eta Lafon jaunak eman dituzten hitzaldiak hizurre bezala jarri; nahiz ortografia berrian jarria edo nahiz lehen argitalpena orriz-orri fotokopiatu, zen bezala. Oso pozik entzun da berri hau.

Lafitte jaunak agertzen du, ingelesak argitaratzeko gertu dardela, baina guk hemen 5.000 ale saldu ahal izateko bidea egingo ba-

gendu. Baina, hainbeste lortzea nekeza danez, guk gure aldetik egin beharko dugula argitalpena.

Bazkalondoko solasaren bukaeran Arrue jaun euskaltzaina mintzatzen da, mugaz alde batekoen izenean bestaldekoiei anaitasuna agertuaz eta elkartasunean irauntzea eskatuaz.

Solas horietan elkar ezagutzen ez ziren anitzek izan dute kontaktu personala egiteko aukera, eta egintza asmoz beteriko elkarriketak girotu zuten Beskoitzeko egunaren bukaera.

HIL-BERRIAK

KLAUDIO SAGARTZAZU SAGARTZAZU (1895-1971)

1971eko azaroaren 23an hil zen Klaudio Sagartzazu, bere sorterri zen Ondarrabian. Herri onetan jaioa bai zen 1895eko urriaren 30ean.

Olerkari bezala, «Satarka» izenez ezagutzen zen, eta gazte denboran anitz sari eramana zen. 1918 eta 1920an Donostiako olerki sariak jaso zituen, eta garai berean mugazandiko Iholdin ere bai. «Satarka», Luis Jauregi «Jautarkol»ekin batean, euskal literatura-ren lirikaren lehen bide urratzaileetakoa genuen noski. Eta Aitzolen inguruan, 1930ean, «Euskaltzaleak» izeneko olerki berrizte mugimenduaren eragileetako bat izan zen. 1966garrenetik Euskaltzaindiaren laguntzaileetarikoa genuen. Etxegintzako kontratista zen ogibidez.

Bere olerki liburuak: *Txinpartak* (Donostia, 1922) eta *Intza Begietan* (Donostia, 1957). Lehenbiziko liburuak Victor Hugo eta Heine-gandik itzulitako poesia batzuek ere baditu; bigarrenak, M. Lekuonaren hitzaurrea eta A. Valverderen irudiak daramazki, eta erdal itzulpenez argitaratua da.

Lehen liburuko olerkirik ezagunena, «Aurtxo seaskan» izango du noski. Poematxo hau, seaska kanta, Olaizolak musika jarri zionetik oso ezaguna baita Euskal Herri guzian.

Euskal literatura murriztiaz bere toki berezia merezi du olerkari samur honek. G. B.

J. S. M.

ANTONIO VALVERDE CASAS (1915-1970)

1970eko uztailaren 28an hil zen Oiartzunen. Antonio Valverde, Errenderian jaioa zen 1915eko urtarrilaren 17an.

Gure artean, bere lan askotan izenpetzen zuen «Ayalde»z ere ezagutzen genuen. Zaragoza-ko Unibersidadean Derecho lizentziatura egina zuen. Donostiako Gráficas Valverde-ko nagusia, pintore bikaina eta idazle ona. 1961etik Euskaltzaindiko laguntzaile genuen.

Euskaraz, «El Bidasoa», «Egan», «Olerti», «Zeruko Argia», «Jakín» aldizkarietan kolaboratu zuen, maiz bere dibujuekin. Erdaraz ere asko idatzia zen «La Voz de España» eta «El Diario Vasco» Donostiako egunkarietan.

Argitaratu zituen liburuak, erdaraz, *Con fondo de chistu* (Donostia, 1965), eta euskaraz, *Ibar ixillean* (Donostia, 1970). Liburu biak bere dibujuak dituzte. Pio Baroja-ren *Mari Beltxa* euskarara itzuli zuen eta 1956-an «Egan» en argitaratua da.

Errenderiarra bazen ere, jaiotzez ez zen euskalduna; nagusitu ondorean ikasi zuen euskaraz, baina oso ondo egiten zuen, hobeto esan, ez zitzaion igartzen euskaraz gero ikasitakoa zenik. Pintoreaz gainera, oso kritikiko fiña zen arte gaietan, bere *Ibar ixillean* liburuan Regoyos eta Euskal eskolari buruz agertzen dituen hitzaldietan ongi nabari dan bezala. Bi hitzaldiok, euskaraz zenbait tokitan emanak zituen.

Euskaltzaindiak azken urte hauetan euskaltzain edo laguntzaile izendatzen dituenen, berak gertatutako diploma agiriak ematen dizkiote. Beraz, Euskaltzaindira datozten berrieri ez zaie faltatuko bere oroitzatza. G. B.

J. S. M.

DOMINGO SOUBELET (1897-1970)

Baionan, Hiriburuko apez-xahartegian hil zen Domingo Soubelet jaun kalonje eta euskaltzaina, 1970eko uztailaren 28an. Hazparnen sortua zen 1897ko abuztuaren 10ean.

Lehen mailako ikasgoak Hazparnen, bigarren mailakoak Be-loken eta apezgoarakoak Baionako Seminario handian eginak zituen.

1924ko uztailaren 13an apeztu zen. 1926an, bi urtez, Erroman teologiako lizentza bildu. Geroztik, bikario Donibane Lohizunen bi urte, bikario Baionako Katedralean bertze bi urte, 1930etik 1937ra jaun Apezpikuaren segretario. 1933an ohorezko kalonje izendatu zuten. Hamar urtez (1937-1947) Azkarateko erreitor, bere osasunagatik. Bertze hamar urte Hazparneko misionest. 1967an Hiriburu-ko apez-xaharren etxerat bildu behartu zitzaion, bertan heriotzak eraman arte. (G. B.)

Eskuaraz hanitz lan egina zen: eskuarazko predikari ederra izana; zazpi urtez *Eskualduna* astekariaren buruzagi eta moldatzaile (1930-1937), eta zazpi urte horietan *Gure Almanaka* jalgi. Izkribatzaile bezala, pentsatzen zuen arrazoinekin behar zirela nasaiki izkiritu onak ager-erazi. Onak eta irakur-errexak. Hots, morala azkar bati zagon, teologia gorenerat bakan helduz, irakurtzaileari ez kausi beldurrez. Hazparneko eskuara zerabilkan doi-doia panpinaturik. Erran beharrak hitz gutiz emaiten zituen, labur eta motz, irakurlea ez zadin gal zirikorda luzegietan. Bainan hitzak beti xuxen heldu zitzaizkon, indarrez beterik. Eskuaraz zortzi liburu ager-erazi zituen: *Lurdeko Ama Birjina*; *Fatimako Ama Birjina*; *Buloneko Ama Birjina*; *San Josep*; *Jesusen bihotz sakratua*; *Petaín Marexala*; *Maria Goretti*; eta *Jesus*. Komedia bat ere bai: *Iturriko kalakariak*. Eta erdarazko liburu bat: *Le bienheureux François Dardan*.

Laburki, hau zen gizona, herria zerbitzatu zuen apez eta izkribatzaile kartsua (1).

P. L.

RIKARDO ARREGUI ARAMBURU

Rikardo Arregi Aramburu Andoainen jaio zen, 1942-ko irailaren 22-an.

Eta hil, 1969-ko uztailaren 10-ean hil zen, auto-ixtripu batean, Motrikuko lurraldetan (Mendaro ondoan), Bilbaorako bigarren Euskaltzaindiaren Biltzarre batera zihoela.

Rikardo euskal herrietan oso ezaguna zen, euskal kulturagintzako gazteetarik ezagunena, dudarik gabe. Ezaguna bezin estima-

(1) Bere bizitzaren xehetasun gehiago *Herria* (1044 zenb.) astekarian aurkituko dugu, 1970eko agorrilaren 6koan. (A. O.).

tua zen Rikardo bai artikulari gisa eta bai alfabetatzaile bezala. Bi hildo hautan erain zituen Rikardok bere dohainik hoberenak.

Idazle gisa, bi eratakoa izan zen bere lana, alegia, periodistarena eta pentsatzailearena. Periodista bezala, politika alorra eraman zuen *Zeruko Argian*, 1963-tik 1969-ra arteraino. «Nazio-arteko unea» saila, hastapen beretik berak zuzentzen zuen. *Anaitasunan* ere, bide beretik, zenbait artikulua idatzi zuen. Rikardok bere burua nazio-arteko politikaren albistaritzat zuen.

Bere periodismu-lanagatik, 1965-ean, «Lauaxeta» saria eman zion, Baionan, «Euskal Idazkaritzak», urte haretako artikulari hoberen bezala.

Pentsatzaile gisa, bere lanik hoberenak eta sakonenak *Jakin* aldizkarian eman zituen, lehenengo filosofiazkoak eta gero sozio-politikazkoak. Hortik aparte, saiakera bat ere argitaratua du, hots, «Politika estrukturak europear alkertasunean», elkar lanean eratutako EUROPA liburuan (Jakin, Oñate, 1965). Argitaratu gabe utzi zuen beste saiakera bat, eta laister agertuko du *Jakinek*, bere artikulari-lanen antologia batekin Rikardori buruzko «Herriaren testigu» liburuan. Saiakerak «Ezin etsi» du izena. Liburu bezala, asko asmotan ibili arren, bat bakarra burutu zen, eta hau ere hil ondoren argitaratu zen: POLITIKAREN ATARIAN (Lur, Donostia, 1969).

Rikardok bere izenaz beste, Unai Garin eta Tomas Leiaristuri izenordekin idatzi zuen.

Gorago aipatu dugu Rikardo alfabetatzailea izan dela. Beste euskaltzale batzuekin, 1966-garrengo urtarrilean egin zion Euskaltzaindiari Alfabetakuntza sortzeko eskabidea. Eta geroztik bera izan zen eragilea, bai alfabetatze-kampainak antolatuz eta bai herriz herri hitzaldiak emanaz. Alfabetatze Batzordearen Idazkaria zen.

1964-garrenean izan zen Euskaltzaindiko izendatua, laguntzaile mailan.

Gizon baten lanaren dinamika balioztatzeko, premiazko lizateke bere bizi-giroa argitara ematea. Ez luzatzearren, puntutxo batzuk bakarrik hunkituko ditut.

Rikardok «Humanidades» ikasketak, 5 urtez, Donostiako Apaizgaitegian egin zituen. Filosofia ere hiru urtetan egina zuen. Teologia ikasketak hasi besterik ez ditu egingo.

1962-an, bachiller seigarren urteko revalida egiten du ekainean, eta gero «Preu». Ekonomiazko jakintzak hasten ditu, baina presarik gabe. Hil zenean, oraindik bukatu gabe zituen, amaitzeko bi gai falta zitzaizkiolarik. Urte haretantxe pasatzeko esperantza zuen. Ekonomiazko jakintzetan lizentziatua dela esan genezake.

Irakasletza ere egina zuen, ikas-urte batez (1965-1966). Sto. Tomas Lizeoan euskal literaturen historia irakatsi zuen.

Okzitaniako Tolosan, 72. IV. 18.

JOAN MARI TORREALDAY

JOSE DE ARTECHE ARAMBURU (1906-1971)

1971eko irailaren 23an hil zen Donostian. Joxe Artetxe, azpeitiarra zen, 1960ko martxoaren 12an jaioa.

Gipuzkoako Diputazioaren Bibliotekaren arduraduna. Euskaltzaindiaren laguntzaileetarikoa. Idazle ospetsu honek, erdarazko liburu askoren egilea bada ere, euskaraz ere maiz idazten zuen, batez ere bere azken urteetan. Bere euskarazko artikulak «Argia», «Yakintza», «El Día», «Zeruko Argia», «Egan», «Aránzazu» eta «Hoya del Lunes» Donostiakoan ikusi dute argia. Eta Donostia bertako «La Voz de Gipúzcoa» izeneko radiotik euskarazko emizioak ematen zituen.

El Gran Asombro liburuaren hitzaurrean ber-berak dionez: «Los elogios de los actos necrológicos se pronuncian y luego se pierden». Eta, guk, honegatik, bere bizitza eta lanen iturriak soilki eman nahi ditugu hemen, aipamen hutsez, estudioak egin nahi diuenei nora jo jakin ahal izateko bezala.

Hauek dira erdaraz idatzi dituen liburuak: *Una inquietud y cuatro preguntas*, 1934; *San Ignacio de Loyola*, 1941 (bigarren argitalpena, 1947); *Elcano*, 1942 (bigarrenez, 1969); *Urdaneta*, 1943 (bigarrenez, 1968); *Mi Guipúzcoa*, 1946; *Legazpi*, 1947; *Caminando*, 1947; *Mi viaje diario*, 1947; *San Francisco Javier*, 1951; *Lope de Aguirre, traidor*, 1951; *La paz de mi lámpara*, 1953; *Vida de Jesús*, 1953; *¡Portar bien...!*, 1957; *Saint-Cyran*, 1959 (bigarrenez, 1961); *Cuatro relatos*, 1960; *Camino y horizonte*, 1960;

Lavigérie, 1963; *Siluetas y recuerdos*, 1964; *Rectificaciones y añadidos*, 1965; *Discusión en Bidartea*, 1967; *De Berceo a Carlos Santamaria*, 1968; *Canto a Marichu*, 1970; *El abrazo de los muertos*, 1970; eta *El Gran Asombro*, 1971. Bigarrenez argitaratu diren liburu guziak zuzenketa eta gehigarriekin daude. Liburu guziok Euskal Herriko bizitzari loturik daude, historia, kultura, prolemak eta abar. Beretako batzuk hizkuntza hauetara itzuliak izan dira: portugesea, frantseзера, ingleseza, neerlandesera, alemanera eta euskara. Argitaratu gabe gelditu diren lanen artean, *Un vasco en la postguerra* da, 1939-1966 urteetako egunkari bezala, lehenago gudateari buruz *El abrazo de los muertos* (1936-1939 urteetako egunkaria) idatzi zuenaren jarraipen bezala. Erdarazko aldizkari askotan idatzi zuen, baina batez ere «La Voz de España» egunkarian eta «Boletín de la R. S. V. A. P.» aldizkarian.

Euskaldun fueristak izenez zenbait artikulua argitaratu zituen «Zeruko Argia»n, eta berak behin esan zidanez, liburu bat hornitu nahi omen zuen gai hontaz, euskaraz. Baina ez zen heldu burutzero. Behar bada bere paperen artean izango dira hortaz lan gehiago. Gainerako euskarazko lanak aski maxkalak izan dira.

Behar bada, euskara eta euskal kulturaren alde egin zuen lanik hoberenetakoa izan zen Gipuzkoako Diputazioaren liburutegitik guztioi eman zigun laguntza, zeren borondaterik hoberenakin laguntzen zien bertara galdezka edo ikerketara joaten ziren guztiei. Beti egoen laguntzeko prest, bideak idekitzen, ageri edo liburu zaharrak bilatzen, eta argitaratzen ziren euskarazko liburu guziak bibliotekara pilatzen. Hauetan laguntza izan genuenok inoiz ez dugu behar haina eskertuko bihotz handi eta borondate handiagoa zuen gizon hau.

Bere heriotza, modu batera edo bestera, denok sentitu genuen. Dolumina Euskal Herri guzian zabaldu zen, eta hileta garaiko egunkari guziak agertu zuten sentipen hau. Hemen ere, bere ezagupidearen argi bidez, gizona barneragotik ezagutu nahi dutenentzako, adibiderik aipagarrienak agertu nahi genituzke, eta hil ondorengo egunkariez aparte, batzuen aipamena dakarkigu: «Zeruko Argia» (448 zenbakia, 1971eko urriaren 3koa), «Boletín de la R. S. V. A. P.» (XXVII, 1971, 360/362 orr.), «Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos» (XXII, 1971, 170/175 orr.).

G. B.

J. S. M.

Oharra: EUSKERA hau inprimerian delarik agertu da *Canto a Joxe* (Publicaciones del «Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra», núm. 3. San Sebastián, 1972) izeneko bilduma liburua. Joxe Artetxe zenari buruz heriotza ondorean agertu ziren lanik gehienak jasotzen dituen.

JOSE LUIS JAUREGI ETXENAGUSIA (1896-1971)

1971eko urtarrilaren 2an hil zen Zarautzen J. L. Jauregi. Errendieran sortua zen 1896ko ekainaren 19an.

Apaiza eta Euskaltzaindiaren laguntzailea. «Jautarkol»ez (Jauregi'tar Koldobika) kasik ezagunagoa genuen. Ipuin idazlea, bere «Egizko edertasuna» izeneko ipuina Euskaltzaindiak saritu zuen 1923an. Olerkari lirikoa, Euskaltzaleak elkarteak antolatzen zituen olerki sariketetan parte hartzen zuena. «Euskal-Esnalea», «Argia», «Yakintza», «Euzko-gogo» aldizkarietan kolaboratu zuen.

Bere liburuak: *Egizko edertasuna* (Bermeo 1923), *Ipuiak* (Donostia, 1924), bigarren agerraldia Zarautzen 1953an, baina, lehenengoak «Erein maitasunez» du bigarrenak ez duena eta honek «Andre Joxepantoni» du aurrezkoan agertzen ez den ipuina; olerki bilduma, *Biozkadak* (Iruña, 1929); saiakera, *Xenpelar bertsolaria* (Zarautz, 1958); eta Camilo José Cela-ren *Paskual Duarte'ren sendia* (Zarautz, 1967) euskaraturik argitaratu zuen.

José de Arteche zenak, *Caminando* (1947) liburuaren 57/61 orrialdeetan «El poeta de Machinventa» izenez goraipatu zuen olerkari bezala.

Bere lumaz, lan pizkarriak eskaini zizkion euskarari, baina batez ere mende honen lehen partean gure literatur bizkortze ekintza lanetan jardun ziren haietako bat genuen. G. B.

J. S. M.

AURKIBIDEA 1972

<i>Hans G. Mukarovsky</i> - EL VASCUENCE Y EL BEREBER	5
<i>Justo Gárate</i> - XII CONTRIBUCION AL DICCIONARIO VASCO.	51

GAI LABURRAK

<i>Txomin Peillen</i> - AZKUREN IZTEGIRAKO BURUXKA BATZUK	87
<i>Piarres Lafitte</i> - GIBELKA ERATORRI HITZ BATZUEZ	91
<i>Intzar-Damaso</i> - ESAERA ZAARRAK	94
<i>Lekuona-tar Manuel-ek</i> - "AMANTETIK" AL DATOR "MAITE"	97
<i>Justo Gárate</i> - EL LINGÜISTA LENIZTAR FRAY MELCHOR DE OYANGUREN	99
<i>Etxaburu-tar J. M.</i> - FRASES ONDARRESAS	104
<i>Etxaburu-tar J. M.</i> - PALABRAS ONDARRESAS	111

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

<i>Sarrera</i>	121
<i>Gasteizko batzarrean Lekuona jaunak egindako hitzaldia</i>	122

Beskoitzeko hitzaldiak

<i>Eyerabide jaunarena</i>	127
<i>Euskaltzainburu jaunarena</i>	128
<i>A. Lino Akesolorena</i>	132
<i>Piarres Lafitterena</i>	143
<i>René Lafonena</i>	148

Aramaioko hitzaldiak

Euskaltzainbuarena	154
Patxi Uribarrenena	157
Idatzarauak	168
Idatzarauetazko batzordearen berriztatzea	174

Arautegia

araudi berriztatua euskaltzainei aurkeztekoan	178
araudi berria egiteko zer prozedura segitu den	183
euskaltzainei egindako eskutitza Arautegiaren birretsia eskatuz	186
Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca	190
Euskaltzaindiaren Arautegia	198
Statuts de l'Académie de la Langue Basque	206
batzordeak "gestio" batzuk egin ditzan	214
Haritschelhar jauna batzar moderatzaile	215
"Domingo Agirre" sariketa	216
Alfabetatze batzordearen oinarri arauak	218
Euskal irakasle titulua	220
Batzar-agiriak	225

BERRIAK

Leizarragaren omenezko jaialdia eta biltzar idekia Beskoitzen ...	283
Hil berriak	285